Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

4. *Gratien Adema.* Zaldubi
Artzain beltxaren neurtitzak. 2008

5. *Antonio Arrue*
Idaztiak & Hitzaldiak. 2008

6. *Domingo Agirre*
Gutun bilduma. 2008

7. *Txomin Peillen Karrikaburu*
Biziaren Hiztegia. 2009

8. *Gorka Aulestia*
Estigmatizados por la guerra. 2009

9. *Jean-Louis Davant*
Zuberoako literaturaz. 2009

10. *Gratien Adema.* Zaldubi
Kantikak. 2009

11. *Santiago Ezkerra Beltza.* Lizarrusti
Bizitza eta lanak. 2009

12. *Gratien Adema.* Zaldubi
Prediku Zenbait. 2009

13. *Martin Maister*
Jesü Kristen imitazionea. 2010

14. *Gorka Aulestia*
Escritores euskéricos contemporáneos. 2011

15. *Gratien Adema.* Zaldubi
Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011

16. *Gratien Adema.* Zaldubi
Bertze prediku batzuk. 2011

17. *Junes Casenave-Harigile*
Xiberoko antzertia edo pastorala. 2011

18. *Txomin Peillen Karrikaburu*
Jon Mirande, olerkaria. 2012

19. *Jean-Louis Davant*
Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012

20. *Gratien Adema.* Zaldubi
Gaineratekoen bilduma. 2012

21. *Ernest Daudet*
Amodiaren Martirra. 2013

22. *Jean-Baptiste Coyos*
Zubererarazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013

23. *Pierre Charritton*
Le fondement moral des droits culturels de l'homme. (kultura eskubideen oinarri etikoak). 2013

24. *Pierre Dourisboure*
Bahnar deitu salbaiak. 2014

25. *Mongongo Dassanza*
Albaitaritzako idazlanak (1692-1892). 2014

26. *Ignazio Omaetxebarria*
Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca. 2016

27. *Resurreccion Maria Azkue*
Ardi galdua. 2018

Euskaltzainak izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.

100 EUSKARA EHUNTZEN
euskaltzaindia

Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

9 788494 848995

27

RESURRECCION MARIA AZKUE

ARDI GALDUA

ARDI GALDUA

Paratzaileak: Elixabete Perez Gaztelu
Ana Toledo Lezeta



EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA



ANA M. TOLEDO LEZETA (Antzuola, 1954).
Euskal Filologian doktore, 1993az gero Deustuko Unibertsitateko irakasle titularra da eta 2005az gero euskaltzain oso. Irakaskuntzan nahiz ikerketan Euskal Literatura jorratu du, bereziki kontakizunaren alorra. Bere azterlanen artean *Domingo Agirre: euskal elberriaren sorrera* (1989) nabarmendu daiteke.



ELIXABETE PEREZ GAZTELU (Errenteria, 1961).
Euskal Filologian doktorea eta Deustuko Unibertsitateko irakasle titularra (2002). Euskaltzain urgazlea (2006). Irakaskuntzan eta ikerketan Lexikologia eta hizkuntzen erabilera komunikazioan ditu langai. Bere lanen artean, aipatzekoak dira doktore tesian oinarritutako *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitatea* (1995) eta *Hitz elkarketa/2* (Miren Azkaratekin batera) (2014).

RESURRECCION MARIA AZKUE

ARDI GALDUA

Argitalpen honen fitxa katalografikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Biblio - tekako katalogoan:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

"Ardi galdua 2018an, Arantzazutik igarota. Aitzinsolas moduan" eta "Gutun-eleberria kode bateratua erakusteko" atalen hizkuntza-orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA).

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Imprimatzea: Tecnigraf, S.A.L.

ISBN: 978-84-948489-9-5
Lege-gordailua: BI-1908-2018

RESURRECCION MARIA AZKUE

ARDI GALDUA

Paratzaileak: Elixabete Perez Gaztelu, Ana M. Toledo Lezeta

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2018

AURKIBIDEA

Ardi galdua 2018an, Arantzatutik igarota. Aitzinsolas moduan 1
R. M. Azkue kontakizun-egilea 13
Ardi galdua 51

Ardi galdua 2018an, Arantzazutik igarota. Aitzinsolas moduan

> Bere legeak ditu jakite-lanak, lege jakinak eta berberak nonahi. Aurrekoei eraso behar diegu, haien lanak aztertu behar ditugu, ahalik ongien behatzeko, garbitzeko, murrizteko nahiz ugaritzeko. Begiramena zor diegunekin bakarrik egiten dugu lan hori, eta zor diegun begiramenaren arabera. Eta Azkueri adina inor gutxiri zor diogu euskaldunok. Koldo Mitxelena, "Eskeintza" (1965) (Mitxelena, 1984[2], 19).

Resurreccion Maria Azkueren (Lekeitio, 1864 - Bilbo, 1951) *Ardi galdua* lehen aldiz osorik[1] argitaratu zela ehun urte betetzea bada aski arrazoi aurten, 2018an, hizpidean hartzeko. Beste arrazoi batzuen artean, liburuaren eskuragarritasunarena: XXI. mendeko euskal irakurle alfabetatuak ez dauka aise irakurtzeko moduan XX. mende hasiera samarreko euskal nobela edo *gertirudi* (Azkueren modura esanda), *ipuin luze* (Pagola, 1989, 9), kontakizun, *gutun-eleberri* hau (Toledoren hemengo hitzez esanda), orain arte ez baita argitaratu izan euskara batuaren arauen arabera. 1968ko Arantzazuko Biltzarraren ondoko 1989ko Ines Pagolaren edizio xehe eta oharrez ongi hornituak ere, grafia egokitzapen batzuk eta hitzen partiketaz gain, ez zuen askorik aldatu *Ardi galdua*ren jatorrizko itxura[2].

---

[1] 1918an, Jesusen Biotzaren Elaztegian, Bilbon. Osoa argitaratu aurretik "Lenengo ezkutitza" hilabete batzuk lehenago argitaratu zuen (*Euskal-Esnalea*, 8 (1918) 162-165). Edizio horretako liburua ia osorik (18 eta 19. orrialdeak falta ditu) eskura daiteke hemendik: http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/2310. Guk Euskaltzaindiko Azkue bibliotekakoa hartu dugu oinarri.

[2] Argitalpenaren azalpenak (Pagola, 1989, 12, 13).

Hemen bestela egin da. Gaurko idazmoldean emango da, Urgellek, Altunak, Lakarrak eta Sarasolak Euskal Editoreen Elkarteko klasikoen sailerako prestatu zituzten Koldo Mitxelenaren testuak argitaratzeko emandako arrazoi bertsuek bultzatuta:

> Guk etsi-etsian euskara batura aldatu nahi izan ditugu arrazoi hauegatik, besteak beste: bilduma honetako liburuak edizio kritikoa ez direlako […] –eta [irakurle] haiek ez dute errurik duela berrogei urte euskara baturik ez bazen, batetik, eta euskara batuan onduriko irakurgaiak nahiago dituzte egungo egunean, bestetik–, eta euskara batu horren sortzailetzat hein handi batean daukagun Mitxelenak hala nahiago izango zuela uste izan dugulako (Urgell, Altuna, Lakarra, Sarasola, 1988, 13).

Edizio hau ere ez da kritikoa; berrogei urte ez baina ehun urte joanak izateak gehiago indartzen du egokitzeko beharra, eta, Mitxelena bezalaxe, Azkue ere euskara batzearen bultzatzailea eta euskara batu baten, gipuzkera osotuaren, sortzaile izateak ongi baino hobeki justifikatzen du testua eguneratzea, egungo irakurleari irakurketa samurragoa gertatuko bazaio. Azkuek ere ez bide luke begi txarrez ikusiko *Ardi galdua* euskara batuan argitaratzea.

*Ardi galdua*ren lehen argitaraldiaren urte berean, 1918an, hasi zituen bere urratsak Euskaltzaindiak, eta, 1919ko irailaren 11z geroztik, lehen euskaltzainburua R. M. Azkue, hain zuzen ere, izan zuen erakundeak. Jakina da erakundea jaiotzeko bultzagarri nagusia noraezeko premia bati erantzun nahi izateari zor zitzaiola; euskaraz idazteko sistema batu bat eratu behar zen, aspaldi samarreko saioak saio[3], ez baitzegoen idazkera adosturik. Kezka hori, gainera, testuinguru zabalago batean ulertzekoa da: XIX-XX. mendeetako hizkuntza normalizatzeko beharra ez zuten bakarrik sentitu euskararen idazkuntzaz arduratzen zirenek, eskola orokortzeak hizkuntzaren normalizazioaren aldetik zituen eskakizunak oso

[3] Besteak beste, hastapenetako urrats haien berri izateko Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkariaren lehen aleetara jo daiteke; batik bat 1919ko "Euskaltzaindia noiz eta nola geitu zan", *Euskera*, 1 (1919-1920) 35-48.

agerikoak ziren[4] (Kintana, 2008, 375 etab.), eta R. M. Azkuek ere *Ardi galdua*ren bitartez ere beharkizun horiei erantzun nahi izan zien.

Azkueren batasun, estandarizazio asmoa 1918ko *Ardi galdua* baino lehenagokoa da; aurretik ere eginak zituen era bateko eta besteko batasun bideko urratsak (Zuazo, 1988), *Euskal Izkinde*tik hasita (1891). Bere hiztegi handia ere (1905) helburu bererako euskarria zen: "la urgencia de orden práctico de enriquecer y purificar el léxico y capacitar así a la lengua" (Mitxelena, 1984², 26).

Artean termino finkaturik ez zuen gipuzkera osotu edo osatuaren erakustaldi praktikoa da *Ardi galdua*; geroago, 1934-1935ean, argitaratu zuen *gipuzkera osotua*ren formulazio teorikoaren idazteko moduaren erakusgarria.

*Ardi galdua*ren fikzioa Leaburun kokatu bazuen ere, Beterri inguruko hizkera hautatu zuen Azkuek bere eredurako, euskaldun guztientzat ulerterrazena iruditzen zitzaion eta.

> Euskara hilko ez bada, noraezekoa (nahitaezkoa) dugu hizkelgi bati (dialecto bati) euskaldun guztiok errazen ulertzen dugun hizkelgiari, Urumea bazterrekoari, indarra eta kemena ematea (AG, VII. or.[5]).

Erraztasunak erraztasun, gipuzkera osotuak ez zuen lortu euskal idazleen onespen erabatekoa. Hainbat arrazoik eragotzi zuten proposamenaren arrakasta: laguntza eta babes ofizialik eza, hizkuntz eredua behar bezain zehatz arautua ez egotea, literatur tradizioa behar zen neurrian aintzakotzat ez hartzea, (zenbait) idazle giputzen jarrera "txokozalea" aipatzen ditu Zuazok (1989, 267). Mitxelenak ere (1978, 79; 1987, 79) idazleen jarrera aipatzen du ereduaren arrakasta faltaren argibidean: eredua ezagutu ere ez zuten batzuek, beste batzuk beren buruak Azkueren segizioko aitortu arren, aritzean Azkueren "legeen" kontra

---

[4] "Imitación de lenguas cultas unificadas" du izena Azkueren *Gipuzkera osotua* laneko VIII. atalak (Azkue, 1934-1935).

[5] Orrialdea 1918ko ediziokoa da. Hemen 56. eta 57. orrialdeetan.

aritu ziren eta abar[6]. 1936-1939ko gerrateak eta gerraosteak ere ez zuten lagundu ez eredu hau ez besterik gauzatzen.

Gaiari berriz heldu ziotenean, batasungileek ez zuten gipuzkera osotua aukeren artean sumatu (Mitxelena, 1978, 169). Labur esan, Euskal Idazkaritzak Baionan 1964an proposatua (*idazkera, deklinazioa, aditza*)[7] eta Arantzazuko Biltzarrean 1968an onartu eta hedatua (Mitxelena, 1968) ez zen itsu-itsuan oinarritu gipuzkera osotuan, baina, Mitxelenaren ustez behintzat, horrenbesteko aldea ere ez zegoen Azkueren proposamenaren eta gero nagusitu zenaren artean. Aldeak, funtsean, *h* letrari, bustidurari eta adizki laguntzaileen sistemari zegozkien. Baina, nolanahi dela ere, Azkuek lexikoan eta gramatikagintzan bildu eta landutakoa ezin utzizkoa zen euskara batuaren osaeran.

> Y, por lo que toca a la fijación y unificación de la lengua literaria, objeto primordial de toda la labor de Azkue, es posible que no se hayan seguido por entero las líneas que él eligió; el modelo, en todos los detalles, de su *Gipuzkera osotua.* Pero, sea cual fuere la orientación y el destino de estas tentativas, hay algo que es seguro: que tendrán que fundarse en las inmensas colecciones de material que él nos legó, en el léxico y en la gramática (Mitxelena, 1984², 39).

Aurkezten ari garen lan honek, hortaz, lehen euskaltzainburu Resurreccion Maria Azkueren omenaldia izan nahiko luke; zor diogunaren aringarria: XXI. mendeko irakurlearentzako eskuraerrazago eta irakurterrazago moldatua eta "R.M. Azkue kontakizun-egilea" *Ardi galdua*ren ikerketa, irakurketa berria duena.

Editatzeko irizpideak

Bi testu topatuko ditu irakurleak ezker-eskuin: Azkueren 1918ko jatorrizkoa, ezkerraldean, oso-osorik, faksimile moduan, eta edizio

---

[6] R. M. Azkueren gainekoak Koldo Mitxelenaren lanetan aztertuak: Perez Gaztelu, 1995, 121-200.
[7] "Baionako Biltzarraren erabakiak", *Jakin* (1965) 20-28.

gaurkotua eskuinaldean. Horrela egitera deliberatu gara irakurleak bi aldaerak begiztatu ahal izan ditzan, lan handirik hartu gabe.

Oinarri hartu dugun Azkueren 1918ko argitalpenak, liburuak berak, badu berezitasunik, testu idatzian irudiak (A. Guezalaren eta R. Rochelten *edergarriak*) eta pentagramak (Azkueren musikazaletasun ezkutaezinaren seinalea[8]) ere tartekatzen baititu.

Testu irakurgaia eskaintzak, "Irakurleari" hutsen bilduma eta edizio argibideen atalak, hamahiru eskutitzek, lanaren buruko "Gehigarriak" (glosategi antzekoak) eta *edirengua*k —aurkibideak, alegia— osatzen dute. Testu oso-osoan itsasten ditu Azkuek (bere eskuz, zuzenean, edo pertsonaiaren baten bidez) oin-oharrak eta/edo gehigarrira igortzen duten testuko markak (izartxoak); baita gehigarrian eta aurkibidean ere.

"Irakurleari" izeneko atalean Azkuek lehen oharrean eskatzen dituen zuzenketak eginak ditu edizio honek; adib. *arrozku*-ren ordez *arroztegi* erabiltzeko dio eta hala egina dago; horrexegatik ez da hemen hutsen zerrenda berriz jaso. Atal bereko 2. eta 3. oharrak, berriz, beste era batekoak direnez gero, hona aldatu ditugu. Bidenabar esan dezagun 3. oharrak argi ispilatzen duela Azkue herri jakintzaren biltzailearen jokamolde garbizalea: "Herriak beste ele erdal usaindunez estalita jakinarazi zidan ["Arantzazu aldean izar bat da ageri" kanta]"[9].

---

[8] Kantuetako hitzak letraldatu ditugu Alberdiren (2009) lanaren arabera.

[9] Garbizaletasuna ez zegokion bakarrik hizkuntzari. *Cancionero Popular Vasco*n lekuko franko dago. Hona batzuk, Azkueren aitortza dutela: "*Ardo onak, ardo onak / emateizkit indarrak, / ardo onak, ardo onak / kentzen min ondarrak / Miarritzen neskato erdaldunik gutixko / batailun bat balitzake / Bordelera yoaiteko*". De Luis del Puerto, gipuzkoano que pasó años en Ziburu (L); de donde procede la canción. Por *erdaldunik* tenía el original un vocablo impresentable" (Azkue, 1990[3], 149).

"*Hoberetsi* y *gaineratu* se han puesto en substitución de *preferatu* y *kargatu*" (Azkue, 1990[3], 496); "En el *Cancionero Selecto*, pág. 3, se puso *Goizuetan da gizon zakar bat* en lugar de *Goizuetan bada gizon bat*, que es verso corto. También se corrigieron *biotza paltso* por *biotza gaizto*, y *sekula* por *bein ere*, como también *dilijentziak* por *asimasiak*" (Azkue, 1990[3], 510).

["Artamendiko"] "La cantó Luis del Puerto, de Rentería (G), con letra muy diferente a aquélla. Fué esta que sigue […] ¿Qué había de hacer el folklorista sino raer tales esperpentos, por lo menos en el *Cancionero Selecto*?" (Azkue, 1990[3], 577, 578).

Azkuek testua gisa horretan antolatzeak (batez ere oin-oharrek eta gehigarriko informazioak) editoreei ezinbestean dakarkie irtenbideak bilatu behar izatea. Irakurlearentzat testu argiagoa egiteko asmoz koloreez baliatu gara. Jatorrizko testuko oin-oharrak urdinez ipini ditugu eta gureak beltzez. Oin-oharrak erantsi ditugu uste izan dugunean gaurko irakurleak informazioa behar zuela, batik bat, Azkuek darabilen hitzaren esanahia iluna, ezezaguna, gerta zekiokeela pentsatu dugunean; esaterako, *joran* hitzari (53. or.[10]) oin-ohar bat lotu diogu 'gogo', 'nahi bizia' dela argitzeko. Azalpen-argibideok *Euskaltzaindiaren Hizteg*itik eta *Orotariko Euskal Hizteg*itik hartu ditugu[11].

Kolore bereizkuntza berari eutsi diogu testuko ohar eta gehigarriko dei-zenbakietan ere. Azkueren liburuko hitz izartxodunak, hobeto esan, izartxoa zuten hitzak (gehigarrian argibidea dutela markatutako hitzak) guk izartxoa kendu eta urdinez paratu ditugu.

Ikusiko den moduan, izartxoa hitz bakarraren gainean jarri zuen Azkuek, baina izartxoak "besarkatzen" duena, horrela esatea badago, hitz bakarra baino segmentu luzeagoa izan daiteke. Esate baterako, juju* (124. or.) MUTTUR-OKER, TTOTTA eta JUJU osoari dagokionez gero, horrelakoxea da, osoa, gehigarriko sarrera. Horrexegatik urdindu dugu guztia. Hortaz, irakurleak bi koloreko testua edukiko du eskuinaldeko testu eguneratuan: beltza eta urdina.

Argitalpenaren helburua gaurko euskal irakurlearentzako moduko testua ekoiztea izaki, Euskaltzaindiaren arau-gomendioen arabera egokitu dugu grafia, lexikoa, adizki (batez ere) laguntzailearen sistema, postposizio- (demagun, *-rantz*) eta kasu- (ergatibo pluraleko *-ek*) atzizkiak, eta abar.

Arestian esan bezala, irakurleak eskura dauzka aldaketa-egokitzapenen berri zehatza jakiteko bi edizioetako testuak, orrialdeak ezker-

(10) Zehaztu ezean, orrialdeen zenbakiak edizio gaurkotuari dagozkio.

(11) 2018ko urriaren 5ean, Arantzazun, aurkeztu zen web berrituaren aurreko aldaerak baliatu ziren edizio honetarako. Ez bide dago irizpide lexikografikoetan alderik.

eskuin, alderatuta. Xehetasunetan sartu gabe, baina, ohar batzuk egin nahi ditugu.

Alderdi agerikoenean, ortografian, azpimarratu nahi dugu Azkue gipuzkera osotuaren sortzaileak *h* letrari ez ziola muzin egin; bi hitzetan erabili behar dela dio: *hura* erakuslea (edateko *ur*-etik bereizteko) eta salaren (egongelaren) sinonimotzat daukan *hari* izena idazteko.

Tileta duten bokal batzuk bere horretan utzi ditugu, Azkuek balio prosodikoa islatzeko erabili bide ditu eta: "edo berak, elizan ari denean, esango lukeenez «eztía bezáin gozóa»" (322. or.). Era berean, Azkuek gipuzkeraren ahoskeraren berri eman nahi duenean (gehigarrian) darabiltzan grafiak (*egiña*…) bere horretan utzi ditugu ahoskeraren isla izan nahi dutelako, hain zuzen. Gisa horretan, *Wassington* grafiari ere bere horretan eutsi diogu, eguneratu gabe[12], Azkueren azalpenak funtsa galduko zuen eta: "*Wassington*, guk ez *W*rik, ez *ss*rik ezta *gt*rik ere izan ez arren, ez dugu *Basinton* idatzi behar" (348. or.).

Testu oso-osoa, hainbestetan txertatzen dituen parentesi arteko hitzak eta gehigarria barne, egokitu dugu euskara batu estandar idatziaren moldera (konparazio baterako, parentesi arteko hitzetan[13] gisa honetako aldaketak egin ditugu: (periodiku) → (periodiko) (252. or.), (eskrupulo) → (eskrupulu) (294. or.)…), eta horrek ekarri du tarteka oin-

---

[12] Alegia, bestetan egin dugunean ez bezala. Esate baterako, Bidasoatik → Bidasotik, *California* → Kalifornia… bihurtu ditugu, Euskaltzaindiaren Onomastikaren gaineko arauetan eta *Berri*aren *Estilo liburua*n oinarrituta.

[13] Esan dezagun, bidenabar, testuko hitzen, eta hitz horien argibidea diren parentesi artekoen (oinoharretakoen eta gehigarrikoen) arteko konparazioa egitea hagitz argigarria dela jabetzeko Azkueren hizkuntza-irizpideez, garbizaletasun "mailaz", euskararen eta erdararen arteko harremanez eta bestez. Besteak beste, ohartuko ginateke *liburu, kanta, kantatu, kantalari, kanpo* hitzak baino nahiago dituela *gutun* (gehigarriko azalpenaren arabera, "Erdarazko «libro» bezala esan ohi zuten euskaltzale **zahar** askok" [letra lodia gurea]), *oihukari, oihukatu, oihulari, at… Lekaime, durundalari, oski* nahiago *moja, musiko, sandalia* baino eta abar. Azkueren helburu didaktikoaz eta lexikoa aberastu nahi izateaz ere ohartuko ginateke, euskalkietako hitzak elkarren ondoan jartzean (gipuzkera osatuz): *garranga (amua); beitatzat (amuzkitzat), artzaintza (artzaingoa)*… Baita, garbizalea izanik ere, erdal hitza jasotzeko beharraz, irakurleak ulertuko bazuen: *ikasgu (colegio), hizkelgi (dialecto), arroztegi (hotel), otarrain (langosta), elizgela (sakristia)*…

Garbizaletasunarekin batean ez litzateke zokoratu beharko Azkueren helburua: euskarak beste maila bat erdiestea, euskarak goi mailako erregistroa landu eta lortzea.

ohar batzuk erantsi behar izatea, egungo idazmoldea eta Azkuerena oso gertukoak ez direnean batez ere. Demagun, *una* (56 or.) *guna* aldatu dugu. EHk ez *un*, ez *hun*-ik ez dauka, baina OEHk *hun*-etik *gun*era igortzen duela eta, horixe jo dugu begiz. Oin-oharrean azalpena eman dugu.

1918ko edizioko gehigarriko hitzen ordena aldatu behar izan dugu, alfabetoaren hurrenkerak aginduta, oraingo irakurlearentzako informazioa da eta. Edizio berriko eta jatorrizko edizioko hitzen forma bat ez datozenean, idazkera berriko hiztegi-sarreraren ondoan jatorrizkoa alboratu diogu, parentesi luzeen artean. Adib. BEREIN [BEREDIN], IRARRI [ERARRI] etab. *H* letra hasieran dutenei ez diegu halako oharrik ipini.

Puntuazioa dela eta, argibide batzuk eman beharrean gara. Harridura eta galdera ikur hasierakoak ezabatu ditugu, baina bere horretan utzi ditugu bukaerako ikur bikoitzak: "Uf !! *Tout le monde a deux patries*" (52. or.). Komak ez ditugu ukitu, oro har, baina bakarren bat erantsi dugu, batik bat hasierako ikurren bat kentzean: «¡Beizamara! esan zenidan ¡Beizamara!» (52. or.) → «Beizamara! esan zenidan, Beizamara!». Puntuak ere ez ditugu ukitu, izenburuetako, harridura eta galdera marken ondoko, eta amaierako aipu marken aurreko puntuak izan ezik. Horiek kendu ditugu, egungo ortotipografia usadioetan oinarrituta[14].

Esan bezala, testua eguneratzeko iparrorratza *Euskaltzaindiaren Hiztegia* izan dugu buruen-buruenik. Hiztegi horretan hobetsia hobetsi dugu hemen. Adibideen bitartez adieraziko dugu nola jokatu dugun, irakurleari argiago gertatuko zaiolakoan.

Azkuek *aitatu* erabili du eta guk ere bere horretan utzi dugu, EHn sarrera baduelako:

aitatu[2], aita, aitatzen *du* ad. Aipatu. [EH]

[14] EIMAko lanen irizpideen arabera jokatu dugu honetan guztian: Mujika (2008), Zubimendi (2004).

Injineru ere EHko hiztegi sarrera "markarik gabea" da. *Ingeniari* dauka definizioaren ordezko, baina beste ñabardurarik ez duenez gero, bere horretan utzi dugu.

injineru iz. Ingeniaria. [EH]

Eta beste horrenbeste egin dugu, *txekor* eta beste hitz batzuekin.

Alfer idatzi dugu, ordea, Azkuek *alper* erabili arren. *Alper* 'nagi' adierakoak ez dauka sarrerarik EHn, *alfer* besterik ez dute jasotzen, eta OEHn ere *alper*-etik *alfer*-era igortzen dute: ***alper.*** v. **alfer.** [OEH]

Bestetik, EHn berariaz gomendatzen bada ordezkoren bat erabiltzeko, gomendatutakoa jaso dugu. Esate baterako, *berein* erabili dugu, nahiz Azkuek *beredin* erabili.

> **beredin** adb. [Oharra: Euskaltzaindiak, *beredin*-ek euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, forma hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. **berein**].[EH]

Batzuetan EHn ez dago hitza eta OEHn bai. Orduan, OEHko forma hartu dugu testurako. Adib. *ertaro, sehaskerri, urezandiko, biurezandiko...* [OEH]

Gerta daiteke hitza EHn jasoa ez egotea eta OEHn bi (edo forma gehiago) jasotzea. Aldaera horietako bat hautatu badute OEHn lema gisa, lema horixe hartu dugu. Adib. *onedatsi* → *onerasi, jaioturitxo* → *jaioti-ritxo...*

Guztiarekin ere, saiatu gara jatorrizko testukoa ahalik eta hurbilena jasotzen.

Arantzazu

Izenburuak iragarri bezala, ardi galdu bat du gai *Ardi galdua*k. Ardi galdua —benetako fede bakarra galdutakoa— berriro artegian sartuko da, eskortara itzuliko da bere jaioterrian Arantzazuko frantziskotarrek emandako misioetan.

Azkuek ezin jakin zezakeen gipuzkera osotuaren erakustaldi *Ardi galdua* argitaratu zuenean, 1918an, Arantzazuk zer garrantzi hartuko zuen handik mende erdira. Ezin jakin zezakeen 1968az geroztik Arantzazu bihurtuko zela euskara batuaren ikurritz. Ez zen biltzar hartan Azkueren batasun-eredua (osorik) gailendu, baina Azkueren metaforak bizirik dirau mendea igarota ere: euskara batuaren urrats sendo eragingarriak Arantzazun egin ziren, Azkuek *Ardi galdua*n gure Jerusalemtzat jotako lekuan. Edizio honetan horixe islatu nahi izan da: Arantzazutik igarotako *Ardi galdua*.

Erreferentzia bibliografikoak

ALBERDI, A., 2009, *Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan*. EIMA-Eusko Jaurlaritza.

AZKUE, R.M., 1905, 1984[2], *Diccionario Vasco-Español-Francés.* Bilbo: Euskaltzaindia.

—1922, 1990[3], *Cancionero Popular Vasco*. Bilbo: Euskaltzaindia.

—1934-1935, *Gipuzkera osotua. Euskera,* 3-4 (1934, uztailla-lotazilla); 1-2 (1935, ilbeltza-garagarrilla), 150-184.

BERRIA. *Estilo liburua*. https://www.berria.eus/estiloliburua/

EUSKALTZAINDIA. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. [EH] https://www.euskaltzaindia.eus

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA. [OEH]. https://www.euskaltzaindia.eus

KINTANA GOIRIENA, J., 2008, *Intelektuala nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra. Iker* 22 (2008). Euskaltzaindia.

MICHELENA, L. Ik. Mitxelena, K.

MITXELENA, K., 1968, "Euskararen batasun bideak" (= "Ortografia"), *Euskera,* 13 (1968) 203-219.

—1970, 1984[2], *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbao 1970, Publicaciones del centro de Estudios Históricos de Vizcaya (Real

Sociedad Vascongada de los Amigos del País) [1984[2]. Azkue, R.M., *Diccionario Vasco-Español-Francés.* Bilbo: Euskaltzaindia]

—1978, "Arantzazutik Bergarara", *Euskera,* 23 (1978) 467-477.

—1987, "Elkarrizketa", *Argia,* 1987/10/18, 44-45. [*Argia Euskal Kulturaren urtekaria. Anuario de la cultura vasca,* 20-32].

MUJIKA, A., 2008, *Letra larriak erabiltzeko irizpideak.* EIMA-Eusko Jaurlaritza.

PAGOLA, I., 1989 (ed.), *Ardi galdua*. Euskal Editoreen Elkartea, Klasikoak 9.

PEREZ GAZTELU, E., 1995, *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitatea*. Errenteria: Errenteriako Udala.

URGELL, B., ALTUNA, P., LAKARRA, J. A., SARASOLA, I., 1988, "Hitz bi", Urgell, B., Altuna, P., Lakarra, J. A., Sarasola, I. (ed.). *Koldo Mitxelena. Euskal idazlan guztiak*: 11-14. Euskal Editoreen Elkartea.

ZUAZO, K., 1989, "Euskara batua: aitzindariak eta beste", *Euskera,* 34 (1989) 255-272.

ZUBIMENDI, J. R., 2004, *Ortotipografia*. EIMA-Eusko Jaurlaritza.

Elixabete Perez Gaztelu, Ana M. Toledo Lezeta
Euskaltzaindia-Deustuko Unibertsitatea

R. M. Azkue kontakizun-egilea

*Ardi galdua*ri heldu aitzin, hitz bi Resurreccion Maria Azkuek (Lekeitio, 1864 – Bilbo, 1951) ondutako kontakizunez. Azterlari gisa obra erraldoia burutzeaz bestalde, irudimena jaioleku dituztenak ere jorratu zituen. Letra soila erabiltzen dutenez gain, letra eta musika uztartzen dituztenak, nahiz eta kontakizuna gune izateagatik, musikatutako idazlanok jardun honetatik kanpo utzi.

Hizkuntzaren alorrean mamitutako lanarengatik ospetsuagoa izan arren, kontakizunaren eremuan ere aitortu behar zaio ekarriren bat: ondoko lerroetan agertuko da, nola testuon osagaietan, hala ezagutarazte-kontuetan, badirela gorabehera batzuk, bereak eta bereak bakarrik direnak.

Hasteko, Azkueren *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko* (1893) liburu gisa argitaratutako aurreneko euskal kontakizuna da. Jakin badakigu, J. Perez de Lazarragak XVI. mendean idatzitako eskuizkribuaren aurkikuntza XXI. mendekoa dela, baita XIX. mendean Azkuerena baino lehenago beste kontakizun batzuk plazaratu zirela ere. Zehazki, bi: J. B. Daskonagerreren *Atheka gaitzeko oihartzunak* (1870) eta A. Apaolazaren *Pachicu Cherren* (1890), baina ez ziren euskaraz sortutakoak. Bata, egileak frantsesez moldatutako *Les échos du Pas de Roland*en (1868) itzulpena da; bestea, Apaolazak A. de Truebaren *El Judas de la casa*tik egindako egokitzapena. Aipatutakoez gainera, bada jatorriz euskaraz idatzitako kontakizun bat, jada liburu moduan jendarteratutakoa, ez horratik bere lehen edizioan, ordurako, emanaldika argia ikusita baitzeukan: J. B. Elizanbururen *Piarres Adame* (1888), aldizkaritik[1] liburura eramandakoa da.

---

[1] 1886an bosgarren kapituluraino *La Nivelle*n, gero *Le Reveil Basque*n.

J. Duvoisinek 1832an bildutako ipuinei dagokienez, *Baigorriko zazpi liliak* (1884-1885) emanaldika[2] argitaratu eta gero, liburura ez da igaroko 1987 arte. XIX. mendearen hondarretik XX.aren bigarren erdi arte emanaldikako argitalpenak jarraipena izango du. D. Agirrek, amaitu zituen hiru eleberriak horrela aurkeztu ostean[3], laster batean lortu zuen liburu bilakatzea, ez beste batzuek, J. P. Iratcheten *Antton* (1946)[4] 1990ean jasoko du liburu batek, eta bada inoiz liburu baten jabe egin ez denik ere: Mendi-Lautaren *Loretxo* (1937), adibidez.

Emanalditik liburura iristen diren kontakizunon aurrean, *Bein da betiko*k kontrako bidea egin zuen. Nahi besteko zabalpenik izan ez duelako liburutik aldizkarira eroandakoa (*Euskalzale*, II, 1898), ez da zentzu hertsian berrargitalpena[5]. Lekeition entzundako legenda bat langai duen *Bein da betiko* kontakizun labur samarra da. Horregatik, edo jakinarazi gabeko arrazoiengatik, euskalkiaren bi aldaeretan eman zuen istorioa liburuan: ezkerreko orrian "Bizkai guztiko izkera edo berbeta bat" (Azkue, 1893, 102) erabiliz eta, eskuinekoan, Lekeitiokoa. *Euskalzale*rako aldaera bat kenduz, bakarrari eutsi zion.

Ez zuen Azkuek eskarmentu handirik kontakizunean lehenbiziko liburu honi heldu zionean: *El Vasco* egunkariaren *Apis* eranskinean (1888) eta, ondoren, *La Abeja* hilabetekariak (1889-1890) iraun zuen bitartean emanaldika berrargitaratuz joan zen "Peru Matraka ta Pedr'anton". 1888ko argitalpenetik berrargitalpenera izena goitizenarengatik aldatzen du: Ezti-Abauak-ek izenpetzen du *La Abeja*koa. Kontakizun honi 1888an bertan Bizkaiko Institutuan kokatuko zen Euskal Katedrarako eskariarekin batera bidaltzen duen "Grankanton arrantsaleak" gehitzen

---

(2) Pariseko *Revue des Bassses-Pyrénées et des Landes*en.

(3) Hurrenez hurren *Euskalzale* (1898), *Euskal-Erria* (1901-1905) eta *RIEV*en (1907-1912).

(4) 1946ko urtarrilaren 24tik abuztuaren 4ra arte *Herria* aldizkariak ezagutarazitako kontakizuna.

(5) "Oraintxe sei urte argitaraturiko irakurgei txiki au asko zabaldu eztalako, bigarrenez erakutsi nai dogu orri onen artean". *Euskalzale*, II, 1898, 276. Arana Martijak *Bein da betiko*ren edizioa 500 ale arrunt eta 30 berezikoa izan zela zehazten du.

dio. Arana Martijak "arrarotzat" (1988, 370) jotzen du Euskal Katedrarako eskariari kaleratuta zeukan "Peru Matraka ta Pedr'anton" eratxiki ordez berri bat egitea; hori bezain harrigarria izan daiteke hain berea zuen *Euskalzale*n (1897-1899) ez argitaratu izana, batzuetan aleak osatzeko justu samar zebilenean eta, anonimatuan ezkutatuz, "Batxi Guzur" edo "Kristobal andia" kontakizunak agertu zituenean. "Grankanton arrantsaleak"(6), haatik, Azkuek eskuizkribu hutsean utzi zuen.

Kontakizunaren barrutian *Ardi galdua* (1918) da plazaratzen duen bigarren liburua. Lekeitioko aldaerari Bizkaia guztikoa batzen zion *Bein da betiko*ren ostean dator gipuzkera osotuan moldatutakoa, euskara batuaren eredua erakustea xede zuena.

Bere kontakizunik luzeena, berez, neurriaren ikuspuntutik, eleberriari egotzi izan zaion gutxieneko hitz-kopuruaren mugak nabarmen gainditzen dituen *Latsibi,* ez zuen argitaratu: 1989an ikusi zuen argia. Edizioa aurkeztean L. Villasantek *Ardi galdua* baino zaharragotzat dauka, gerora ukituak edo zuzenketak egin izana baztertu barik. Bizkaiera baliatu izana du arrazoi nagusi:

> Azkuek, bere bizitzako lehen aldian, bizkaieraz idazten zuen. Gero –baina aski goiz– euskararen batasunaren kezka sartzen zaio, eta berak amets duen batasun-suerte horretan idatziko du (Villasante, 1989, XII).

Alabaina, aurrerago aztertu eta ezagutarazi diren dokumentuek besterik diote: 1918. urte aldera ekin ziola eta hurrengoan bukatuta zeukala, nahiz eta ondoko urteetan ukituz jarraitu (Kintana, 2008, 303).

Hona Azkue kontalariak osatutakoa. Atzenetik hasita, eleberri bat eta laburragoak diren kontakizun batzuk. Horien artean, kontalaria ezabatu eta gutuna(7) erabiliz burututako *Ardi galdua*. Baliabide hau hautatu zuen bere "batasun-suerte" hori azaleratzeko: gipuzkera osotua.

---

(6) Arana Martijak argitaratzen du eskuizkribuaren faksimilea, *Euskera,* 1988, XXXIII, 379-389. Argitalpena, *Idatz* & *Mintz*, 1991, 21, 4-6.

(7) *Ardi galdua*ri erantsi zion "gehigarrian" "liburu"-ren ordezkotzat jotzen du. Hemen, egungo erabilerari eutsiz, "eskutitz" hitzaren sinonimo moduan erabiliko da.

Guztiak lotzen ditu fikzioaren erresumakoak izateak. Erresuma honetara igarotzean, Azkue ez da asko eraldatzen. Irudimena hauspo duenean ere, bizitza errealeko zaletasunak gain-gainean dauzka. Hezurharagizko Azkueren arreta guneetatik, gutxienez, bi isurtzen ditu sorkariotan: hizkuntza eta musika. Fikzioan kokatzen denean ere, ezin ditu pentagrama eta ohar linguistikoak alde batera laga.

"Musika zen Azkueren egiazko pasioa, ez literatura", dio Kintanak (2008, 299), "Euskara eta musika izan ziren, dakigunez, Azkueren ardurak bizi guztian zehar", Arana Martijak (1988, 375). Bere pasioaren eta arduren menpe jartzen ditu fikzioaren alorrean egin zituen ekarriak.

1. *Ardi galdua*: gutun-eleberria kode bateratua erakusteko

Kode bateratua egikaritzeko fikziora jotzen du, gutuna lan-tresna bihurtuz. Sacramenton (Kalifornian) 1887an datatzen da lehena; 1901ean Leaburun, hamahirugarrena, azkena. Eskutitz bidezko harremanean, gutun-egileek kontatutakoek istorio baten berri ematen dute.

Emeterio Olazarreta da gutun-eleberriko pertsonaia nagusia, izenburuak iragarritako ardi galdua, hain zuzen. Emaztearen heriotzaren ondoren, amaginarrebak haren ahizpa Isabelekin ezkontzeko eskatuko dio. Ezezkoarekin eguzkirik gabeko egunak iritsi izanagatik, Kaliforniara abiatzen da, seme Leon Leaburun utziz familia politikoaren gobernupean. Han fede-harroinak galdu eta, behin betiko itzuleraren ostean frantziskotarrek predikatutako misioetan lehengo fedea berreskuratuko du.

Emeterio nahiz Medel izendatzen den pertsonaiaren fede-aldaketa da oztopoa sorrarazten duena, ez berari, seme Leoni baizik, apaiztearekin batera eragozpenak gaineratzen zaizkiolako. Trabok desagertuko dira galdutako ardia berriro artegian sartzean, benetako fedea berraurkitzean.

Fikzioaz eta honen barnean, zehazki, gutunaz baliatzen da asmo linguistiko bati erantzuteko. Beste kontakizunek ez zuten zeregina du: egokientzat dakusan kode bateratua erakutsi, eta, horrenbestez, eskakizun berriak, batez ere hartzaile jakina erakartzeari begira: euskara eguneratzeko, ortografia batzeko eta abarretarako berarekin bat ez zetozenak ere ezin zituen gutxietsi. Hitz batean, beste kontakizunek ez zeramaten zama daroa, preseski, gakoa beste nonbait zeukalako: konbentzitzean. Euskara batzeko osatu duen proposamena hobetsi behar zioten, iraganeko alferrikako ahaleginak behingoz gainditzeko.

Hortaz, euskara agonia egoeratik atera gura dutenak, iraupena bermatzeko militantzia lanean dihardutenak, gogoan hartzea ezinbesteko zuen, ondo baino hobeto zekienean, beste ikuspegirik bazela eta gertagarriena bakoitzak bereari eustea zela. Osterantzeko kontakizunek ez daukaten helmuga du: haietan askatasun osoa zeukan istorioa edo honen eraketa ardatz izateko, oratzear duen honetan, istorioaren idazketan dauka erronka. Beraz, idazketa du gunerik labainkorrena. Funtzio linguistiko bat betetzeko bitarteko soila du harilkatutako istorioa. Helburuak hartzaile-tipo nagusia finkatzen dio. Norentzakoan derrigorrezko du Hendaian 1901ean elkartu ziren "los amantes de las letras euskaras para tratar de la unificación de las reglas ortográficas del bascuence y evitar el que cada región y cada escritor emplee una ortografía caprichosa y distinta como ahora sucede" (*Euskal-Erria*, VL, 1901, 242) horiengana zuzentzea. Hauek ezagutzen ditu, baita Hendaian bere aurrean mahairatu zutena ere. Orduan irabazi ez zituenak irabazteko itxaropen handirik ez izan arren, berenganatzea du eginkizun, saio hutsean geratuko ez bada bere egitasmoa.

"Nobela hau egiteko bidea kartagintzea izatea, behar bada, nekagarri zan irakurlearentzat. Halan ere, modu horretan zegaitik egin eban, harek berak jakingo" zioen E. Erkiagak (1985, 32); P. Lhandek (1919, 195), berriz, "L'auteur a pensé sans doute que le Basque, qui ne lit point de romans mais qui lit fort bien, au contraire, des correspondances rédigées en euskara, se plierait plus aisément à cette forme". Bai, Erkiagak esan

bezala, "harek berak jakingo" zuen, noski, baina uste izatekoa da xedea lortzeko aiutuen atzeman zuen euskarriari heldu ziola. Inoiz baino mugatuago zeukan balizko hartzailea. Onarpen zabala erdietsi ezean, kontakizun bat eta kode bateratuaren bila egindako ekinaldi baten lekukotasuna besterik ez zuen lagako. Bai, Lhandek azaldutakoagatik ere hauta zezakeen gutuna, irakurtzen zekien euskaldunak generorik ezagunena baitzuen: norabait joandakoak eta gelditutakoak harremanetan jarraitzeko modu bakarra. Euskaldun ugarik Ameriketarako bidea hartu zuenez, euskaldunarentzat arrunta zen jazoera irudikatzen zen *Ardi galdua*ko lehen gutuna Kaliforniatik Leaburura igortzean. Honela bada, euskaldunak eskuragarrien zuen generoa lehenesteaz gain, hala izatea bultzatu duten baldintzak ere islatzen dira: leku berean ez daudenen elkarbidea da eskutitza, eta, justu, testuinguru honetan kokatzen dira *Ardi galdua*koak. Nolanahi dela, arestian adierazitakoa nabarmenduz, lantegi behinenak bi ditu; bata, eredurik ahalik osoena paratzea; bestea, euskararen etorkizunak kezkatzen zituenak erakartzea.

Gutunaz baliatu eta *gertirudi* bezala aurkeztu zuen, hitz horri itsatsitako esanahia oin-ohar batean argituz. Beraz, generoaren ikuspuntutik, gutun-eleberrira jotzen du, hitzaurrean jakinarazitako funtsezko eginbideari erantzuteko: "Euskara hilko ez bada, noraezekoa (nahitaezkoa) dugu hizkelgi bati (dialekto bati) euskaldun guztiok errazen ulertzen dugun hizkelgiari, (…) indarra eta kemena ematea" (57). Euskararen iraupena batasunari lotu eta egokientzat daukana mamitzera doa: asmoa saihetsezin du forma erabakitzean.

Gutuna hobestean, Mendebaldeko kulturan milaka urte zituen baliabidea zuen tresna, Testamentu Berriak berak hainbat komunitaterengana zuzentzeko erabilitako bitartekoa. Testamentu Berriko gutunok bezala, Azkue moldatzekotan den idazlanak komunitate batengana iristea du helmuga eta lanabes aproposa izan zitekeen euskaldunari erakusteko gipuzkera osotua dela kode bateraturako eredurik bikainena.

Berez, gutuna dokumentu bat da: tarteren batek banatzen dituen igorle eta hartzaile baten arteko komunikazio idatzia. Izendatzen den

igorleak zehazten duen egunean eta tokian, izendatzen duen norentzakoari idatzitako dokumentua izateak, historikoa izatearen antzaz janzten du. Bestela esanda, egiazkoa denaren iduri eginez, artearen eremukoa ez denaren planta egiten duen eraikuntza da gutuna. Gutun-eleberriaren ezaugarria da itxuretan oinarritzea; izan ere, forma erreala oratuz, barruti literario bat taxutzen du: fikziozko munduari benetakotasun eitea ematea bilatzen du. Eredu erreal baten gainean, pertsonaia literarioak eratuz, mendeetako irakurleentzat ezaguna den dokumentu bat esparru literarioan sartzen du, baita gutunak iradokitzen duen intimitatea hautsi ere, igorle eta hartzaile jakinen arteko harreman pribatua publiko eginaz.

Gutun-eleberriak bazuen beste abantailarik ere: hibridoa da. Blair-ek (1789, 262) zioenez, "ocupa un lugar medio entre las composiciones serias y las entretenidas". Poetika-erretorikek erdi-mailan kokatutako generoa izanik, goi mailako estiloaren eskakizun batzuk behekoarekin nahasteko aukera zekarkion, bietatik elikatzeko aukera, hain zuzen; serioetatik "decorum"-a eta sinesgarritasuna, eta jostagarrietatik, xelebrekeria. Hibrido izate horrek gizartean maila desberdina duten pertsonaiak tokitzen laguntzen zion: ikasketadunak eta ikasgabeak, kasu, batzuen zein besteen adierazpen-moldeak bereiziz eta nahasiz.

Azkenik eta ez garrantzi gutxienekoa izateagatik: kontalari franko. Egile bakoitza eskutitzak kontatzen duenaren kontalaria da. Hala, kontatutakoa egiazkoa izateko efektua sorrarazteaz bestalde, Azkue desagertzen da eta gutunen igorle-hartzaileek hartzen dute ardura osoa. Ahots bakoitza subjektiboa da eta subjektibismoak batuz osatzen du idazlana; lana burutu duenak, berriz, objektibotasuna gordetzen du: ohargile hutsa da, haien hautu linguistikoen argitzaile soila.

Gutun-multzo soila, ez baitago gutunon arteko tarteak lotzeari ekiten dion ahotsik ere, baina eskutitzen egileek besteen hitzak jasotzeari esker, hizkera-erregistro gehiago. Gutunetan isuritako ahots ugaritasun honek esandakoak eta esateko moduak ñabartzeko parada eskuratzen zion. Ahots aniztasunak ezaugarritzen duenez gizartea, euskara batura-

ko eredu erreal bat erakustea ez zen amaitzen zuzentasunaren mailan, egokitasunari ere heldu behar ziolako.

Beraz, gutun-eleberriak bere kode berezia du. Daukan xedea betetzeko primeran zetorkion. Pertsonaia zehatzen artean trukatutako gutun pribatuak, bizitza errealean irakurleak ezagutzen dituen dokumentuak, jendarteratzera mugatzen da Azkueren lantegia.

Kontalari asko ditu: guztira bederatzi, zortzi gizakume eta emakume bat, zortzi gizakume horietatik sei apaiz eta bi laiko. Bederatzi subjektuk, bakoitzak bere subjektibotasunetik kontatuz moldatuko dituzte hamahiru gutunak.

Istorio bat josteko dokumentu historikoaren airea duen gutunera jo, besteen esku laga kontatzea eta benetako idazleak eskaintza eta ohar linguistikoak baino ez ditu beretzen. Oharrok euskararen hizkuntzalari eta musikazale porrokatua den Azkuerenak dira bete-betean.

Bereterkide dituen J. J. Arin eta J. M. Zuaztirentzat den eskaintzan jakinarazten duenez, kumearentzat jaioleku bat behar zuela eta, Beizaman "hiru eguneko egotaldi-ikastaldi-ikertalditxo" (53) bat egin ostean, Leaburuko adiskideongana joan eta bietako batek aurreikusitako kokalekua auzitan jarri zion. Azkuek Leaburun eginiko egonaldian herri, aldiri eta, bertako jendearekin topatu eta gero finkatzen du kontakizunaren gunea. Bere "arkumetxo"-arentzako Gipuzkoako sorterri erreal baten bila zebilen eta eskaintzan dokumentatu izana egiaztatzen du. Leaburun igarotako egunetan eman zioten laguntza aitortzen die, ez bakarrik herria eta inguruetako bazterrak erakutsi izanagatik, baita, oraindik, egitasmo-mailan zeukan zereginaz jarduteko aukera izan zutelako ere. Hizkuntzaren alorreko kontuez ez ezik —hala nola ortografia—, gutun hauetan tokituko dituen leaburuarrez ere aritu ziren, dela Martin Lontxo, Antton Barandiaran edo gutun-egile ere izango den Medelez. Dokumentatze-lanean bide-erakusle izan dituenentzat da eskaintza. Bizileku duten herri, bere alderri eta herritarren berri dutenak eta, horrenbestez, bere asmoa sinesgarritasun handiagoz janzten dizkiotenak.

Horra hor dokumentatze-lanaz eta iritzi-trukeaz utzitako lekukotasuna. Gipuzkera osotua agertzeko eskutitzez baliatzea erabakitzen duenean, badaki tarteren batek banatzen dituen pertsonaiak batak besteari kontatutakoetan oinarrituko dela. Ereduaren eratzaileak izango diren gutun-egileon izendapenean zorrotz jokatzea ere nahitaezko zuen, egiantzekotasunari jaramon egitekotan behintzat. "Ama-hizkuntza" gipuzkera zutenak ez ezik, barruti hori gaindituko zutenak premiazko zituen, beste euskalkietara irekita dagoen eredua gauzatu nahi duelako. Kontalari orok ez zeuzkan zertan menderatu Leaburuko aldaeraren zirrikitu guztiak, baina horien artean behar zituen, gipuzkeran trebatuaz gainera, bakarren bat edo gehiago gipuzkeraren mugak garaituko zituztenak. Idazlanari erantsitako "Gehigarria"-n bildutako azalpenen arabera, bada gutun-egileon artean beste euskalki batzuetako hitzez bestalde, berri-berriez jabeturik dagoenik, horietako bat Arana Goirik asmatutakoa. Horrenbesteraino gorde nahi ditu itxurak non besteen hautu linguistikoak direla ezagutaraztera iristen den, erabiltzaileari egotziz dioena:

> DEMONIMES PESTEENA. Leaburuko alkatearen esakera hau ez diogu beste inori entzun. Nahiz berak asmatua dela, nahiz ez, *demonio*ren bigungarri bat dirudi, beste hauek bezalakoa; *demonimesa, denganiñaua* (343).

Esan bezala, eskaintzaren eta oharren egile soiltzat aurkezten da. Oharrok hiru toki desberdinetan ipini arren, guztiek eginbide berbera betetzen dute. Hasierakoak, irakurleari zuzendutakoak, nola gutun gutxi batzuei eratxikitako oin-oharrak hala amaierako "Gehigarri"-koak, besteek adierazitakoa azaltzeko dira. Edozein ohar dena delako kontalariak isuri duen hizkuntza formak eragin ditzakeen ulermen-arazoei erantzuteko da.

*Ardi galdua*n gutun-egileez gain ohargile bat dago. Ohargilearentzat haien berba batzuek zehaztasunak galdatzen dituzte. Horiek horrela, Azkueren parte hartze osoa eta bakarra irakurleari begira egindakoa da. Balizko hartzaileak izan ditzakeen eragozpenak, zalantzak, galderak…

argitzeaz baino ez da arduratzen. Ez da *Ardi galdua*ko berbaldia sortzen duena, baizik eta euskara batuaren eredua mamitzen ari direnak osatutako berbaldiaz diharduena: haien berbaldiari buruzko berbaldia. Eginkizun bat besterik ez du beretzen Azkuek: metalinguistikoa.

Kontalari batzuk leaburuarrak dira (Medelek, honen seme Leonek, nahiz honen izeba Isabelek Leaburu dute jaioleku) eta senitarteko duten Leaburuko bikario Adrian Iriondo amezketarra da. Hauei gaineratzen zaizkie Azpeitiko Juan Jose Arizpe bereterburua, Lasarteko mojen kapilau Andres Artesarri, Belauntzako parroko Agustin Basaldek idazkari lanetan jarri duena, bere bisita-txartelaren arabera donostiarra den *Ecos del Urumea* egunkariko kazetari den Vasco de Gaintza eta bi frantziskotar misiolari, Justo Mendiri eta Gabriel Batiz. Senitartekoak direnek zazpi gutun moldatuko dituzte, dela Leaburutik, dela Kaliforniatik. Beste seien sorterria ezezaguna bada ere, ez horrela, bizilekua: Azpeitia, Lasarte, Donostia, Arantzazu. Belauntzako parroko Agustin Basaldek bidaltzen duen gutuna nork idatzi dion ezkutatzen duenez, horiei eskribau honen herria erantsi beharko litzaieke. Beraz, leaburuarrak gune, gipuzkeraren beste aldaera batzuk edoski dituztenetara hedatzen du kontalarien eremua: bistakoa da noiznahi elkarrekin batzerik ez zeukatenek izan behar zutela eskutitzen arteko igorle-hartzaileek. Azkenik, Medel sasoi batean izan ezik, guztiak Gipuzkoako bizilagun, lurraldea partekatzen dute, baina badira bi gutun-egile beste euskalki baten aldaeraz jarduten duten tokian errotutakoak: Arantzazu, Oñati, gipuzkeraren mugetatik at dago.

Bi kenduta, hamahiruek daukate gutunaren forma, nork nori nondik noiz nora izendatzen duten alderditik. Bi horietan zehaztasunen bat deuseztatuz hasieratik bertatik iragartzen da berezitasunen bat dutela. Bata da Vasco de Gaintzarena; bestea, Justo Mendiri frantziskotarrarena. Kazetariak Medel alarguna Alice amerikarrarekin ezkondu ostean ezteibidaian lehen geldialdi izan zuten Leaburu eta inguruetan antolatutako ospakizunaren kontuak nondikakorik gabe igortzen dizkio egunkariko zuzendariari. Bestea, misiolariak aita probintzialari bidalitako oharrak.

Leaburuko misioen berri ematen duen eskutitz hau "eranskin" moduan aurkezten da leku-denboren xehetasunak ezabatuz.

Berriro aniztasunerako urratsa gutun-motak taxutuz: ezkonberriak egindako bisita dela eta, egunkarirako burututako kronika; txostena, frantziskotar misiolariak nagusiari zuzendutakoa, aurkibidean, oharrok "comentarios" hitzarekin argituko duena. Kronika eta txostenari gutun estandarrean hartu-emanetan jartzen direnen arteko gertutasun handiagoak edo txikiagoak eragindako aldeak gehitzen zaizkio: familiartekoen arteko gutunak (Medelek seme Leoni; Isabelek ahizpa sor Santa Katalinari; Medelek lehengusu duen Adrian Iriondo apaizari); Azpeitiko bereterburuak Medel laikoari igorritakoa; apaizen artekoak… Eskutitzaren eitea gordez, eskutitz-motetara irekitzeak eta igorle-hartzaileen loturen arteko desberdintasunek ñabarduretarako bidea zabaltzen dio, tonuak bereizteko aukera. Askotariko aldarte (umorea, jai-giroa, larritasuna…) eta adierazpen-moldeak biltzeko ingurunea eratzen du. Honela bada, Azkueri aitortu behar zaio, zenbait komunikazio-egoera irudikatuz, jakinarazi nahi zuela proposatzen ari den kode bateratu horrek zeinahi eretiri aurre egiteko ahalmena zuela. Geroago, Lizardik euskarari opatutakoa, "nai aunat ere noranaikoa"[8], Azkueren buruan ere bazegoen *Ardi galdua*ren plangintzan: "mono"-tik urrun, betor "poli".

Eredu bat erakustea xede izanik, funtzio pragmatikoa du nagusi. Gizartean ahots bakarra entzuten ez denez, esku artean zuen eginbideak, ortografia, gramatika, lexiko alorretako auziak gainditzen zituen, gizarte geruzatuan hizketa-mailak daudelako. Harremanetan jartzen direnen baldintzen baitan daude hizketa-mailok: daukaten kultura-maila, estatutua, batzen dituen testuingurua eta zeregina, bakoitzaren nortasuna… Hitz batean, hizketa-erregistro eta tratamendu moduei ere

[8] *Biotz-begietan*eko (1932) "Eusko-Bidaztiarena" olerkiaren "Oro-mintzo" ahapaldiko lerroak. K. Otegi, (arg.) 1994, *Lizardi. Olerkiak*, 137.

heldu behar zien: hizkerak ere jaso behar zituen, sinesgarritasunetik urrundu gabe.

Eginkizun honi erantzuteko ere aproposa zen eskutitza. Tratamenduei dagokienez, guztiei oratzeak toka, noka, zuketa eta berorika jorratzea eskatzen zion. Toka zuzentzen zaio aita semeari eta erakuskari honi eransten zaizkio gutunotan ugariak diren autuetan tokitutako gutxi batzuk. Primerakoa zen abagunea suertatu ostean, noka baztertzea erabakitzen du Azkuek. Isabelek ahizpa sor Santa Katalinari idazteak noka baliatzeko egokiera eskaini izanagatik zuketarengatik ordezkatzen du, oin-ohar batean azalduz arrazoia: lekaimeen nagusiak "ijito-euskara" -tzat zeukan eta gobernupean zituen lekaimeen gutunak irakurtzen zituenez, ahoz aho zihardutenetara mugatzeko premia zeukaten (99). Nokaren aztarnarik ere ez, osterantzeko eskutitzetako elkarrizketetan hitanoaren erakuskaririk egon arren, beti gizakumeen artekoak direlako eta gizon emakumearen artekorako berorika ala zuketa hautatzen delako. Berorika ziurtatuta zeukan: herrikide xume orok araututa zeukan tratamendua elizgizonen bati zuzentzeko.

Esan bezala, gutuna dokumentua da. Kontatzera doan istorioari historia itxura ematen ahalegindu den Azkueri gutunon idazketa-garaiak oztopatzen dio nornahi izendatzea gutun-egile; areago, euskaraz bada, egiantzekotasunari eustekotan behintzat. Baina, trebetasun horren jabe ez zirenen hizkera-erregistroa ere ezin alboratu, paratzera zihoan eredua ahalik eta osoena izan zedin. Leaburuko Martin Lontxori edo Antton Barandiarani lantegi hori esleitu ez izanak ez dakar hauen ahotsa bertan behera uztea, bederatzi ahots baino gehiago isurtzen direlako, bederatzi gutun-egileok kontatzeaz ez ezik, irudikatzeaz arduratuz, besteen ahotsei leku egin izanagatik. Mendeetan zehar antzerki-testuak euskarri izan duen eszenara joz, pertsonaia ere baden kontalariak besteren batekin izandako solasa edo lekuko legez ezagutu duena gutunera biltzen du. Gisa honetan betetzen du Azkuek eredu osatuena bistaratzeak zuen beste eskakizun bat: ahalik eta polifonikoena izatea eta, aldi berean, serioa dena xelebrea denarekin nahastea.

Gutun-egile izateko bilaketan sei apaiz eta laikoetan kazetari bat aurkitzearekin, sinesgarritasun-arazoak ekiditen zituen: ikasiak dira. Bestalde, apaizak euskal herritarren arima-gidariak diren aldetik, nahitaezkoa dute euskara menderatzea; kazetari guztiek ez, bai horratik, bakanen batek. Batzuk zein besteak idazten dutenak dira, batzuek sermoiak, kasu; besteek egunkarirako kronikak, nahiz eta, agian, euskararen egoera soziolinguistikoan hautematen zuenarengatik, edozein apaizetara ez zabaldu euskaraz idazteko gaitasuna: Leaburu ondoko Belauntzako parroko den Agustin Basaldek bere burua ezgauza ikusten du eskutitza egiteko eta esateko zeukana norbaiti kontatu eta, honek daroa paperera. Haatik, herri txiki bateko parrokoa ezgaitu duen Azkuek ez du eragozpenik izan aldameneko herriko bi laiko gaitzeko. Laiko hauek Leaburukoak dira, gipuzkeraren bihoztzat hartu duen tokian jaiotakoak: Medel Olazarreta, *Ardi galdua*k gune duen pertsonaia, eta honen lehen emaztearen ahizpa Isabel.

Argazki soziolinguistikoaren nolakotasunaren zantzuren bat edo beste lagatzen dituzte gutun-egileotako batzuek, dela seme Leonek aitari eskutitza gaztelaniaz idaztea[9] edo Belauntzako parrokoaren jakinarazpena: "Ibili nintzen ikasguetan ez zidaten euskaraz deusik irakatsi eta ez dut inoiz ardurarik hartu, neronez, nire kabuz ikasteko" (247). Hala eta guztiz, Azkuek ez du trabarik izan Medel "baserritarra" (65) eta Isabel "etxandrea" (205) gutun-egile bihurtzeko. Eskolatua den bati euskaraz eskutitzak idazteko ezgauza dela aitorrarazten dio eta, baserritarra eta etxandrea gaitzen ditu.

Medel eta Isabel kontalari izateaz gainera, besteen kontakizunen eragile dira. Sacramentotik 1887ko garagarrilean senitarteko duen Adrian Iriondo Leaburuko bikarioari gutuneriako lehen gutuna bidaliz aurkezten da Medel; Isabel, berriz, Leaburutik ahizpa sor Santa Katalinari igo-

[9] "Ikasgu (colegio) horretan ez duela inortxok ere euskaraz eskutitzik egiten! Eta hik ere hire aita euskaldunari erdaraz egin behar?" (91) diotso aitak erantzunean.

rriz 1888ko maiatzean. Ez beraiek, ez besteek jardungo dute hauen ikasketei buruz, ezta eskutitzok euskaraz ontzeko daukaten ahalmenaren jatorriaz ere.

Gutunok idazketaren orain aldiko gorabeherez arituz, apenas begiratzen dute atzera, ez bada Medelek Leaburutik alde egiteko izandako motiboa argitzeko: alargundu ostean amaginarrebak eskatutako ezkontzari uko egin ondoren sumatu zuen giroa. Iragana horren gutxi berreskuratzen denez, berezko dohainei egotzi behar jaioterritik irten eta hamalau urtera jadetsi duen maila.

Gutun-egile ez ezik, gutun gehienetako arreta erakarriko duten pertsonaiok nabarmentzen dira: bata, gutun-eleberriko gune da; bestea, istorioa sortzeko bitarteko. Halere, kontalari bakar batek ere ez du adierazten nola lortu duten leaburuarrak baino jantziagoak izatea.

Bederatzi gutun-egileetatik sei elizgizon eta bat kazetaria izateak edo hauetako zenbaitek egoera soziolinguistikoaz utzitako lekukotasunek iradokitzen dute Azkuek ez zuela urrundu nahi errealitate linguistikoak erakutsitakotik. Dirudienez poetika-erretoriketan sustrai sakonak dituen araua gogoan dauka: ahalik eta gutxien aldendu argazki errealetik. Argazkirik zirriborratuenak kontakizunean zeregin nagusiez jabetzen dituenenak dira.

Gutun-egile batek baino gehiagok gaztelania menperatzaileak euskararen arnasbideak txikiagotu izana salatzen badu ere, hamaika arrazoi izan zitzakeen Azkuek bi pertsonaiok nortzean arnasbideok zabaltzeko. Jakinarazi gabeko zergatien alorra zoru labainkorrekoa izanik, zaila da igartzea, baina atrebentzia aitortuz, hona bat: istorio-sortzailea izango den etxandrea gutun-egile izendatzean behaztopa egiten du egiantzekotasunarekin, nahiz eta aitortu behar zaion lantegi hori xedatzeak eragindako galera, beste alderdiren batekin berreskuratzen zuela; izan ere, etxandrea zen emakume aproposena emango dion eginkizuna betetzeko: berriak bilatu eta hedatu. Medelekin, berriz, kode bateratua jasotzen zuen kontakizuneko muin zuenez, sinesgarritasunaren aginduei besteren

bat lehenestea, aukerakoen dakusan erabiltzailea tankeratzea, hain zuzen. Hots, kodearen ereduarekin batera honen erabiltzailearen moldea zehaztea egiantzekotasunaren aurretik jartzea. Bestela esanda, idazketa-garaiko gizartean atzematen zuen euskararen erabilerak kode batuaren erabiltzaile ideala eratzeko hesi horren estuak ipintzen zizkion, non amesten duen erabiltzailea taxutzea hobetsiz, mugarri horiei jaramonik ez egitea erabakitzen duen. Euskararen historian argi eta garbi lehenbiziko aldiz adierazten da euskara batuaren eredu bat hezurmamituko dela; eredu horrek ere eska zekiokeen pertsonaia berri bat. Berria zen eredua eta eredua bistaratzen zuen gutuneriaren ardatz izateko bikainenentzat daukan pertsonaia itxuratzen du.

1.1. Pertsonaia euskarriak

1.1.1. Isabel, oztopo-eragile

Kumearen jaiolekua Leaburu da: horkoak dira gutunon bidez osatutako istorioan egiteko behinenak beretzen dituzten bi laikoak. Bata Isabel da, Medelen koinata; bestea, Medel bera. Bakoitzari bere eginbidea ezartzen dio. Isabel da hastapenetako gutunei darien oreka-giroa apurtzen duena, Medeli atxikitzen dion tasun bat han-hemenka barreiatuz: protestantea izatea. Batez ere, iloba duen Medelen seme Leonek nozituko du eralgitakoaren oihartzunak sorrarazitako desoreka-egoera. Leonek apaiz-ikasketak amaitzean, meza berria hurre zuela ekiten dio Isabelek ospakizuna ezin ordain zitekeela protestante baten diruarekin esateari. Meza berriarekin abiatutako gaia horrenbeste indartzen da, non Leoni egin nahi zuen apaiz bidea ixten dion, eta arazoa, berak ez ezik, osaba txiki zuen Leaburuko Adrian Iriondo bereterburuak ere pairatuko duen, biak zeharo abailduta lagatzen dituelako. Medelek bereari eusten dio, misioek itxuraldatzen duten arte. Aita artegian sartu ordurako

Adrian Iriondoren ordezko den arren, Leon ez da bere onera etorriko aitak benetako fedea berraurkitu arte.

Kode bateratua paratzen ari bazen, emakume baten ahotsa saihetsezin zuen. Isabel *Ardi galdua* gutun-eleberrian kontalari den emakume bakarra da, besteren bat gehitzeko abagune paregabeari uko eginaz; izan ere, Isabelek bere ahizpa sor Santa Katalinari zuzendutako lehen eskutitzaren erantzuna gutuneriatik ezabatzen da. Kanporatu dela agerian geratzen da Isabelek bigarrenari heltzen dionean, harena hartu zuela esanaz hasten duelako, ahizpak galdatutako argibideak hitzez hitz erantsiz. Honela bada, lekaimearen ahotsa albiste-eskaeretara mugatuz, Isabelek hurrengoa idazteko aitzakia huts bihurtuz, emakume bat baino ez da kontalaria.

Emakumezko kontalari bakarrari esleitzen zaio gatazka-eragile izatearen betekizuna. Arazoa ernetzeko haziaren iturburua emakume estereotipoan kokatzen da. Estereotipoak, ñabardura oso gutxirekin hautemanaz gizatalderen bat, partekatzen duen ezaugarri edo trebetasunen bat ezartzen dio. Honakoan emakumeari jakin-nahia itsasten zaio. Erro sakonak zituen ikuspegi hori *Ardi galdua* argitaratu aurretxoan gogorarazita zeukan D. Agirrek *Kresala*n (1906): "Jakingo leukie barri edo albiste bat lurpean gordeta egongo balitz be, ta uskeria izan daroe naikoa luzaroko jardun gogotsuetan egoteko" (Villasante, 1976, 140). Gutun-egile izendatzean errealitatean atzemandakotik urruntze bat sumatu bazuen Azkuek, etxandreari jakin-nahia atxikiz garaiko usteekin bete-betean bat egiten zuen.

Bi osagairekin moldatzen da istorioaren hauspoa den Isabel: jakingura eta santukeria (edo jaiera hertsia). Apaizetxe eta iloba Leonen gobernatzailea, ikusmen eta entzumen zorrotzekoa, ikusitakoari eta entzundakoari iruditzen zaiona emendatuz, mezuak finkatu eta hedatzen dituena da. Medelek emaztetzat arbuiatzean mindu zuen pertsonaia ere bada eta, ondorioz, ordaina emateko prest legokeena. Zorrik baldin bazen semeak kitatuko ditu, Isabelek Medel salatu izanagatik, oztopoa ez duelako jasango honek, semeak baino. Estereotipora jotzen du Azkuek, estereotipoa osoki biribilduz: Medelek ezkontide legez baztertu ostean, mutxurdin, "barri edo albiste bat lurpean gordeta" balego ere topatuko lukeena eta, premia hori asetzeko besteen intimitatea atzitzea

bidezkotzat daukana. Portaera hau bateratzen du bere funtsezko harroin aldaezinarekin: fede katolikoarekin.

Gutun-egile bakar honi beste lau emakumeren berbak batzen zaizkio: Lasarteko lekaimeenak (sor Santa Katalina eta ama nagusia), Medelen bigarren emazte Alicerena eta Isabel legez mutxurdina den Joxepiñaxirena, Izurraingo neskazaharrarena. Bi mutxurdin eta bi lekaime euskaldunen artean; ezkondua amerikarra, baina egoera zibilaz haratago xehetasun handirik ez, gutun-egileek emakumeongandik jasotako hitzak urriak izateaz bestalde, sor Santa Katalinarenak izan ezik, behingoak direlako. Birritan egiten zaio leku sor Santa Katalinaren ahotsari, baita testuinguru oso desberdinetan kokatu ere. Arestian aipatutakoaz gainera, Lasarteko komentuan Leonen meza berriaren egunean, hemen, bere komunitatean, aurreko agerraldiko jakingurarik gabe. Edonola ere, emakumeari jakingura egoztea, antza denez, oso sustraituta zegoen, lau emakume euskaldunetatik hiruren nolakotasunera eramaten denean *Ardi galdua*n: Isabelenera, sor Santa Katalinarenera (konfiantza-giroan behintzat) eta Joxepiñaxirenera. Kontakizunak Joxepiñaxi barneratzen du Iriondo bereterburuaren etxera "zertxobait jakitera" (117) joateko soil-soilik. Isabelena kenduta, osterantzekoena une jakin bateko argazkiak dira. Argazki bakar horrekin nortzen direnez, une erabakigarria da behin betiko irudia finkatzen duelako. Era bertsuko emakumeak euskaldunen artean eta amerikarra, Alice, beste tankera batekoa: hiru euskaldunen jakin-gose gabea eta beste sinesmendunekin Isabelek ez bezalako jokaera daukana, Alicek "besteekin" (euskaldun katolikoekin) egun zoragarria igaro zuen Leaburun; Isabelek, aldiz, "besteak" (protestanteak) gaitzesten ditu.

Medel artegira sartzean, Leonek oreka-giroa berreskuratzen du, baita Medelen eta Isabelen arteko kontuak garbitu ere. Horrela bukatzen da istorioa. Eragozpenak gainditzeko ezinbestekoa zen Medel fede katolikoak erakartzea, behingoz Leon ataka gaiztotik ateratzeko. Zeharo aurreikusgarria zen irteera honi, Isabelekin hartu-emanak izateko beste baldintzaren bat gehitu behar: Alice aienatu ala katoliko bihurtu.

Leonen meza berriko bazkaria amaitzear jaso zuten Medelen partea: "Alice haurgintzan hil zait" (219).

Argitaratutako lehen eleberritik XX. mendearen bigarren erdi arterainokoetan, beti mundu-ikuskera partekatzen duten kontalari eta pertsonaia nagusitik lerratzen den bigarren mailakoren batek abiarazten du istorioa: gabeziarik gabeko pertsonaia nagusiekin ezin istoriorik ondu. Istorioren bat osatzeko ahuldaderen bat duen pertsonaiaren bat nahitaezko denez, bigarren mailakoren bati itsasten zaio zeregina, nagusiaren ereduzkotasuna agertzeko bitarteko huts bilakatuz. *Ardi galdua* da salbuespen bakarra, ereduzkoa ez den pertsonaia nagusia eratzeagatik eta, hortaz, bigarren mailakoak eraikitako gatazkak zeukan betekizun hori desagertzen da.

Beraz, Azkuek ereduzkoa ez den pertsonaia nagusi bakarra taxutu duenez, bigarren mailakoak eragindako desoreka ezin izan haren ereduzkotasuna bistaratzeko bide. Hala, istorioa moldatzeko hautatutako bigarren mailako pertsonaia bera osterantzeko eleberrigileek erabilitako gatazka-bultzatzaileengandik ere urruntzen da; berri-berria da: nagusiaren ereduzkotasunik eza salatzen duena eta salatuak barik besteek pairatuko dituzten nahiezen erantzule.

Isabelek, estereotipoarekin esanekoa izanaz, aitak seme Leoni igorritako eskutitza aurkitu eta bertatik ondorioztatua inguruan barreiatzen du. Ahizpa sor Santa Katalinari bidalitakoan dioenez, Leonen arropak gobernatzen ari zela ediren eta irakurri zuen Medelek Kalifornian zeukan bazkidea protestantea zela "baina gizon zuzena, zinezko gizona, gutxi bezalakoa" (93) gaineratzen zuela. Geroago, Medelek lehengusu duen Adrian Iriondo Leaburuko bereterrari kontatutakoa ezagutzeko modua egin eta, ahizparentzako bigarren gutunean albiste gehiago: heriotza aurretxoan bazkideak bere alaba Alicerekin ezkontzeko eskatu zion eta jada hitzartuta daukate. Alaba ere, "BESTERIKOA" (155) da. Isabelek ezartzen du gutarren eta besterikoen arteko mugarria: "Gu, katolikoak, kristau onak garelarik, Mari Zirtzil besterikoa" (157). Batzuk eta besteak fedearen izaerak banatzen ditu.

Horra hor, istorioak abiagune duen auzia eta korapilatuz joango dena. Isabelek arauak urratzen ditu, lehenik gutunen pribatutasuna hautsiz eta jarraian, jakindakoari bere irudimenetik ernetakoa erantsiz: Medel ere protestantea da, "besterikoa". *Ardi galdua*ren idazketa-sasoiak emakumearen berezko portaeratzat zeukanaren erakuskari da Isabel: berriak eskuratu, beretutakoari norberaren ekarriren bat emendatuz puztu eta gero lau haizeetara eralgi. Eralgitzen ari dena ez da gezurra, besteek ezezagun zutena baino; izan ere, ohartarazitakoa, aitzinago, ohartuak berak aitortuko du, baina ezagutarazten hasten denean, Isabelen asmakizuna da, nahiz eta bete-betean asmatu zuen. Horiek horrela, Isabelek egiten duen gauza bakarra da ezkutuan zegoena bistaratu, ekintzak sorrarazitakoa besterikoa denak ordez gutarretakoak nozitu izanagatik.

Medelek benetako fede bakarra berreskuratzen duen egunak "Itzal bat izan zuen (...) nolabait goibeldu zigun itzala: Isabel. Emakume hau, ardi galdua artegiratua zela jakin zuenean, artegitik irten zen. Nora? (...) Inork ez zekien zein bide hartu zuen" (311). Amezketara ihes egin zuen. Leon etxeratzen saiatzen da; alferrik, ordea, aita-semeak datozkion arte. Eskaeraz Medel arduratzen da eta modu honetan egiten: "esku bete giltza mahai gainera aterata, —Isabel, esan zion aitak, gizonok ez gara giltzain izateko jaioak" (329). Jesusek zeruetako erreinuaren giltzak San Pedrori eman zizkion, eta Medelek bere erreinuaren giltzain izatea eskaintzen dio Isabeli eta honek onartu. Berriro estereotipoa baliabide: giltzaduna, nagusia, Medel da. Genero bakoitzari egotzitako eginbeharrei eutsi: giltzaren jabea gizakumea, emakumea zaintzailea. Horrela ixten du Azkuek gutun-eleberria.

Emakumea istorioa ahalbidetzeko eta gizonezkoa istorioko pertsonaia nagusia izateko: *Ardi galdua*ko gunea Medel da.

1.1.2. Medel, gune

Leaburuar xumeetatik nabarmen bereiziz, hauen artean entzute

maila handia duen pertsonaia laiko bat eratzen da, gutunetako jardungai nagusi izango den pertsonaia honek daukan kultura-maila (ingelesa, musika, euskaraz idaztea…) nola jadetsi duen gutun-egile bakar batek kontatzen ez badu ere. Pertsonaia jantzi bezala nortzen da, alderdi honetatik bere herrikideen oso gainetik; izan ere, gutunek estilo zuzenaz eginiko erabilera bide, beste leaburuar batzuen ahotsen lekukotasunek agerian uzten dute Martin Lontxo edo Antton Barandiaranek baino prestakuntza askoz sendoagoa duela.

Leaburuar ezjakinak ez ezik, kazetaria, eta ez edozein kazetari, harritzeko gaitasuna du: "Udaro ministrorik asko izan ditu Vasco de Gaintzak autu lagun; batek ere ez dio Medelek bezala, erdi titili-potolo hitz eragin" (165). Horrenbesteko zirrara eragin zion ministroak autu lagun izan ohi zituen Vasco de Gaintzari "antzinako gizuren (héroes)" gogoraraztera iristen dela, hala nola Ulises, Telemakoren aita, nahiz eta Solon atenastarraren antzekoago sumatu.

Herri eta herritarrekin eskuzabal azaltzen da, lehengusu duen Adrian Iriondori idatzitako lehen gutunean. Medel alarguna "Bostonen jaio, San Frantziskon hazi eta Sacramenton" (165) bizi den Alicerekin ezkondu ostean, eztei-bidaiarako aukera Europa da, eta, noski, Medelen jaiolekua eta inguruko hiri nagusiak emazteari erakustea. Vasco de Gaintzak *Ecos del Urumea* egunkariaren zuzendariari igorritako gutunak jasotzen du Medel eta Aliceren bisitaldiaren kronika. Leaburuar guztiak gonbidatu zituen ospakizunera, egundoko harrera egin ziotenen artean Isabel ez egon arren. Jendetasun eta ospe handiko pertsonaia izatea du ezaugarri, Leaburutik Amerikara joan ondoren eskuratutako lorpenengatik. Oraindik ez dakite artegitik atera dela, zurrumurru horiek seme Leonek apaiz-ikasketak bukatzean abiatuko direlako.

Medel goratzen zuten leaburuarren artean isilune esanguratsua Isabelen salaketa ezagutzean. Medel desagertzen da gutunon kontuetatik eta Leon jartzen dute erdi-erdian, apaiztean helmuga zuen kokalekua beretu ezinak ekarritako zama jasangaitza hizpide bihurtuz eta trukaketa honek, aldi berean, besterik ere iradokitzen du: aldareratuta zeukaten

pertsonaia nagusia aldaretik jaitsi dutela. Miresmenetik txintik ere ez esatera igarotzen dira, Leonen meza berriaren aurretxoan Isabelek zabaldutakoagatik eta hurrengo gutunen gaia ez da Medel, kaltetuak baino: seme Leon eta lehengusu Adrianen egoera. Une horretan, gunea ordezten da: kontalarien arreta kaltetuek erakarri eta, pertsonaia nagusia ostentzen dute.

Laburbilduz, Azkueren gutun-eleberrian, pertsonaia nagusiak leaburuarren balore-sistemako habeetariko bat deuseztatu izana ezkutatzen da, bigarren mailako batek bere usteak barreiatzen hasi arte. Orduan, nobedadeak eragindako ondorioetara lerratzen da ardatza eta, Medelen eskuharmen soila hala dela aitortzeko eta aldatzeko asmorik ez daukala argitzeko da, harik eta, berriro, fede okerrekoak protagonismoa berreskuratuz, korapiloa askatzeari heltzen zaion arte.

Oztopoa gainditzeari ekingo zaio aita Justo Mendirik aita probintzialari bidalitako txostenak kontatutako jazoerekin. Ordurako jada indiano den Medel Leaburun bizi da eta frantziskotarrek emandako misioetan lehengo fedea berreskuratuko du. Txostenak Medel ezezagun bat bistaratzen du, lehenbizikoz eta atzenekoz bere baitara bildutako pertsonaia moduan aurkeztuz. Denak berari begira eta honen isiltasuna dela eta, zer gertatuko den aurpegian igarri nahiz dabiltza: elizkizunetarako kanta-aukerak mintzagai bakarra. Misioek erdietsi dute miraria eta horrekin istorioa amaituko duten bi gutunetan lehengo Medel baino biribilago bat itzultzen da, berrartu duen bide zuzenean dela, beste zereginen batez arduratuko delako. Ostera ere jendetasunaren jabe, Leaburuko haurrei kontuak eta ingelesa irakasten dihardu. Hona azkeneko gutunak jasotako Medelen atzeneko agerraldia: ikasgelako eginkizunak pilotalekuan burutuz, herriko nekazariak lana bertan behera laga eta hari so. Ameriketan galdutako harroina berraurkitu ondoren, Medel birjaioa, Leaburun erantzukizun berriei helduz. Bakartu den horretan itxuraldatu ostean, herritarrekin iraganean zuen lotura sendoarekin jarraitzen du eta batasun hori beste irudi batekin adierazten da: bere borondatez eskola-maisu.

Ezin jakin zein leku betetzen zuen Leaburun Kaliforniara joan aurretik, nahiz eta Kaliforniatik Leaburura bidalitako lehen gutunerako entzutetsu zen jaioterrikoen artean. Entzutetsu izatetik zurrumurru eta isiluneen bazka izan eta gero, egiazko fededun bihurtzearekin ospea ere jadesten du. Hasierako famak, Leaburutik urrun bizi zenean kontatutakoak zituen oinarri; oraingoak, ordea, beren artean egindakoak. "Besterikoa" "gutarren" alderdian, Leaburuko haurrei kontuak eta ingelesa erakusten ari den aldetik, besterikoetatik gaitzesten dutena fedea baizik ez dela garbi geratzen da, ez behintzat hizkuntza; izan ere, gutarrek, hots, leaburuarrek, onirizten dute besteen hizkuntza ikastea. Halako batean herritik atera eta, kanpoan zela herritarren artean sona handikoa izandakoa, hauen zerbitzura jartzen da geroaldia daukatenen prestakuntza hobetuz.

Koherentzia handiarekin jokatzen ari da Azkue. Asmo linguistikoa duen idazlana du lantegi: euskara bateratuaren eredua mamitzea du helburu. Gutuna erabiliz, komunitate bati zuzentzen ari zaio, euskaldunari, hain zuzen. Ereduak Leaburu du bihotz eta leaburuar bat gutunon muin. Koherentzia handiarekin jokatzen ari da Medelek leaburuarrekin duen elkartasuna nabarmentzen duelako. Hartu-emana zehaztuz: hura herritarrez arduratzen da, hauek miretsi egiten dute. Nolabait esateko, leaburuarren liderra da. Komunitate bat, euskaldunena, irabaztea xede zuen kontakizunaren gunean, bere komunitateak lidergoa aitortzen dion pertsonaia kokatzea zen aukerarik biribilena. Jomugak komunitate bat erakarri nahi bazuen, zer egokiago bere komunitatea lerdea dariola daukan pertsonaia baino!

Esan bezala, Medel da, XIX. mendearen azken laurdenetik XX.aren bigarren erdi arteraino argitaratu den euskal eleberrigintzaren historian, ereduzkotasunetik aldentzen den pertsonaia nagusi bakarra. Halere, hauetako batzuekin partekatzen du zertzeladaren bat, hala nola garai batean beste komunitate bateko bizilagun izana.

Indiano izatera iritsiko den pertsonaia nagusi oro besteen erabakiren baten eraginpean bideratu da Ameriketara. J. M. Etxeitaren *Jaioterri Mai-*

*tia*n (1910) itsasoz bestaldera abiatzen diren lehen artzainen motiboa bata bestearekin ezkontzeko baimenik eza da; J. M. Lertxundiren *Polli ta Pello bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira*n (1910) ama behartsua izatea; J. A. Irazustaren *Joañixio*n (1946) amaren esana betetzea, Iratcheten *Anttone*n aitaren eskaera eta *Ardi galdua*n amaginarrebak galdatutako ezkontza. Komunitate-aldaketaren iturburua besteengan jartzean bat badatoz ere, Medelek sorlekukoekin nahiz atzerrikoekin duen harremana gainerakoena ez bezalakoa da.

Ameriketan fedea galdutakoa izateak ez ezik, beste tasun batzuk ere bereizten dute Medel aipatu indianoetatik. Hauek erbestean direnean, herria gogoan izaten dute, baina herrikideak ez. Ezkontzeko trabak Amerikara eraman dituen Etxeitaren pertsonaiek jaioterri maiteko artzain-lagunak baino ez dituzte faltan botatzen, denak han elkartu arte; Lertxundirenek, bakoitzak bere ama. Jaioterriak oroimina sorrarazten die, jaioterrikoek ez. Jatorrizko komunitateko gorabeherek ez dituzte kezkatzen, ez kide zirenean, ez atzean laga ondoren, ezta itzuli ostean ere: *Jaioterri Maitia*ko artzainek indiano bilakatu aurretik zeukaten zaletasunaz gozatzea dute eginkizun nagusi: artzain-kantez; *Polli ta Pello bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira*koak azken kapituluan aurkezten dira herriratuta, beren amekin eta Pelloren alabekin bilduta Ameriketako kontuez solasean; *Joañixio*ko Joañixio bere familian babestuta, baita *Anttone*ko Antton ere.

Halaber, Azkueren Medel da besteekin nahasten den pertsonaia nagusi bakarra: aurka jartzen ziren bi bizilekuetako ezaugarriak bere baitan batzen dituena, amerikar batekin ezkontzen dena, bazkide amerikarra daukana, protestanteekin lotura estuak dituena.

XX. mendearen bigarren erdi arterainoko eleberrigintzak aurrez aurre ipini ditu kalea eta baserria, hiria eta landa-giroa. Vasco de Gaintza kazetariak honela deskribatzen du Medel: "menditarra ibilkeraz, mintzuraz gizaldi zaharretako izkudaburua (almirantea) (...) baserritar *gentlemandua*" (163). Aldi horretako euskal eleberrigintzak ez du sortu beste

baserritar *gentlemandurik*, ez baserritarrik "street" batean tokitutakorik. Osterantzeko eleberrigileek ez dituzte uztartu landetxea eta kalea, banandu baizik. Hasi Agirreren *Garoa*rekin (1912), segi J. Barbier-en *Piarres I* (1926) eta *Piarres II*rekin (1929), T. Agirreren *Uztaro*rekin (1937), Iratcheten *Anttone*kin eta urte horretan bertan argitaratu zen *Joañixio*ko Joañixioren amaren ustearekin: "Ola batean sartu ta osasuna galdu. Ori naiko ez dala kalean anima galdu. Kaletik datozen soñuk ez dira gure oituerantzat atsegin" (Irazusta, 1946, 34).

Azkuek nekazaritzatik bizi den herri txiki-txiki bat hautatu zuen agertzera doan euskara batuaren bihoztzat, baina horko baserritar batek sasoi batean Sacramentoko "Vía New York. Leaburu Hotel N-street, 313" (61) izan zuen helbide. Hiri handi bateko kale oso luzean bizitzeaz gainera, justu, garai horretan behintzat, hiri kosmopolitarenaren izenaren jabe zen kalean. Aitatu eleberrigileek baserria jo dutenean euskararen babesleku, Azkuek euskararen heriotza ekiditeko premiazkoena batzea dela jakinarazi eta bere proposamena erakusteko moldatutako kontakizunean Vasco de Gaintzak "hiritar jatorra, *gentleman*, (…) baserritar huts-huts kutsatu gabea" (167) dakusana bilakatzen du gune. Horiek horrela, eleberrigintzaren alorrean Azkue da hiriari bizkar ematen ez dion bakarra. Agian, Azkue hizkuntzalariaren agindua betetzen ari zen, hizkuntzalari horrek pentsa zezakeelako ezinezkoa zela hizkuntza bat aurrera ateratzea hiritarrak alde batera utziz. Kausak kausa, kontua da beste nobedade bat dakarrela: kalea eta baserria bateratu *Ardi galdua*ko pertsonaia nagusiaren bidez.

Bi giro horien arteko aurkakotasuna desegiteaz bestalde, atzerritar batekin ezkonduz inor kaltetuko ez duen pertsonaia nagusi bakarra da Medel. Kanpotar batekin egindako gainontzeko ezkontzek arbuioren bat eragingo dute, lehenbizikotik bertatik hasita: VIII. mendean igarotako gertaerak kontatzen dituen Agirreren *Auñemendiko Lorea*ko (1898) Riktrudisetik. Ospe handiko euskal agintari baten alaba bakarra euskaldunek etsai zituzten frankoen duke zen Adalbaldorekin ezkondu zen. Ezkontzak euskaldunen eta frankoen arteko gerra berria piztu zuen.

*Polli ta Pello bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira*ko Pello Argentinan ezkontzen da Mirenekin. Nongoa den zehaztu ez izanagatik, dirudienez, ez da euskalduna (Lertxundi, 1910, 154). Senar zuen Pelloren adiskide Pollirekin zeukan zorra kitatu nahi ez zuelako, trikimailu desberdinak erabiliz, buruhauste franko sorraraziko dizkie. Bere jokabide oldarkorrak gaixotuta hiltzen da. Handik bi urtera Gipuzkoako Beterrira bihurtzen direnean bi indianoak, bataren eta bestearen amarekin elkartuta daudela, "an ezkondu izan ez banitz, obe" (Lertxundi, 1910, 175), dio Pellok.

Pertsonaia nagusien artean ez ezik, bigarren mailakoetan ere bada arrotzen batekin ezkondutakorik. Beti norbaitzuek nozituko dute erabakia, eta horietako bat, salbuespenik gabe, pertsonaia nagusia da. Erbestekoekin ezkontzeak Riktrudis eta Pello atsekaberen bat pairatzera zigortzen ditu, eta bigarren mailakoenak ere pertsonaia nagusia mintzen du. Agirreren *Garoa*n, irabaziak hobetzeko asmoarekin Gaztelara bideratu zen Zabaleta baserriko Joanesen eta Ana Joseparen seme Juan Andres Dionisia galiziarrarekin ezkontzen da, eta daukaten seme Juanitorekin jaiotetxera datozenean, Ana Josepak eta kanpotarrak ezin elkar ulertu. Ezin elkar ulertu, ezta bizikide izan ere, Juanitok aita Juan Andresi "Vámonos de aquí cuanto antes" (Villasante, 1981, 191) eskatzeak adierazten duenez. Egoera deserosoa *Garoa*ko pertsonaia nagusi den Joanes eta honen emazte Ana Joseparentzat.

*Ardi galdua*ko Medel Alicerekin ezkondu ostean eztei-bidaian Leaburura heltzean, berebiziko harrera egiten diete, baita Alicek ere gozatu lagunarte horretan: senarra bitarteko jakinarazten dio alkateari "ez zuela egun alaiagorik beraren bizi guztian izan" (193). Euskarari dagokionez, "goxoa zerizkiola; *nire maitea,* (…) eta beste zertxobait ikasi zuela, baina gure mintzo hau *very very hard difficult* " (167) zela. Alice eroso sentitzen da Leaburun eta Medel Sacramenton. Iturburu desberdinetako kulturadunen ezkontza bakarra gaitz-eragile ez dena. Medelek Aliceren heriotzaren berria igortzean "Erruki nizaz" (219) eransten du, baina bizidun oro hilkor denez, gizakiaren gobernupetik at dago.

Orobat atzerritar bat *baltzukide* duen bakarra ere. Protestantea den Mister Stephenson atzerritarrarekin irekitzen du Leaburu Hotela, osterantzekoak euskaldunen artean konpontzen direnean. *Joañixio*ko Joañixiok Uztaritze edo inguru haietakoa den Aniotzekin batera erosiko du, herrikide zituen Erramon eta Telex Euskal Herriratzean, haiek Panpan zeukaten estantzia. Halaber, badira Ameriketatik itzultzeko tenorean familiartekoak deitzen dituztenak, jasotako etxaldeari jarraipena eman diezaioten: *Jaioterri Maitia*ko artzainek Ardibasotik Mexikora joateko eskatzen dieten senideen esku uzten dute. Hori baino gehiago: ordezkatuko dituzten senide ezkongai horien ezkontzak aurretiaz antolatu, "bildurrez, bertako ezkongeiakaz egin zeitezan" (Sarriugarte, 1988, 198).

Beste berezitasunen bat ere gehi dakioke: Ipar Amerika izatea emigrazio-leku, Hegoaldeko eleberrigileek taxututako gainontzeko indianoek Hego Amerika izan dutenean irtenbidea: *Jaioterri Maitia*ko artzainak Mexiko; Argentina *Polli ta Pello bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira*ko Pollik eta Pellok nahiz *Joañixio*ko Joañixiok. Iparraldekoa den Iratcheten *Anttone*ko Antton aitarekin esaneko izanaz Amerikara abiatzen denean, Kanadan kokatuko da. Haatik, Anttoni jazotzen zaizkion ezusteko gertaera anitzetako (etxea erre, galerei aurre egiteko Kanadara emigratu, iheslaritzat jo ez dezaten II. Mundu Gerraren bezperetan amak bihurrarazi, etsai alemanak gudukatu, emaztegaiak beren arteko harremana hautsi…) bat baino ez da indiano bilakatzea, besterik baita *Anttone*n azpimarratzen den gaia: landa giroa / hiri giroa aurkakotasuna.

Azkenik, soil-soilik Medelek dauka "Osasun-herri eta ondasun-herri"-tzat (63) emigrazio-lekua; Joañixiok, "Ameriketan, esateko egun on bat izan gabe" (Irazusta, 1946, 271) dioenean. Besteen sentipenak bi muturron tartean: *Jaioterri Maitia*ko artzainak herriminak harrapatuko ditu jaioterriko bizimoduaren hutsunea nozitu izanagatik (ez herrikideena edo ahaideena); Polli eta Pello beren amen jakin-minari erantzuten ari direnean, ez dute inor bultzatzen bide hori hartzera.

*Ardi galdua*n argi geratzen da Ipar Amerika ez zela izan Azkuek ustekabean egindako hautua, euskal eleberrigintzan berri-berria den eta luzaroan hala izaten segituko duen mezua igortzeko bitarteko ere bazuelako Medel: ingelesa da mundu zabalera irteteko hizkuntzarik eraginkorrena.

Euskara eta fede katolikoa ziren pertsonaia nagusien balore-sistemako harroin ezinbestekoak. Euskararekiko atxikimendua kontakizun osoan gordetzen du Medelek, baita, ingelesa gaztelaniari lehenetsiz, haren baliagarritasuna ezagutarazi ere. Bizitzan zehar galtzen eta berreskuratzen duen oinarri bakarra fedearena da; gainerakoetan ez dago inolako aldaketarik. Horregatik, Medel Leaburutik ateratzen denean garaiko mapa soziolinguistikoak nagusien artean sartzen zituen hizkuntzetariko bat mintzatzen zuten tokiren bat behar zuen helmuga, gaztelaniadunenak alde batera utziz. Hizkuntza indartsu horien artean ingelesa hobesten du.

Kode bateratua paratzean besterik ere nabarmendu nahi zuen Azkuek: hizkuntzaren iraupenerako nahitaezkoa da batasuna, ez mugarriak jartzea, dela baserria (XX. mendearen bigarren erdi arteko eleberrigileentzat euskararen aterpe bakarra), dela Euskal Herria (bada pertsonaiaren bat beste hizkuntza bateko hiztunengana emigratu ostean euskara mespretxatuz datorrenik: Agirreren *Kresala*ko indianoa, D. Jose Antonio Egurbidekoa, kasu). Beste eleberrigileek euskara babesteko ipinitako hesiak gainditzearen alde azaltzen da, eta, Euskal Herriaren mugez gaindi ibiltzeko, ingelesaz jabetzea gomendatu.

1.2. Hizkuntzen erabilera

XX. mendearen lehen erdiko Hegoaldeko eleberrigileek euskaldunentzat arrotza den hizkuntza moduan aurkezten dute gaztelania eta Iparraldekoen artean ere, bada frantsesa berdin atzematen duenik. Ikus-

kera hau adierazten da Agirreren *Kresala*n edo *Garoa*n nahiz Irazustaren *Joañixio*n. Iparraldean, nola Daskonagerreren *Atheka-gaitzeko oihartzunak* eleberrian hala Iratcheten *Anttone*n.

Euskal eleberrigile apaizek euskararekin batera etxekotzat daukate latina. Etxekotasun hori darie Agirrek, Barbier-ek edo Azkuek euskarazko kontakizunetan txertatutako latinismoei, baina *Ardi galdua*koak dira bakarrak liburu liturgikoa iturri ez dutenak.

Hizkuntzen erabileran ere berritzailea da *Ardi galdua*. Lehenik eta behin, euskaraz moldatutako gutunotara lau erdaratako berbak edo esapideak eramaten ditu: gaztelaniak, frantsesak, latinak eta ingelesak zipriztintzen ditu. Frantsesa, Azkueren eskaintzan eta Justo Mendiri misiolariaren txostenean; latina, elizgizonen bat igorle duten eskutitzetan; ingelesa, gutun desberdinetan Aliceren edo Medelen esanen batzuk bilduz, baita Justo Mendirik idatzitakoan ere, arrastoren bat. Gaztelania argitasunak emateko lanabes da.

Euskara batuaren eredua gauzatzen ari bazen, Leonek aitari gaztelaniaz bidalitakoa helburuarekin zerikusirik gabekoa izanik, gutuneriatik ezabatzea zen bidezkoena, are gehiago euskarazko bat kendu denean, sor Santa Katalinak ahizpa Isabeli zuzendutakoa. Bi ahizpen artekoan legez, aita semeak igorritakoari erantzuten ari dela jakinarazten da: ikastetxeetan euskara ez dela aintzat hartzen gaineratzeko aitzakia polita. Euskararen osasuna ahultzen duten eragileez gutunen batek edo bestek lagatako aztarna.

Gehitutako lau hizkuntzetan gaztelaniarekiko jarrera da anbibalenteena; izan ere, hesiak jarri nahi zaizkion arren, ez da alboratzen. Zenbaiten ustez, betiere euskarari trabak ipiniz, gaztelania bultzatzen da. Osterantzeko ikaskideen jarraibidearekin bat eginaz, semeak eskutitza gaztelaniaz ondu izana desegokitzat badauka Medelek, salaketarik ugarienak Leonen meza berriaren ospakizunean eralgiko dira.

Andres Artesarri komentuko kapilauak Azpeitiko bereterburuarentzat osatutako gutunean oin-ohar bat txertatzen du: "Komentuak agitz euskararen hobiak (sepulcros) dira, esatea lotsagarria bada ere" (213).

Leonen meza berria Leaburun izatekoa zen, harik eta Isabelek haren aitari jada egotzia zion *besteriko* ezaugarria dela eta, "Jainkoak ez zuela agintzen" (203) aldarrikatuz, aurreikusita zeukatena aldarazten dieten arte, Lasarteko komentua aukeratuz. Erabaki honen aurretik Andres Artesarriren gutunaren jasotzaile den Azpeitiko bereterburua zen predikuaren arduradun, baina "zuk erdarazko jardunik nahi ez eta kapilau gaixoak lan hori hartu behar" (207) diotso. Gaztelaniaz aritzeari uko egin dion Azpeitiko bereterburuari meza berri egunean Matxinbentako erretoreak lekaimeen ama nagusi zen berastegiarrari aurpegiratutakoa eransten zaio, "Erdal Herrian erdaraz, Euskal Herrian euskaraz" (213) eta "Euskalduna ez denik gure artera baldin badator, ikasi dezala gure mintzoa (...). Guk ere hori egin behar izan genuen Erdal Herrian: erdaraz ikasi" (215). Era batera ala bestera hiru apaizek, Lasarteko kapilauak, Matxinbentako erretoreak eta Azpeitiko bereterburuak, euskara baliatzeari ezarritako mugarriak gaitzesten dituzte, Medelek semeari idatzitako eskutitzean egin bezala. Hegoaldeko euskaldunen artean gaztelaniak toki zabalegia duela irizten diote eta murriztearen alde egiten. Horiek horrela, lehentxeago aitzinatutakoa berretsi baino ez: erbesteratuko den Medelen norabideak ezin izan helmuga gaztelaniazko hiztunen herrialderen bat.

Halere, gaztelania ezin idazlanetik erabat deuseztatu balizko hartzaileak izan ditzakeen ulermen-arazoak konpontzea lehenesten bada. Ulermen-arazo horien jatorria euskara hizkuntza finkatu gabea izatean dagoenez, bigarren hizkuntza arautu bat galdatzen du argibide tresna moduan jardun dezan. Hegoaldekoentzat ezagunena den hizkuntzak beteko du eginkizuna: gaztelaniak.

Latinera jotzen duenean ere, apaizek paratutako eleberrietakoetatik urruntzen da, elizkizun eta zeremonia erlijiosoetatik kanporatuz. Gutun-egileetako bi herenak elizgizonak dira *Ardi galdua*n. Hortaz, latina ikasi duten sei lagun daude eta euskarazko eskutitzetan tokitzen dute, baina beti eliza-ekitaldietakoa baztertuz, kontalari horietako batek abagune bikaina badu ere. Justo Mendiri misiolariak aita probintzialari igo-

rritako txostenak Leaburuko misioen kontu ematea du betekizun eta, elizkizunez ari denean, eliztarrek primeran bereganatuta izango zituzten hiru lelo tartekatzeko baino ez zaio heltzen latin liturgikoari, euskarazko kantak eta frantsesezko bat hitzez hitz batzen dituenean. Iturburu desberdinak dauzkate *Ardi galdua*ko elizgizonek eta gainerako egile apaizek burutu dituzten eleberrietan aurkeztu dituzten pertsonaia apaizek. Bestela esan, Azkuek kontalari dituen bereterrek latin ikasiko esapideetatik edaten duten bitartean, Agirrek edo Barbier-ek moldatutakoek beren eginbeharren eskakizunetara zedarritzen dute.

Azkenik, ingelesa, nahiz Vasco de Gaintzak egunkariko zuzendariari, nahiz Justo Mendirik aita probintzialari, edo Leon Olazarretak aita Gabriel Batizi bidalitako gutunetan. Guztiak ere, Aliceren eta bereziki Medelen ahotsetatik bildutakoak dira.

Azkue da lehena lau hizkuntzei leku egiten, noiz eta bosgarren baten eredua mamitzea zuenean xede. Bosgarrena du muin, eta osterantzekoak urgazpenen baten ekarle. Arautu gabeko corpusari darion zehaztasunik ezari aurre egiteko bitarteko du gaztelania, latina iraganeko hizkuntza jasoaren lekukotzarako, baita frantsesa ere, beste hizkuntza batzuetako hiztunek garai batean beren kultura-hizkuntzatzat izan baitzuten, eta ingelesa esperanto berria iragartzeko.

Kode batuaren ereduan lau erdara txertatzen ditu, eginkizun desberdinak egotziz. Eginbideak banatzen ditu, bi hizkuntza landu ospetsuen eta erabilgarrien atzematen dituen beste bien artean. Erabilgarriak eraginkorrenak dituelako, biak ere makulurik egokienak: euskara finkatu nahian ibiltzeak azalpenak eskatzen dizkio eta horretarako gaztelania du laguntzaile, mundu zabalera irteteko, berriz, ingelesa. Justu horregatik, Azkuek mundura ateratzeko ingelesa onuragarrientzat begiesten duelako, Medelek Leaburu atzean lagatzen duenean hizkuntza horretako hiztunen lurralderen batera joan behar zuen.

Kultura-hizkuntzen zereginak apaingarri soilaren maila gaindi dezake; izan ere, batetik, euskara batuaren eredua gauzatzen ari den honetan, oraindik bateratu gabe dagoen hizkuntzaren ondo-ondoan tradiziodun

kultura-hizkuntza nagusietako esamoldeak jartzen ari zen, eta bestetik, esamoldeak euskaratzen dituen aldetik, ezagutarazten ari da hizkuntza jaso hauetan esandakoa euskaraz ere esan daitekeela.

1.3. Ardi galdua*, zentsuratua*

XIX. mendearen azken laurdenean plazaratzen hasten diren kontakizunetatik XX. mendearen lehen erdia ondo amaitu arteraino argitaratutakoen artean Elizak zentsuratutakoren batekin topo egitea txundigarri samarra suertatzen bada ere, hala gertatu zen *Ardi galdua*rekin. Harridura sortzen du mundu-ikuskera berbera adierazi zutelako eta mundu-ikuskera horren harroinak euskara, euskal ohiturak eta fede katolikoa zirelako. Egia da, *Ardi galdua*k izan ezik, gainerakoek ereduzkoa zena erakustea zutela jomuga eta ereduzkoa ez zena lanabes hutsa zela ereduzkoa nabarmentzeko. Azkuek ez zion eman bizitza une oro ereduari eutsiko dion pertsonaia nagusiari, urte batzuez premiazkoa den habeetariko bat, fede katolikoarena, galdu izanagatik, baina ez zen hori izan Elizak ezarritako zentsuraren eragilea.

Zur eta lur uzten duen jakinarazpena iritsi zitzaion Azkueri:

> Nobela hori, orrialde bitako lerroak zirala-ta, zurrun, gogortuta geratu zan, hobeto esan geratu eban, obispaduko espengilearen luma gorriak (Erkiaga, 1985, 32).

Bederatzigarren eskutitzean dago gakoa: 231 eta 233. orrialdeetan kontatutakoak dira onartzen ez dizkiotenak. Azpeititik Juan Jose Arizpe bereterrak Emeterio Olazarretari igorritako gutunak dioenez, Leon apaiz egin berritan osaba txiki duen Leaburuko apaiz Adrian Iriondoren esanetara egon ostean, Arabako herrixka txatxar bateko parroko izendatu zuten eta ezusteko honek Leaburuko apaiza zeharo abaildua laga zuen. Jarraian, bitartekaritza gorabeherei heltzen die gutunak. Apezpikuaren esku daude apaizen destinoak eta bitartekariren bat tarteko

aurreko erabakia aldatuz, Leon berriro Leaburura ekartzea bilatzen dute: osaba txikiak oinordeko nahi du.

Erkiagak zehazten duenez, zentsuratuko orrialdeak ezabatu eta berrogei bat lerro berri idatzi zituen, ordurako liburu zena puskatuz orrialde zaharrak ordezkatzeko. Jatorrizkotik lau ale gorde omen ziren eta osterantzekoetan zentsuratutakoaren zantzuren bat geratu zen, ez apropos, baizik eta orrialde horiek birmoldatu ondoren eskutitzak jorratutako gaiaren adierazle nagusiak jasotzen zituen aurkibideak ere ukituren bat galdatzen zuelako. Hona moldiztegira eramandakotik geratu zen aztarna: bederatzigarren eskutitzaren aurkibidean azaltzen den *Condesa de Burunda*ren arrastorik ere ez dago Arizpe apaizaren kontakizunean. Datu hau oinarri, Erkiagak ondorioztatzen du:

> Idazleak, edatsiaren harian, obispuagana bitarteko lez bialdu gura ebana, andere hori edo zan. Nor dan bat zan, ez edonor (Erkiaga, 1985, 33).

Gasteizko gotzaindegiak zuzenketak agintzeak zeinahi apaizentzat zartateko handia zen, ez gutxiago Azkuerentzat, lehenik eta behin ez zelako nornahi, hurrena, argitalpena atzeratzeaz gain, garestitzen ziolako. Azkue ez zen bere *pasioetara* eskaini kontuak egin gabe eta bere lanarentzat irteerarik emankorrena lortzeaz arduratu barik. Hona *Ardi galdua*rentzat aurreikusi zituen diru-iturriak:

> Ohartu, argitalpen lana errentabilizatzeko Azkuek iradokitzen zituen kopuruak nolakoak ziren: hogei filantropok dozena bat ale erostea eta erakunde publikoen laguntza aski izango omen zen (*Ardi galdua*ren kasuan Gipuzkoako Diputazioak 50 ale erosiz erantzun zion Azkueren eskariari) (Kintana, 2008, 306).

Baita bestelako "onuren bat irabaztea" aintzat hartu ere: euskara batzeko eredua agerrarazten zuen idazlana argitaratu eta urtebetera gaztelaniaz ere plazaratu zuen, Ignacio Garcia Zabaleta apaizak itzulita.

Lantzen, ikertzen, zabaltzen… ari zen hizkuntzak gabeziak zituenez (eskolatik kanpo, babes ofizialik gabe, indarrean zegoen ofizialtasunetik oztopoak bakarrik…) kontularitza, halabeharrez, nahitaezkoa zuen.

Baita argitasun handiarekin egin ere, *Euskalzale*ren (1897-1899) zuzendaritzatik aldizkariaren iraupenari begira emandako urratsek erakusten dutenez. Hasierako zenbakiak hainbat euskaltzaleri, balizko hartzaileei, igorri eta zazpigarren zenbakitik aurrera honako oharra txertatu:

> Gei au atzera bialdu nai eztabena, euslatzat (sic) eukiko dogu (*Euskalzale*, I, 56).

Hainbat eusleen ordainketetan atzerapenak hamaika aldiz gogorarazteaz gainera, eragozpenari modu eraginkorrean aurre egiten saiatu zen: zorretan ziren harpidedunei, zenbait herritan bederen, mandatari bat bidaltzen zien (*Euskalzale*, I, 416).

Nahiz eta eusle "arduragabeak" izan, Bizkaiko gobernadore zibila da aldizkaria ixten duena. Lehenik, euskara hutsezko *Euskalzale*ko edukiak gaztelaniaz ez jartzeagatik 100 pezetako isuna ezarri zion; gero, kaleratzen zuen ale-kopuruaren zenbatekoa eskatu eta honetan bukatu zen aldizkariaren bizitza, Azkuek uko egin ziolako jakinarazteari.

Eskura ditzakeen bermerik erakoenak bilatzen ditu: argitaratzaile eta zabalpenik egokiena. Lanak ez du beldurtzen, jendarteratzeko hoberenak jotzen dituen baliabideak beretzeak baino. Esaterako, *Bein da betiko*ren argitaratzailetzat Bizkaiko Diputazioa nahi zuen eta mamiaz jabe zitezen gaztelaniazko itzulpenarekin helarazten die. Xedea ez zuen betebetean erdietsi, bai horratik, diru-laguntza eta inprimatzeko baimena (Arana Martija, 1988, 375).

Etendako hariari helduz *Ardi galdua*k pairatutako zentsura-arazoa zela eta zerbait ikasi zuen Azkuek:

> Idatzirik laga eban Gasteizera joan zan gutun baten: "hurrengo nire nobelan, destinoa dalakoa lortzeko bitartekotzat, ez dot ez Kondesarik, ez Markesik, ez Ministrurik, ez Osiorik ta ez Paulorik izentauko".
>
> Are gehiago zan harek idatzia: "nazana nazanez, promes egiten dot lan barriaren orrialdeetan ez sotanarik, ez habiturik, ez beaten mantilarik eta ezta latinazo txikerrenik ere, sartuko ez dodala" (Erkiaga, 1985, 33).

Ikasi bai, baina, dirudienez, ez behar beste. *Ardi galdua*n berrogei bat lerro berridazteko premia izan eta gero, hitza betez, hurrengo eleberrira,

*Latsibi*ra, ez daroa zentsuratutakoan zegoen kondesarik, ez sotanadunik, ez abitudunik, ez beaten mantelinarik, ez latinik. Arrisku oro uxatzeko pertsonaia-mota horiek deuseztatzen ditu. Oraingoan, Gasteizko gotzaindegiaren baimena eskuratu izanagatik, iradokizun bat ere jaso zuen: *Latsibi*k eliz zentsuraren onarpena izan arren, 1935eko otsailean Mateo Muxika Gasteizko apezpikuak bidalitako gomendioa:

> aunque, según me informa [el censor], que este no contiene nada reprobable ni nada que ofenda a la fe católica ni a las buenas costumbres, (...) es a juicio del censor –que hago mío– inconveniente e inoportuno darlo ahora a la publicidad, porque toda la fábula versa sobre unas elecciones a diputados (...). Se fingen los preliminares de semejantes elecciones, la proclamación de candidatos, la labor de propaganda en mítines; se suponen coacciones y sobornos, se falsifican actas (...) por lo que, repito, estimo que la publicación de "Latsibi" no es oportuna en las circunstancias por las que atravesamos" (Kintanak aipatua, 2008, 304-305).

Sentipenak sentipen, aholkuari jaramon eginaz, ez zuen plazaratu ez orduan, ez bizi izan zen artean: eskuizkribua gorde eta kitto.

*Ardi galdua*ren azterketan XX. mendearen bigarren erdirainoko eleberrigintzan sartzen dituen berritasunak azpimarratu dira. Hala eta guztiz, berritasun horietako bakar bat ere ez da zentsura-sorrarazle. Zer atzera botako eta Leon Arabako herri txatxarretik atera eta berriro Leaburu izenda diezaioten erabili duten bidea. Hitz batean, Elizaren gobernuko barne-erregelaren batekin laxotasunez jokatu izana. Apezpikuaren agindupean dago elizbarrutia eta bere eskumenen artean dago apaizen destinoa. Elizbarrutiko zentsoreak ez du ontzat eman Leon Leaburun nahi zuten apaizek egindakoa, ez besterik.

1.4. Ondorioak

Barkagaitz izango litzateke *Ardi galdua*ren mendeurrenaren abagunea alferrik galtzea funtsezko ekarria aitortu gabe: mugarriak igaro izana.

Mugarri esanguratsuena ez da osterantzeko apaizen eleberriek gotzaindegiaren bahea birmoldaketarik gabe iragazi izana, baizik eta lehen eleberri argitaratutik XX. mendearen bigarren erdira artekoek ezarritako hainbat hesi ezabatu izana: euskalki jakin batetik, gipuzkera osotura, euskara batzeko egokientzat jo duen eredura eta ohiko pertsonaia nagusitik bana-banakora.

Oraindik kode bateratua jadetsi ez izanak eragindako ahuldadea etorkizunean gainditzen joateko asmoarekin heldu dio lantegiari. Euskalki zehatza oinarri, beste euskalkiekin osotutako eredua dakusa bideragarrien. Jakin badaki euskaltzaleek kode bateratu bat gura dutela, baita kode horren nolakotasunak banatzen dituela ere. Beraz, konbentzitzean dauka gakoa.

Euskal gizartea du balizko hartzaile eta hobesten duen proposamena helarazteko arau-zerrenda batez baliatzea baztertuz, gutuna bide moldatutako kontakizun batean gauzatzen du eredua. Kode bateratua erakusten duen idazlanaren muinean, bana-banakoa den pertsonaia kokatzen du. Bana-banakoa, bere komunitatearekin duen lotura oso sendoarengatik, herritarrek lider moduan daukate. Bana-banakoa, beste eleberrigile bakar batek ere ez duelako sortu komunitatea erakartzeko ahalmena duen pertsonaia nagusirik. Bana-banakoa, ereduzkotasuna denboraldi batez urratzeagatik. Bana-banakoa, "besteekin" nahasten den bakarra izateagatik: nahasten da familia osatzeko, alargundu ostean gutarra zen euskaldun katolikoa arbuiatu eta gero besteetariko batekin, amerikar protestante batekin, ezkonduz; nahasten da dirua irabazteko, besteetariko batekin, amerikar protestante batekin batera Sacramenton Leaburu Hotela irekiz. Hori guztia aski ez, eta, euskaldunen artean bertan landetxea eta kalea aurrez aurre ipiniz *gutarrak / besteak* bereizten zituen ardatza desegiten du: *baserritar gentlemandu*ak bere baitan batzen ditu biak. Eta azkenik, bana-banakoa, berri-berria eta luzaroan hala izaten jarraituko duen gonbita zabaltzeagatik euskaldunari: ingelesa ikastea eta noranahi irtetea.

Erreferentzia bibliografikoak

AGIRRE, D., 1898, *Auñemendiko Lorea.* Bilbao: Euskalzalen moldagintza.

—,1906, *Kresala,* in L. Villasante, (arg.) (1976), *Kresala.* Oñati: Arantzazuko frantziskotar argitaldaria.

—, 1912, *Garoa,* in L. Villasante, (arg.) (1981), *Garoa.* Oñati: Arantzazuko frantziskotar argitaldaria.

APAOLAZA, A., 1890, *Pachicu Cherren* in J. San Martin, (arg.) (1962), *Patxiko Txerren.* Tolosa: Auspoa Liburutegia 8.

ARANA MARTIJA, J. A., 1988, "Euskal katedraren lehiaketa eta eragina", *Euskera,* XXXIII (1988) 361-378.

AZKUE, R. M., 1888, "Grankanton arrantsaleak" faksimila in J. A. Arana Martija, (arg.) (1988), "Grankanton arrantsaleak", *Euskera,* XXXIII (1988) 379-389. Argitalpena, *Idatz* & *Mintz*, 21 (1991) 4-6.

—,(Ezti-Abauak), 1888-1889, "Peru Matraka ta Pedr'Anton", *La Abeja,* I, (1889) 30-32, II, (1890) 55-60, III, (1890) 92-96, IV, (1890) 126-128, V, (1890) 156-160, VI, (1890) 188-192.

—, 1893, *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko.* Bilbao: Imprenta de la Casa de Misericordia. Halaber, *Euskalzale,* II, (1898) 276, 283-284, 290-291, 301-302, 312, 318-319, 342, 350, 366-367, 373-375, 390-391, 413-414. (Egilearen izenik gabe).

—, 1897, "Kristobal andia", *Euskalzale,* I, (1897) 92-93, 99-100, 109-110. (Egilearen izenik gabe).

—, 1897, "Batxi Guzur", *Euskalzale,* I, (1897) 276, 283-284, 290-291, 301-302, 312, 318-319, 342, 350, 366-367, 373-375, 390-391, 413-414. (Egilearen izenik gabe).

—, 1918, *Ardi galdua.* Bilbo: Jesusen Biotzaren elaztegia.

—, 1919, *La oveja perdida: novela escrita a ratos perdidos; traducción de Ignacio García Zabaleta; dibujos, los cinco primeros de A. Guezala; los siete restantes de R. Rochelt.* Bergara: Tip. de El Santísimo Rosario.

—, *Latsibi,* in M. Alberdi, (arg.) (1989), *Latsibi*. Bilbo: Euskaltzaindia eta Labayru Ikastegia.

BARBIER, J., 1926, *Piarres I,* in R. Sanchez, (arg.) (1992), *Piarres I*. Bilbo: Ibaizabal.

—, 1929, *Piarres II,* in A. Loidi, (arg.) (1996), *Piarres II*. Donostia: Mensajero.

BARRENSORO (Agirre, T.), 1937, *Uztaro.* Bilbo: Editorial Vasca.

BLAIR, H., 1789, *Sobre la Retórica y las Bellas Letras*. Madrid: Antonio Cruzado.

DASCONAGUERRE, J. B., 1868, *Les échos du Pas de Roland*. Paris: Firmin Marchand.

—, 1870, *Atheka-gaitzeko oihartzunak*. Baiona: Vve Lamaignère.

DUVOISIN, J. P., 1884-1885, *Baigorriko zazpi liliak* in J. San Martin, (arg.) (1987), *Baigorriko zazpi liliak*. Elkar: Donostia.

EGILE EZEZAGUNA, 1901, "Congreso Basco en Hendaya (Francia)", *Euskal-Erria,* VL (1901) 242-243.

ELIZANBURU, J. B., 1888, *Piarres Adame saratarraren zembait hitztorio laphurdiko eskuaran*. Pau: Impr. de Garet.

ERKIAGA, E., 1985, "Azkueren 'Ardi galdua' zentsurape 1918 gn.", *Idatz & Mintz,* 9 (1985) 32-33.

ETXEITA, J. M., 1910, *Jaioterri Maitia,* in I. Sarriugarte, (arg.) (1988), *Jaioterri Maitia.* Bilbao: Labayru Ikastegia.

IRATCHET, J. P., 1946, *Antton,* in P. Urkizu, (arg.) (1990), *Antton*. Donostia: Etor.

IRAZUSTA'TAR, J. A., 1946, *Joañixio*. Buenos Aires: Editorial Vasca Ekin.

KINTANA GOIRIENA, J., 2008, *Intelektuala nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra*. Bilbo: Euskaltzaindia.

LHANDE, P., 1919, "Chronique de littérature basque", *RIEV,* X (1919) 190-200.

LERTXUNDI, J. M., 1910, *Polli ta Pello bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira*. Donostia: J. Baroja ta Semeen moldiztegia.

LIZARDI, X. (Agirre J. M.), 1932, *Biotz-begietan*, in K. Otegi, (arg.) (1994), *Olerkiak*. Donostia: Elhuyar Kultur Elkartea.

MENDI-LAUTA, 1937, "Loretxo", *Eguna*, II-14, II-18, II-21, II-27, III-3, III-6, III-7, III-11, III-16, III-20, III-21.

TRUEBA, A. de, 1863, *El Judas de la casa*. Madrid: Imp. "El Comercio".

Ana M. Toledo Lezeta
Euskaltzaindia-Deustuko Unibertsitatea.



ARDI GALDUA

R. M.ª AZKUEK

ARTEKA-MARTEKA EGINDAKO

GERTIRUDIA

ENE ADISKIDE MAITE TA BERETERKIDE GARTSU

J. J. ARIN TA J. M. ZUAZTI-RI

Gertiruditsō (1) onen aitabitsi izatea, gizalegez, zueri dagokizute. Zueri zor dizute ARDI GALDU onek beronen seaskatsō tsukuna: Leaburu. Aldi batez Greziako gizuren baten ama (enaiz izenaz oroitzen), ertzaroan, bere jayoterritik elkita, izan bear zuen aurrarentzat seaskerri baten bila joran aundiz ibili omenzan bezela, nerau ere, nere *Arkumetsō* onentzat jayogu (2) bat nai nuelarik, Beizama-aldera tipi-tapa asi nintzan; eta zuen arteko nere antzekoen orrek, arriturik, «¡Beizamara!, esan zenidan ¡Beizamara! ¿ezotezera mendi basa ayetan zerori ARDI GALDUA izango? Alarik ere Urdanpilēta-barreneko basauritsō artan iru eguneko egotaldi-ikastaldi-ikertalditsō bat egin nuen ta gero zuengana Leaburura jo.

¡Leaburu! ¡¡Uf!! *Tout le monde a deux patries,* arrosko esan zidaten bein Parisen: *la sienne et la France* (3). Nik, «mundu guzti» orren antzera, bi sorterri, bi asaberri, bi *patries* bear banitu, bigarrena enuke izango ori; nere bigarrena Lea-

(1) «Novela». Ikusi Geigarriko itz berriak.
(2) «Lugar de nacimiento». Ikusi *-gu* Geigarrian.
(3) Edozeinek ditu bi sorterri: norberarena ta Frantzia.

ENE ADISKIDE MAITE ETA BERETERKIDE[1] GARTSU J. J. ARIN ETA J. M. ZUAZTIRI

Gertiruditxo[2] honen aitabitxi izatea, gizalegez, zuei dagokizue. Zuei zor dizue ARDI GALDU honek beronen sehaskatxo txukuna: Leaburu. Aldi batez Greziako gizuren[3] baten ama (ez naiz izenaz oroitzen), ertaroan, bere jaioterritik ilkita[4], izan behar zuen haurrarentzat sehaskerri baten bila joran[5] handiz ibili omen zen bezala, nerau ere, nire *Arkumetxo* honentzat jaiogu[6] bat nahi nuelarik, Beizama aldera tipi-tapa hasi nintzen; eta zuen arteko nire antzekoen horrek, harriturik, «Beizamara! esan zenidan, Beizamara!, ez ote zara mendi basa[7] haietan zerori ARDI GALDUA izango?» Halarik ere, Urdanpileta barreneko basauritxo hartan hiru eguneko egotaldi-ikastaldi-ikertalditxo bat egin nuen eta gero zuengana Leaburura jo.

Leaburu! Uf!! *Tout le monde a deux patries*, harroxko esan zidaten behin Parisen: *la sienne et la France*[8]. Nik, «mundu guzti» horren antzera, bi sorterri, bi asaberri[9], bi *patries* behar banitu, bigarrena ez nuke izango hori; nire bigarrena Leaburu izango litzateke: semerria,

---

(1) Apaizkidea. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* [EH aurrerantzean] ez dago *bereter* hiztegi-sarrerarik. Jasotzen duen *beretter* izenaren azalpena ez da testuko adierakoa, meza-mutila, akolitoa baizik. *Orotariko Euskal Hiztegiak* [OEH aurrerantzean] jasotzen du *bereter*, Azkuek darabilen esanahia duela, apaiz, abade, alegia.
(2) «Novela». Ikusi Gehigarriko hitz berriak.
(3) Heroia; gizon nagusia.
(4) Atera, irten.
(5) Gogo, nahi bizia.
(6) «Lugar de nacimiento». Ikusi *gu* Gehigarrian.
(7) Lohia, lokatza.
(8) Edozeinek ditu bi sorterri: norberarena eta Frantzia.
(9) Aberria.

buru izango litzake: semêrria, bigarren asaberri. Ara iritsita, bertako apaiz jaunak «¿Arako mendi hura zein dan? Basatsurro. ¿Beste orrako ori? Larte. Bularra ere bear da gero orri burura igotzeko». Ta onelase jakinerazi zizkidan inguru ayetako tontor ta arro, gain ta sakon, mendiska ta zelai, etse ta balderna (1)..., baita gizaseme ta emakume agerienen izenak ere. Ayen artean Egi. ¡O Egi, Leaburuko elizapeko tontor, buru-biribil, ikusgarri ta ikusgu (2) eder ori! Ire bizkarretik Ernio ta Aralar ta Aizkorri mendi eskergak begi betean ikusita gero, Oria-bazterreko uri lantsu Tolosa, emakumetso zurbil bat bailitzan (3) gutsituz, emetuz izendatzen duten Tolosa yayua, begiak zabal-zabal nituela, ikustorduan, gogoak etzidan bururatzen egungo uri ketsu, erdaltsu, dirutsu ori, ez; orren ordez, gizaldi zarretan Gipuzkoak burutzat zeukan uri alai, goita beterriko beredin basauritsoren inude, bertsolari buru-zorrotz, ur-etsai, ezpain-biguñ geyenen bilune (4) zan- Tolosa irudi izan zitzaidan.

Zueri, biotzez baturik zauzkadan orrei, ez bakarrik seaska, baita leguntasun-zerbait ere zor dizute nere semetso kutun onek (5). Zuenak izan oi

(1) Euskera mordoloz «bailera».

(2) «Mirador». Ikusi *-gu* Geigarrian.

(3) Como si fuera. Erdalkutsudun esakera da «balitz bezela».

(4) Centro de reunión.

(5) Oroitzen naiz, beste orraztaldi (reparos) batzuen artean, ause maizenik egiten zenidatela: «¿Zergatik idasten dezu *baina, zinez, gainera,* Gipuzkoan *baiña, ziñez, gaiñera* esaten degunezkero?» Giputzera, zerbait beste izkelgietatik geituz, Euskalerriko izkera izatea nai nukelako; ta beste izkelgi askotan, *maite, gizon, bildur, ilak, itsasoa* bezela (ez *maite, gison, bildur, ilak, itsasoa), baina, zinez, gainera* ebaki

bigarren asaberri.

Hara iritsita, bertako apaiz jaunak «Harako mendi hura[10] zein den? Basatxurro. Beste horrako hori? Larte. Bularra ere behar da gero horri burura igotzeko». Eta honelaxe jakinarazi zizkidan inguru haietako tontor eta arro, gain eta sakon, mendixka eta zelai, etxe eta balderna[11]..., baita gizaseme eta emakume agerienen izenak ere. Haien artean Egi. O Egi, Leaburuko elizapeko tontor, buru-biribil, ikusgarri eta ikusgu[12] eder hori! Hire bizkarretik Hernio eta Aralar eta Aizkorri mendi eskergak begi betean ikusi eta gero, Oria bazterreko hiri lantsu Tolosa, emakumetxo zurbil bat bailitzan[13] gutxituz, ernetuz, izendatzen duten Tolosa iaioa, begiak zabal-zabal nituela, ikustorduan, gogoak ez zidan bururatzen egungo hiri ketsu, erdaltsu, dirutsu hori, ez; horren ordez, gizaldi zaharretan Gipuzkoak burutzat zeukan hiri alai, goi eta beterriko berein[14] basauritxoaren inude, bertsolari buru-zorrotz ur-etsai, ezpain-bigun gehienen bilune[15] zen Tolosa irudi izan zitzaidan.

Zuei, bihotzez baturik zauzkadan horiei, ez bakarrik sehaska, baita leuntasun zerbait ere zor dizue nire semetxo kuttun honek[16]. Zuenak izan ohi dira Martin Lontxok eta Betijaik en-

---

(10) Hala idatzita dago jatorrizkoan, "h" duela.
(11) Euskara mordoiloz «baillera».
(12) «Mirador». Ikusi *-gu* Gehigarrian.
(13) Como si fuera. Erdal kutsudun esaera da «balitz bezala».
(14) Asko, anitz.
(15) Centro de reunión.
(16) Oroitzen naiz, beste orraztaldi (reparos) batzuen artean, hauxe maizenik egiten zenidatela: «zergatik idazten duzu *baina, zinez, gainera,* Gipuzkoan *baiña, ziñez, gaiñera* esaten dugunez gero?» Giputzera, zerbait beste hizkelgietatik gehituz, Euskal Herriko hizkera izatea nahi nukeelako; eta beste hizkelgi askotan, *maite, gizon, beldur, hilak, itsasoa* bezala (ez *maitte, gixon, bilddur, illak, itxasoa*), *baina, zinez, gainera* ebaki ohi delako. Ikus bitez, honetarako, oraintsu Oñatin erakutsi nituen eta aurki agertzekoak diren bi irakaskizunak: DE FONÉTICA VASCA. *In* eta *il?, iñ* eta *ill?* Esan ohi dituzte eta lirateke hagitz giputzak beren hizkelgian; idatzi, ordea, orok berdin dagigun. Arau honen bidez, hizkera osoaren legeak osotasuna galdu gabe, oro batean jar gaitezke.

dira Martin Lôntsok eta Betijaik entzundako parre gozo asikinak (1); zuenak Antŏn Barandianek eta Medelek Urkietako aurreskuan izan zituen lenengo tsaloak; eta Medelen seme naigabetsuak bere negar ta antziz eraginiko len-malkoak ere zuen begietatik isuriak izan dira. Zuek, beste inork ez bezela, dakizute nundikoak izan ta izango ditudan nere buruauste, biozmin ta jarraikadarik latzenak eta beltzenak. Euskera ilko ezpada, noraezekoa (nai ta ezekoa) degu izkelgi bati (dialecto bati) euskaldun guztiok errazen ulertzen degun izkelgiari, Urumea-bazterrekoari, indarra ta kemena ematea. Onetarako asmotan artua dezute Donostian euskera utsezko eguneroko bat ateratzea. Jaunak onedatsi ta indartu bezazute, nere gogaide maite oyei, asmo eder pizkarri ori. Ni jayo nintzan-uri onetako mintzoa Euskalerriko una (muña) balitz ¡¡nere poza, lenen ikasi nituen itz ayek (berbatsu arek) arrointzat artuta, lan ta lan egitea!!

Azkenez, zuenak izan dira onelako arazoetan ekiteko izan ditudan itz pozgarri ta zintzoenak. Zuen izenaren gerizpean sor bite, beraz, nere lantso au; eta âte alper-nagien umeak oilo amaloka baten egapean arrautze-koskoletik irten ta azi oi diran bezen mamintsu ta pizkor, zuen izenpean argitaratu ta koskortu bite nere Ardi Galdua.

---

oi dalako. Ikusi bitez, onetarako, oraintsu Oñatin erakutsi nituen ta aurki agertzekoak diran bi irakaskizunak: De Foné-tica vasca. *In* ta *il*, *iñ* ta *il̃* esan oi dituzte ta litzazkete agitz giputzak beren izkelgian; idatsi, ordea, orok berdin dagigun. Arau onen bidez, izkera osoaren legeak osotasuna galdu gabe, oro batean jarri gindezke.

(1) Las primicias.

Lekeition, 1918-ko garoilaren 20-an.

tzundako barre gozo hasikinak[17]; zuenak Antton Barandiaranek eta Medelek Urkietako aurreskuan izan zituzten lehenengo txaloak; eta Medelen seme nahigabetsuak bere negar eta antsiaz eraginiko lehen malkoak ere zuen begietatik isuriak izan dira. Zuek, beste inork ez bezala, dakizue nondikoak izan eta izango ditudan nire buruhauste, bihozmin eta jarraikadarik[18] latzenak eta beltzenak. Euskara hilko ez bada, noraezekoa (nahitaezkoa) dugu hizkelgi bati (dialecto bati) euskaldun guztiok errazen ulertzen dugun hizkelgiari, Urumea bazterrekoari, indarra eta kemena ematea. Honetarako asmotan hartua duzue Donostian euskara hutsezko eguneroko bat ateratzea. Jaunak onerasi[19] eta indartu bezazue, nire gogaide maite horiei, asmo eder pizgarri hori. Ni jaio nintzen hiri honetako mintzoa Euskal Herriko guna[20] (muina) balitz nire poza, lehenen ikasi nituen hitz haiek (berbatsu haiek) harrointzat hartuta, lan eta lan egitea!!

Azkenez, zuenak izan dira honelako arazoetan ekiteko izan ditudan hitz pozgarri eta zintzoenak. Zuen izenaren gerizpean sor bedi, beraz, nire lantxo hau; eta ahate alfer-nagien umeak oilo amaloka baten hegapean arrautza-oskoletik irten eta hazi ohi diren bezain mamitsu eta bizkor, zuen izenpean argitaratu eta koskortu bedi nire ARDI GALDUA.

Lekeition, 1918ko garoilaren[21] 20an

---

(17) Las primicias.
(18) Erasoaldia.
(19) Bedeinkatu.
(20) OEHk "hun" sarreratik "gun"-era igortzen du.
(21) Iraila.

IRAKURLEARI

1.n Zerorren eskuz zuzen itzatzu gutun onetan or-emenka diran okerrak. Ordu-laurdentso bat aski dezu orretarako.

Orrialdea	Dio	Ezarri bite
4	arrozku.....	arroztegi
11	irakastegian	irakasguan
55	urez erartzeko ..	urrez erartzeko
89	alegi tsēratsuena.	abegi tsēratsuena
98	auetsēk	auetsēk
110	ziriketatsō ba....	ziriketatsō bat
113	igoten	igotzen
114	sakeletik	sakeletik
117	antzuak.....	antzuak,
118	asikintzat.....	asikintzat
118	esiz esi.....	esiz esi
119	nola la zeinbat ...	nola ta zeinbat
127	ugaria, ...	ugaria
134	noa.....	noa,
135	egokiagarik.....	egokiagorik
142	puskak	puskok

2.n Okerrak zuzentzen ari zeranartean, zure begiak, gau goibeletan odei-artean bezela, itz batzuen gainean izar tsīkitsō bat ikustea izan liteke. Izardun itzmitz oriek 145-garren orrialdeko Geigarrian nabaritu zenetzazke azalduak.

3.n Durunlaria (musikoa) bazera, irakurzazu Geigarri orren atzeneko oyuki zar eztizkoa: ARANTZAZU-ALDEAN IZAR BAT DA AGERI. Erriak beste ele erdalusaindunez estalita jakinerazi zidan. Baldin zerori durunlaria ezpazera, dan batek oyuka bezaizu: eztezu, belarri zurdun ta otsezti-zale bazera, eztezu damu izango.

IRAKURLEARI

1. [Azkuek eskatu bezala, lehen ohar honetako okerrak testuan zuzendu ditugu].

2. Okerrak zuzentzen ari zaren artean, zure begiek, gau goibeletan hodei artean bezala, hitz batzuen gainean izar txikitxo bat ikustea izan liteke. Izardun hitz-mitz horiek 335. orrialdeko Gehigarrian nabaritu zenitzake azalduak.

3. Durunlaria (musikoa) bazara, irakur ezazu Gehigarri horren atzeneko oihuki zahar eztizkoa: ARANTZAZU ALDEAN IZAR BAT DA AGERI. Herriak beste ele erdal usaindunez estalita jakinarazi zidan. Baldin zerori durunlaria ez bazara, den batek oihuka bezaizu: ez duzu, belarri zuhurdun eta hotsezti zale bazara, ez duzu damu izango.

LENENGO EZKUTITZA

United States, Sacramento (California). Vía New-York. Leaburu Hotel, N-street, 313. 1887-garren urteko Garagarrilaren 6an.

Adrian Iriondo Leaburuko Bikario jaunari Emeterio Olazarretak.

Amalau urte doi-doi daramazkit erri-alde onetan: Californian.

Iru ezkutitz egin ditut nere aide urkoen etsera. Geyago ere egingo nituen, lengoak alperrekoak izan ezpalira. Lenengoa amaginarrebari zuzendu nion; bigarrena, nere emazte zanaren aizpa Isabeli; irugarrena, amaginarraba il zala jakitean, zerorren izenean bidali nuen. Eztet izan erantzumenik. ¿Zergatik oteda? Iru ezkutitzetan nere seme bakar Leon-en berriak galdetu nituen. Eskerrak orko adiskide bati, zerbait jakitera iritsi da Medel* gaisoa. Amabi urte berealase beteko ditu Leonek; eta onezkero onera etorri diteke. Or baino ikaspide obeak dira emen, irabazpide geyago, ugariago di-

LEHENENGO ESKUTITZA

United States, Sacramento (Kalifornia). Vía New York. Leaburu Hotel, N-street. 313. 1887. urteko garagarrilaren[22] 6an

Adrian Iriondo Leaburuko bikario jaunari
Emeterio Olazarretak

Hamalau urte doi-doi daramatzat herrialde honetan: Kalifornian.

Hiru eskutitz egin ditut nire ahaide hurkoen etxera. Gehiago ere egingo nituen, lehengoak alferrekoak izan ez balira. Lehenengoa amaginarrebari zuzendu nion; bigarrena, nire emazte zenaren ahizpa Isabeli; hirugarrena, amaginarreba hil zela jakitean, zerorren izenean bidali nuen. Ez dut izan erantzumenik. Zergatik ote da? Hiru eskutitzetan nire seme bakar Leonen berriak galdetu nituen. Eskerrak horko adiskide bati, zerbait jakitera iritsi da Medel gaixoa. Hamabi urte berehalaxe beteko ditu Leonek; eta honezkero hona etor daiteke. Hor baino ikasbide hobeak dira hemen, irabazbide gehiago, ugariago dirua. Aspaldi guzti honetan

[22] EHk ekaina (Gip., Naf.) eta uztaila (Bizk.) ematen ditu.

rua. Aspaldi guzi onetan zuk eta zure lengusina* Isabel-ek eta izeba zanak Leonentzat eskuartea bear izan dezute. Zeinbat diru eralki* dezuten esan eta nik len-bai-len garbituko det zor ori. Erara nabil ta gogoz ari naiz diru biltzen. ¡California! ¡Au da erria! Ez neguan otzegi, ez beroegi udan. Emen eztakigu eztula zer dan, marranta ta bularrestua (katarroa) zer diran ere ez. Birigaitza (tisis) ezta ezagutzen. Osasun-erri ta ondasun-erri da au. ¿Zeinbat uste dezu, lengusu Adrian, zeinbat irabazten nuela Sacramentotik Chico deritzayon gorengo uritsora, Nevada-ondora, ibaiz, gurpildun lurrinontzian (baporean) ibili nintzanean? Ilean 50 dollar (ogerleko) urretan ta gainera jan-edana: jan ere aragia ugari; ez, or bezela, oiloentzat egokiago dan ozala (saperoa), giza-ozala, eltzekaria. Chico Gaintza bezelatsuko basauritso bat da, Sacramento-River deritzayon ibai-bazterrean egina. Gorago eztira lurrinontziak joaten. Andik Nevada-ko mendi eskerga, izugarri, beti elurrez beteak ageri dira. Jarri itzatzute alkarren gainean Izarraitz, Ernio, Aizkorri, Aralar ta Gorbea, gainerakotzat (kapelatzat bezela) Basatsurro dutela. Ala ere Nevada-ko Whitney mendia aundiago, bost bat milla zerren (metro) baititu.

zuk eta zure lehengusina Isabelek eta izeba zenak Leonentzat, eskuartea behar izan duzue. Zenbat diru eralki duzuen esan eta nik lehenbailehen garbituko dut zor hori. Erara[23] nabil eta gogoz ari naiz diru biltzen. Kalifornia! Hau da herria! Ez neguan hotzegi, ez beroegi udan. Hemen ez dakigu eztula zer den, marranta eta bularrestua (katarroa) zer diren ere ez. Birigaitza (tisis) ez da ezagutzen. Osasun-herri eta ondasun-herri da hau. Zenbat uste duzu, lehengusu Adrian, zenbat irabazten nuela Sacramentotik Chico deritzaion gorengo hiritxora, Nevada ondora, ibaiz, gurpildun lurrinontzian (baporean) ibili nintzenean? Hilean 50 dolar (ogerleko) urretan eta gainera jan-edana: jan ere haragia ugari; ez, hor bezala, oiloentzat egokiago den ozalea (saperoa)[24], giza ozalea, eltzekaria. Chico Gaintza bezalatsuko basauritxo bat da, Sacramento-River deritzaion ibai-bazterrean egina. Gorago ez dira lurrinontziak joaten. Handik Nevadako mendi eskerga, izugarri, beti elurrez beteak ageri dira. Jar itzatzue elkarren gainean Izarraitz, Hernio, Aizkorri, Aralar eta Gorbea, gainerakotzat (kapelatzat bezala) Basatxurro dutela. Hala ere Nevadako Whitney mendia handiago, bost bat mila zerren (metro) baititu.

[23] Egoki.
[24] Txerri-jana.

Ibai onetan arraina* bada ¡¡Jesus ta bat ala ere!! Neronek ere, baserritarra naizen onek, artu izan ditut maiz askotan: garranga (amua) bêra, arraina gora, besoak nekatuarte; beitatzat (amuzkitzat) arra nuela. *Cattfish* du izena ugarienak, «katuarraina» esan nai du; arra ta erdi-inguruko arraina da, larruduna: larru-beltz, aragi-zuri, gozogozoa. Orko latsetan (erreketan) tsipa ta zapatariak baino ugariago dira emen *Cattfish* auek.

Artzaingoan (artzaintzan) ere ibilia naiz, lurrinontzietan bezela, ilean 50 dollar ta otamena saritzat nituela. Emengo artaldeak eztira orkotsoen irudikoak. Bi mila, bi mila ta bosteun buru izaten ditu talde bakoitzak. Zortzian-zortzian (astero, esan nai det) agertzen zaye artzainai landagizona *(El Campero);* astekaria zamariz (asto-mando-gainean) dakarkiela: aragia, kafea, eznea latetan ta gainerako elikatura osoa. Lengauetan loa neketsu-samarra izaten da, baina gero... Begira: lurraren gainean kirru lodizko eun sendo luze bat jarri, aren urren bi bururdi, gero artzaina; gainean bi naiz iru burusi (manta), burusi-gainean kirruzko eun andi ori; burrukotzat zorro batean soineko zar ta oinetakoak eta abar sartzen genituen ta ¡¡ebange-

Ibai honetan arraina bada, Jesus eta bat hala ere!! Neronek ere, baserritarra naizen honek, hartu izan ditut maiz askotan: garranga (amua) behera, arraina gora, besoak nekatu arte; beitatzat (amuzkitzat) harra nuela. *Cattfish* du izena ugarienak, «katuarraina» esan nahi du; arra eta erdi inguruko arraina da, larruduna: larru beltz, haragi zuri, gozo-gozoa. Horko latsetan (erreketan) tsipa[25] eta zapatariak baino ugariago dira hemen *Cattfish* hauek.

Artzaingoan (artzaintzan) ere ibilia naiz, lurrinontzietan bezala, hilean 50 dolar eta otamena[26] saritzat nituela. Hemengo artaldeak ez dira horkotxoen irudikoak. Bi mila, bi mila eta bostehun buru izaten ditu talde bakoitzak. Zortzian-zortzian (astero esan nahi dut) agertzen zaie artzainei landagizona (*El Campero*); astekaria zamariz (asto-mando gainean) dakarkiela: haragia, kafea, esnea latetan eta gainerako elikadura osoa. Lehen gauetan loa neketsu samarra izaten da, baina gero... Begira: lurraren gainean kirru[27] lodizko ehun sendo luze bat jarri, haren hurren bi bururdi[28], gero artzaina; gainean bi nahiz hiru burusi (manta), burusi-gainean kirruzko ehun handi hori; burkotzat zorro batean soineko zahar eta oinetakoak eta abar sartzen genituen eta, ebanjelioa

[25] Ezkailua.
[26] Mokadua.
[27] Liho-izpia.
[28] Burkoa.

lioa da au!! erregek ere eztu gozaroago lo egiten.

Bi urtetik bi urtera amabost eguneko oporraldia ematen die artzainai taldejabeak; eta oporzale geyenak Sacramentora jeŝten dira, ostatura. Oporretŝe auek agitz euskalduna dute jabetzat: erdaldun bakoitzeko euskaldunik gutŝienez amar. Artaldejabeak artzainbila euskalostatuetan ots egiten dute. Eun artzainen artean, laurogei ta amar gutarrak izan oi dira: napar, lapurtar, giputz, bizkaitar; gainerakoak irlandesak eta portugesak, geyenak. Etzayo emen inori galdetzen: «¿Bizkaiko semea zera, Giputza zera, Lapurtarra zera, Naparra zera?» Erantzun ere «euskalduna naiz» edo ta «enaiz euskalduna» ta kito.

Alakoŝe oporraldi batean nabaritu nuen, erosoago jatetŝedunak dirua irabazten zutela; ta neronek ere, bizikera legun, artetsu* ta atseginago bat nairik, ostatu-iskitŝo bat, neronen izenekoa, Hotel Olazarreta, San Franciscon sortu nuen.

Orain Sacramenton nago ingeles batekin baltzuan; bion artean *arroŝku* andi bat, Hotel bat, egin degu uriaren erdi-erdian. Izentzat nere jayoturitŝoaren izena ezarri diogu: Leaburu-Hotel.

da hau!! erregek ere ez du gozoroago lo egiten.

Bi urtetik bi urtera hamabost eguneko oporraldia ematen die artzainei talde jabeak; eta oporzale gehienak Sacramentora jaisten dira, ostatura. Oporretxe hauek hagitz euskalduna dute jabetzat: erdaldun bakoitzeko euskaldunik gutxienez hamar. Artalde jabeak artzain bila euskal ostatuetan hots egiten dute. Ehun artzainen artean, laurogeita hamar gutarrak izan ohi dira: nafar, lapurtar, giputz, bizkaitar; gainerakoak irlandesak eta portugesak, gehienak. Ez zaio hemen inori galdetzen: «Bizkaiko semea zara, giputza zara, lapurtarra zara, nafarra zara?» Erantzun ere «euskalduna naiz» edota «ez naiz euskalduna» eta kito.


Halakoxe oporraldi batean nabaritu nuen, erosoago jatetxedunek dirua irabazten zutela; eta neronek ere, bizikera leun, artetsu eta atseginago bat nahirik, ostatu-iskitxo[29] bat, neronen izenekoa, Hotel Olazarreta, San Frantziskon sortu nuen.

Orain Sacramenton nago ingeles batekin baltzuan[30]; bion artean *arroztegi*[31] handi bat, hotel bat, egin dugu hiriaren erdierdian. Izentzat nire jaiotiritxoaren izena ezarri diogu: Leaburu Hotel.

---


[29] Txikia.
[30] Bazkide dela.
[31] Ostatua. Ik. "Irakurlearı".

Hotel onen izantz (irudi) bat bidali nai dizut, or erakusteko ere, nola bizi geran jakin dezazuten. Eskuyaldeko morrosko zabala nerau nauzute; beste zar ori, nere baltzukide* ingelesa.



Sacramento uri zabala dalarik, kale errazago bilatzekorik eztu beste urik. *A* ta *B* ta *C*... dituzte izentzat. Leaburu-Hotel N-streeten datza*. ¿Nun, ordea? Bada M-street

Hotel honen izantza (irudi) bat bidali nahi dizut, hor erakusteko ere, nola bizi garen jakin dezazuen. Eskuinaldeko morrosko zabala nerau nauzue; beste zahar hori, nire baltzukide ingelesa.



Sacramento hiri zabala delarik, kale errazago bilatzekorik ez du beste hirik. *A* eta *B* eta *C*... dituzte izentzat. Leaburu Hotel N-streeten datza. Non, ordea? Bada M-street eta O-streeten bitartean. (*Street* ingelesez «kale» da).

eta O-streeten bitartean. *(Street* ingelesez «kale» da).

Nere erriarenganako maitetasuna geroago ta sakonagoa ta samurragoa dala uste det. Egunero izen gozo ori nere etsean, tsala adinako izki* andietan, irakurtzean ¡au poza!

Al baldin banu, erri osoa beraren etse ta eliza ta erritar guztiakin ekarriko nuke. Orko nekazariak emen, lan orren* luze neketsuak eginezkero, berealase aberastuko lirake. Emen gizonaren izerdia emea da, ekarkorra, umetsua. Orko izerdia, arra ezpada ere, erdi antzua bai ¡¡ala jaina!! Eun gizalditan or ari dira Leaburuarrok goiz ta arratsalde, uda ta negu, euri naiz eguzki, lanean, izerdia mara-mara dariela. ¿Nolako atzea dute? Bizitokiak beti zar, ormak beltz pitzatuak; sukaldea utsa ta otza; ukuluetan lau-bost abelgorri ezurtsu. ¿Nolako gosari, bazkari ta apariak egiten dituzte? Aragirik gutsitan jan, ardorik astean beintso baizik edan ez; abarka zarra oinetan, zazarkina dariela; soinean oyal zar adabatuak; sakela aizez betea. ¡Ai, Leaburuar guziok emen balira! Nere semea betor beintzat. Bizkaitik, itsasaldetik batez ere, maiz etortzen dira onera ondasun-zaleak: Alako baten babesean etorri diteke Leon. Bidaritzat 100 dollarreko diru-tsartel

Nire herriarenganako maitetasuna geroago eta sakonagoa eta samurragoa dela uste dut. Egunero izen gozo hori nire etxean, txahala adinako hizki handietan, irakurtzean, hau poza!

Ahal baldin banu, herri osoa beraren etxe eta eliza eta herritar guztiekin ekarriko nuke. Horko nekazariak hemen, lan horren luze neketsuak eginez gero, berehalaxe aberastuko lirateke. Hemen gizonaren izerdia emea da, ekarkorra, umetsua. Horko izerdia, arra ez bada ere, erdi antzua bai, alajaina!! Ehun gizalditan hor ari dira leaburuarrok goiz eta arratsalde, uda eta negu, euri nahiz eguzki, lanean, izerdia mara-mara dariela. Nolako atzea dute? Bizitokiak beti zahar, hormak beltz pitzatuak; sukaldea hutsa eta hotza; ukuiluetan lau-bost abelgorri hezurtsu. Nolako gosari, bazkari eta afariak egiten dituzte? Haragirik gutxitan jan, ardorik astean behintxo baizik edan ez; abarka zaharra oinetan, zazarkia(32) dariela; soinean oihal zahar adabatuak(33); sakela haizez betea. Ai, leaburuar guztiok hemen balira! Nire semea betor behintzat. Bizkaitik, itsasaldetik batez ere, maiz etortzen dira hona ondasun-zaleak. Halako batean babesean etor daiteke Leon. Bidaritzat 100 dolarreko diru-

(32) Adabaki modukoa.
(33) Konpondu.

bat or dezu laster. Besartean ikusi dezadaneko, Colegio eder batean, San Franciscon, sartuko det; ingeles-izketaz batera sal-erospena ikasi dezan. Gaur egunean ingelesez mintza ezin dan gizona gizon-erdi baizik ezta.

Musu bat nere mutikoari; ezagun ta adiskideai goraintzi* ta eskumuñak eman. Urrengoarte.

txartel bat hor duzu laster. Besartean ikus dezadaneko, kolegio eder batean, San Frantziskon, sartuko dut; ingeles-hizketaz batera sal-erospena ikas dezan. Gaur egunean ingelesez mintza ezin den gizona gizon-erdi baizik ez da.

Musu bat nire mutikoari; ezagun eta adiskideei goraintzi eta eskumuinak eman. Hurrengo arte.

BIGARREN EZKUTITZA

Leaburutik 1887-garren urteko Garoilaren 7an.

Emeterio Olazarretari
Adrian Iriondo apaizak.

Zure ezkutitza (orain bi ilebete egindakoa) begien aurrean det. Besterik eztet nik artu. Zure berriak zinez poztu naute. Zerbait dago, orregatik, zure ezkutitzean pozpozik irakurri eztedana: Leonez diozuna. Leon, mutil burutsua, zuzena ta biotz oneko gizasemea, latin ikasten asia da. Elizgizon izan nai luke, edo (euskaldun zarrak esan oi zutenez) bereter. Tamal andia litzake, onen* gazte tolesgabea dalarik, orrera bidaltzea. Eztiot nik aitatuko, ez berari ez Isabeli ez inortsori, zuk berazaz dezun asmo ori.

Isabel, ain zuzen ere, zure ezkutitza iritsi zanean, beste askotan bezela, beraren aizpa *lekaimea* (monjatsoa) ikustera Lasartera joana zan. Bestela irakurri nai izango zuen zetorrena eta noski neronek baino ere lenago. Negarrez ta garrasiz, enura gabe, etse guz-

BIGARREN ESKUTITZA

Leaburutik l887. urteko garoilaren[34] 7an

Emeterio Olazarretari
Adrian Iriondo apaizak

Zure eskutitza (orain bi hilabete egindakoa) begien aurrean dut. Besterik ez dut nik hartu. Zure berriek zinez poztu naute. Zerbait dago, horregatik, zure eskutitzean poz-pozik irakurri ez dudana: Leonez diozuna. Leon, mutil burutsua, zuzena eta bihotz oneko gizasemea, latin ikasten hasia da. Elizgizon izan nahi luke, edo (euskaldun zaharrek esan ohi zutenez) bereter. Tamal handia litzateke, honen gazte tolesgabea delarik, horra bidaltzea. Ez diot nik aitatuko, ez berari ez Isabeli ez inortxori, zuk beraz duzun asmo hori.

Isabel, hain zuzen ere, zure eskutitza iritsi zenean, beste askotan bezala, beraren ahizpa *lekaimea* (mojatxoa) ikustera Lasartera joana zen. Bestela irakurri nahi izango zuen zetorrena eta noski neronek baino ere lehenago. Negarrez eta garrasiz, enura[35] gabe,

[34] Iraila.
[35] Zalantza.

tia zuztarretik itzuliko zuen, Leon orrera eramateko uste ori jakin balu. Ez: obe da asmo ori zure ta nere artean baizik ez izatea.

Eun dollarreko diru-tsartela nere eskuetara garaiz eldu zan. Eun ta ogei ogerleko ta erreal batzuk artu ditut tsartel orren ordez. Den-den-dena izango da Leonentzako gutun* ta ikaspidêtarako. Amabi urte auetan bezela, geroztik ere, Seminarioan eztan aldian, nere etse au berarena izango du. Beretertuta* gero, ni aguretso erdi-ezindua naizelarik, Jainkoari atsegin dakiola nere ordezko emen izatea, noizbait ondorengo izan dakidan. ¿Etzinake, Medel, seme bereterraren ondoan, Leaburuko elizetsean, California-ko Leaburu-Hotel orretan baino pozago bizi izango? Ezetz badiozu, nik ezin sinetsi zuri.

Iloba tsikia det berau, lengusina* baten semea. Gainera ona da, onena bezelakosea. Ez aitatu, beraz, neri dirua ordaingarritzat bidaltzerik. Aitarik or ezpalu, emen leukake bat.

Zure berri jakiteaz, nizaz gainera, zure ezagun ta adiskideak ere biotzez poztu ziran. Lenak gera gu orain ere. Oikuntza zarrai tinko-tinko eutsi ta irozotzen diegu.

Zu emen zeundenean bezela, orain ere

etxe guztia zuztarretik itzuliko zuen, Leon horra eramateko uste hori jakin balu. Ez: hobe da asmo hori zure eta nire artean baizik ez izatea.

Ehun dolarreko diru-txartela nire eskuetara garaiz heldu zen. Ehun eta hogei ogerleko eta erreal batzuk hartu ditut txartel horren ordez. Den-den-dena izango da Leonentzako gutun eta ikasbideetarako. Hamabi urte hauetan bezala, geroztik ere, seminarioan ez den aldian, nire etxe hau berarena izango du. Beretertu eta gero, ni aguretxo erdi-ezindua naizelarik, Jainkoari atsegin dakiola nire ordezko hemen izatea, noizbait ondorengo izan dakidan. Ez zinateke, Medel, seme bereterraren ondoan, Leaburuko elizetxean, Kaliforniako Leaburu Hotel horretan baino pozago bizi izango? Ezetz badiozu, nik ezin sinetsi zuri.

Iloba txikia dut berau, lehengusina baten semea. Gainera ona da, onena bezalakoxea. Ez aitatu, beraz, niri dirua ordaingarritzat bidaltzerik. Aitarik hor ez balu, hemen leukake bat.

Zure berri jakiteaz, nizaz gainera, zure ezagun eta adiskideak ere bihotzez poztu ziren. Lehenak gara gu orain ere. Ohikuntza zaharrei tinko-tinko eutsi eta irozotzen[36] diegu.

Zu hemen zeundenean bezala, orain ere meza nagusi ondore-

[36] Eutsi.

meza nagusi-ondorean, elizaurrean naiz elizatarian (eguraldia nolakoa dan) gizonak eguerdirarte, pipakada bana ketu ta asteko berriak jakiteko asmoz, igandero biltzen dira.



¡Ikustekoa zan Leaburuarren begitartea, ni, zure ezkutitza eskuan nuela, «Medelen berriak» esanez, agertu nintzanean!

Anton Barandiaran maiz ikusten det lo, ni irakastegian Ebangelioa azaltzen ari naizen bitartean. Medelen berriak entzuten hura* ere, beste guziak bezelaše, adi ta zur zegoen. ¡Nekazari zintzo ayen parre gozoak,

an, eliz aurrean nahiz eliz atarian (eguraldia nolakoa den) gizonak eguerdira arte, pipakada bana ketu eta asteko berriak jakiteko asmoz, igandero biltzen dira.



Ikustekoa zen leaburuarren begitartea, ni, zure eskutitza eskuan nuela, «Medelen berriak» esanez, agertu nintzenean!

Antton Barandiaran maiz ikusten dut lo, ni irakasguan Eban-jelioa azaltzen ari naizen bitartean. Medelen berriak entzuten hura ere, beste guztiak bezalaxe, adi eta zur zegoen. Nekazari zintzo

gizona, ingelesez mintzatu ezik, gizon erdi dala entzun zutenean! Antonek, pipa ezpainetan zuelarik, auše esan zigun:

—Ingeles bat Leaburura baletor ta euskeraz mintzatzen ezpaleki, gizon-erdi ez, laurden izatea ere ¡¡hmm!! naikoa lan.

Eta arako, al bazinu, Leaburu osoa, beronen etše ta eliza, izaki ta gizaki*, orrera eramango zinuzkela, entzun zuenean, Pelo Gurreagak, ortz banakak agerian zituela, beraren iritzia onelaše eman zigun:

—¿Eliza eraman? Emen ere bear degu; baina, diotenez, Galipornia* orretan bearrago omenda; ta, ni-gorabera, daramatela. Belauntzakora joango nintzake ni, urruti ere eztet-eta.

Leaburuarron etšeak beti zar dirala belarriratu zuenean, Martin Lôntšo Etšeberrikok auše sudur-mintzoz (1) erantzun zidan:

—Nere etšea, bederen, beti da Etšeberri. ¡Sacramento orretan arkitu ezetz beti berri dan etšerik!—Barre guk—Gainera ¡¡beren bereuna!! ni ere Ameriketan ibilia naiz, ango berri-puska bat badakit. An ere eguzkitan erreriko artorik eztu inork jaten eta zakurrak ankutsik ibiltzen aldira. Medelen itz

(1) Aldarte onez diranean, Elgoyentarrak, lenago bezela, sudurrez mintzatzen zaleak ditugu.

haien barre gozoak, gizona, ingelesez mintzatu ezik, gizon-erdi dela entzun zutenean! Anttonek, pipa ezpainetan zuelarik, hauxe esan zigun:

—Ingeles bat Leaburura baletor eta euskaraz mintzatzen ez baleki, gizon-erdi ez, laurden izatea ere, hmm! nahikoa lan.

Eta harako, ahal bazenu, Leaburu osoa, beronen etxe eta eliza, izaki eta gizaki, horra eramango zenituzkeela, entzun zuenean, Pello Gurreagak, hortz banakak agerian zituela, beraren iritzia honelaxe eman zigun:

—Eliza eraman? Hemen ere behar dugu; baina, diotenez, Galipornia honetan beharrago omen da; eta, ni-gorabehera, daramatela. Belauntzakora joango nintzateke ni, urruti ere ez dut eta.

Leaburuarron etxeak beti zahar direla belarriratu zuenean, Martin Lontxo Etxeberrikok hauxe sudur-mintzoz[37] erantzun zidan:

—Nire etxea, bederen, beti da Etxeberri. Sacramento horretan aurkitu ezetz beti berri den etxerik —barre guk—. Gainera, berenbereuna[38]!!, ni ere Ameriketan ibilia naiz, hango berri puska bat badakit. Han ere eguzkitan erreriko artorik ez du inork jaten eta zakurrak hanka-hutsik ibiltzen ahal dira. Medelen hitz horiek,

---

[37] Aldarte onez direnean, elgoientarrak, lehenago bezala, sudurrez mintzatzen zaleak ditugu.
[38] Arraioa!

oriek, burua zearo gogortu ezpazait, aberats batek egindakoak dirudite. Ta aberatsak an ere, aberatsak... aberatsak... ementsē bezelatsu, auzoan bizi izan oi dira geyen geyenak, auzoan.

—¿Aragia gutsitan jaten degula?, gaineratu zuen beste norbaitek: ikusi izan ditugu ¡alegia! Ameriketatik itzulitako gizon aragijaleok ¿baina zer? oyek ere masailezurra, gure antzera, zorrotza daukate. Bizarra bai, artaburuari udazkenean bezela, zuri ta beltz ta arre nondiknai agertzen zayete.

Bigarrenez urrengo igandean irakurri bear izan nizkioten zure berriak. Martin Lôntso izan zan orduan ere itzik geyen egin zuena.

—¿Eztula zer dan eztakitela? Bai nik, Argentinan izan nintzanean. ¿Marranta ta birigaitza ta bularrestua eztituztela ezagutzen? ¿Zertaz iltzen otedira gizonak Galipornian?

—Zarrez, bizi izaten aspertuak diranean.

—Guk (Martin Lôntsok zioan au ere), eltzekariz, gizaozalez bizi geranok eztegu indarrik mendia mendiaren gainean, Medelekeeta, elurrezko mendi eskerga, erraldoi oriek metatu dituzten antzera, jartzeko. Mutilak: Galiporniako artzain aberats oriek gainezka duten ondasuna bidali digutela ta asi gaitez-

burua zeharo gogortu ez bazait, aberats batek egindakoak dirudite. Eta aberatsak han ere, aberatsak... aberatsak... hementxe bezalatsu, auzoan bizi izan ohi dira gehien-gehienak, auzoan.

—Haragia gutxitan jaten dugula?, gaineratu zuen beste norbaitek: ikusi izan ditugu alegia! Ameriketatik itzulitako gizon haragijaleok, baina zer? horiek ere masailezurra, gure antzera, zorrotza daukate. Bizarra bai, artaburuari udazkenean bezala, zuri eta beltz eta arre nondik-nahi agertzen zaie.

Bigarrenez hurrengo igandean irakurri behar izan nizkien zure berriak. Martin Lontxo izan zen orduan ere hitzik gehien egin zuena.

—Eztula zer den ez dakitela? Bai nik, Argentinan izan nintzenean. Marranta eta birigaitza eta bularrestua ez dituztela ezagutzen? Zertaz hiltzen ote dira gizonak Galipornian?

—Zaharrez, bizi izaten aspertuak direnean.

—Guk (Martin Lontxok zioen hau ere), eltzekariz, giza ozalez bizi garenok ez dugu indarrik mendia mendiaren gainean, Medelek eta, elurrezko mendi eskerga, erraldoi horiek metatu dituzten antzera, jartzeko. Mutilak: Galiporniako artzain aberats horiek gainezka duten ondasuna bidal diezagutela eta has gaite-

ten aragia jaten. Orduantsē guk ere, batak Aralar, besteak Basatsurro bizkarrean artuta Goyerrira, Aizkorri-gainera, lorretan eramango ditugu.

—¿Nork ezagutu orduan gure errialde au? Medelek, onontz datorrenean, Galipornia batetik beste Galipornia batera itzuli dala uste izango du.

—¿Ta katuarrainak?, gaineratu zuen Mendigibelek. Ni eninduen amak urzale egin, urak dakarzkien elikatura oriek ere eztitut gogoz jaten; alabaina ¿eztezute uste katuarrainak katu-janaritzat egokiago dirala?.

Parre lergarriak egin-ondoan, Iturgoyenek, astiro, beti bezela, esan zigun:

—Gure Medelek errege baino andiago izan nai bidedu. Artzain, lurra oetzat zuelarik, burupean abarka zarrak artuta, erregek bezela lo egiten zuela ¿zerk eraman du Matrimonio edo Sacramento ortara, ostatari izatera? Agi danez, errege baino andia izannayak.

Hotel Leaburu ta Hotel-jabên izantza gogoz ikusi dute zure erritar auek. Ezagun da gose-egarri andi gabe bizi zeratela, batez ere zu. Eztakit zein zan esan zuena ingelesak ezurra ta zuk mamina* jaten diozutela zuen garatz orri, *negozio* orri.

zen haragia jaten. Orduantxe guk ere, batak Aralar, besteak Basatxurro bizkarrean hartuta Goierrira, Aizkorri gainera, lorretan[39] eramango ditugu.

—Nork ezagutu orduan gure herrialde hau? Medelek, honantz datorrenean, Galipornia batetik beste Galipornia batera itzuli dela uste izango du.

—Eta katuarrainak?, gaineratu zuen Mendigibelek. Ni ez ninduen amak urzale egin, urak dakartzan elikadura horiek ere ez ditut gogoz jaten; alabaina ez duzue uste katuarrainak katu-janaritzat egokiago direla?

Barre lehergarriak egin ondoan, Iturgoienek, astiro, beti bezala, esan zigun:

—Gure Medelek errege baino handiago izan nahi bide du. Artzain, lurra ohetzat zuelarik, burupean abarka zaharrak hartuta, erregek bezala lo egiten zuela zerk eraman du Matrimonio edo Sacramento horretara, ostalari izatera? Agidanez, errege baina handia izan nahiak.

Hotel Leaburu eta hotel jabeen izantza gogoz ikusi dute zure herritar hauek. Ezagun da gose-egarri handi gabe bizi zaretela, batez ere zu. Ez dakit zein zen esan zuena ingelesek hezurra eta zuk mamia[40] jaten diozuela zuen garatz horri, *negozio* horri.

---

[39] Arrastaka.

[40] OEHk "mamin" sarrera jasotzen du, baina "mami"-ra igortzen du. Ik. Gehigarria.

Medel: batzarre artan erabili genituen eraskinak, buruan baneuzka ere, enituke gaberarte adierazi al izango. Ori bai: guztiak ao betean eskerrak emateko eskatu zidaten, zure ostatu andi orri Leaburu izentzat ezarri diozulako. Tolosak berak Californian eztuela, uste du Antonek, gure erriak duen osperik, aipurik*, omenik.

Onenbestez agur, Medel. Izan zaitez urrutietan emen zinan bezelako kristau ona. Etzaitut nere otoitzetan ântziko (aztuko). Leon ere beronenetan, bear ere bada-ta, zuzaz egunero oroitzen da. Agur berriz.

Medel: batzar hartan erabili genituen eranskinak, buruan baneuzka ere, ez nituzke gauera arte adierazi ahal izango. Hori bai: guztiek aho betean eskerrak emateko eskatu zidaten, zure ostatu handi horri Leaburu izentzat ezarri diozulako. Tolosak berak Kalifornian ez duela, uste du Anttonek, gure herriak duen osperik, aipurik, omenik.

Honenbestez agur, Medel. Izan zaitez urrutietan hemen zinen bezalako kristau ona. Ez zaitut nire otoitzetan ahantziko (ahaztuko). Leon ere beronenetan, behar ere bada eta, zuzaz egunero oroitzen da. Agur berriz.

IRUGARREN EZKUTITZA

United States, Sacramento (California). Vía New-York. Leaburu Hotel, N-street, 313. 1887-garren urteko Azilaren 8an.

Leon Olazarretari

Aitak.


Mutil ¿zer gertatzen zaik? Mutiko ederra ago, bidali didakan izantzean (erretratuan) beintzat; zurbil, ordea, ta maskal-samar. ¿Geyegi ikasten aldek, ala gutsiegi jan? Bazkaltegiko mayean ire barrua betetzen ezpadek, ikasguko* mayean eztek burua bete al izango. Lanabes batek indarra beardik. Galwestondik Californiara, lau egun ta lau gautan, gau ta gaberdi ekarri ninduan-or-



HIRUGARREN ESKUTITZA

United States, Sacramento (Kalifornia). Via New York. Leaburu Hotel, N-street, 313. 1887. urteko hazilaren[41] 8an.

Leon Olazarretari
Aitak



Mutil, zer gertatzen zaik? Mutiko ederra hago, bidali didaan izantzan (erretratuan) behintzat; zurbil, ordea, eta maskal samar. Gehiegi ikasten al duk, ala gutxiegi jan? Bazkaltegiko mahaian hire barrua betetzen ez baduk, ikasguko mahaian ez duk burua bete ahal izango. Lanabes batek indarra behar dik.

[41] Azaroa.

gadiak (trenak) orduko ogei bat leguako ūstua* zeukan; bainan aren kea, aren sua, aren ikatz-erretzea ikustekoak zitukan. Lanak jana eskatzen dik. ¡¡Ikasgu (Colegio) orretan eztuela inortsok ere euskeraz ezkutitzik egiten!! ¿Eta ik ere ire aita euskaldunari erderaz egin bear? Nik, orain amalau urte andi etsetik atera nindukanean, erdera gutsi nazekian, orain ala ere gutsiago. Emen *mexicano* ta *chileno* arlote batzuez landan*, ingelesez ta euskeraz ari izaten nauk beti. Esan didakan erdia eztiat ulertu* al izan. Neretzat latina latin dek eta erdera ere latin. Urrengorako eska zayok orko nagusiari, aitarekin, korreoz bada ere, euskeraz mintzatzeko baimena. Nik nayago nikek euskeraz baino ingelesez irekin mintzatu, ez ingelesa euskera baino maiteago dedalako, bearrago degulako baino. Gure erriko baserritar ezer ikusi gabeak bestera uste izanarren, ingeles-mintzoa dek gaur-egunean gizonak bearren duena. Osaba apaizak nai lukenez, Leaburun beti izateko bâiz, arako eztek latinik ere bear. Nik, ordea, i, apaiz argitsua aizelarik, gutsienez Donostian parroku ikusi nai induket.

Orretarako bear dekan eskuartea oparo ta purrustaka bidaliko diat. Asi adi len-bailen mintzo bear-bear ori ikasten; maisua

Galwestondik Kaliforniara, lau egun eta lau gautan, gau eta gauerdi ekarri ninduan orgadiak (trenak) orduko hogei bat leguako histua[42] zeukan; baina haren kea, haren sua, haren ikatz-erretzea ikustekoak zituan. Lanak jana eskatzen dik. Ikasgu (colegio) horretan ez duela inortxok ere euskaraz eskutitzik egiten!! Eta hik ere hire aita euskaldunari erdaraz egin behar? Nik, orain hamalau urte handi etxetik atera ninduanean, erdara gutxi nekian, orain hala ere gutxiago. Hemen *mexicano* eta *chileno* arlote batzuez landan, ingelesez eta euskaraz ari izaten nauk beti. Esan didaan erdia ez diat ulertu ahal izan. Niretzat latina latin duk eta erdara ere latin. Hurrengorako eska iezaiok horko nagusiari, aitarekin, korreoz bada ere, euskaraz mintzatzeko baimena. Nik nahiago nikek euskaraz baino ingelesez hirekin mintzatu, ez ingelesa euskara baino maiteago dudalako, beharrago dugulako baino. Gure herriko baserritar ezer ikusi gabeek bestera uste izan arren, ingeles mintzoa duk gaur egunean gizonak beharren duena. Osaba apaizak nahi lukeenez, Leaburun beti izateko bahaiz, harako ez duk latinik ere behar. Nik, ordea, hi, apaiz argitsua haizelarik, gutxienez Donostian parroku ikusi nahi hinduket.

Horretarako behar duan eskuartea oparo eta purrustaka bidaliko diat. Has hadi lehenbailehen mintzo behar-behar hori ikas-

(42) Abaila, lastertasuna. Testuan "uxtua". OEHk "huxtu"-tik "histu"-ra igortzen du.

onena izan ditela ta irakas-saritzat beraren agoa neurri.

Nere garatzak ederki zijoazik. Nere baltzu-lagun onek Mister Stephenson dik izena. Protestantea dek, baina gizon zuzena, zinezko gizona, gutsi bezelakoa. Ik eztakik zergatik utzi nian gure Euskalerri maite ori. Amabost urte dituk laster eta ire aita zuztarrez ezagutzeko garaya badek. Lau seniḍe izan zinaten. Lenbiziko irurak, bata bestearen ondorean, udaberriko goizlore batzuk bezela, alkar ezagun* ere gabe, il zitzaizkigun. I jayo intzanean, etzekiat nori otu zitzayon ik «benturako umea» izan bear uela, izeba Isabel-i naski. Uraše dek olako begizko ta sorginkeria oriek beti gogotan dauzkana. Berak eraman induen, jayo ta bateratsu, jayegun batean elizpera, lenengo agertzen ziran gizaseme ta emakumea ire aita- ta amabitsi izateko. Orregatik aiz i Kaltzaundi ta amona Inaširen besoetako semea. ¡Bizi otedituk berak! Ik urte ta erdi izan baino lenago il uen ire Ama, nere emazte gaišoa. ¿Nork esan Isabel ta Eladi aitama batzuen aurrak zirala! Urte beteren buruan, norbaitek puztuta, asi zitzaidan amona belarriak berotzen: Isabel emaztetzat artu bear nuela ta bear nuela: ni isilik. Bera uela iretzat amagairik

ten; maisua onena izan dadila eta irakas-saritzat beraren ahoa neurri.

Nire garatzak ederki zoazak. Nire baltzu-lagun honek Mister Stephenson dik izena. Protestantea duk, baina gizon zuzena, zinezko gizona, gutxi bezalakoa. Hik ez dakik zergatik utzi nian gure Euskal Herri maite hori. Hamabost urte dituk laster eta hire aita zuztarrez ezagutzeko garaia baduk. Lau senide izan zineten. Lehenbiziko hirurak, bata bestearen ondorean, udaberriko goiz lore batzuk bezala, elkar ezagun ere gabe, hil zitzaizkigun. Hi jaio hintzenean, ez zekiat nori otu zitzaion hik «benturako umea» izan behar huela, izeba Isabeli naski. Huraxe duk holako begizko eta sorginkeria horiek beti gogotan dauzkana. Berak eraman hinduen, jaio eta bateratsu, jai egun batean elizpera, lehenengo agertzen ziren gizaseme eta emakumea hire aita- eta amabitxi izateko. Horregatik haiz hi Kaltzaundi eta amona Inaxiren besoetako semea. Bizi ote dituk berak! Hik urte eta erdi izan baino lehenago hil zuan hire ama, nire emazte gaixoa. Nork esan Isabel eta Eladi aita-ama batzuen haurrak zirela! Urtebeteren buruan, norbaitek puztuta, hasi zitzaidan amona belarriak berotzen: Isabel emaztetzat hartu behar nuela eta behar nuela: ni isilik. Bera zuala hiretzat

onena, etsandre aundia zala, egilea ta eragilea: ni isilik. Etzaidak bein ere emakume ori biotzean sartu ta, amaginarraba maite izanarren, nere burua maiteago nian; eta bazkalondo batean (zearo oroitzen nauk), zearka-mearka ibili gabe, ezetz esan niokan.

Geroztik egunak neretzat eguzkigabeak zitukan. Gorputza lokabe, baina gogoa atsekabez lotua nian eta auzo guztien aomingainean irrigarri nindukan urte ta erdi ayetan. Nik alde egin bear. I uzteak biotza erdiratzen idan, baina erorren on-izate gerokoak onerontz ekarri nindukan.

Norbaitek esan omendu bein Tserren-i *(deabruari)* Jaungoikoari irri ta parre egitea gogoratu zitzayola. Burua gau ta egun alperrik maiz autsita, *beatak* orretarako asmatu omenzituen. Arrezkero beatak (Isabel aurrena) or zebiltzek goizero elizan zinu ta kinu; eta sukaldean tsingarrak itzalirik, altzari ta zokoetan autsa lodi, ta baratzean bare ta bare-kurkuilo, mamorro ta zomorro, landare jaten ari dituk.

Nere egunik ilunenak ayetsek izan zitukan. ¿Nori eskerrak? Ala ere, i ongi azi auelako, barkatzen zizkat arrebatzakoari (koñatari*) neri erakutsi zizkidan latzak eta beltzak.

amagairik onena, etxandre handia zela, egilea eta eragilea: ni isilik. Ez zaidak behin ere emakume hori bihotzean sartu eta, amaginarreba maite izan arren, nire burua maiteago nian; eta bazkalondo batean (zeharo oroitzen nauk), zeharka-meharka ibili gabe, ezetz esan nioan.

Geroztik egunak niretzat eguzki gabeak zituan. Gorputza lokabe, baina gogoa atsekabez lotua nian eta auzo guztien ahomingainean irrigarri nindian urte eta erdi haietan. Nik alde egin behar. Hi uzteak bihotza erdiratzen zidaan, baina herorren onizate gerokoak honantz ekarri nindian.

Norbaitek esan omen du behin Txerreni (*deabruari*) Jaungoikoari irri eta barre egitea gogoratu zitzaiola. Burua gau eta egun alferrik maiz hautsita, *beatak* horretarako asmatu omen zituen. Harrezkero beatak (Isabel aurrena) hor zabiltzak goizero elizan zeinu eta keinu; eta sukaldean txingarrak itzalirik, altzari eta zokoetan hautsa lodi eta baratzean bare eta bare-kurkuilo, mamorro eta zomorro, landare jaten ari dituk.

Nire egunik ilunenak haietxek izan zituan. Nori eskerrak? Hala ere, hi ongi hazi hauelako, barkatzen zizkioat arrebatzakoari (koinatari) niri erakutsi zizkidaan latzak eta beltzak.

Orrera atseden-aldi bat artzera noanean eramango zioat berak nayen duen zerbait. Ik, ezarian eta bestela baitakoan, jakik zer nayen duen, nik, New-York-en naiz beste nonbait, erosi dezadan.

Nere ezkutitz luze oni atzena eman-orduko, itz eder batzuk jakinarazi nai dizkiat, Leon. «Aitarik or (Californian) ezpalu, emen leukake bat.» ¿Ezaldek somatzen itz auek norenak diran? Ire osaba, nere lengusu, Adrianenak. Eztizkiot bein ere ântziko. Nere izantz eder bat urrengo korreoan bidaliko diat; nik irea bezela, ik nerea maiterik eta ageri-agerian iduki dezakan. Bidali neri osabarena ere. Agur, seme maite, nere mutikotšo yayuori. Bizi adi ongi ta lan egin zak gogoz, gizon andi izateko.

Horra atsedenaldi bat hartzera noanean eramango zioat berak nahien duen zerbait. Hik, ezarian[43] eta bestela baitakoan, jakin ezak zer nahien duen, nik, New Yorken nahiz beste nonbait, eros dezadan.

Nire eskutitz luze honi atzena eman orduko, hitz eder batzuk jakinarazi nahi dizkiat, Leon. «Aitarik hor (Kalifornian) ez balu, hemen leukake bat». Ez al duk sumatzen hitz hauek norenak diren? Hire osaba, nire lehengusu, Adrianenak. Ez dizkiot behin ere ahantziko. Nire izantza eder bat hurrengo korreoan bidaliko diat; nik hirea bezala, hik nirea maiterik eta ageri-agerian eduki dezaan. Bidali niri osabarena ere. Agur, seme maite, nire mutikotxo iaio hori. Bizi hadi ongi eta lan egin ezak gogoz gizon handi izateko.

[43] Ia aritu gabe bezala, ohartu gabe.

LAUGARREN EZKUTITZA

Leaburutik 1888-ko Ostoilaren 30an.

Sor Santa Catalinari
beraren aizpa Isabelek.

Leaburu osoa, Gazteluko mugatik asita Lizartza ta Belauntza ta Ibarrekoetara, izen batek betetzen du zortzi egun auetan: gure aizpa Eladi zanaren alargun Medelen izenak. ¿Badakizu (1) Amezketan izebaren etsean ginala, artalde ta beitaldeak, mendian bêra jetsita, elizako arresietan azka ari ziranean, beren arran, dunba ta zintzarriz klan-klan, bulun-bulun, zein gozaro gure belarriak poztu oi zituzten? Alako ots pozgarrien ordez beste bat dantzugu * emen astelenetik onerontz. Medelek au, Medelek ori; Medel gora, Me-

(1) Lasarteko Iekaimên ama nagusi Berastegiarrari min egiten zion noka izketan entzuteak. Ijito-euskera zala esan oi zuen. Eta mendekoen ta mendekoentzako ezkutitz guztiak beraren eskuetatik igaro bear baitzuten, Isabelek, aoz izan ezik, zuka itz egin bear izaten zion aizpari.

LAUGARREN ESKUTITZA

Leaburutik 1888ko ostoilaren[44] 30ean.

Sor Santa Katalinari
beraren ahizpa Isabelek

Leaburu osoa, Gazteluko mugatik hasita Lizartza eta Belauntza eta Ibarrekoetara, izen batek betetzen du zortzi egun hauetan: gure ahizpa Eladi zenaren alargun Medelen izenak. Badakizu[45] Amezketan izebaren etxean ginela, artalde eta behitaldeak, mendian behera jaitsita, elizako harresietan hazka ari zirenean, beren arran[46], dunba eta zintzarriz klan-klan, bulun-bulun, zein gozaro gure belarriak poztu ohi zituzten? Halako hots pozgarrien ordez beste bat dantzugu hemen astelehenetik honantz. Medelek hau, Medelek hori; Medel gora, Medel behera; Medel, Medel, Medel.

[44] Maiatza.
[45] Lasarteko lekaimeen ama nagusi berastegiarrari min egiten zion noka hizketan entzuteak. Ijito-euskara zela esan ohi zuen. Eta mendekoen eta mendekoentzako eskutitz guztiek beraren eskuetatik igaro behar baitzuten, Isabelek, ahoz izan ezik, zuka hitz egin behar izaten zion ahizpari.
[46] Zintzarria.

del bêra; Medel, Medel, Medel. Geron izena ântzitzeko zorian bizi gera.

Gure lengusu Adrian bereterrari ezkutitz luze bat egin omendio.

Nik artu banu, len ere orrenbeste egin degu ta, eztakit eskuratuko zuen. Gure mutila gizon egiteko eztegu inor bear. Diotenez, aberats porrokatua omenda. Orrek ere, esatea dan bezela, irinik adina lauso izango du. Urrutitik eskuzabal diruditenak, gerturaezkero agitz ardagaya baino legorrago izaten dira. Gainera etzaigu ântzi nor izan zan Medel. Zutik joango liraken gezurrak parra-parra esaten zizkigun. Beste aldetik, sinesteak lanak ditu, bainan, dirutsua danaren zantzuak badakuskigu. ¿Eztizkio, bada, Adrian-i mila ogerleko, mila astaperra andi, bidali? (Neronek ikusi ditut). Ori bai: arrokeria erruz darabilgu. Mutilarentzat piano berri kutsatu gabea erosteko, katagorriak Gaztelu-gaineko mendietan iltzeko eskopeta ere bai, bi odiduna; irakasle burutsuenak Tolosan begiz jotzeko; elizaldean zerbait egin nai lukeala; eta Adrianek berak buruko ta soineko ta oinetako bitzuk* berarentzat agindu ditzala. Neretzat goraintzirik* ere ez; ezta nai ere. ¿Neronek ero, muturzikin baten eskutikako ezer artu? ¿Nola eginak otedira beraren ondasun-

Geron izena ahanzteko zorian bizi gara.

Gure lehengusu Adrian bereterrari eskutitz luze bat egin omen dio.

Nik hartu banu, lehen ere horrenbeste egin dugu eta, ez dakit eskuratuko zuen. Gure mutila gizon egiteko ez dugu inor behar. Diotenez, aberats porrokatua omen da. Horrek ere, esatea den bezala, irinik adina lauso izango du. Urrutitik eskuzabal diruditenak, gerturatuz gero hagitz ardagaia[47] baino lehorrago izaten dira. Gainera ez zaigu ahantzi nor izan zen Medel. Zutik joango liratekeen gezurrak barra-barra esaten zizkigun. Beste aldetik, sinesteak lanak ditu, baina, dirutsua denaren zantzuak badakuskigu. Ez dizkio, bada, Adriani mila ogerleko, mila astaperra[48] handi, bidali? (Neronek ikusi ditut). Hori bai: harrokeria erruz darabilgu. Mutilarentzat piano berri kutsatu gabea erosteko, kattagorriak Gaztelu gaineko mendietan hiltzeko eskopeta ere bai, bi hodiduna; irakasle burutsuenak Tolosan begiz jotzeko; elizaldean zerbait egin nahi lukeela; eta Adrianek berak buruko eta soineko eta oinetako bitzuk berarentzat agindu ditzala. Niretzat goraintzirik ere ez; ezta nahi ere. Neronek ero, muturzikin baten eskutikako ezer hartu? Nola eginak ote dira beraren ondasun-meta horiek? Orain hiru urtera

[47] Zuhaitz batzuen azalean bizi den onddo bizkarroia.
[48] Perra (txanpona).

meta oriek? Orain iru urterarte artsain baizik etzan.

. . . . . .

. . . . . .

Bart zortzirak aldean ementse eten bear izan nuen nere ezkutitz au. Goizeon, uste eztegula, Leon agertu zaigu, andi-andi eginta, mutil ederra. Espen* onenak omendakazki: *Meritissimus* ¿ala nik dakit? Amarrak elizan jotzen eta bêtik ojuka bera. «¿Nor oteda?» nik neronen artean. «Izeba, izeba» ots egin ezpalu, enuen ezagutuko. Marrantaz datorrela esan liteke. Mintzura berria dakar. Tsilin pitzatu bat bezela agertu zaigu: len ozen, orain motel. Gaur bereter egin bear balute, eluke mezarik oyukatu* al izango. ¡Ezalzaigu beti onelako mintzuraduna izango!

. . . . . .

. . . . . .

Oneragino iritsita, beste etenaldi bat izan du nere luma-lantso onek. Datorren astean Leon ta biok orrera joango gerala-ta ezkutitza urratzeko ari-arian egon naiz. Jaungoikoz eztet nere asmo ori bete. Banabil beraren soinekoak kutsatik ateratzen, garbiak egurastu ta zikinak garbierazteko arduratan: eta galtza batzuk astintzen ari naizelarik ¡plaust! papertso bat lurrera. Zabaldu ta ¡ene


arte artzain baizik ez zen.

Bart zortzirak aldean hementxe eten behar izan nuen nire eskutitz hau. Goizeon, uste ez dugula, Leon agertu zaigu, handihandi eginda, mutil ederra. Espen onenak omen dakartza*: Meritissimus*, ala nik dakit? Hamarrak elizan jotzen eta behetik oihuka bera. «Nor ote da?» nik neronen artean. «Izeba, izeba» hots egin ez balu, ez nuen ezagutuko. Marrantaz datorrela esan liteke. Mintzura(49) berria dakar. Txilin(50) pitzatu bat bezala agertu zaigu: lehen ozen, orain motel. Gaur bereter egin behar balute, ez luke mezarik oihukatu ahal izango. Ez ahal zaigu beti honelako mintzuraduna izango!

Honaino iritsita, beste etenaldi bat izan du nire luma-lantxo honek. Datorren astean Leon eta biok horra joango garela eta eskutitza urratzeko ari-arian egon naiz. Jaungoikoz ez dut nire asmo hori bete. Banabil beraren soinekoak kutxatik ateratzen, garbiak egurastu eta zikinak garbiarazteko arduratan: eta galtza batzuk astintzen ari naizelarik plaust! papertxo bat lurrera. Zabaldu


(49) Ahotsa, boza.
(50) Ezkilatxoa, txintxila.

Jaungoiko maitea! *Leon Olazarretari beraren Aitak:* Medel aoberoren ezkutitza. ¡Eta nolakoa! «Asko jateko» Otoitz egiteko ta ona izateko ez itzik ez mitzik. «Ingeles ikas-



teko, latinik eztala bear.» Ez, naski, apaiz protestante ezkondu orietako bat izateko. ¿Ala semea olako tserren-apaiza izatea nai aldek? Baltzu-laguna protestantea omenda

eta, ene Jaungoiko maitea! *Leon Olazarretari beraren Aitak*: Medel ahoberoren eskutitza. Eta nolakoa! «Asko jateko», otoitz egiteko eta ona izateko ez hitzik ez mitzik. «Ingeles ikasteko, latinik ez



dela behar.» Ez, naski, apaiz protestante ezkondu horietako bat izateko. Ala semea holako txerren-apaiza izatea nahi al duk?

«baina gizon zuzena, zinezko gizona, gutsi bezelakoa». Medelen itzak dira auek. Ori da (garbi agertzeko kemenik ezta) zearka-mearka ause esatea: «Seme, ikasi ingeles-izkera, onera etorrita apaiz egin adi, emengo apaiz, emaztedun apaiz; eta i ere gizon zuzena, zinezko gizona, gutsi bezelakoa izango aiz» Gure Adrianek etzuen sinetsi nai, nik joan dan neguan maiz azaltzen niona. ¿Bâldaki inork, nik bezela, Medel nor dan? ¿Gizonak burutsuak dirala? Bai, arto-zati batzuk eztiranean. Orain ikusiko du zein zegoen zuzen ta zein oker: bera ala nerau. Eta gero «benturako umea» nik egin nuela; ni begizko ta sorginkeri sinesle naizela (¡sorgina naizela esan eztuenean!); nik berarekin ezkondu nai izan nuela. Negarra tantoka darit. *Beatak,* Jaungoikoari irri egiteko, deabruak asmatu zituela; eta arrezkero, nerau aurrena, goizero elizan omendabiltza zinuka ta kinuka. Onera etortzeko ustea omendu. Betor, baina zure aizpa Isabel, eskean bada ere, Leaburutik ordu artantse elkiko da, irtengo da.

Gero zaplandari lotsagabeak neri zerbait ekarri nai didala ta Leonek, nik zer nayen dedan, azpitik jakiteko. «¿Nik ezer artu ire eskutik? ¡Utikan! erosi zak nai dekana ire lagun protestante orrentzat.» Izena ere ego-

Baltzu-laguna protestantea omen da «baina gizon zuzena, zinezko gizona, gutxi bezalakoa». Medelen hitzak dira hauek. Hori da (garbi agertzeko kemenik ez eta) zeharka-meharka hauxe esatea: «Seme, ikasi ingeles-hizkera, hona etorrita apaiz egin hadi, hemengo apaiz, emaztedun apaiz; eta hi ere gizon zuzena, zinezko gizona, gutxi bezalakoa izango haiz». Gure Adrianek ez zuen sinetsi nahi, nik joan den neguan maiz azaltzen niona. Ba al daki inork, nik bezala, Medel nor den? Gizonak burutsuak direla? Bai, arto-zati batzuk ez direnean. Orain ikusiko du zein zegoen zuzen eta zein oker: bera ala nerau. Eta gero «benturako umea» nik egin nuela; ni begizko eta sorginkeria sinesle naizela (sorgina naizela esan ez duenean!); nik berarekin ezkondu nahi izan nuela. Negarra tantoka darit. *Beatak,* Jaungoikoari irri egiteko, deabruak asmatu zituela; eta harrezkero, nerau aurrena, goizero elizan omen dabiltza zeinuka eta keinuka. Hona etortzeko ustea omen du. Betor, baina zure ahizpa Isabel, eskean bada ere, Leaburutik ordu hartantxe ilkiko da, irtengo da.

Gero zaplandari[51] lotsagabeak niri zerbait ekarri nahi didala eta Leonek, nik zer nahien dudan, azpitik jakiteko. «Nik ezer hartu hire eskutik? Utikan! erosi ezak nahi duana hire lagun protestante horrentzat». Izena ere egoki-egokia du: Mister. Entzun al

[51] Lausengarria.

ki-egokia du: Mister. ¿Entzun aldezu inoiz, aizpa, San Mister, San Leon ta San Adrian bezela? Nere buruaren jabe enaizela uste det, ain dadukat zorabiatua. Jaunak Eladi berarengana eraman zuenean, ni, nerau jarri ninduen Leon aurraren ondoan, bigarren ama izateko. Len esan det Medel datorrenean ni Leaburutik aterako naizela. Ez, ez enaiz elkiko; ementše egongo naiz etšezain, ilobazain. «Eztiagu bear protestanterik» esango diot. Ken, ken; oa ostatura, ardantegira, nai dekan tokira. Elizetše batean ezin bizi ditekek, beatak Tšerrenen alabatzat daduzkan gizon tšaldar, narrats, lotsagaberik, sinespena galdu duen gizonik. Ken, ken.

Berri izugarri auek neronek asmatu edo beintzat geitu ditudala esan eztezazun, biar goizean nere ezkutitz onezaz batera bidaliko dizut Medelek egina*. Erakutsi ama nagusiari ere ta atzera len-bai-len nereganatu. Bitartean Adrianek naiz Leonek eska balekidate, Seminarioan utzi izango duela naiz beste olako zerbait asmatuko diet. Orrera goazenean ezjakin egin zerorren burua. Agur, aizpa maite. Egin otoitz inoiz baino gartsuago ta egin dezatela besteak ere gure etšekoentzat, Medelen alde ere bai, Jainkoak guregana etortzeko asmoa erauzi dezayon.

duzu inoiz, ahizpa, San Mister, San Leon eta San Adrian bezala? Nire buruaren jabe ez naizela uste dut, hain daukat zorabiatua. Jaunak Eladi berarengana eraman zuenean, ni, nerau jarri ninduen Leon haurraren ondoan, bigarren ama izateko. Lehen esan dut Medel datorrenean ni Leaburutik aterako naizela. Ez, ez ez naiz ilkiko; hementxe egongo naiz etxezain, iloba zain. «Ez diagu behar protestanterik» esango diot. Ken, ken; hoa ostatura, ardandegira, nahi duan tokira. Elizetxe batean ezin bizi ditekek, beatak Txerrenen alabatzat dauzkan gizon txaldan(52), narrats, lotsagaberik, sinespena galdu duen gizonik. Ken, ken.

Berri izugarri hauek neronek asmatu edo behintzat gehitu ditudala esan ez dezazun, bihar goizean nire eskutitz honezaz batera bidaliko dizut Medelek egina. Erakutsi ama nagusiari ere eta atzera lehenbailehen nireganatu. Bitartean Adrianek nahiz Leonek eska balekidate, seminarioan utzi izango duela nahiz beste holako zerbait asmatuko diet. Horra goazenean ezjakin egin zerorren burua. Agur, ahizpa maite. Egin otoitz inoiz baino gartsuago eta egin dezatela besteek ere gure etxekoentzat, Medelen alde ere bai, Jainkoak guregana etortzeko asmoa erauz(53) diezaion.

(52) Ganorarik gabea.
(53) Deuseztatu.

BOSKARREN EZKUTITZA

Leaburutik 1888ko Uztaren 4an.

Emeterio Olazarretari
Adrian Iriondo bereterrak.

I

Zure tsartel mamitsu, mila dollarreko tsartel hura, artu nueneko, itsaspetik labur-laburtso ta erderaz bederen erantzun nizun «dirua emen da» esanez. Geroztik Leonen berriak zearo eman al izateko, Garagarrilari lekuratzen* utzi diot. Berri-mordoska ederra det oraingo onetan: Leonenak, nere zertsobait eta uritarrenak.

¿Oroitzen alzera Amezketako errotari zarra zaldiz, tserbelik eta beroško zetorrenean ere, abereari itsatsita bezela, bein ere erori gabe, nola ibiltzen zan? Hura zaldiz bezen* erraz dabilkigu Leon gurea, beronen biltzirrikagainean*. Arratsaldero joaten zaigu oinez Ibarreragino, burnizko zaldia musukotik daramala. An igotzen zayo ta tsimista bezela*

BOSGARREN ESKUTITZA

Leaburutik 1888ko uztaren 4an

Emeterio Olazarretari
Adrian Iriondo bereterrak

I

Zure txartel mamitsu, mila dolarreko txartel hura, hartu nueneko, itsaspetik labur-laburtxo eta erdaraz bederen erantzun nizun «dirua hemen da» esanez. Geroztik Leonen berriak zeharo eman ahal izateko, garagarrilari lekuratzen utzi diot. Berri mordoxka ederra dut oraingo honetan: Leonenak, nire zertxobait eta hiritarrenak.

Oroitzen al zara Amezketako errotari zaharra zaldiz, txerbelik[54] eta beroxko zetorrenean ere, abereari itsatsita bezala, behin ere erori gabe, nola ibiltzen zen? Hura zaldiz bezain erraz dabilkigu Leon gurea, beronen biltzirrika[55] gainean. Arratsaldero joaten zaigu oinez Ibarreraino, burnizko zaldia musukotik[56] daramala. Han igotzen zaio eta tximista bezala[57] Tolosara iristen da.

(54) Txolindu.
(55) Bizikleta.
(56) Muturrekoa.
(57) Izartxoa du jatorrizkoan, baina ez du berariazko sarrerarik Gehigarrian.

Tolosara iristen da. Injenieru baten emazte ingelesak irakasten dio beraren izkera. Pianu-ekitaldiak organistarekin egiten ditu. Goiz osoa ematen du etsean arratsalderako atontzen. Saria ematera erenegundamu* joan nintzanean, bi irakasleak ao betean esan zidaten ikasle antsiduna, arretatsua ta ulerkorra (adimen zorrotzekoa) zala; ta onela jarraikiezkero (organistak esan zuen au) datorren urtean Elizan zerbait jotzeko eztuela inor bear izango. Berau, Jaunari eskerrak, beti bezelako azkarra, otzana, aldarte onekoa ta lagungina dator. Mayean atsegin da Leon ikustea. Ezertsok ere eztio kalterik egiten. Gaztaren ondotik gereziak, naiz mamiaren gainean sagardoa, artuarren, edozerk on egiten dio. ¿Eztute esaten abere ta pistien artean musarra dala lotiena? Gure mutil au musarkia dala sinetsi lezake beraz.

Goiz geyentsuetan esnatzeko, belarritik ten egitea ezomendu asko izaten. «Gizajoa» esanta, arpegia ureztatu bear izaten dio izebak. Gosaldutakoan nere mezatara etortzen da ta berealase asten da lanean. ¡¡Nik ez jakin-bearra, beronen ikaskizunetan aria emateko adina!! Baina nere aitaren egunetan pianoa ta ingeles-izkera zer ziran ere ezalzekien bat ez batek* nere errian: Amezketan.

Injineru baten emazte ingelesak irakasten dio beraren hizkera. Piano-ekitaldiak organistarekin egiten ditu. Goiz osoa ematen du etxean arratsalderako atontzen. Saria ematera herenegundamu joan nintzenean, bi irakasleek aho betean esan zidaten ikasle antsiaduna, arretatsua eta ulerkorra (adimen zorrotzekoa) zela; eta honela jarraikiz gero (organistak esan zuen hau) datorren urtean elizan zerbait jotzeko ez duela inor behar izango. Berau, Jaunari eskerrak, beti bezalako azkarra, otzana, aldarte onekoa eta lagunkina dator. Mahaian atsegin da Leon ikustea. Ezertxok ere ez dio kalterik egiten. Gaztaren ondotik gereziak, nahiz mamiaren gainean sagardoa, hartu arren, edozerk on egiten dio. Ez dute esaten abere eta piztien artean muxarra dela lotiena? Gure mutil hau muxarkia dela sinetsi lezake beraz.

Goiz gehientsuetan esnatzeko, belarritik tenk egitea ez omen du asko izaten. «Gizajoa» esanda, aurpegia ureztatu behar izaten dio izebak. Gosaldutakoan nire mezatara etortzen da eta berehalaxe hasten da lanean. Nik ez jakin-beharra, beronen ikaskizunetan haria emateko adina!! Baina nire aitaren egunetan pianoa eta ingeles-hizkera zer ziren ere ez al zekien bat ez batek nire herrian: Amezketan.

Medel ¿nundik nora bururatu zaitzu neri soineko ta oinetako ta buruko bitzuk* egineraztea? Esku-erakutsi bitzuri eskerrak ere bitzuk dagozkiete. Ala ere udarakoak baizik eztitut agindu. Neguan amabostean beintsō irtetzen naiz Leaburutik. Baserriko apaizari eztio inork begiratzen apain ala narras jantzia datorren. Udakoak aski ta geyegi ere baditut. Egun* (gaur) astebete, San Pedro gure elizjaurri-egunean, burutik bêrako estalki berri apainez agertzean, musua gorri-gorri nuen, ostu izan bainituen*. Eskerrak berriz ere ta gatozen orain erritar auengana.

¡Zure ondasunak dirala ta eztirala eman erakori dan zarraparra! Gutun orritsu bat (liburu andi bat) egin lezake nik aspaldion entzun izan dedana iratsi* nai banu. Gure erritarren irudimenak eztio andaluzenari ezer zor. Sineskarritzat aski dala uste det erenegun ilun-nabarrean izan nuen erausia (izketa). Badakizu nor dan Izurraingo neskazarra: Josēpiñasi. Beti-betiko eztimetsa, izmizti, biguña. Urteak gora-bêra zimurtso bat gabea da mutsurdin au. Ni baino zarrago dalako, berorika asi nintzakion bein izketan ¡¡bai neri damutu!!... Ea, berorika itz egiteko, atsoa zala uste otenuen esan zidan. Au utzi-

Medel, nondik nora bururatu zaizu niri soineko eta oinetako eta buruko bitzuk eginaraztea? Esku-erakutsi bitzuei eskerrak ere bitzuk dagozkie. Hala ere udarakoak baizik ez ditut agindu. Neguan hamabostean behintxo irteten naiz Leaburutik. Baserriko apaizari ez dio inork begiratzen apain ala narras jantzia datorren. Udakoak aski eta gehiegi ere baditut. Egun (gaur) astebete, San Pedro gure elizjaurri[58] -egunean, burutik beherako estalki berri apainez agertzean, musua gorri-gorri nuen, ostu izan bainituen. Eskerrak berriz ere eta gatozen orain herritar hauengana.

Zure ondasunak direla eta ez direla eman irakori[59] den zarraparra! Gutun orritsu bat (liburu handi bat) egin lezake nik aspaldion entzun izan dudana idatzi[60] nahi banu. Gure herritarren irudimenak ez dio andaluzenari ezer zor. Sinesgarritzat aski dela uste dut herenegun ilunabarrean izan nuen erausia (hizketa). Badakizu nor den Izurraingo neskazaharra: Joxepiñaxi. Beti-beti-ko eztimetxa[61], hizmizti[62], biguna. Urteak gorabehera zimurtxo bat gabea da mutxurdin hau. Ni baino zaharrago delako, berorika hasi nintzaion behin hizketan, bai niri damutu!!... Ea, berorika hitz egiteko, atsoa zela uste ote nuen esan zidan. Hau utzirik,

(58) Eliza bateko zaindaria.
(59) Altxarazi.
(60) OEHk "iratsi" sarreratik "idatzi"-ra igortzen du.
(61) Gozotasun, leuntasun itxurakeriarekin hitz egiten duen pertsona.
(62) Berritsua.

rik, atzoko autua edatsiko dizut, mamina ere badu-ta.

—Jainkoak iluntze on diola, apaiz jauna.

—Bai, zuri ere.

—Berorren etsera nentorren zertsobait jakitera.

—Nere etseak Leaburuarrentzat eztu giltzik, Josepiñasi: beti dezute zabalik. ¿Eta zer da jakin nai dezuna?

—Berorren lengusu Medelek kale ta guztiko uri berria Leaburun egiteko ustea omendu.

—¡Jesus ta bat ala ere! ¡Uri berria!

—Elgoyentarrentzat berorren baratzetik asi ta Malaerreka-gain-gaineraginokoa izango omenda. Baomendu dirua, bai ta bear ere, Leaburu ta Gazteluren bitarteko zoko sakon ori lurrez betetzeko.

—¿Amets egin aldezu, Josepa?

—Nere esan au ametsa baldin bada, erri guztia ta inguruetako beredin * gizaseme ta emakume ere ametsetan ari dira. Donostian ezomenda inor Medelek adina diru duenik; eta Bilbon ere, bakan bakantsoren bat edo bestetso.

—¿Baina nundik atera dituzute, ordea, berri auek?

—Apaiz jauna: Izurrain-aldera egin diteke ta erraz kale lerden ederra. Lurrak, aide ku-

atzoko autua[63] erasiko[64] dizut, mamia ere badu eta.

—Jainkoak iluntze on diola, apaiz jauna.

—Bai, zuri ere.

—Berorren etxera nentorren zertxobait jakitera.

—Nire etxeak leaburuarrentzat ez du giltzarik, Joxepiñaxi: beti duzue zabalik. Eta zer da jakin nahi duzuna?

—Berorren lehengusu Medelek kale eta guztiko hiri berria Leaburun egiteko ustea omen du.

—Jesus eta bat hala ere! Hiri berria!

—Elgoientarrentzat berorren baratzetik hasi eta Malaerreka gain-gainerainokoa izango omen da. Ba omen du dirua, bai eta behar ere, Leaburu eta Gazteluren bitarteko zoko sakon hori lurrez betetzeko.

—Amets egin al duzu, Joxepa?

—Nire esan hau ametsa baldin bada, herri guztia eta inguruetako berein gizaseme eta emakume ere ametsetan ari dira. Donostian ez omen da inor Medelek adina diru duenik; eta Bilbon ere, bakan-bakantxoren bat edo bestetxo.

—Baina nondik atera dituzue, ordea, berri hauek?

—Apaiz jauna: Izurrain aldera egin daiteke eta erraz kale lerden ederra. Lurrak, ahaide kutsatuak ere bagara eta (Medelen

(63) Solasa, berriketa.
(64) Murmurikatu.

tsatuak era bagera-ta (Medelen aitona nere amaren bigarren kusua zan) garestiegi enioz-ke emango, onetarako izanezkero.

—¡Aitaren, Semearen!... ¿Eta kale berri oyek jauregiz beteko dituela eztiote?

—Zerbaitez bete bearko. Antolin Saizarrek uste du olaren batzuk ere sortuko dituela: iraltsolak, burniolak...

—Bai, orrelako zerbait izan bearko du. Gezurrolak sortzeko beintzat eztegu Medelen bearrik. Leaburuko etse bakoitza gezurrola aaaundi bat da egungo* egunean.

Au entzun zuenean, arrizkoa zirudien Izurraingo neskazarrak; eta nik, errukiarren, ezpainetan parrirria nuela ta aopean bezela esan nion:

—Josepa, lenengo kalea Elgoyenen eginezkero, bigarrena Izurraingo mugak joaz Elbarrenaldera zuzenduko degu.

—¿Gezurra zala-ta?

Nik orduan egin nuen parrezantzoa (algara) Basatsurron ere entzun zezakean. Josepiñasiren buruan zure aberastasunak, elurra izotz-gainean bezelase, gogortu ta mamitu aldira: belarria egingo nuke.

Atzo, eguerdirian*, eskolandrearen bitartez Alkateari, etorrerazita, esan nion:

—Juan Jose ¿erabaki aldezute Medelek

aitona nire amaren bigarren gusua[65] zen) garestiegi ez nizkioke emango, honetarako izanez gero.

—Aitaren, Semearen!... Eta kale berri horiek jauregiz beteko dituela ez diote?

—Zerbaitez bete beharko. Anttolin Saizarrek uste du olaren batzuk ere sortuko dituela: iraltsolak[66], burniolak...

—Bai, horrelako zerbait izan beharko du. Gezurrolak sortzeko behintzat ez dugu Medelen beharrik. Leaburuko etxe bakoitza gezurrola haaaundi bat da egungo egunean.

Hau entzun zuenean, harrizkoa zirudien Izurraingo neskazaharrak; eta nik, erruki arren, ezpainetan barre-irria nuela eta ahopean bezala esan nion:

—Joxepa, lehenengo kalea Elgoienen eginez gero, bigarrena Izurraingo mugak joaz Elbarren aldera zuzenduko dugu.

—Gezurra zela eta?

—Nik orduan egin nuen barre zantzoa (algara) Basatxurron ere entzun zezaketen. Joxepiñaxiren buruan zure aberastasunak, elurra izotz-gainean bezalaxe, gogortu eta mamitu ahal dira: belarria egingo nuke.

Atzo, eguerdi-irian, eskolandrearen[67] bitartez alkateari, etorrarazita, esan nion:

—Juan Joxe[68] erabaki al duzue Medelek beraren jaioterri

[65] Lehengusua.
[66] Igeltsu-ola.
[67] Maistra.
[68] Honela bereizten ditu egileak: Juan Joxe alkatea, Juan Jose abadea.

beraren jayoterri onetan egokien egin lezakeana?

—Jauna: iru aldiz bildu gera sei zinegotziok; eta ezin alkar bat egin degu. Elgoyentarrak beren baldernan* kale berri bat nai lukete, Elbarrentarrak aldiz Egi ta Garmendiola-bitartean beste zerbait nai: batzuk ola berri bat, erregebidearen guraria* ere erakutsi dute. Ezin batu gera. Onen onena lenbai-len berori guregana etortzea izango da.

—¿Noiz joko degu alkarrengana? ¿Igandean? ¿Ala nai dezute gaur, zortzirak aldean, bildu gaitezen?

—Berorrek nai duena.

—Tira bada, gaur. Ots egin beste bost lagunai ta gainera ezta gaizki izango elizaina ere udaletsera* agertzea.

Bi ordu oso iraun zuen gure jarrialdiak. Amarrak jota atera nintzan andik. Isilaldirik, ardoa ekarrerazi nuen bitartea, etzan besterik izan. Argiroago jakin dezazun, lenengo iztuna Alkatea zan; bigarrena, Antón Barandiaran; irugarrena, Martin Lôntso; laugarrena, Antolin Saizar; boskarrena, Iturgoyen; seigarrena, Mendigibelko Manu andi; zazpigarrena, nerau. Elizainak (emen aipatzen dutenez, *mariordomuak)* zurrut, entzun ta parre: etzuen besterik egin.

honetan egokien egin lezakeena?

—Jauna: hiru aldiz bildu gara sei zinegotziok; eta ezin elkar bat egin dugu. Elgoientarrek beren baldernan kale berri bat nahi lukete, elbarrentarrek aldiz Egi eta Garmendiola bitartean beste zerbait nahi: batzuek ola berri bat, errege-bidearen guraria ere erakutsi dute. Ezin batu gara. Onen-onena lehenbailehen berori guregana etortzea izango da.

—Noiz joko dugu elkarrengana? Igandean? Ala nahi duzue gaur, zortzirak aldean, bil gaitezen?

—Berorrek nahi duena.

—Tira bada, gaur. Hots egin beste bost lagunei eta gainera ez da gaizki izango elizaina ere udaletxera agertzea.

Bi ordu oso iraun zuen gure jarrialdiak[69]. Hamarrak jota atera nintzen handik. Isilaldirik, ardoa ekarrarazi nuen bitartea, ez zen besterik izan. Argiroago jakin dezazun, lehenengo hiztuna alkatea zen; bigarrena, Antton Barandiaran; hirugarrena, Martin Lontxo; laugarrena, Anttolin Saizar; bosgarrena, Iturgoien; seigarrena, Mendigibelko Manu handi; zazpigarrena, nerau. Elizainak (hemen aipatzen dutenez, *mariordomoak*) zurrut, entzun eta barre: ez zuen besterik egin.

[69] Bilkura.


II

LEABURUKO UDALETSEAN

Neronek autsi nuen iztun-esetsia:

—Gizonak: lengusuari len-bai-len erantzun nai nioke eta erabaki ezazute zer nayen dezuten Medelek Leaburun egitea.

LENENGOAK: ¡Alegia!, eguerdi-aurrean ait-



ortu dedana gertatu zaigu emen, apaiz jauna. Batzuk au, besteak ori nai lukete; Elgoyentarrak Elgoyenez oroitzen dira; Elbarrentarrak eztute aintzat artu nai bestên gogoa; ta gu..., gu..., len baino nasiago.

IRUGARRENAK: ¡Nasiago, nasiago! ¿Elbarren


II

LEABURUKO UDALETXEAN

Neronek hautsi nuen hiztun-esetsia[70]:

—Gizonak: lehengusuari lehenbailehen erantzun nahi nioke eta erabaki ezazue zer nahien duzuen Medelek Leaburun egitea.

LEHENENGOAK: Alegia!, eguerdi-aurrean aitortu dudana



gertatu zaigu hemen, apaiz jauna. Batzuek hau, besteek hori nahi lukete; elgoientarrak Elgoienez oroitzen dira; elbarrentarrek ez dute aintzat hartu nahi besteen gogoa; eta gu..., gu..., lehen baino nahasiago.

HIRUGARRENAK: Nahasiago, nahasiago! Elbarren ez al da

[70] Erasoa.

ezalda Leaburuko alderik zabalena ta etsez ornituena? Ederrena ere bai; ta ezer egin bear bada...

BIGARRENAK: Ori uste dek ik Elbarrentarra aizelako. Elgoyenen jayo baintz...

IRUGARRENAK: ¡Elgoyen! ¡Utikan! ¿Ezaldakik nundik datorkion Leabururi tsalburuerrigaitzizena? Elgoyendik, zuen balderna orretan arkaitzak eta igeltsotegiak baizik eztiralako.

BIGARRENAK: ¡Tsalburuak Elgoyenen! ¿Eta nundikoa degu Leaburuarrok zurrutero-gaitzizena? Elizaz bêtikoa, zuenganikakoa. Tsaraman ta Tolosako mugatik gertu bizi zeratenok Mutur-oker ta Tota ta Juju* maite omendituzute.

IRUGARRENAK: ¡Arrayo-pola! ¿Ori ere esan? Nik eztiat inoiz Leaburuko gizasemerik, Elgoyentarrik ere, urik edaten ikusi. ¿Ezaldek, Anton, nabaritu nork oratu* dion gaur aurren-aurrena ardo-bonbilari? Erorrek. Eta Juan Jose alkatea ta Iturgoyen ere eztituk atzerenak izan zurrut egiten.

GUZTIOK: Ja-ja-ja-ja-ja.

BIGARRENAK: Aizak, Martin Lontso, ¿nun dek or, ire Elbarren orretan, Arburola baino auzotegi ekarkorragorik? ¡Ango gari-artoak! ¡Ango gerezi eder, marrubi gozo, belardi mamintsuak!

Leaburuko alderik zabalena eta etxez hornituena? Ederrena ere bai; eta ezer egin behar bada...

BIGARRENAK: Hori uste duk hik elbarrentarra haizelako. Elgoienen jaio bahintz...

HIRUGARRENAK: Elgoien! Utikan! Ez al dakik nondik datorkion Leabururi txalburu[71] –herri gaitzizena? Elgoiendik, zuen balderna horretan harkaitzak eta igeltsutegiak baizik ez direlako.

BIGARRENAK: Txalburuak Elgoienen! Eta nondikoa dugu leaburuarrok zurrutero gaitzizena? Elizaz behetikoa, zuenganikakoa. Txaraman eta Tolosako mugatik gertu bizi zaretenok muttur-oker eta Ttotta eta Juju maite omen dituzue.

HIRUGARRENAK: Arraiopola! Hori ere esan? Nik ez diat inoiz Leaburuko gizasemerik, elgoientarrik ere, urik edaten ikusi. Ez al duk, Antton, nabaritu nork oratu dion gaur aurren-aurrena ardo-bonbilari? Herorrek. Eta Juan Joxe alkatea eta Iturgoien ere ez dituk atzenenak izan zurrut egiten.

GUZTIOK: Ja-ja-ja-ja.

BIGARRENAK: Adi ezak, Martin Lontxo, non duk hor, hire Elbarren horretan, Arburola baino auzotegi ekarkorragorik[72]? Hango gari-artoak! Hango gerezi eder, marrubi gozo, belardi mamitsuak!

---

[71] Zapaburua.
[72] Emankorra.

SEIGARRENAK: ¿Eta Egi, Tolosa guztia ikusteko gaintšo ederra? Elbarrentarrak izan ezpalira, Gazteluk jan izango zituen zuen galsoro ta artalanda, gerezi ta marrubi oriek, tšalburu ta guzti.

NIK: (Eskuz maya jota). Gizonak: nik entzutea dedanez, Venecia, Errepublika aberatsa, orain seireun bat urte Europa guztira salgayak ugari itsasoz zabaltzen zituena, amar gizonen buruzpidean bizi izan zan. Leaburuarrak izan balira, sei ez, zinegotziak seireun izanta ere, naikoa lan izango zuten buruzpidetzeko, batez ere Elgoyen ta Elbarren an izanezkero. Elizaldea guztiona dezute. Egin dezagun zerbait ementše; ta orrela, naiz goyen- naiz barrentar zeratela, oro* erara aseko zerate.

LENENGOAK: ¡Alegia! Gaizki esana eztirudi. Ni elizaltarra naiz eta goiko balderna ta bekoa biak zaizkit berdin.

SEIGARRENAK: Eztiat uste. ¿Ire arkaitz ori nun zegok? Elgoyenen. ¿Ire emaztea nungoa uen? Elgoyengoa. ¿Zeintzuk* egin aute Leaburuko alkate bein ta bi ta iru aldiz? Elgoyentarrak.

NIK: (Berriz maya jota). Gizonak: ¿zer nai dezute Medelek egitea?

LAUGARRENAK: Apaiz jauna: iturri andi eder

SEIGARRENAK: Eta Egi, Tolosa guztia ikusteko gaintxo ederra? Elbarrentarrak izan ez balira, Gazteluk jan izango zituen zuen galsoro eta arto landa, gerezi eta marrubi horiek, txalburu eta guzti.

NIK: (Eskuz mahaia jota). Gizonak: nik entzutea dudanez, Venezia, errepublika aberatsa, orain seiehun bat urte Europa guztira salgaiak ugari itsasoz zabaltzen zituena, hamar gizonen buruzpidean bizi izan zen. Leaburuarrak izan balira, sei ez, zinegotziak seiehun izanda ere, nahikoa lan izango zuten buruzpidetzeko[73], batez ere Elgoien eta Elbarren han izanez gero. Elizaldea guztiona duzue. Egin dezagun zerbait hementxe; eta horrela, nahiz goien- nahiz barrentar zaretela, oro erara aseko zarete.

LEHENENGOAK: Alegia! Gaizki esana ez dirudi. Ni elizaltarra naiz eta goiko balderna eta behekoa biak zaizkit berdin.

SEIGARRENAK: Ez diat uste. Hire harkaitz hori non zegok? Elgoienen. Hire emaztea nongoa huen? Elgoiengoa. Zeintzuek egin haute Leaburuko alkate behin eta bi eta hiru aldiz? Elgoientarrek.

NIK: (Berriz mahaia jota). Gizonak: zer nahi duzue Medelek egitea?

LAUGARRENAK: Apaiz jauna: iturri handi eder bat, itas-

[73] Gobernatu.

bat, itaskak aldamenean dituen bat, ortṣe, elizondoan, Urkieta-bitartean izango litzake egokiena: auṣe uste det nik.

BIGARRENAK: Anṭon Barandiaran naizen bezela diot: urrutiegi degula Elgoyentarrok, batez ere Gazteluko mugan bizi geranok, toki ori, gu ur-eske orrera etortzeko. Iturri andi eder bat Elbarrenen bear bada, Elgoyenen ere beste iturri andi...

BOSKARRENAK: ¡Ori, ori, Anṭon! Ez utzi.

LENENGOAK: ¡Erreplubika! ¿Erreplubika esan du, apaiz jauna? ¿Nun beste bat Leaburukoa baino andiagorik? ¡Alegia! Iturriak len ere baditugu. ¿Arburolan ezaldezute Galitzia ta beraṣeago Malako iturria? Arkaizpean Zubite degu. Gainera or dira Linosineta, Ebro... ¡Jainkoak lagun! ¿Zertarako ur geyago? Ardo-iturria balitz...

GUZTIOK BATERA: Ja-ja-ja-ja-ja-ja.

BOSKARRENAK: Nik ere orrelaṣe uste det. Bide berria, erregebidea, da bearren deguna: au itsuak ere badakuste*. Orretarako bear dan eskuarterik erdia aldundiak (Diputazioak) agindu digu; beste erdia Medelek emanezkero, gu...

BIGARRENAK: Gu ere amak ezkenituen erdizka egin, osorik sortuak gaituk. Gizonari etzayo erdirik ezertṣo ere eskatu bear. ¿Ba-

kak[74] aldamenean dituen bat, hortxe, elizondoan, Urkieta bitartean izango litzateke egokiena: hauxe uste dut nik.

BIGARRENAK: Antton Barandiaran naizen bezala diot: urrutiegi dugula elgoientarrok, batez ere Gazteluko mugan bizi garenok, toki hori, gu ur-eske horra etortzeko. Iturri handi eder bat Elbarrenen behar bada, Elgoienen ere beste iturri handi...

BOSGARRENAK: Hori, hori, Antton! Ez utzi.

LEHENENGOAK: Erreplubika! Erreplubika esan du, apaiz jauna? Non beste bat Leaburukoa baino handiagorik? Alegia! Iturriak lehen ere baditugu. Arburolan ez al duzue Galitzia eta beheraxeago Malako iturria? Harkaizpean Zubite dugu. Gainera hor dira Linosineta, Ebro... Jainkoak lagun! Zertarako ur gehiago? Ardo-iturria balitz...

GUZTIOK BATERA: Ja-ja-ja-ja-ja-ja.

BOSGARRENAK: Nik ere horrelaxe uste dut. Bide berria, errege bidea, da beharren duguna: hau itsuek ere badakuste. Horretarako behar den eskuarterik erdia aldundiak (Diputazioak) agindu digu; beste erdia Medelek emanez gero, gu...

BIGARRENAK: Gu ere amak ez gintuen erdizka egin, osorik sortuak gaituk. Gizonari ez zaio erdirik ezertxo ere eskatu behar. Badakizue nor den Tolosako Terexa, *dama de seda* izendatzen dute-

[74] Aska.

dakizute nor dan Tolosako Teresa, *dama de seda* izendatzen dutena? Oraintse iru bat urte Lourdesen izan omenzan eta beste ikusgarri askoren artean bide berri, asmo berriko bide bat, ikusi omenzuen, kaletik mendirakoa. Zearka ibili gabe zuzen-zuzen joaten omendira betik gora ¡¡¡zzzzzzzzzist!!! «Aitaren» egin-orduko.

Boskarrenak: Orrela dalarik ere, bide ori, gizonak iragotzeko ¡tira! ona izan litekek; baina gure gurdiak, batez ere zamatuak diranean, aldapa gora ekartzeko, istilu gorriak izango lirake.

Bigarrenak: Gurdiak ere idi ta guzti Ibarreko elizaldean, goitik bêra ta bêtik gora dabilen burnizko soka lodiari lotuta ¡¡¡zzzzzist!!! Leaburun; Gaztelura bear bada, lotu berriz ere ta ¡¡¡zzzzzist!!! Gaztelun; Orejara igo bear izanezkero, berriz ere lotu ta beste zzzistada batean an zijoazik idi ta gurdi ta itzain, Artesburu ta Larte baino ere gorago. Au egiegi-egia dek, Antton Barandiaran naizen bezelase.

Irugarrenak: I Antton Barandiaran bâiz, ni Martin Lôntso Etseberriko nauk eta nik ere badiat zerbait esateko. Guk iturri andi bat aski ez ta bigarrena ere nai ta ¡¡ala jaina!! aundia, itaska ta guztikoa bigarrena

na? Oraintxe hiru bat urte Lourdesen izan omen zen eta beste ikusgarri askoren artean bide berri, asmo berriko bide bat, ikusi omen zuen, kaletik mendirakoa. Zeharka ibili gabe zuzen-zuzen joaten omen dira behetik gora zzzzzzzzist!!! «Aitaren» egin ordu-ko.

BOSGARRENAK: Horrela delarik ere, bide hori, gizonak iragotzeko(75) tira! ona izan litekek; baina gure gurdiak, batez ere zamatuak direnean, aldapa gora ekartzeko, istilu gorriak izango lirateke.

BIGARRENAK: Gurdiak ere idi eta guzti Ibarreko elizaldean, goitik behera eta behetik gora dabilen burnizko soka lodiari lotuta zzzzzist!!! Leaburun; Gaztelura behar bada, lotu berriz ere eta zzzzzist!!! Gaztelun; Orexara igo behar izanez gero, berriz ere lotu eta beste zzzistada batean han zoazak idi eta gurdi eta itzain, Artesburu eta Larte baino ere gorago. Hau egi-egi-egia duk, Antton Barandiaran naizen bezalaxe.

HIRUGARRENAK: Hi Antton Barandiaran bahaiz, ni Martin Lontxo Etxeberriko nauk eta nik ere badiat zerbait esateko. Guk iturri handi bat aski ez eta bigarrena ere nahi eta, alajaina!! handia, itaska eta guztikoa bigarrena ere. Errege bidea ere behar

(75) Igaro.

ere. Erregebidea ere bear degula, kaleak ere elizaz goitik eta bêtik. Apaizak esan omendu bat Malaerrekara, bigarrena Izurrain-aldera egingo dirala.

NIK: ¿Nola, nola?

IRUGARRENAK: ¿Ezalzayo Medeli gertatuko igeri dabilenaz esan oi dana: «murgilean sartu ta azalera irten baino lenago topoa arkitu»? ¡Amerikako aberastasunak! Ni ere Ameriketan izan nauk eta ango berri bazekiat.

BIGARRENAK: Martin Lôntsō: joan adi or beko Zumardira amaikak-aldean. Egunero ikusiko dituk tokan jokatzen, maukutsik eta iruna astaperra eskuan dituela, indiano-mordoska bat. Begiratu ayen lepo gorri mamintsu ta sabel-zorro borobilari. I ere Ameriketan izan aiz; baina ire zerailtasunak, ire ezur zorrotz oriek ik egin uena agertzen duten neurri berean, Zumardiko indianoen garondo gorri ta zilbor beteak egoki azaltzen digute Ameriketan bat baino geyago erruz aberastu izan dirala.

LENENGOAK: ¡Demonies pestêna!* Eztegu gaur ere ezer onik erabakiko. Batzuk iturria goyean eta iturria bean, besteak erregebidea, Antonek sorginbide ori litekela onena. Don Adrian: esan bezayo lengusuari dator-

dugula, kaleak ere elizaz goitik eta behetik. Apaizak esan omen du bat Malaerrekara, bigarrena Izurrain aldera egingo direla.

NIK: Nola, nola?

HIRUGARRENAK: Ez al zaio Medeli gertatuko igeri dabilenaz esan ohi dena: «murgilean sartu eta azalera irten baino lehenago topoa[76] aurkitu»? Amerikako aberastasunak! Ni ere Ameriketan izan nauk eta hango berri bazekiat.

BIGARRENAK: Martin Lontxo: joan hadi hor beheko zumardira hamaikak aldean. Egunero ikusiko dituk tokan jokatzen, mahukutsik[77] eta hiruna astaperra eskuan dituela, indiano mordoxka bat. Begiratu haien lepo gorri mamitsu eta sabel-zorro borobilari. Hi ere Ameriketan izan haiz; baina hire zerailtasunak[78], hire hezur zorrotz horiek hik egin huena agertzen duten neurri berean, zumardiko indianoen garondo gorri eta zilbor beteak egoki azaltzen digute Ameriketan bat baino gehiago erruz aberastu izan direla.

LEHENENGOAK: Demonimes pesteena! Ez dugu gaur ere ezer onik erabakiko. Batzuek iturria goian eta iturria behean, besteek errege bidea, Anttonek sorgin bide hori litekeela onena. Don Adrian: esan bezaio lehengusuari datorkigula bera lehenbailehen;

(76) Oztopoa.
(77) Alkandora hutsean.
(78) Argaltasuna.

kigula bera len-bai-len; ikusi dezala berak zer dan bearren deguna ta gu berak egin nai duenaz poz-pozik egongo gera. Eta gainera Alkate izateaz aspertua ere banago ta izan bite bera gure erri onen buru.

Nik: Gizonak: alik zeatzen erakutsiko diot lengusuari emen gertatu dana. Biar goizetik jaiki bearra naiz, berandu ere badegu ta Jainkoak dizutela gau on bat.

Au esanta elki nintzan. Irugarren bonbil andia erdi beterik utzi nien ta ayen bigirak noizarte iraun otezuen batek badaki.

Agur, Medel. Badakizu zein dan zure erkide, zure erritarren gogorik andiena: zu emen len-bai-len ikustea. Laugarren papertšo au eztet bete nai, Leonek ornitu dezan. Urrengoarte.

ikus dezala berak zer den beharren duguna eta gu berak egin nahi duenaz poz-pozik egongo gara. Eta gainera alkate izateaz aspertua ere banago eta izan bedi bera gure herri honen buru.

NIK: Gizonak: ahalik zehatzen erakutsiko diot lehengusuari hemen gertatu dena. Bihar goizetik jaiki beharra naiz, berandu ere badugu eta Jainkoak dizuela gau on bat.

Hau esanda ilki nintzen. Hirugarren bonbila handia erdi beterik utzi nien eta haien bigirak[79] noiz arte iraun ote zuen batek badaki.

Agur, Medel. Badakizu zein den zure erkide, zure herritarren gogorik handiena: zu hemen lehenbailehen ikustea. Laugarren papertxo hau ez dut bete nahi, Leonek horni dezan. Hurrengo arte.

[79] (Gau) bilera.

SEIGARREN EZKUTITZA

Leaburutik 1889-ko Epailaren 15an.

Sor Santa Catalinari
beraren aizpa Isabelek.

Larunbat guren*-eguna izanarren, oilo ilak lumatzen ari nintzan, zure ezkutitza artu nuenean. «Berriak asko ta onak, argiro ta zearo» emateko. «Iztuna nor dan, oyulariak nungoak eta zeinbat...» «zeinu berriak nolako otsa duten...» «Eliza berriztatuaren izantz* bat len-bai-len bidali».

¡Ori dezu, aizpatsō, galea, leya; ori asnasestua, ori ito-bearra!

Laurdenegun-atzetik, oilo-bipiltzen; laurdenegun*, berrogei bat sabelkoi egazti ta bildoski ta arrainkiz ase ezinik; erenegun, eskuerakutsiz etorri ziran-auzolagun asko aragiz ta gibeliz ta piper andiz este-betetzen; atzo, zutik ere lo: onelasē igaro zaizkit egun auek, ogei itz etentzaka esateko astirik (betarik) gabe. Beizama-gaineko Urdanpiletatik arranpalo* agertzen omenda

SEIGARREN ESKUTITZA

Leaburutik 1889ko epailaren[80] 15ean


Sor Santa Katalinari
beraren ahizpa Isabelek

Larunbat guren-eguna izan arren, oilo hilak lumatzen ari nintzen, zure eskutitza hartu nuenean. «Berriak asko eta onak, argiro eta zeharo» emateko. Hiztuna nor den, oihulariak[81] nongoak eta zenbat...», «zeinu berriak nolako hotsa duten...», «Eliza berriztatuaren izantza bat lehenbailehen bidali».

Hori duzu, ahizpatxo, galea[82], lehia; hori arnasestua, hori itobeharra! Laurdenegun-atzetik[83] oilo-bipiltzen; laurdenegun, berrogei bat sabelkoi hegazti eta bildoski eta arrainkiz ase ezinik; herenegun, esku-erakutsiz[84] etorri ziren auzo lagun asko haragiz eta geheliz[85] eta piper handiz heste betetzen; atzo, zutik ere lo: honelaxe igaro zaizkit egun hauek, hogei hitz etentzaka[86] esateko astirik (betarik) gabe. Beizama gaineko Urdanpiletatik arranpalo

(80) Martxoa.
(81) Kantaria.
(82) Gogoa.
(83) Herenegun-aurreko egunaren bezpera.
(84) Oparia.
(85) Behikia.
(86) Etengabe.

gure Elizatsō tsīrrin-berri, tsūkun au. Zeinutegia andiago egin baliote ¿badakizu zer irudi izango zuen? Tolosan, inautegunetan,



aitaren kapela buruan dutela ibiltzen diran aur ayetako bat. Tsīkiago ezarri baliote, ostera, asmo berriko motots tsīkia kaskarrean darabilten andere buru-loka irudi izango luke. Leaburuko eliza ponpōs onek etzuen bear beste tsīrrinik (zeinutegirik), oraintse duena baizik. Zeinuak (ezkilak) ere egokiak ditu ta uri askotan baino geyago: lau, laurak

agertzen omen da gure elizatxo txirrin berri, txukun hau. Zeinutegia handiago egin baliote badakizu zer irudi izango zuen?

Tolosan, inaute egunetan, aitaren kapela buruan dutela ibiltzen diren haur haietako bat. Txikiago ezarri baliote, ostera, asmo



berriko motots txikia kaskarrean darabilten andere buru-loka irudi izango luke. Leaburuko eliza ponpox honek ez zuen behar beste txirrinik (zeinutegirik), oraintxe duena baizik. Zeinuak (ezkilak) ere egokiak ditu eta hiri askotan baino gehiago: lau, lau-

ozenak. Bik, sakonago jotzen dutelarik, gizazeinuak dirudite; beste biak, ots goi meagodun dirala, emaezkilak.

Tsiztularia ta tuntunduna, Amasako semeak biak, *Inazio gure patroi aundia* jotzen aurretik ari zirala, Juan Jose Alkatea ta bost zinegotziak, oi bezela, udaletsetik ateratzean, asi ziran zeinu berriak oska. Beren otsa entzunta, sukaldeko bost emakumeok tsaloka, eltze ta kazpel, burruntzi ta brisela sutan, aingeruen ardurapean, utzita, leyoetara irten ginan. Elizaurrea, sagar-urtêtan sagaztiak alez bezela, gizakiz bete-betebetea gekusen; eta oro*, tsilibitariak ere bai, gora begira birloratuak zeuden. Eztakit zer sartu zitzaidan belarrian barrurago: zeinuen otsa, ala gizon ta gison, andere ta andere ayen zalaparta. Begiak malko gozoz bustirik genituen ta ezpainak barrez, zintzurra deadarka ta biotza taup-taup zebilzkigun-artean. Alako pozaldirik eztu ez nere ez besteren gogok, Leaburuarrenek beintzat, egundo izan.

Tamalez nik, Pazko izanarren, goizmezatso batez naikotu bear izan nuen. Meza nagusitan itzaldia ta oyuketa nolakoak izan ziran eztakit. Oyulariak Tolosarrak omenziran geyenak. Aurpegiz enituen ezagutzen,

rak ozenak. Bik, sakonago jotzen dutelarik, giza zeinuak dirudite; beste biak, hots goi meheagodun direla, emaezkilak.

Txistularia eta ttunttunduna, Amasako semeak biak, *Inazio gure patroi handia* jotzen aurretik ari zirela, Juan Joxe alkatea eta bost zinegotziak, ohi bezala, udaletxetik ateratzean, hasi ziren zeinu berriak hoska. Beren hotsa entzunda, sukaldeko bost emakumeok txaloka, eltze eta kazpel(87), burruntzi eta brisela(88) sutan, aingeruen ardurapean, utzita, leihoetara irten ginen. Elizaurrea, sagarurteetan sagastiak alez bezala, gizakiz bete-bete-betea genekusan; eta oro, txilibitariak ere bai, gora begira birloratuak zeuden. Ez dakit zer sartu zitzaidan belarrian barrurago: zeinuen hotsa, ala gizon eta gixon, andere eta anddere haien zalaparta. Begiak malko gozoz bustirik genituen eta ezpainak barrez, zintzurra deadarka eta bihotza taup-taup zebilzkigun artean. Halako pozaldirik ez du ez nire ez besteren gogok, leaburuarrenek behintzat, egundo izan.

Tamalez nik, Pazko izan arren, goiz mezatxo batez nahikotu behar izan nuen. Meza nagusitan hitzaldia eta oihuketa nolakoak izan ziren ez dakit. Oihulariak tolosarrak omen ziren gehienak. Aurpegiz ez nituen ezagutzen, urdailez ederki ezagutu ditugu:

(87) Kazola.
(88) Parrila.

urdailez ederki ezagutu ditugu: ayen janedanak etzuen amairik. Iztuna (sermolaria) Adrianen apaizlagun bat zan, Amezketako seme ta Azpeitiko bereterburu (artzipreste) jauna. Hura jarri zuen gureak maipuruan. Eseri-aurretsoan (an nintzan ni, bi zukuontzi eskuetan nituela) Adrianek, tsalo batez berritsuak isilerazita «bereterburu jauna, *benedicite*» esan zion.

—Nik emen eztiat aginpiderik, egin zak erorrek.

Eta gureak, bear ere ala zan-ta, maya onedatsi zuen.

Bazkari artan Adrianek eralki zuen-diruen diruaz baratze zabal, lur mizkeduna, arresi ta guztikoa, erosi liteke. Ni, zorionez ama zana bezelako gordea izan, ta lenago erriko jayetan, ausartzen nintzakion Adriani esaten: «Zertarako eralki onenbeste diru? Urdailak ematen zayon guztia artzen du. Atzo erriogia ta arakaya irentsita, biar arakaya ta erriogia jan bear dutenai ¿ezin bada, bi zukuren urren, eltzekariak eman, gero bi jaki ugariz naya egin dezaten?» Orain eztet kemenik onenbeste agertzeko. Gure amak maiz aitatzen zuen au: «alper da Maria makilatu, berez bear du». Lanik alperrena Adrian makilatzea (Adriani surtasuna oroi-

haien jan-edanak ez zuen amairik. Hiztuna (sermolaria) Adrianen apaiz lagun bat zen, Amezketako seme eta Azpeitiko bereterburu (artzipreste) jauna. Hura jarri zuen gureak mahaiburuan. Eseri aurretxoan (han nintzen ni, bi zuku-ontzi eskuetan nituela) Adrianek, txalo batez berritsuak isilarazita «bereterburu jauna, *benedicite*» esan zion.

—Nik hemen ez diat aginpiderik, egin ezak herorrek.

Eta gureak, behar ere hala zen eta, mahaia onerasi[89] zuen.

Bazkari hartan Adrianek eralki[90] zuen diruen diruaz baratze zabal, lur mizkeduna[91], harresi eta guztikoa, eros liteke. Ni, zorionez ama zena bezalako gordea izan, eta lehenago herriko jaietan, ausartzen nintzaion Adriani esaten: «Zertarako eralki honenbeste diru? Urdailak ematen zaion guztia hartzen du. Atzo herrogia[92] eta arkaia[93] irentsita, bihar arkaia eta herrogia jan behar dutenei ezin bada, bi zukuren hurren, eltzekariak eman, gero bi jaki ugariz nahia egin dezaten?» Orain ez dut kemenik honenbeste agertzeko. Gure amak maiz aitatzen zuen hau: «alfer da Maria makilatu, berez behar du[94]». Lanik alferrena Adrian makilatzea (Adriani xuhurtasuna oroitzea) dela uste dut. Donos-

(89) Onedatsi, bedeinkatu.
(90) Eralgi, xahutu.
(91) Emankorra.
(92) Herriko ogia.
(93) Zezina.
(94) Zerbait alferrikakoa dela adierazteko esapidea.

tzea) dala uste det. Donostïko arroztegi (Hotel) ospetsuenetan bezelaše bazkaldu zan igandean Leaburuko apaiztegian; astelenean, Tolosako ostatu onenean eztai-egunetan bezelatsu.

Sei bat aldiz agertu nintzan ni bazkaldarren-artean. Gezur-agindun apaiz burutšuriak ere mauka-mauka ari ziran beti. Olako zauta bat, olako bonbonkada bat beste elizgizon baten etšean ¿nun?

Gure apaiza ïlunško ikusteak mai-lagunen mamurketak baino ere arrituago nendukan. Beste asko artzen baino pozago egoten da Adrian ematen. «¡Beronen bizitze osoan, ain zuzen ere egun (gaur), larritu otedio aldarte beti alaya, sakel-zabalegi izateak!» esaten nion nere buruari, bainan enuen ala uste. Bazkaldar zarrenak «¿zer dek?», garerdikoak* «¿zer dezu?», gaztênak «¿zer du?» galdetzen ziotenean, gogoz bestera erantzuten zieten: batzui «etzekiat», besteai «eztakit», buru beltzenai «pzzzzzz». Alako batean etzuela lorik egin al izan buruak eman zion, eta gogoa mayean, tšalin ta erratilu-artean, gabetanik, ogera begira zedukala.

Bazkalartean Leonen ezkutitza ekarri zioten, Seminariotik bidalia. ¡Gaizo, Amaren seme yayu orrek! ¿Noiz uste izango uen

tiako arroztegi (hotel) ospetsuenetan bezalaxe bazkaldu zen igandean Leaburuko apaiztegian; astelehenean, Tolosako ostatu onenean eztei-egunetan bezalatsu.

Sei bat aldiz agertu nintzen ni bazkaldarren artean. Gezurhagindun apaiz buruzuriak ere mauka-mauka ari ziren beti. Holako zauta[95] bat, holako bonbonkada[96] bat beste elizgizon baten etxean non?

Gure apaiza ilunxko ikusteak mahai lagunen mamurketak[97] baino ere harrituago nindukan. Beste asko hartzen baino pozago egoten da Adrian ematen. «Beronen bizitze osoan, hain zuzen ere egun (gaur), larritu ote dio aldarte beti alaia, sakel-zabalegi izateak!» esaten nion nire buruari, baina ez nuen hala uste. Bazkaldar zaharrenek «zer duk?», garerdikoek «zer duzu?», gazteenek «zer du?» galdetzen ziotenean, gogoz bestera erantzuten zien: batzuei «ez zekiat», besteei «ez dakit», buru beltzenei «pzzzzzz». Halako batean ez zuela lorik egin ahal izan buruak eman zion, eta gogoa mahaian, txalin[98] eta erretilu artean, gabetanik[99], ohera begira zeukala.

Bazkalartean Leonen eskutitza ekarri zioten, seminariotik bidalia. Gaixo, Amaren seme iaio horrek! Noiz uste izango huen

[95] Banketea.
[96] Diru-eragilketa.
[97] Mastekatzea.
[98] Platera.
[99] Gabe.

osaba maitea, ire izlerroak irakurrita, auspeko sua bezela, geroago epelago, geroago otzago egingo zala? Lengusua zurbil ta maskaltše ikusirik, neronek galdetu nion orduan, boskarren otarraina (langosta) mai-gainean utzita:

—Bainan esan ta esanta ere ¿zer dezu, Adrian?.

—Tšekor bat Arburolako belardietan baino pozago izango zala gure artean bera, dio Leonek.

Au edatsita antzi bat egin zuen, zautalari guztiak arritzeko antzi barru-barrutikoa. Gizagaizoak, zauzkadâk estaltzearren noski—Don Agustin, ¿Belauntzaldean ze berri?—, galdetu zuen. Belauntzako arima-zainak—¿bainan zer dek, mutil?—erantzun zion.

—Logale, enauk besterik: ez bazkaldar, ez mailagun, ez gose-egarri, ezta gizon ere enauk. Begi batez bestea ezin ikusi diat.

—Nik ere ez, ispilu-aurrean jarri-ezik—eta urrezko betaurreko-gainetik zurt eta tinko begiratzen zion bereter mugakideak*.

—Isabel: gure bazkaldarrok neregatik meza-entzuleak bezela egon eztitezen, eraman Elizgelara (Sakristiara) etzataulkia, ordu ta erdiko loa bederen egin dezadan. Gizonak, geroarte.

osaba maitea, hire hitz-lerroak irakurrita, hauspeko sua bezala, geroago epelago, geroago hotzago egingo zela? Lehengusua zurbil eta maskaltxe ikusirik, neronek galdetu nion orduan, bosgarren otarraina (langosta) mahai-gainean utzita:

—Baina esan eta esanda ere, zer duzu, Adrian?

—Txekor bat Arburolako belardietan baino pozago izango zela gure artean bera, dio Leonek.

Hau erasita[100] antsia bat egin zuen, zautalari guztiak harritzeko antsia barru-barrutikoa. Gizagaixoak, zauskadak[101] estaltze arren noski —don Agustin, Belauntza aldean ze berri?— galdetu zuen. Belauntzako arimazainak —baina zer duk, mutil— erantzun zion.

—Logale, ez nauk besterik: ez bazkaldar, ez mahai lagun, ez gosegarri, ezta gizon ere ez nauk. Begi batez bestea ezin ikusi diat.

—Nik ere ez, ispilu aurrean jarri ezik— eta urrezko betaurreko-gainetik zurt[102] eta tinko begiratzen zion bereter mugakideak.

—Isabel: gure bazkaldarrok niregatik meza entzuleak bezala egon ez ditezen, eraman elizgelara (sakristiara) etzaulkia, ordu eta erdiko loa bederen egin dezadan. Gizonak, gero arte.

(100) Murmurikatu.
(101) Zirrara.
(102) Erne.

Au esanez jaiki ta barruko bidetik Elizara joan zan gure lengusu atsekabez astundua.

Eztezu gaitz, aizpa, ni arratsalde artan nola nengoen somatzea. Buruko ileak, adats osoa, emango nuen Leonen papertšo hura irakurtzearen ordez. Nerau enintzan elizgizonen mayean geroztik agertu. Or arratsalde-apalean zautalariak bakoitza beraren kabira alde egiteko zeudetela, beretariko baten eskabidez Adrianen bila asi nintzan. Elizan zegoen eserita, burua esku-artean zuela ¡errukarria!—¿Orain ere logale?—esan nion, aldarte ona, enuena, idurikatuz. Lagunak begira daduzkazu.

Istar-zabalka Eliza-barrualdetik etše-atarira joan zan. Amabost apaiz ziran, eskerrak emanez, eskua estutu ziotenak. Berak iztunari, aopean zerbait jakineraziz, geratu eragin zion. Nik, ori ikusi nuenean, nere buruari nirautsan*: Isabel, etzera emakumea, orien autuak kirika ezpaditzatzu.

Aparitan berakin iduki ninduten, bainan etzuten berarizkorik deus aitatu: Seminarioko mutilkeri batzuez parragarriro oroitu zan Azpeitiko eliznagusia. Apalostean elizpera joan ziran; ni, bizkortšo elizbarrutik elizatarira joanez, beren alde-alde belauniko jarri nintzan, begiak opalmai (aldare) ilunduan eta

Hau esanez jaiki eta barruko bidetik elizara joan zen gure lehengusu atsekabez astundua.

Ez duzu gaitz, ahizpa, ni arratsalde hartan nola nengoen sumatzen. Buruko ileak, adats osoa, emango nuen Leonen papertxo hura irakurtzearen ordez. Nerau ez nintzen elizgizonen mahaian geroztik agertu. Hor arratsalde apalean zautalariak(103) bakoitza beraren kabira alde egiteko zeudela, beretariko baten eskabidez Adrianen bila hasi nintzen. Elizan zegoen eserita, burua esku artean zuela errukarria! —Orain ere logale?— esan nion, aldarte ona, ez nuena, idurikatuz. Lagunak begira dauzkazu.

Izter zabalka eliza barrualdetik etxe atarira joan zen. Hamabost apaiz ziren, eskerrak emanez, eskua estutu ziotenak. Berak hiztunari, ahopean zerbait jakinaraziz, geratu eragin zion. Nik, hori ikusi nuenean, nire buruari nirautsan: Isabel, ez zara emakumea, horien autuak kirika(104) ez baditzazu.

Afaritan berarekin eduki ninduten, baina ez zuten berariazkorik deus aitatu: seminarioko mutilkeria batzuez barregarriro oroitu zen Azpeitiko eliznagusia(105). Afalostean elizpera joan ziren; ni, bizkortxo eliz barrutik eliz atarira joanez, beren alde-alde belauniko jarri nintzen, begiak opalmahai (aldare) ilunduan eta

(103) Jankidea.
(104) Zelatatu, kuxkuxeatu.
(105) Prelatua, artzaina.

belarriak ate nagusian josita bezela nituela. Adrian, Adrian Iriondo, Amezketako seme argi, Leaburuko bereter ospetsu ori, etzaitut bein ere ikusi onen larri ta ilun. ¿Nola esan diteke *jeroglífico* euskeraz? Auše izan zera bazkalondo luze osoan zure lankide guztiontzat*. ¿Zer otedu Adrianek? ¿Berorren iloba Leonek Amerikara joan nai duela esan otedio? ¿Eri oteda? Ote: iztšo au amar aldiz aipatu eztuen bereterrik ezta izan egun Leaburun. Aska zazu biotz ori.

—Orretarakoše gera-erazi zaitut.

—¿Ilobak lobea (sotana) uzteko gogoa erakutsi aldizu?

—Jaunari eskerrak etzayo olakorik inoiz bururatu. Beretergai ona degu, erakusmenekoa.

—Beraren ezkutitza irakurrita antzi bat egin dezu-ta...

—Leonek ez, beraren Aitak, Medelek, burua arduraz bete dit, atsekabez biotza, atsekabe gorri-gorri-gorriz.

—¿Zeinu berri auek eztituela ordaindu nai, adierazi aldizu? ¿Ezin ditzakeala? ¿Olako zerbait noski?

—Ez: Medelek sakel betea ta biotz ona ditu, agintzen duena eztu betetzaka uzten. Sakela ta biotza bezelakoa balu burua ¡¡hura

belarriak ate nagusian josita bezala nituela. Adrian, Adrian Iriondo, Amezketako seme argi, Leaburuko bereter ospetsu hori, ez zaitut behin ere ikusi honen larri eta ilun. Nola esan daiteke *jeroglífico* euskaraz? Hauxe izan zara bazkalondo luze osoan zure lankide guztiontzat. Zer ote du Adrianek? Berorren iloba Leonek Amerikara joan nahi duela esan ote dio? Eri ote da? Ote: hiztxo hau hamar aldiz aipatu ez duen bereterrik ez da izan egun Leaburun. Aska ezazu bihotz hori.

—Horretarakoxe gerarazi zaitut.

—Ilobak lobea (sotana) uzteko gogoa erakutsi al dizu?

—Jaunari eskerrak ez zaio holakorik inoiz bururatu. Beretergai ona dugu, erakusmenekoa.

—Beraren eskutitza irakurrita antsia bat egin duzu eta...

—Leonek ez, beraren aitak, Medelek, burua arduraz bete dit, atsekabez bihotza, atsekabe gorri-gorri-gorriz.

—Zeinu berri hauek ez dituela ordaindu nahi adierazi al dizu? Ezin ditzakeela? Holako zerbait noski?

—Ez: Medelek sakel betea eta bihotz ona ditu, agintzen duena ez du betetzeke uzten. Sakela eta bihotza bezalakoa balu burua hura liteke gizona!! Hona hemen, argi eta garbi, gertatu zai-

liteke gizona!! Ona emen, argi ta garbi, gertatu zaidana. Larunbat-eguerdian, atzo, ekarri zidan korreoak beraren ezkutitza.

—¿Bâldezu pizkarririk, arrastik, aldean?

—Bayetz uste det. Bost-sei baditut.

—Goazen orduan nere langelara, gutsi dira-ta.

Ayek Adrianen langelara baino lentseago iritsi nintzan ni beraren aldameneko etzatokira. Eztakit bi gela onen bitartean aterik otezan zu emen zeundenean. Aspaldi luzean an da beintzat kirikate (kirikatzeko atea) izateko aterik egokiena, iru bat beatz laburregia. Gela batean esaten dana bestean erraz entzuten da. Langelara sartuta, Adrianek argia irazeki zuenean, lagunak latinez zerbait esan zion. Enion ja ere ulertu. Luze iraupentsua da Medelen ezkutitza. Isabel banaiz, urrengo Lasarteraldian eramango dizut. Orain beraren muña soil-soilik aitatuko det. «Nere baltzukide onek (Mister Stephensonek) eriotze-aurretsoan maiterakutsi (fabore) ause eskatu zidan. Mister Mit (1): lau izaki uzten ditut zinez maite ditudanak: emaztea, alaba, garatza ta zerori. Nere maitetasun

(1) Lentsoago dio Medelek beraren izen Emeterio, osorik inola ere ezin esanez, *Mister Mit* etse artan izendatzen zutela. Olazarretaren ordez *Oleiz* (Olaz) esaten omen zioten.

dana. Larunbat eguerdian, atzo, ekarri zidan korreoak beraren eskutitza.

—Ba al duzu pizgarririk, arrastik[106], aldean?

—Baietz uste dut. Bost-sei baditut.

—Goazen orduan nire langelara, gutxi dira eta.

Haiek Adrianen langelara baino lehentxeago iritsi nintzen ni beraren aldameneko etzatokira. Ez dakit bi gela hauen bitartean aterik ote zen zu hemen zeundenean. Aspaldi luzean han da behintzat kirikate (kirikatzeko atea) izateko aterik egokiena, hiru bat behatz laburregia. Gela batean esaten dena bestean erraz entzuten da. Langelara sartuta, Adrianek argia irazeki zuenean, lagunak latinez zerbait esan zion. Ez nion ja ere ulertu. Luze iraupentsua da Medelen eskutitza. Isabel banaiz, hurrengo Lasarteraldian eramango dizut. Orain beraren muina soil-soilik aitatuko dut. «Nire baltzukide honek (Mister Stephensonek) heriotza-aurretxoan maiterakutsi (fabore) hauxe eskatu zidan. Mister Mit[107]: lau izaki uzten ditut zinez maite ditudanak: emaztea, alaba, garatza eta zerori. Nire maitetasun laukoitz honegatik har ezazu, otoi,

[106] Pospoloa.

[107] Lehentxoago dio Medelek beraren izen Emeterio, osorik inola ere ezin esanez, *Mister Mit* etxe hartan izendatzen zutela. Olazarretaren ordez *Oleiz* (Olaz) esaten omen zioten.

laukoitz onegatik ar zazu, otoi, emaztetzat nere alaba. Onela nere emaztearen seme ta gure garatz andi orren jabe bakar zu izango zera». Gero Alice (au omendu Mari Zirtzilek izena) neskatila ona dala; ta au adierazteko, eun zurikeria. Arako Mister il zana (zakur bat bezelaše il izango zan) eredua, erakusmeneko gizona zala, alkar maite zutela; ta au adierazteko, beste eun biguñ-miguñkeria. Atzenez (oroitu zaitezte orain zuk eta zuen Ama nagusiak ere neri maiz aipaturiko onezaz: nik Medel zan baino ere zeragotzat nedukala) atzenez, dio zuen Medel orrek, Alice-ri ezkontzeko itza eman diola, Alice ori BESTERIKOA dala ta Adrianek bear diran agiriak len-bai-len eskuratu ta berari bidaltzeko.

Eta ¡kertenak alakoak! ezkutitzaren asieran «Leaburu-Hotel, Sacramento ta Street» emen ere berriz erakutsi alditu. ¡Ezago i Sacramento tšarra! Elizarako zeinuak onenak eta ugari ekarri, besteai dei egiteko noski. ¡Sartzen oteaiz erori Sacramento orretako Eliza batean ere!

Azpeitiko bereterburu ta Leaburuko arimazain jaunak gutšienez ordu-laurden batean ari izan ziran gero BESTERIKOA-ren zentzuna, adierazpena, azaldu-ezinik.

¡Eta onetarako ikasi dituzute Teologia-

emaztetzat nire alaba. Honela nire emaztearen seme eta gure garatz handi horren jabe bakar zu izango zara». Gero Alice (hau omen du Mari Zirtzilek izena) neskatila ona dela; eta hau adierazteko, ehun zurikeria. Harako Mister hil zena (zakur bat bezalaxe hil izango zen) eredua, erakusmeneko gizona zela, elkar maite zutela; eta hau adierazteko, beste ehun bigun-migunkeria. Atzenez (oroit zaitezte orain zuk eta zuen ama nagusiak ere niri maiz aipaturiko honezaz: nik Medel zen baino ere zeragotzat neukala) atzenez, dio zuen Medel horrek, Aliceri ezkontzeko hitza eman diola, Alice hori BESTERIKOA dela eta Adrianek behar diren agiriak lehenbailehen eskuratu eta berari bidaltzeko.

Eta kirtenak halakoak! eskutitzaren hasieran «Leaburu Hotel, Sacramento eta Street» hemen ere berriz erakutsi ahal ditu. Ez hago hi Sacramento txarra! Elizarako zeinuak onenak eta ugari ekarri, besteei dei egiteko noski. Sartzen ote haiz herori Sacramento horretako eliza batean ere!

Azpeitiko bereterburu eta Leaburuko arimazain jaunak gutxienez ordu laurden batean ari izan ziren gero BESTERIKOAren zentzuna, adierazpena, azaldu ezinik.

Eta honetarako ikasi dituzue Teologia-Meologia horiek! Hitz

Meologia oriek! Itz egitea zilegi izan banu, nere kirika-zokotik esango nien: «¿Eztakizute, gizonok, ala eztezute jakin nai BESTERIKOA zer dan? Gu, katolikoak, kristau onak geralarik, Mari Zirtzil besterikoa, kristau tsarra, dala; kristaua baldin bada. ¿Ezalzerate oroitzen, elizgizon agurgarriok, egia aundi onezaz? «Gurasoak nolakoak, umeak alakoak». Aita, arako Mister hura ¿zer izan zan? besterikoa. Alaba ere orise, berberori: besterikoa, protestantea izan bear». Nik au esango nien, baina isilik egon bear. O Leaburuko nere eliza* maite, nik ainbeste urtetan jai berriz (Corpusez) ta erriko jai-aurrean ta beste egun askotan gure baratzeko lore zuri ta gorriz ain maiterik apaindu zaitudan eliza lirain, santu ederdun, maitagarri orrek: orain bezela Protestante-usaina darikala baino obe uen, Medelen zeinu ta zeinutegi gabe, tsukun-tsukunik ta isil-isiltsorik bizi izan. Ta i, Adrian gaizo, Euskalerriko apaiz sakel-zabalen ori ¿izango ezaiz, bada, logale, kristau ustelakin artu-emanak ditukan-artean?

Gero, latinkada batzuk berriz ta berriz ezpainetatik aterata, Azpeitikoak gureari esan zion:

—Gaugiro ederra degu ta goazen udaletse-aurreko zugaztira. Eztio eguratsak gure

egitea zilegi izan banu, nire kirika zokotik esango nien: «Ez dakizue, gizonok, ala ez duzue jakin nahi BESTERIKOA zer den? Gu, katolikoak, kristau onak garelarik, Mari Zirtzil besterikoa, kristau txarra, dela; kristaua baldin bada. Ez al zarete oroitzen, elizgizon agurgarriok, egia handi honezaz? «Gurasoak nolakoak, umeak halakoak». Aita, harako Mister hura zer izan zen? besterikoa. Alaba ere horixe, berberori: besterikoa, protestantea izan behar». Nik hau esango nien, baina isilik egon behar. O Leaburuko nire eliza maite, nik hainbeste urtetan jai berriz (Corpusez) eta herriko jai aurrean eta beste egun askotan gure baratzeko lore zuri eta gorriz hain maiterik apaindu zaitudan eliza lirain, santu ederdun, maitagarri horrek: orain bezala protestante-usaina zariokela baino hobe huen, Medelen zeinu eta zeinutegi gabe, txukun-txukunik eta isil-isiltxorik[108] bizi izan. Eta hi, Adrian gaixo, Euskal Herriko apaiz sakel zabalen hori izango ez haiz, bada, logale, kristau ustelekin harremanak dituan artean?

Gero, latinkada batzuk berriz eta berriz ezpainetatik aterata, Azpeitikoak gureari esan zion:

—Gaugiro ederra dugu eta goazen udaletxe-aurreko zuhaiztira. Ez dio eguratsak gure buruari kalterik egingo, batez ere zure-

[108] Ahapeka, sekretuan.

buruari kalterik egingo, batez ere zureari, Adrian Iriondo.

Zoritšarrez zugazti artan ezta kirika-zokorik eta ni sukaldera, nere lankide sailtsuai lagun egitera, jetši nintzan.

ari, Adrian Iriondo.

Zoritxarrez zuhaizti hartan ez da kirika zokorik eta ni sukaldera, nire lankide sailtsuei[109] lagun egitera, jaitsi nintzen.

[109] Lanpetua.

ZAZPIGARREN EZKUTITZA

LEABURUKO GIZURENA

Ecos del Urumea-ren zuzentzaileari
Vasco de Gaintza-k.

15-VII-1889.

I

Egun aundia, urez erartzeko* eguna, goizeko eguzkiaz jayo ta arratsaldekoaz ila izanarren, Leaburuko semên oroipenean beti argi ta alai bizi izango dan eguna; *La Bastille* frantzes lokabetuen eskuetan erori zan urteurrenekoa, uztail onen amalaugarrena. Aurregunean (bezperan) zuzentzaileak, Zumalakarregik beraren iskilo-lagunai bezela, labur ta elesur (lacónico) esan zidan: *Hotel de Embajadores*-en omendegu Leaburuko gizona: Medel. Zoaz ta ekutsu.

ZAZPIGARREN ESKUTITZA

LEABURUKO GIZURENA

***Ecos del Urumearen* zuzentzaileari**
Vasco de Gaintzak

15-VII-l889

I

Egun handia, urrez irartzeko[110] eguna, goizeko eguzkiaz jaio eta arratsaldekoaz hila izan arren, Leaburuko semeen oroipenean beti argi eta alai bizi izango den eguna; *La Bastille* frantses lokabetuen eskuetan erori zen urteurrenekoa, uztail honen hamalaugarrena. Aurregunean (bezperan) zuzentzaileak, Zumalakarregik beraren iskilo[111]-lagunei bezala, labur eta elexur (lacónico) esan zidan: *Hotel de Embajadores*en omen dugu Leaburuko gizona: Medel. Zoaz eta ekar ezazu.

[110] OEHk "erarri"-tik "irarri"-ra igortzen du. Grabatu.
[111] Arma.

Atean ots eginda nere izen-tsartela bidali nion:

José María Igaralde

VASCO DE GAINTZA

Redactor de *Ecos del Urumea*

SAN SEBASTIÁN

Sudurpeko beltz, luze, erpin-zorrotza; masailak gorri; sudur zubitua*, enda-sudurra; bekokia*, zabal ta edatsu, gogamen andi ta asmo sakonen kabia; sorbaldaz azkarra, menditarra ibilkeraz, mintzuraz gizaldi zarretako izkudaburua (almirantea), begirakunez antsume-zaina; kaskarra zuta, zilarrariz apaintzen asia; izkuntzaz, Henry irugarrenaren mezularia* Gipuzkoan, naiz Giputzena Londresen izateko egokia; baserritar *gentlemandua:* burutik beatzetara gizona. Ause ikusi nuen Leaburuar ospetsua agertu zitzaidan liparrean (unean).

Nere *buenas noches* erderazkoari *good evening* berak erantzun zion. Nere arrimena nabaritzean,—¿Gaintzako semea ezalzera?—galde egin zidan.

Atean hots eginda nire izen-txartela bidali nion:

José María Igaralde

VASCO DE GAINTZA

Redactor de *Ecos del Urumea*

SAN SEBASTIÁN

Sudurpeko beltz, luze, erpin zorrotza; masailak gorri; sudur zubitua, enda-sudurra; bekokia, zabal eta hedatsu[112], gogamen handi eta asmo sakonen habia; sorbaldaz azkarra, menditarra ibilkeraz, mintzuraz gizaldi zaharretako izkudaburua (almirantea), begirakunez antxume zaina; kaskarra zuta[113], zilar-hariz[114] apaintzen hasia; hizkuntzaz, Henry hirugarrenaren mezularia Gipuzkoan, nahiz giputzena Londresen izateko egokia; baserritar *gentlemandua*: burutik behatzetara gizona. Hauxe ikusi nuen leaburuar ospetsua agertu zitzaidan liparrean (unean).

Nire *buenas noches* erdarazkoari *good evening* berak erantzun zion. Nire harrimena nabaritzean, —Gaintzako semea ez al zara?— galde egin zidan.

(112) Hedadura handikoa.
(113) Tentea.
(114) Ile zuria.

—Bai, zure mendeko.

—Ni, zure eskuerako, Leaburuarra. Eseri ta euskeraz mintza gaitezen, Erri.

Udaro ministrorik asko izan ditu Vasco de Gaintzak autulagun; batek ere eztio, Medelek bezela, erdi titili-potolo itz eragin. Begien biguñtasunari esker, bereala neronen kaburatuta, neraman-asmoa zein zan itz gutsitan erakutsi nion: Leaburura berarekin batera biaramonean joan ta ango berri nere Egunerokoari ematea.

—Zortzi ta erdietako orgadian gure laguntzan Tolosaratu zaitezke. Orain, ordu-erdi barru apaltzen asiko gera ta, nere emaztea zuri aurkeztuaz, maikide izango zaitugu.

—¿Emaztearekin etorri alzera?

—Bai, ezkonberri gera ta Europan eztayondoa igarotzeko gogoa izan degu.

—¿Emendik Parisa edo?

—Nere gogoa oso-osorik beteko balitz, Leaburutik enintzake aterako, berriz Californiara joanarte; baina Bostonen jayo, San Franciscon azi ta Sacramenton bizi dan emakumea, peko (esclavo) izatekoa ezpada, Madril Paris ta Londres ikusi gabe, ezin eramana izan liteke urezandiko* beronen errialdera.

Egunerokoan noraezeko lantso bat izan

—Bai, zure mendeko.

—Ni, zure eskuerako, leaburuarra. Eseri eta euskaraz mintza gaitezen, Erri.

Udaro ministrorik asko izan ditu Vasco de Gaintzak autu lagun; batek ere ez dio, Medelek bezala, erdi titili-potolo hitz eragin. Begien biguntasunari esker, berehala neronen kaburatuta[115], neraman asmoa zein zen hitz gutxitan erakutsi nion: Leaburura berarekin batera biharamunean joan eta hango berri nire egunerokoari ematea.

—Zortzi eta erdietako orgadian gure laguntzan Tolosaratu zaitezke. Orain, ordu-erdi barru afaltzen hasiko gara eta, nire emaztea zuri aurkeztuaz, mahaikide izango zaitugu.

—Emaztearekin etorri al zara?

—Bai, ezkonberri gara eta Europan ezteiondoa igarotzeko gogoa izan dugu.

—Hemendik Parisa edo?

—Nire gogoa oso-osorik beteko balitz, Leaburutik ez nintzateke aterako, berriz Kaliforniara joan arte; baina Bostonen jaio, San Frantziskon hazi eta Sacramenton bizi den emakumea, peko (esclavo) izatekoa ez bada, Madril, Paris eta Londres ikusi gabe, ezin eramana izan liteke urezandiko beronen herri aldera.

Egunerokoan noraezeko lantxo bat izan ez banu, beronen afal-

(115) Baitaratu; senera etorri.

ezpanu, beronen apaldar bear nuen. ¡¡Aren arrata*, aren ekina!!

Urrengo goizean zortzi ta erdiak-aldean gelunera (estaziola) iritsita, Medelen eskua estutu ta emaztearena doi-doi aztatu* nuen.

Tolosara-bitartean, senarra adierazle zala, Mistress Medel Olaz-ekin elealdi* laburtšo bat izan nuen. (Linozkoa dirudi bere adatsak*).

Donostiaren edertasuna andia zala; Canada ta Euskalerriko mendi-basoen antza, alaber*; euskerari gošoa zerizkiola; *nere maitea, eskerrik asko*, *ala Jaina, senarra, sagardoa*... ta beste zertšobait ikasi zuela; baina gure mintzo au *very very hard, difficult* (oso zaila ta gaitza) zala uste zuen Mrs. Olazek.

Tolosako gelunean Leaburutar-mordoška bat, apaiz ta alkatearen ondoren, agertu zitzaizkigunean, beste bat zirudien Medelek. Ordurarte, isiltšorik izketan, uritar jatorra, *gentleman* berarengan ikusi nuen; geroztik, batari «kaišo, mutil», bestea bizkarrean jo, baserritar uts-uts kutsatu-gabea zan. Begiak pozez ñir-ñir* zituela, lenen beraren seme beretergaya ta lengusu bereterra aurkeztu zizkidan; gero beste seirak; onelaše:

—Gaintza: ona emen gure alkate Juan Jošе

dar behar nuen. Haren arrata, haren ekina!!

Hurrengo goizean zortzi eta erdiak aldean gelunera (estaziora) iritsita, Medelen eskua estutu eta emaztearena doi-doi aztatu nuen.

Tolosara bitartean, senarra adierazle zela, Mistress Medel Olazekin elealdi laburtxo bat izan nuen. (Lihozkoa dirudi bere adatsak).

Donostiaren edertasuna handia zela; Kanada eta Euskal Herriko mendi-basoen antza, halaber; euskarari goxoa zerizkiola; *nire maitea, eskerrik asko, alajaina, senarra, sagardoa*... eta beste zertxobait ikasi zuela; baina gure mintzo hau *very very hard, difficult* (oso zaila eta gaitza) zela uste zuen Mrs. Olazek.

Tolosako gelunean leaburutar mordoxka bat, apaiz eta alkatearen ondoren, agertu zitzaizkigunean, beste bat zirudien Medelek. Ordura arte, isiltxorik hizketan, hiritar jatorra, *gentleman* berarengan ikusi nuen; geroztik, batari «kaixo, mutil», bestea bizkarrean jo, baserritar huts-huts kutsatu gabea zen. Begiak pozez ñir-ñir zituela, lehenen beraren seme beretergaia eta lehengusu bereterra aurkeztu zizkidan; gero beste seirak; honelaxe:

—Gaintza: hona hemen gure alkate Juan Joxe Eizagirre. Adi

Eizagirre. Adi zazu: alde batean eun miloi gizonen buru dan Mac-Kinley eta bestean berreun bat Leaburuarren agintari Juan Jose, zein nai autatzeko, esan balezaizute, zalantza-malantzan* ibili gabe, itsu-itsuan, angoa utzi ta gure gizon au ar zazu. Beste bost morrosko auek Elgoyen ta Elbarrentarrak autaturiko zinegotziak ditugu: Anton Barandiaran, Martin Lontso Etseberriko, Iturgoyen, Antolin Saizar ta Mendigibelko nagusia. *Time is money,* aldia dirua dala, esan oi dute an goyetan. *Word is gold* esan diteke Mendigibel ezagututa: itza urrea dala. Munduan ura baino beste edaririk ezpalitz, Mendigibel mutu ginuke. Lena bâiz beintzat. ¿Ezaldek egia, lagun zarra?

Tsikitako lagun guztiai adiskidez, irrimirrika ta zipladatsoren bana zuzenduz itz egiten zien beren erritar aberats onek.

Aurretik Leon, bereterra ta Mistress Medel zijoazen. Leonek, aita noizean bein lerdea zeriola begira zuelarik, ingelesez amordeari Tolosako berri ematen zion. Medel gero baino gero ikasgarriago nuen ta enintzan urrats bat ere berarengandik lekuratzen.

—Juan Jose ¿egia alda ni urrutietan bizi izan naizen amasei urte aundi auetan, Leaburu Erreplubikatua daukazutela?

ezazu: alde batean ehun milioi gizonen buru den Mac-Kinley eta bestean berrehun bat leaburuarren agintari Juan Joxe, zein-nahi hautatzeko, esan baliezazute, zalantza-malantzan ibili gabe, itsu-itsuan, hangoa utzi eta gure gizon hau har ezazu. Beste bost morrosko hauek elgoien eta elbarrentarrek hautaturiko zinegotziak ditugu: Antton Barandiaran, Martin Lontxo Etxeberriko, Iturgoien, Anttolin Saizar eta Mendigibelko nagusia. *Time is money*, aldia dirua dela, esan ohi dute han goietan. *Word is gold* esan daiteke Mendigibel ezagututa: hitza urrea dela. Munduan ura baino beste edaririk ez balitz, Mendigibel mutu genuke. Lehena bahaiz behintzat. Ez al duk egia, lagun zaharra?

Txikitako lagun guztiei adiskidez, irrimirrika eta zipladatxoren[116] bana zuzenduz hitz egiten zien beren herritar aberats honek.

Aurretik Leon, bereterra, eta Mistress Medel zihoazen. Leonek, aita noizean behin lerdea zeriola begira zuelarik, ingelesez amaordeari Tolosako berri ematen zion. Medel gero baino gero ikasgarriago nuen eta ez nintzen urrats bat ere berarengandik lekuratzen.

—Juan Joxe, egia al da ni urrutietan bizi izan naizen hamasei urte handi hauetan, Leaburu erreplubikatua daukazuela?

[116] Ziritxoa; eztankadatxoa.

Juan Josēk, apaizari begiratuta,—¡Ja-jai! Don Adrianek lengusuari alik zeatzen gure jarrialdi arako hura erakutsiko ziola. ¡Alegia! ageri da.

—Amaseikorik gorriena emango nuen, gizonak, gau artan gure udaletsean egoteagatik.

—Leon, esan zion gero Medelek semeari: ik onezkero iru aldiz ere Meza entzun aldek eta, gu Santa Marian geran bitartean, erosi or nunbait, erorri dagokien tsapel urdin biguñ andi bat. Leaburuko barrutian alkateak (eskuan zigorra daramanean), apaizak eta tsorimaloak izan ezik, beste inortsok eztu kapelarik bear. Ik, Antton, akura zak beor ongi ezi bat, Ibarretik gorakoa Andre Medelek berera* egin dezan.

—Adi zazu, Medel, gaineratu zion Antonek. ¿Galiporniako emakumeak izengabeak aldira?

—Ezkonduarte, izendunak; ezkonduz-geroztik senarraren etsea dute etse ta senarraren izena izen. Inoiz alargundu baenzake, neronek begiz joko nikek iretzat toki ayetako emaztegai aundiren bat. ¡Nayago nikek entzun *Mistress Ántton Bárandiaran!*

¡Ayen parre gozoak!

Mezatara zijoan tsartesdun batek, berai

Juan Joxek, apaizari begiratuta, —Ja jai! don Adrianek lehengusuari ahalik zehatzen gure jarrialdi harako hura erakutsiko ziola. Alegia! ageri da.

—Hamaseikorik[117] gorriena emango nuen, gizonak, gau hartan gure udaletxean egoteagatik.

—Leon, esan zion gero Medelek semeari: hik honezkero hiru aldiz ere meza entzun al duk eta, gu Santa Marian garen bitartean, erosi hor nonbait, herorri dagokian txapel urdin bigun handi bat. Leaburuko barrutian alkateak (eskuan zigorra daramanean), apaizak eta txorimaloak izan ezik, beste inortxok ez du kapelarik behar. Hik, Antton, akura[118] ezak behor ongi hezi bat, Ibarretik gorakoa andre Medelek berera egin dezan.

—Adi ezazu, Medel, gaineratu zion Anttonek, Galiporniako emakumeak izengabeak al dira?

—Ezkondu arte, izendunak; ezkonduz geroztik senarraren etxea dute etxe, eta senarraren izena izen. Inoiz alargundu bahintz, neronek begiz joko nikek hiretzat toki haietako emaztegai handiren bat. Nahiago nikek entzun *Mistress Ántton Bárandiaran!*

Haien barre gozoak!

Mezatara zihoan txartesdun[119] batek, berari begira —txalbu-

[117] Dobloia; hamasei ogerleko urrezko dirua.
[118] Alokatu.
[119] Kapusaiduna.

begiraka—¿tsalburuak parrez? ebia (1) laster—esan zuen.

II

Amaikak igarotso ziran, bereter ta beretergai, alkate ta alkatelagun, senar ta emazte, Tolosatik Ibarralderontz igitzean (abiatzean). Orduko, goyan, Urkietan, ogei neska-mutil gaztek, bazkaltegia atondua* zeukaten. Bi mai luze, zamauz estaliak: bata, andizki ta beren ingurukoentzat; bestea, naiz zarrez naiz eriz astunduak ziranentzat jarriak ziran. Bata ta bestearen goitik, itzalgarritzat, lizar-abarrak ugari, pago batetik bestera, lotu zituzten. Zugazti aren izena gure egunetan asmatu bear balitz, Urkieta-ren ordez, Pagoeta naiz Pagadi izango litzake. Urkirik bat ere ezta, zugatz guztiak dira pagoak. Erdi-inguruan mai tsiki oboki* bat zetzan*, tsiztu-tuntunlarientzakoa. Mai urenaz* konerka* ta maindire batzuen ostean* zeukaten beren lantegia (sukaldea) ta jaki-meta, ur-upel ta baserategia egun artako mirabe-morroyak. Patsiko elizgelaria (sakristaua) jarri zuen bereterrak elizaldeko ta Urkietako zuzentzaile.

(1) Euria.

ruak barrez? euria[120] laster— esan zuen.

II

Hamaikak igarotxo ziren, bereter eta beretergai, alkate eta alkate lagun, senar eta emazte, Tolosatik Ibarralderantz higitzean (abiatzean). Orduko, goian, Urkietan hogei neska-mutil gaztek, bazkaltegia atondua zeukaten. Bi mahai luze, zamauz[121] estaliak: bata, handizki eta beren ingurukoentzat; bestea, nahiz zaharrez nahiz eriz astunduak zirenentzat jarriak ziren. Bata eta bestearen goitik, itzalgarritzat, lizar-abarrak ugari, pago batetik bestera, lotu zituzten. Zuhaizti haren izena gure egunetan asmatu behar balitz, Urkietaren ordez, Pagoeta nahiz Pagadi izango litzateke. Urkirik bat ere ez da, zuhaitz guztiak dira pagoak. Erdi inguruan mahai txiki oboki bat zetzan, txistu-ttunttunlarientzakoa. Mahai urenaz konerka eta maindire batzuen ostean zeukaten beren lantegia (sukaldea) eta jaki-meta, ur-upel eta baxerategia egun hartako mirabe-morroiak. Patxiko elizgelaria (sakristaua) jarri zuen bereterrak elizaldeko eta Urkietako zuzentzaile. Hiru morrosko

[120] Euria. Testuan "ebia" idatzi zuen Azkuek eta oin-oharrean "euria".
[121] Mahai-zapia.

Iru morrosko ipini zituen beronek Egi deritzayon mendiska-tsuntsurrean, bakoitzak iru amabiko suziri (cohetes) aldamenean zituela. Lau mutiko, bear zan baino ordu ta erdi lenagotik, lau zeinuen agunak (sokak) eskuan zituela, zeinutegian (torrean) zeuden, Medel ta lagunak noiz-ikusiko.

Udaletseko zelayean, goizerdirako bilduta, beste erritar guztiak, erriko jayetan bezelase apain, Tolosaldera begira zeuden. Bederatzi ta erdietan orgadia (trena) Tolosara eltzen ¿ta amar ta erdietan ere bideztiak ageri ez? Tsiki ta andi, gizaseme ta emakume luzetetsiak, arrausika ta (zarrenak beintzat) zuzmurtuak ziran.

—¿Orgadia bidekatu* egin oteda?

—¿Medeli, diruaren errukiz, jatura* ematea damutu otezayo?

—Beraren andrea, mendi auek izututa ¿ezotezaye sapustu?

—Ezotedegu orok* Ibarrera, Tsaramara noski, bazkaltzera joan bear izango?

Noizean bein zeinutegiko mutilak, epea galduta, «daun» aul-aul jotzen zuten. Patsikoren aotik ostots-erauntsi* bat egiteko adina tsimista atera ziran goiz artan. Egi-ko suziridunai agindu garratz au eman zieten:

—Gero, Medel Urkieta-mugan ikusiarte

ipini zituen beronek Egi deritzaion mendixka txuntxurrean[122], bakoitzak hiru hamabiko suziri (cohetes) aldamenean zituela. Lau mutiko, behar zen baino ordu eta erdi lehenagotik, lau zeinuen agunak (sokak) eskuan zituztela, zeinutegian (dorrean) zeuden, Medel eta lagunak noiz ikusiko.

Udaletxeko zelaian, goizerdirako bilduta, beste herritar guztiak, herriko jaietan bezalaxe apain, Tolosaldera begira zeuden. Bederatzi eta erdietan orgadia (trena) Tolosara heltzen eta hamar eta erdietan ere bidaztiak ageri ez? Txiki eta handi, gizaseme eta emakume luzetetsiak, aharrausika eta (zaharrenak behintzat) susmurtuak[123] ziren.

—Orgadia bidekatu egin ote da?

—Medeli, diruaren errukiz, jatura ematea damutu ote zaio?

—Beraren andrea, mendi hauek izututa ez ote zaie zapuztu?

—Ez ote dugu orok Ibarrera, Txaramara noski, bazkaltzera joan behar izango?

Noizean behin zeinutegiko mutilek, epea galduta, «daun» ahul-ahul jotzen zuten. Patxikoren ahotik ostots-erauntsi bat egiteko adina tximista atera ziren goiz hartan. Egiko suziridunei agindu garratz hau eman zieten:

—Gero, Medel Urkieta mugan ikusi arte ez duzue bat ere

(122) Tontorra.
(123) Goganbehartu, susmoak hartu.

eztezute bat ere jaurtiki bear, bestela arratsalderako bat ere gabe geldituko gaituk eta ¡¡tsimista gaiztoa!! etzerate Urkietan bazkalduko*.

Elbarrentar batek, Jose Martin Baratzondok, semea Ibarreragino bidali zuen. Basauntz bat bezela ipurñauska* joan zan au ta zortzi bat laguntso usta berean jarraiki zitzaizkien.

Geroenean* berok, azken joan zirenok, lasterka ta garrasika goyak gora* agertu ziran, berri auek alkarren gainean ematen zituelarik:

—Or dira.

—Andrea zaldiz.

—Medel maukutsik.

—Tsapela eskuan duela.

—Bizarduna da.

Deadar auek entzunik, Patsikoren agindu garratza gora-bêra, Egi-ko barrandariak* suziriak zalapart aundiz lerrerazten zituzten. Zeinutegikoak ere, gogoz beren lanari lotuta «din-daun, din-daun» asi ziran. Zeinuketa* onezaz Urkietako mirabe-morroyak poztu-rik, beren mandar (altzo) zuriak gora ta bera erabiliz—¡¡Gora Medel!! ¡¡Ongi etorri!! ¡¡Gora gure erritar andia!!—ozenki deadar egin zuten. Bostongo alabak Leon-i zer ze-

jaurtiki behar, bestela arratsalderako bat ere gabe geldituko gaituk eta, tximista gaiztoa!! ez zarete Urkietan bazkalduko.

Elbarrentar batek, Jose Martin Baratzondok, semea Ibarreraino bidali zuen. Basahuntz bat bezala ipurñauska joan zen hau eta zortzi bat laguntxo uxta[124] berean jarraiki zitzaizkien.

Geroenean berok, azken joan zirenok, lasterka eta garrasika goiak gora agertu ziren, berri hauek elkarren gainean ematen zituztelarik:

—Hor dira.

—Andrea zaldiz.

—Medel mahukutsik.

—Txapela eskuan duela.

—Bizarduna da.

Deiadar hauek entzunik, Patxikoren agindu garratza gorabehera, Egiko barrandariek suziriak zalaparta handiz leherrarazten zituzten. Zeinutegikoak ere, gogoz beren lanari lotuta «din-daun, din-daun» hasi ziren. Zeinuketa honezaz Urkietako mirabemorroiak pozturik, beren mandar (altzo) zuriak gora eta behera erabiliz —Gora Medel! Ongi etorri!! Gora gure herritar handia!!— ozenki deiadar egin zuten. Bostongo alabak Leoni zer zesaten

(124) Huxtua, histua, lastertasuna.

saten galde egin zion. Elizaurrera iritsiarte ezkinan inun gelditu bideztiok. An Medelek andreari jaŝten lagunduta gero, zeinu-otsez erritarren ongietorri ta tŝerazko itzak entzun ezinarren, poz aundiz eskua guztiai eman zien; batzuri lepoko ederrak ere bai. Beretertegira sartu ginanean, isildu ziran zeinulariak. Suziridunak azkena jaurtikiarte etziran isildu.

III

ERRI-ZAUTA*

Ordu-laurden baten buruan, eliza ikusi ta gero, Amasako antzelariak tŝiztu-tuntunka ta ibiltzen zekiten aur ta neŝka-mutilak, jauzi ta zapart*, aurretik genituela, astiro jatŝi ginan Urkietako bazkaltegira. Mai urenean* ezkerretik eskuira, onelaŝe jarri ginan: iru zinegotzi, ni, Leon, Mistress Olaz, bereter jauna, Medel, alkatea ta beste bi zinegotziak. Zarren mai luzean ogei ta sei bat atso-agure nabaritu nituen. Beste bazkaldar guztiak mordoŝketan jarri ziran, belartzan eserita: mordoŝka bakoitzean bi etŝetako lagunak.

Maya onedatsi* ta gero, ogei neska-mutilak mayez mai zuku-lorrean* asitakoan, Pa-

galde egin zion. Elizaurrera iritsi arte ez ginen inon gelditu bidaztiok. Han Medelek andreari jaisten lagundu eta gero, zeinu-hotsez herritarren ongi etorri eta txerazko hitzak entzun ezin arren, poz handiz eskua guztiei eman zien; batzuei lepoko ederrak ere bai. Beretertegira sartu ginenean, isildu ziren zeinulariak. Suziridunak azkena jaurtiki arte ez ziren isildu.

III

HERRI-ZAUTA


Ordu laurden baten buruan, eliza ikusi eta gero, Amasako antzelariak[125] txistu-ttunttunka eta ibiltzen zekiten haur eta neska-mutilak, jauzi eta zapart, aurretik genituela, astiro jaitsi ginen Urkietako bazkaltegira. Mahai urenean ezkerretik eskuinera, honelaxe jarri ginen: hiru zinegotzi, ni, Leon, Mistress Olaz, bereter jauna, Medel, alkatea eta beste bi zinegotziak. Zaharren mahai luzean hogeita sei bat atso-agure nabaritu nituen. Beste bazkaldar guztiak mordoxketan jarri ziren, belartzan eserita: mordoxka bakoitzean bi etxetako lagunak.

Mahaia onedatsi eta gero, hogei neska-mutilak mahaiez mahai zuku-lorrean hasitakoan, Patxiko zuzentzaileak, aurpegia eta

[125] Artista.


tsiko zuzentzaileak, aurpegia ta eskuak igel baten larrua bezain bustirik zituela, eguneko gizurenari* galde egin zion:

—Don Emeterio ¿asi alditezke tsiztu-tuntunak?



eskuak igel baten larrua bezain bustirik zituela, eguneko gizure-nari galde egin zion:

—Don Emeterio has al daitezke txistu-ttunttunak?



—Oker abil, Patsiko. Ni enauk ori.

—Medel orduan. ¿Asi alditezke?

—Iluntzerarte etziok emen irea baino beste aginpiderik. Oro gaituk ire mendeko.

¡¡Patsikoren gurkalaria!!* Andre Medel-i tseratsu ta parrirrikor* ongietorria erakutsi zion. Birigarroak beren tsioketa bezela, Patsikok berezkoa zuen gizabidea. Gero beraren ugazaba (nagusi) bereterrari, aopean, berri tsar au eman zion:

—Jauna: Egin neuzkan astaki ayek azken suziria, eungarrena, erre digute. ¿Ta zer da egitea?

—Beste eun ekarrerazi, baderizkiok.

Patsikok berbertatik tsapelaz keinu bat eginda, tsiztularia, tuntuna lagun zuela, eguneko entzukizuna (programa) jotzen asi zan: *Iru damatso, Iriyarena, Agur nere biotzeko, Pelo Josepe, Gernikako arbola* ta dantzaki batzuk. Isilaldietan zintzurra ta urdaila jakiz ta edariz alkarren leyan berotzen zituzten. Jotzeko, zutitu ta burustu egiten ziran. Arretarik andiena, zautakide* guztien artean, Medelek eta emazteak erakutsi zuten. Noizean bein, senarrak gure otseztiazko* eritzia eskatuta, *delicious* (zoragarria) erantzuten zion emazteak.

Bi ordu ayetan zeinbat ogi tsiki, ardo ta

—Oker habil, Patxiko. Ni ez nauk hori.

—Medel orduan. Has al daitezke?

—Iluntzera arte ez zagok hemen hirea baino beste aginpiderik. Oro gaituk hire mendeko.

Patxikoren gurkalaria!! Andre Medeli txeratsu eta barre-irrikor ongi etorria erakutsi zion. Birigarroak beren txioketa bezala, Patxikok berezkoa zuen gizabidea. Gero beraren ugazaba (nagusi) bereterrari, ahopean, berri txar hau eman zion:

—Jauna: Egin neuzkan astaki[126] haiek azken suziria, ehungarrena, erre digute. Eta zer da egitea?

—Beste ehun ekarrarazi, baderizkiok.

—Patxikok berbertatik txapelaz keinu bat eginda, txistularia, ttunttuna lagun zuela, eguneko entzukizuna (programa) jotzen hasi zen: «Hiru damatxo», «Iriyarena», «Agur nere bihotzeko», «Pello Joxepe», «Gernikako arbola» eta dantzaki[127] batzuk. Isilaldietan zintzurra eta urdaila jakiz eta edariz elkarren lehian berotzen zituzten. Jotzeko, zutitu eta burustu[128] egiten ziren. Arretarik handiena, zautakide guztien artean, Medelek eta emazteak erakutsi zuten. Noizean behin, senarrak gure otseztiazko iritzia eskatuta, *delicious* (zoragarria) erantzuten zion emazteak.

Bi ordu haietan zenbat ogi txiki, ardo eta sagardo, arrautza eta

(126) Astakiloa.
(127) Dantza zatia.
(128) Buru hutsik jarri, kapela kendu.

sagardo, arrautza ta aragi, lusagar ta piper andi, egazti ta arrainki, gazta ta gaztanbera, udare ta gerezi irentsiak izan ziran, Patsikori galdetzeko ustea izan nuen; baina ântzi egin zitzaidan.

Aketa (kafea) agertu zutenean, bi kutsasko besapean zituela, mordoskaz mordoska andoilak (zigarro andiak) banatzen asi zan Medel. Biotza ezpain ta begietan zutela artu zuten bazkaldar guztiak. Leaburuarrak etzuten orduan beren poza saltzeko.

Baserritar auen errikoitasuna ezagutarazteko, arteki (episodio), ause aski dala uste det. Nere eskuiko mailagunari (Anton Barandiaran bidederitzayo) zerbait esan bear-ta, —¿Gaintza nere jayoterria, ikusi otediteke emendik?,—galdetu nion. Eta zutituz,—ara, uriska ikusgarria, esan nuen, oilo loka batek tsitoak bezela, Elizaren babesean ogei bat etse tsuri dauzkana.

—¡Gaintza!

—¿Izan alzera elizaldean?

—¡Jainkoak lagun!

—¿Ta zer derizkiozu?

—Leaburu aldamenean ezpalu, polita.

—Leaburu ¿besterik ez bezelakoa alda?

—¡Leaburu! Donostia ta Tolosa kenduezkero ¿nun dezu Gipuzkoan uri ederragorik?

haragi, lursagar eta piper handi, hegazti eta arrainki, gazta eta gaztanbera, udare eta gerezi irentsiak izan ziren, Patxikori galdetzeko ustea izan nuen; baina ahantzi egin zitzaidan.

Akeita (kafea) agertu zutenean, bi kutxaxko besapean zituela, mordoxkaz mordoxka andoilak (zigarro handiak) banatzen hasi zen Medel. Bihotza ezpain eta begietan zutela hartu zuten bazkaldar guztiek. Leaburuarrek ez zuten orduan beren poza saltzeko.

Baserritar hauen herrikoitasuna ezagutarazteko, arteki (episodio), hauxe aski dela uste dut. Nire eskuineko mahai lagunari (Antton Barandiaran bide deritzaio) zerbait esan behar eta, —Gaintza nire jaioterria, ikus ote daiteke hemendik?— galdetu nion. Eta zutituz, —hara, hirixka ikusgarria—, esan nuen, oilaloka batek txitoak bezala, elizaren babesean hogei bat etxe zuri dauzkana.

—Gaintza!

—Izan al zara elizaldean?

—Jainkoak lagun!

—Eta zer derizkiozu?

—Leaburu aldamenean ez balu, polita.

—Leaburu besterik ez bezalakoa al da?

—Leaburu! Donostia eta Tolosa kenduz gero non duzu Gipuzkoan hiri ederragorik?

—¡Au ere entzun! ¿Eta Azpeiti-Azkoitiak? ¿Eta Bergara?...

—¿Azpeiti? Bi kale ditu Azpeitik; Medel bizi bada, Leaburuk izango dituen beste.

—Azpeitik Loyola ere an du.

—Guk ere an degu Loyola.

—¿Eta Irun, Ondarribia?

—Enaiz or bein ere izan; baina oriek ere otsak andiago.

Gure autu bitsi au etetzera Patsiko alderatu zitzaigun.—Juan Jose, esan zion alkateari; onelako egunetan erriko buruak egiten du aurreskua.

—Mutil, nik etzekiat. Neri baino errezago edozein tsekorri irakatsi lezayoke irradan egiten. Aurreskutzat udaletsekoa bear bada ¿or eztek, bada, Anton Barandiaran, Goyerrin ere berdinik eztuena?

—Anton, esan zion Medelek, ik egin bear omendek aurreskua.

—Egingo diat (goizeko zuketa hura alde bat utzi zuen Antonek) eta ala ere aitzurren baino pozago; bainan erorrek atzeskua egitekotan.

—Āntzi ere egin alzaidak; baina ¡ots!.

Patsikok aopean esan zion gero Medeli ea onetsiko zuen aurreskuari beraren emaztea ateratzea.

—Hau ere entzun! Eta Azpeiti-Azkoitiak? Eta Bergara?...

—Azpeitia? Bi kale ditu Azpeitiak; Medel bizi bada, Leaburuk izango dituen beste.

—Azpeitiak Loiola ere han du.

—Guk ere han dugu Loiola.

—Eta Irun, Hondarribia?

—Ez naiz hor behin ere izan; baina horiek ere hotsak handiago.

Gure autu bitxi hau etetera Patxiko alderatu zitzaigun. —Juan Joxe—, esan zion alkateari; honelako egunetan herriko buruak egiten du aurreskua.

—Mutil, nik ez zekiat. Niri baino errazago edozein txekorri irakatsi lezaioke irradan[129] egiten. Aurreskutzat udaletxekoa behar bada, hor ez duk, bada, Antton Barandiaran, Goierrin ere berdinik ez duena?

—Antton, esan zion Medelek, hik egin behar omen duk aurreskua.

—Egingo diat (goizeko zuketa hura alde bat utzi zuen Anttonek) eta hala ere aitzurrean baino pozago; baina herorrek atzeskua egitekotan.

—Ahantzi ere egin ahal zaidak; baina hots!

Patxikok ahopean esan zion gero Medeli ea onetsiko zuen aurreskuari beraren emaztea ateratzea.

[129] Dantza.

—Bai mutil.

Gorrituše egin zitzaizkion emazteari masailak, egiune onen berri eman ziotenean. *All right* erantzun zuen ala ere.

—¿Eta berorrentzako irrada-laguntzat zein?

—Nai dekana, Patšiko; aurreskuaren emaztea, baderizkiok.

Patšikok orduan, tšaloka neskame-morroyai ots eginta, agindu auše eman zien:

—Bazkaldu bazerate, ken ortik berealaše bazkalkin-ondarmondarrok; eta zuek, mutilok, dantza-sokara bear dezute; emakumeok gertu egon irradarako.

Anton Barandiaran jeikitzen asi zan, baina zutik ezin egon, ordea.

—¿Zer dek, Anton?—bereterrak galde egin zionean.

—Apaiz jauna, zaragi zarrarena gertatu zait; nonbait ere nere urdailak jarioa bidedu ta zurrutatu dedan erdia bealdera isuriz, astunduta ezin ibili naiz, esan zion Antonek.

¡¡Medelen parre gozoak!! Emazteak ere karkaila (algara) ederrak egin zituen, Antonkeri au adierazi ziotenean.

—Martin Lôntšok egin dezala—erabaki zuen alkateak. Eta bereala zutitu ta amar nerabe azkarrak eta Etšeberriko ta Arburolako biurezandikoak (indianoak), alkarri eskuak

—Bai mutil.

Gorrituxe egin zitzaizkion emazteari masailak, egiune honen berri eman ziotenean. *All right* erantzun zuen hala ere.

—Eta berorrentzako irrada-laguntzat zein?

—Nahi duana, Patxiko; aurreskuaren emaztea, baderizkiok.

Patxikok orduan, txaloka neskame-morroiei hots eginda, agindu hauxe eman zien:

—Bazkaldu bazarete, ken hortik berehalaxe bazkalkin hondar-mondarrok; eta zuek, mutilok, dantza-sokara behar duzue; emakumeok gertu egon irradarako.

Antton Barandiaran jaikitzen hasi zen, baina zutik ezin egon, ordea.

—Zer duk, Antton?— bereterrak galde egin zionean.

—Apaiz jauna, zahagi zaharrarena gertatu zait; nonbait ere nire urdailak jarioa bide du eta zurrupatu dudan erdia behealdera isuriz, astunduta ezin ibili naiz, esan zion Anttonek.

Medelen barre gozoak!! Emazteak ere karkaila (algara) ederrak egin zituen, Anttonkeria hau adierazi ziotenean.

—Martin Lontxok egin dezala— erabaki zuen alkateak. Eta berehala zutitu eta hamar nerabe azkarrak eta Etxeberriko eta Arburolako biurezandikoak (indianoak), elkarri eskuak emanda,

emanta, dantzasoka eratu zuten. Irradan egin bear ezomendana egin zuen Martin Lôntsok: eskuak, ankak baino zoliago, erabili. Alarik ere, *Mistress* Olaz bi mutil burusturen erdian aurkeztuta, artazi ta belaunikatze (au ere ezomendagokio irrada onari) ta eskuan tsapela zuela, iru buru-makurtzeren ondoren, azken-itzulia eman zuenean, eskuzaparta ederrak entzun zituen.

—¡¡Gora Elbarren!!—deadar egin zuen Mendigibelek. Elgoyentar guztiak, au entzunez, eskuak berealase berezi zituzten, tsalorik ez.

Medelek ere, besteak bezen* bizkor ezarren, tsiztu-otsari egoki zerraikion; belaunikatzerik etzuen egin, artazi ta gora-gorak bai, ugaritsoegi noski. Arloa aitu zuenean, Antón Barandiaranek eserita zegoen tokitik,—¡Ori, ori, Medel!, deadar egin zuen ¡¡Ujuiiiiii ji-ji-ji a-ja-ja-jaaaaa!! ¡¡Gora Elgoyen!!—Tsalo andiak Elgoyentarrak.

Medelek erdi-erdira irtenik:—erritar maiteak, esan zuen; eztezagun deadar egin. «Gora Elbarren» ezta «Gora Elgoyen» ere. Antón: beste irrintzi bat.

Antón Barandiaranek beste ujui lena baino ere ozenago ta luzeago egin zuenean, Medelek biriken indar guztiaz*:—Gora Leabu-

dantza-soka eratu zuten. Irradan egin behar ez omen dena egin zuen Martin Lontxok: eskuak, hankak baino zoliago, erabili. Halarik ere, *Mistress* Olaz bi mutil burusturen erdian aurkeztuta, artazi eta belaunikatze (hau ere ez omen dagokio irrada onari) eta eskuan txapela zuela, hiru buru makurtzeren ondoren, azken itzulia eman zuenean, esku-zarta ederrak entzun zituen.

—Gora Elbarren!!— deiadar egin zuen Mendigibelek. Elgoientar guztiek, hau entzunez, eskuak berehalaxe berezi zituzten, txalorik ez.

Medelek ere, besteek bezain bizkor ez arren, txistu hotsari egoki zerraikion; belaunikatzerik ez zuen egin, artazi eta goragorak bai, ugaritxoegi noski. Arloa ahitu zuenean, Antton Barandiaranek eserita zegoen tokitik, —Hori, hori, Medel!, deiadar egin zuen Ujuiiiiii ji-ji-ji a-ja-ja-jaaaaa!! Gora Elgoien!!— txalo handiak elgoientarrak.

Medelek erdi-erdira irtenik: —herritar maiteak, esan zuen; ez dezagun deiadar egin «Gora Elbarren», ezta «Gora Elgoien» ere. Antton: beste irrintzi bat.

Antton Barandiaranek beste ujui lehena baino ere ozenago eta luzeago egin zuenean, Medelek biriken indar guztiaz: —Gora Lea-

ru, munduko urīskarik politena—aldarri egin (pregonatu) zuen.

—Gaintza, belarriratu zidan Anīonek neri; Gaintza: arrapa zak ori.

An erakori zan gogoberozko zalapart, zarraparra ta iskanbila egoki zêkatzeko*, nere luma baino zorrotzago bear da.

Tsiztulariak orripekoa* asi zutenean, Bostongo alabak Leaburuar guztien begiak berarengan zituen. Besoak zabaldu, bai; baina elizako irudiak baino zirkin geyago etzuen egiten. *As the others, Alice,* esaten zion senarrak, *as the others* (besteak bezela). Tsingarra ta bat * zan aren musua; aldarte onez, ordea, beste guztiakin batera, bere buruari parre egiten zion.

Irrada aitu zanean, *Very well* (oso ederki) esanta, eskua ertsi zion Medelek emazteari. Martin Lôntsok berarenari—Kaīalin, gu ere ba beste onenbeste eginbearrak gaitun: ekartzan esku ori—. Lertzeko arian, okerturik, parre egin genuen guztiok.

Jayandreak, senarrarren bitartez, Alkateari aitortu zion etzuela egun alayagorik beraren bizi guztian izan; eta, sakeletik dirutsartel batzuk aterata, beraren izenean berreun dollar ayek erriko tsiroentzat *(for the poors)* zirala.

buru, munduko hirixkarik politena— aldarri egin (pregonatu) zuen.

—Gaintza, belarriratu zidan Anttonek niri; Gaintza: harrapa ezak hori.

Han irakori zen gogo berozko zalaparta, zarraparra eta iskanbila egoki xehakatzeko[130], nire luma baino zorrotzago behar da.

Txistulariek orripekoa hasi zutenean, Bostongo alabak leaburuar guztien begiak berarengan zituen. Besoak zabaldu, bai; baina elizako irudiak baino zirkin gehiago ez zuen egiten. *As the others*, Alice, esaten zion senarrak, *as the others* (besteak bezala). Txingarra eta bat zen haren musua; aldarte onez, ordea, beste guztiekin batera, bere buruari barre egiten zion.

Irrada ahitu zenean, *Very well* (oso ederki) esanda, eskua hertsi zion Medelek emazteari. Martin Lontxok berarenari —Kattalin, gu ere ba beste honenbeste egin beharrak gaitun: ekar ezan esku hori—. Lehertzeko harian, okerturik, barre egin genuen guztiok.

Jaiandreak[131], senarrarren bitartez, alkateari aitortu zion ez zuela egun alaiagorik beraren bizi guztian izan; eta, sakeletik dirutxartel batzuk aterata, beraren izenean berrehun dolar haiek herriko txiroentzat (*for the poors*) zirela.

---

(130) Jatorrizkoan "zêkatu"; OEHk "zehekatu". EHk "zehakatu"-tik "xehakatu"-ra igortzen du.
(131) Festan omendutako andrea.

Alkateak, paperak eskuan zituela, arimazainari,—¿tsirorik baoteda Leaburun?—galde egin zion; aberatsik ere bat eta berau biartik aurrera badoakigu ta kito. Andrea, guztiok gera emen beartsuak, tsirorik ezta emen; eskalerik, zarrak gera baina, eztegu inoiz ezagutu.

Arritu zan *Mistress* Olaz au jakin zuenean; etzituen artu nai izan, ordea, Alkateak beatzen erpinean zeuzkan paperak. Lengusu bereterrak eskola berriztatzeko izan lirakeala esan zuen. Medelek ezetz; berak ordainduko zuela lanketa ori ta emaztearen emaya lenen jayoko ziran bi aurrentzat mozkinkutsara *(caja de ahorros-a)* eramateko agindu zuen. Eskupeko ederrak eman zituen, gainera, Patsiko ta mai-otseinentzat, zeinulari ta suziridunak ere poliki izan zuten.

Eguzkia Beizamako mendi-tontorretan bêra apaldu zanean, Tolosalderako igitu ginan. Belaun-buruetan indarra zuten Leaburuar guztiak Urkietan ziran (1) eta Ibarrerako aldapa-bururagino geyentsuak lagun egin ziguten. Gero, oi dana, agur bein ta berriz, esku-emate luzea ta berreun aotako «izan

(1) Bat ez, besteak. Isabel goiz-baskari bat eginta, zeinuketa entzun zuenean, Gazteluko apaizaren etsera joan omenzan.

Alkateak, paperak eskuan zituela, arimazainari, —txirorik ba ote da Leaburun?— galde egin zion; aberatsik ere bat eta berau bihartik aurrera badoakigu eta kito. Andrea, guztiok gara hemen behartsuak, txirorik ez da hemen; eskalerik, zaharrak gara baina, ez dugu inoiz ezagutu.

Harritu zen *Mistress* Olaz hau jakin zuenean; ez zituen hartu nahi izan, ordea, alkateak behatzen erpinean zeuzkan paperak. Lehengusu bereterrak eskola berriztatzeko izan litezkeela esan zuen. Medelek ezetz; berak ordainduko zuela lanketa hori eta emaztearen emaria lehenen jaioko ziren bi haurrentzat mozkin kutxara (*caja de ahorros*-a) eramateko agindu zuen. Eskupeko ederrak eman zituen, gainera, Patxiko eta mahai-otseinentzat, zeinulari eta suziridunek ere poliki izan zuten. Eguzkia Beizamako mendi tontorretan behera apaldu zenean, Tolosalderako higitu ginen. Belaunburuetan indarra zuten leaburuar guztiak Urkietan ziren[132] eta Ibarrerako aldapaburuaino gehientsuek lagun egin ziguten. Gero, ohi dena, agur behin eta berriz, esku emate luzea

[132] Bat ez, besteak. Isabel goiz bazkari bat eginda, zeinuketa entzun zuenean, Gazteluko apaizaren etxera joan omen zen.

ongi... Aguratuarte ez egon itzultzeko...: eskerrik asko..., agur, agur, agur».

Goizerdian amaika ginan gorakoak, iluntzean bêrakoak bederatzi: Anton Barandiaran ta Mendigibel Urkietan gelditu ziran, lo noski. Beste zortzi bideztiak jai ederra eraskintzen ari ziran-artean, neri Medelekin nolabait berdinkatzeko, antzinako gizuren (héroes) batzuk bururatu zitzaizkidan. Ulises, Telemakoren aita, bezelakoše zurra (1) ta sememaitea nekusen Medel. Solon Atenastar andiaren antza geyagotan du. Bata ta besteau, nerabetan, mutil zirala, tširoško ziran; batark eta besteonek salerospenean burua ateratzeko, atzerrira joan bear izan zuten; eta oraino gazte dirala, bata ta besteau aberastasunaren oe biguñean etziten dira. Solon, erriratu zanean, *arkonte* egin zuten beraren sorkideak*. Medel, onera bizi izatera etorri ditenean, jakin ez zer izatekoa dan.

Ecos del Urumea-ren irakurleak poztuko dira Leaburuko gizona, enura gabe, *errepublikanoa* dala jakitean. Diogenes, upelean bizi izandako Greziar ospetsu hura, bezelako oso-osoa da. Bein Alejandro Erregek,

(1) Zikotza ez, *prudente* baizik.

eta berrehun ahotako «izan ongi... Aguretu arte ez egon itzultzeko…: eskerrik asko..., agur, agur, agur».

Goizerdian hamaika ginen gorakoak, iluntzean beherakoak bederatzi: Antton Barandiaran eta Mendigibel Urkietan gelditu ziren, lo noski. Beste zortzi bidaztiak jai ederra eraskintzen[133] ari ziren artean, niri Medelekin nolabait berdinkatzeko, antzinako gizuren (héroes) batzuk bururatu zitzaizkidan. Ulises, Telemakoren aita, bezalakoxe zuhurra[134] eta seme maitea nekusan Medel. Solon atenastar handiaren antza gehiagotan du. Bata eta beste hau, nerabetan, mutil zirela, txiroxko ziren; batak eta beste honek salerospenean burua ateratzeko, atzerrira joan behar izan zuten; eta oraino gazte direla, bata eta beste hau aberastasunaren ohe bigunean etziten dira. Solon, herriratu zenean, *arkonte* egin zuten beraren sorkideek. Medel, hona bizi izatera etor dadinean, jakin ez zer izatekoa den.

*Ecos del Urumea*ren irakurleak poztuko dira Leaburuko gizona, enura gabe, *errepublikanoa* dela jakitean. Diogenes, upelean bizi izandako greziar ospetsu hura, bezalako oso-osoa da. Behin Ale-

(133) Iruzkindu.
(134) Zikotza ez, *prudente* baizik.

upel-aurrean aurkeztuta, beraren andikeriaren tūntūrretik, zer nai zuen galdetu zionean, Diogenesek «eguzkitik ken zaizkidala» buruzutik erantzun zion. Beste ainbeste egingo luke Medelek (1).

Tolosako gelunean*, alkarri agur andiak eginta, senar-emaztên atzetik orga eder batean sartu nintzanean, LEABURUKO OYARTZUNAK gogotan zituela, *O very beautiful* (2), berriz ta berriz, elizako *ora pro nobis* bezela, maizkatzen* zuen Bostondarrak. Orgadia igitu zanean, Medelek zutik eta kapela eskuan zuelarik, jayoterrira begira, «*Long life* (3) Leaburu» esan zuen; «*long life*» erantzun ginion beste biok.

(1) Vasco de Gaintza: nik ere Medel badazagut eta zuk baino lenagotik eta sakonagorik. Ulises dala, Solon dirudiela... Ayek ere, Leaburuko filosofoak (Anton Barandiaranek) esango lukena; ayek ere otsak andiago; ala ere, ni gora-bera, or dezatela. Baina Medel órren petrala, órren lotsagabea, órren zakarra, órren *errepublikanoa* izatea nik ezin sinetsi.

Sacramento-ko Hotel-Leaburu utzita, upel batean bizi izatea otu balezayo ta erregeren bat bera ikustera aurkeztuezkero, ez zuk uste dezun ori, auše, nere iritzi laburrean erantzungo lioke:—Jauna: eguzki sutsu onetarik gerizatzeko beste itzalperik ezpadu, ar beza nere au—. Eta au esanez, upela, burua makurrik, eskiniko lioke Leaburuko gizurenak.

(2) ¡O! oso ederra.

(3) Itzez itz «luzaro bizi», «gora» esan nai du.

jandro erregek, upel-aurrean aurkeztuta, beraren handikeriaren ttuntturretik, zer nahi zuen galdetu zionean, Diogenesek «eguzkitik ken zaizkidala» buruzutik erantzun zion. Beste hainbeste egingo luke Medelek[135].

Tolosako gelunean, elkarri agur handiak eginda, senar-emazteen atzetik orga eder batean sartu nintzenean, LEABURUKO OIHARTZUNAK gogotan zituela, *O very beautiful*[136], berriz eta berriz, elizako *ora pro nobis* bezala, maizkatzen zuen bostondarrak. Orgadia higitu zenean, Medelek zutik eta kapela eskuan zuelarik, jaioterrira begira, «*Long life*[137] Leaburu» esan zuen; «*long life*» erantzun genion beste biok.

[135] Vasco de Gaintza: nik ere Medel badazagut eta zuk baino lehenagotik eta sakonagorik. Ulises dela, Solon dirudiela... Haiek ere, Leaburuko filosofoak (Antton Barandiaranek) esango lukeena; haiek ere hotsak handiago; hala ere, ni gorabehera, hor dezatela. Baina Medel horren petrala, horren lotsagabea, horren zakarra, horren *errepublikanoa* izatea nik ezin sinetsi.

Sacramentoko Hotel Leaburu utzita, upel batean bizi izatea otu balitzaio eta erregeren bat bera ikustera aurkeztuz gero, ez zuk uste duzun hori, hauxe, nire iritzi laburrean erantzungo lioke: —Jauna: eguzki sutsu honetarik gerizatzeko beste itzalperik ez badu, har beza nire hau—. Eta hau esanez, upela, burua makurrik, eskainiko lioke Leaburuko gizurenak.

[136] O! oso ederra.

[137] Hitzez hitz «luzaro bizi», «gora» esan nahi du.

ZORTZIGARREN EZKUTITZA

Lasartetik *Azpeitiko bereterburu jaunari* beraren adiskide ta mendeko *Andres Artesarri apaizak.*

10-VI-1900.

Gutsitan ikusi det nere burua atzo ta egun baino estuago. Atzo iru aldiz asi nuen ezkutitz au ta iruretan tarrat egin bear izan nuen papera. Goizeon ere beste ainbeste egin det zirriborro batzuez. ¡¡Zer izango otezan errudun izan banintz!! Monjatso bat oso eri, noiz ilko, degulako, eztet artu orrerako bidea, emen gertatu dana zuri agoz zearo jakinerazteko.

Agi danez, irain andia egin dizute zuri, iztun arrigarri ta bereterburu ospetsu zeran orri. Leonen meza berritan jarduna egitera aspaldion zeunden zu itz emana, lotua; ta zure ordez neronek jardun bear izan det; eta, iraina gorriago agertzeko, erderaz. Ni enaiz errudun. Zerori izan zaitez epailari*. Orain ilebete, ez oso, beste eun aldiz bezela, aizpa ikustera agertu zitzaigun Isabel, gure adiskide Adrianen lengusina ta etsandere

ZORTZIGARREN ESKUTITZA

Lasartetik *Azpeitiko bereterburu jaunari beraren*
adiskide eta mendeko *Andres Artesarri apaizak*

10-VI-1900

Gutxitan ikusi dut nire burua atzo eta egun baino estuago. Atzo hiru aldiz hasi nuen eskutitz hau eta hiruretan tarrat egin behar izan nuen papera. Goizeon ere beste hainbeste egin dut zirriborro batzuez. Zer izango ote zen errudun izan banintz! Mojatxo bat oso eri, noiz hilko, dugulako, ez dut hartu horrako bidea, hemen gertatu dena zuri ahoz zeharo jakinarazteko.

Agidanez, irain handia egin dizute zuri, hiztun harrigarri eta bereterburu ospetsu zaren horri. Leonen meza berritan jarduna egitera aspaldion zeunden zu hitz emana, lotua; eta zure ordez neronek jardun behar izan dut; eta, iraina gorriago agertzeko, erdaraz. Ni ez naiz errudun. Zerori izan zaitez epailari. Orain hilabete, ez oso, beste ehun aldiz bezala, ahizpa ikustera agertu zitzaigun Isabel, gure adiskide Adrianen lehengusina eta etxandre

Isabel. ¡Alako tsaplatarik! Leaburun meza berria (asmatu zanez) ematea Jainkoak etzuela agintzen. An egingo zan diru-zabaltze ta janedan izugarriz erri guztia marmar gaizki esaten ari zala. ¡Protestante batzuen diruaz meza Santua! Atzen esakeratso au amar aldiz aitatu izan edozuen. Nik eztakit nola, beinik bein emengo lekaime (monja) guztiak zuritu zituen ta beren nagusi Berastegiarrak Adrian-i agiri luze legun batean guztien naya jakinerazi zion: Leonek Lasarteko komentuan len-meza eman zezala.

Arizpe jauna: emakume onen tsaldankeria obekiseago negurtu al dezazun, orain aste ta erdi-inguruko gertakizuntso bat jakin-araziko dizut. Azokatik arako atorra ta barreneko motš, burruko-azal ta maindire, esku ta sudur-zapi, ugari zituela agertuz, birjosle (bordadora) trebênai mintzagura (locutorio-ra) dei egin-ta, aldagarri berri ayek zabaltzen zituenartean,—aizpak, esan zien: gure apaiz berriarentzat erosi ditut miesa zuri eder auek. Meza berri-egunerako birjosi (bordatu) ditzatzuten ekarri ditut. Bakoitzari gure ilobaren lenizki (iniciales) andi ta gorri-gorriak ezartzea nai nuke: D. L. O.=Don Leon Olazarreta.

—*Don* ta guzti? galde egin zion lekaime batek.

Isabel. Halako txaplatarik[138]! Leaburun meza berria (asmatu zenez) ematea Jainkoak ez zuela agintzen. Han egingo zen diru zabaltze eta jan-edan izugarriz herri guztia marmar gaizki esaten ari zela. Protestante batzuen diruaz meza santua! Atzen esaeratxo hau hamar aldiz aitatu izan edo zuen. Nik ez dakit nola, behinik behin hemengo lekaime (moja) guztiak zuritu zituen eta beren nagusi berastegiarrak Adriani agiri luze leun batean guztien nahia jakinarazi zion: Leonek Lasarteko komentuan lehen meza eman zezala.

Arizpe jauna: emakume honen txaldankeria[139] hobekixeago neurtu ahal dezazun, orain aste eta erdi inguruko gertakizuntxo bat jakinaraziko dizut. Azokatik harako atorra eta barreneko motx[140], buruko azal eta maindire, esku eta sudur-zapi, ugari zituela agertuz, birjosle (bordadora) trebeenari mintzagura (locutorio-ra) dei egin eta, aldagarri berri haiek zabaltzen zituen artean, —ahizpak, esan zien: gure apaiz berriarentzat erosi ditut mihise zuri eder hauek. Meza berri egunerako birjosi (bordatu) ditzazuen ekarri ditut. Bakoitzari gure ilobaren lehen hizki (iniciales) handi eta gorri-gorriak ezartzea nahi nuke: D. L. O.= Don Leon Olazarreta.

—*Don* eta guzti? galde egin zion lekaime batek.

(138) Berritsua, gogaikarria.
(139) Ergelkeria.
(140) Gerruntzea.

—Bai oriše, *Don* ta guzti beintzat. Eta mutsurdin tsaldan au muturtuko ezpazan, *Don* ta guzti birjosi bear izan dituzte gure lekaimeok apaiz berriarentzako aldagarri, orratzetik arako, kutsatu gabeak.

Adriani, onera erakarrita, bayetza erasan ziotenean, Isabelek neri, kapelau jauna, esan zidan: an irentsiko ziran tsal, oilasko-oilanda, bildots ta arkume, izokin, kui, arrautza ta gainerako jakiz, gezurrik esan gabe, bi urte luzetan etsea berera erabiliko degu.

Zein egunez nai zuten, Leaburuko apaizak galde egin zienean, «larunbatez», erantzun zuen beraren etsandereak, Leonen ama larunbatez il zala-ta. Nagusiak orduan biguñ-biguñ gaineratu zuen: Gero badakizute emengo berri. Igande-elizkizunetan, baserritarrengatik, euskeraz izaten dira gure itzaldi ta jardunak; astegunetan, oro erderaz.

—¿Eta nork Azpeitiko iztunari erderaz Lasarten itz eragin?

—Ezkutiztso bat bidali bezayo berorrek, Don Adrian, barru-barruko adiskide duenezkero.

—Andre nagusi: nik eztet orretarako kemenik. Ezkutitz ori berorrek egin ta bidaltzea dirudi egokiena.

—Bai horixe, *don* eta guzti behintzat. Eta mutxurdin txaldan hau muturtuko ez bazen, *don* eta guzti birjosi behar izan dituzte gure lekaimeok apaiz berriarentzako aldagarri, orratzetik harako[141], kutsatu gabeak.

Adriani, hona erakarrita, baietza erasan ziotenean, Isabelek niri, kapilau jauna, esan zidan: han irentsiko ziren txahal, oilasko-oilanda, bildots eta arkume, izokin, kui[142], arrautza eta gainerako jakiz, gezurrik esan gabe, bi urte luzetan etxea berera erabiliko dugu.

Zein egunez nahi zuten, Leaburuko apaizak galde egin zienean, «larunbatez», erantzun zuen beraren etxandreak, Leonen ama larunbatez hil zela eta. Nagusiak orduan bigun-bigun gaineratu zuen: Gero badakizue hemengo berri. Igande elizkizunetan, baserritarrengatik, euskaraz izaten dira gure hitzaldi eta jardunak; astegunetan, oro erdaraz.

—Eta nork Azpeitiko hiztunari erdaraz Lasarten hitz eragin?

—Eskutiztxo bat bidali bezaio berorrek, don Adrian, barru-barruko adiskide duenez gero.

—Andre nagusi: nik ez dut honetarako kemenik. Eskutitz hori berorrek egin eta bidaltzea dirudi egokiena.

---

(141) Josi berria.
(142) Untxia.

Eta ¡jakina! zuk erderazko jardunik nai ez ta kapelau gaizoak lan ori artu bear. San Krisostomo iztun andiari erruz itz eraginez, nolabait burutu nuen nere arazoa. Apaizmordo ederra bildu zan Elizan; mayean bost ginan soil-soilik: meza-emalea, aitabitsi, bi apaiz gazte (Leonen esker-eskubiko lagunak) eta nerau. Mintzagua (locutorioa) tsikia zala ta beste bereter guztiak Elizetsen bazkaldu ziran (1). Amezketar batzuk, Adrianen aideak, izan genituen mai-lagun.

Meza-ondoan emengo ikusmikuskizunak apaiz gazteai erakutsi nizkien. Zuk ere atsegina izango zenduen, nik uste. Astitsu zeran batean zatoz berok ikustera. Ezaldezu damu izango.

Okendo izkudaburu (almirante) aren bi arreba, lekaime izan ziran Lasarteko komentu onetantse. Arrebak erraz berendu zuten beren neba* ospetsuak maiteen zuen ondasun bat: ontziko harian * (salan) iduki zeukan irudi, *Pozgarrizko Andre Maria* (2). Arra ta erdikotsoa da, arrizkoa. Okendok beretu baino lenago ere iruditso onek mirari bat

(1) Isabelen isilik, Adrianek ordaindu zuen ayen bazkaria.

(2) Bein ere eztet entzun beronen izena, erderaz izan ezik: *Nuestra Señora del Consuelo.* Onelakosea da gure euskalduntasuna.

Eta jakina! zuk erdarazko jardunik nahi ez eta kapilau gaixoak lan hori hartu behar. San Krisostomo hiztun handiari erruz hitz eraginez, nolabait burutu nuen nire arazoa. Apaiz mordo ederra bildu zen elizan; mahaian bost ginen soil-soilik: meza-emailea, aitabitxi, bi apaiz gazte (Leonen ezker-eskuineko lagunak) eta nerau. Mintzagua (locutorioa) txikia zela eta beste bereter guztiak elizetxean bazkaldu ziren[143]. Amezketar batzuk, Adrianen ahaideak, izan genituen mahai lagun.

Meza ondoan hemengo ikusmikuskizunak apaiz gazteei erakutsi nizkien. Zuk ere atsegina izango zenuen, nik uste. Astitsu zaren batean zatoz berok ikustera. Ez ahal duzu damu izango.

Okendo izkudaburu (almirante) haren bi arreba, lekaime izan ziren Lasarteko komentu honetantxe. Arrebek erraz berendu zuten beren neba ospetsuak maiteen zuen ondasun bat: ontziko harian (salan) eduki zeukan irudi, *Pozgarrizko Andre Maria*[144]. Arra eta erdikotxa da, harrizkoa. Okendok beretu baino lehenago ere

[143] Isabelen isilik, Adrianek ordaindu zuen haien bazkaria.
[144] Behin ere ez dut entzun beronen izena, erdaraz izan ezik: *Nuestra Señora del Consuelo*. Honelakoxea da gure euskalduntasuna.

egin zuen. Mirari onen oroikarritzat Eliza onetantsē degu artailu (kuadru) bat, diotenez, ederki egina. Baditugu beste artailu batzuk ere: Elizgelan Okendorena ta beraren emazte Andre Teresa San Millan-ena. Berriz ere dioketsut * : onontzaldi bat egin ezazu bein edo bein.

Zu bezelako gizon jakitunentzat erakusgarritzat daukat emengo artitz (inscripción) polit, len elizpe zarraren ateburuan, orain auzpez lurrean ezarria deguna:

Inveni portum. Spes, fortuna : valete.

Apaiz gazte ayetarik batek (burujabea da ta mînduna * apaiz hura) esan zigunez «exámetro» osoa izateko iztso bat bear omendu artitz onek:

Inveni portum. Nunc spes, fortuna: valete.

¡Amaikari erakutsi diet irakurgaitso au! Batek ere eztio utsunerik ediro. *

Fraile zar Sunbilako seme batek, neronen otoiz, onelasē euskerazkotu zizkidan itz oriek:

Kaya ementsē det, gazte.
Itsaropen, zori: zoazte.

Mayean ginala berealasē ots egin zuen zure izenak. Gu mauka-mauka ari ginan artean, barruko aldean komentuko nagusi be-

iruditxo honek mirari bat egin zuen. Mirari honen oroigarritzat eliza honetantxe dugu artailu (koadro) bat, diotenez, ederki egina. Baditugu beste artailu batzuk ere: elizgelan Okendorena eta beraren emazte andre Teresa San Millanena. Berriz ere dioketsut: honantzaldi bat egin ezazu behin edo behin.

Zu bezalako gizon jakitunentzat erakusgarritzat daukat hemengo artitz (inscripción) polit, lehen elizpe zaharraren ateburuan, orain ahuspez lurrean ezarria duguna:

Inveni portum. Spes, fortuna: valete.

Apaiz gazte haietarik batek (burujabea da eta mihiduna apaiz hura) esan zigunez «hexámetro» osoa izateko hiztxo bat behar omen du artitz honek:

Inveni portum. Nunc spes, fortuna: valete.

Hamaikari erakutsi diet irakurgaitxo hau! Batek ere ez dio hutsunerik ediren[145].

Fraide zahar Sunbilako seme batek, neronen otoiz, honelaxe euskarazkotu zizkidan hitz horiek:

Kaia hementxe dut, gazte.
Itxaropen, zori: zoazte.


Mahaian ginela berehalaxe hots egin zuen zure izenak. Gu mauka-mauka ari ginen artean, barruko aldean komentuko nagusi

[145] OEHk "ediro" jasotzen du, baina "ediren"-era igortzen du.

rastegiarra ta bestetšo bi bazkaltzen ari ziran.

—Iztun arrigarria omenda, esan zuen zuzaz nagusiak.


—¡Bai oriše! erantzun zion Adrianek. Da-



berastegiarra eta bestetxo bi bazkaltzen ari ziren.

—Hiztun harrigarria omen da, esan zuen zuzaz nagusiak.

—Bai horixe! erantzun zion Adrianek. Datorrela lurpetik



torrela lurpetik Fray Luis de Granada, zekien erdera legunez izketara; nik azpeitikoari bere euskera garbi, erraz, mendi-usainekoz nayago diot entzun.

—Nik, gaineratu zuen arako apaiz burujabeak, Euskalerrian bada, Fray Luis de Granada-ri baino nere erriko erretoreari ere gogozago; ta Matsinbentako erretorearen izena ezta gero Ciceron. Euskaldunai euskeraz.

—Igandero euskeraz ari izaten zaigu Don Andres, gure kapelau jauna.

—Goizean ere euskeraz ekin balio, etzan ezer galduko.

—Apaiz jauna, erdaldunentzat erderaz egin bear da. Badira gure artean euskerarik eztakiten lekaimeak.

—*Madre,* (1) esan zion orduan Matsinbentarrak: erdalerrian erderaz, euskalerrian euskeraz. Berrogei lekaime euskaldun dauden komentu batean, Burgosko erdaldun naiz Bilbo-aldeko euskaldun motzen bat datorrelako ¿beste guztiak euskera ezpailekiten bizi bear? ¿Bidezkoa deritzayo oni?.

(1) Autu au ta beste geyen geyenak erderazkoak izan ziran. Amezketarrai zerbait esatorduan eta alkarren arteko autu laburtso batzuetan baizik etzuen gure izkerak ots egin. Komentuak agitz euskeraren obiak (sepulcros) dira, esatea lotsagarria bada ere.

Fray Luis de Granada, zekien erdara leunez hizketara; nik Azpeitikoari bere euskara garbi, erraz, mendi-usainekoz nahiago diot entzun.

—Nik, gaineratu zuen harako apaiz burujabeak, Euskal Herrian bada, Fray Luis de Granadari baino nire herriko erretoreari ere gogozago; eta Matxinbentako erretorearen izena ez da gero Zizeron. Euskaldunei euskaraz.

—Igandero euskaraz ari izaten zaigu don Andres, gure kapilau jauna.

—Goizean ere euskaraz ekin balio, ez zen ezer galduko.

—Apaiz jauna, erdaldunentzat erdaraz egin behar da. Badira gure artean euskararik ez dakiten lekaimeak.

—*Madre*[146], esan zion orduan matxinbentarrak: Erdal Herrian erdaraz, Euskal Herrian euskaraz. Berrogei lekaime euskaldun dauden komentu batean, Burgosko erdaldun nahiz Bilbo aldeko euskaldun motzen bat datorrelako beste guztiek euskara ez bailekiten bizi behar? Bidezkoa deritzaio honi?

[146] Autu hau eta beste gehien-gehienak erdarazkoak izan ziren. Amezketarrei zerbait esatorduan eta elkarren arteko autu laburtxo batzuetan baizik ez zuen gure hizkerak hots egin. Komentuak hagitz euskararen hobiak (sepulcros) dira, esatea lotsagarria bada ere.

Euskalduna eztanik gure artera baldin badator, ikasi dezala gure mintzoa, gure izkera. Guk ere ori egin bear izan genuen erdalerrian: erderaz ikasi. ¿Erdaldunik battsō etorri oteda egungo jarduna entzutera? Eztet bat ikusi; lo bai, baserritar-mordo ederra. Aurrean dedan amezketar onek ere ¡ayek zurrungak! ¿Ezalda egia, Simon?

—Tolosan len ere entzun izan ditugu erderazko *kalamatrika* oriek eta ¡egi-egia! ni bezelakoentzat aur-kantatsōak bezela dira erderazko jardunak: logarriak.»

Isabelek, barru-aldekoak sapustuko ziralako,—*Madre*, esan zuen, Bilbotar aberats batzuk asi omendira Berastegin burni-arria ateratzen.

—Burni-arriz eztegu emen burua austen. Emen Jaunaren mendean bizi gera, Beraren naya egin nai gendukeala. Berarengana deituta eztigu beste zeaztasunik eskatuko, eztigu arpegi artuko euskeraz ari izan geralako naiz ezkeralako.

—Orregatik ere *quinque talenta* eman diete lekaimeai ta bost doe orien artean euskera ederra ere artu dezute ta nere ustez...

—¡Bost baino ezpalira! esan zion Adrianek Matsinbentarrari, keinu bat eginez. Ain zuzen ere nere lengusina Sor Santa Catalina emen

Euskalduna ez denik gure artera baldin badator, ikas dezala gure mintzoa, gure hizkera. Guk ere hori egin behar izan genuen Erdal Herrian: erdaraz ikasi. Erdaldunik batxo etorri ote da egungo jarduna entzutera? Ez dut bat ikusi; lo bai, baserritar mordo ederra. Aurrean dudan amezketar honek ere haiek zurrungak! Ez al da egia, Simon?

—Tolosan lehen ere entzun izan ditugu erdarazko *kalamatrika* horiek eta egi-egia! Ni bezalakoentzat haur-kantatxoak bezala dira erdarazko jardunak: logarriak.

Isabelek, barrualdekoak zapuztuko zirelako,—*Madre*, esan zuen, bilbotar aberats batzuk hasi omen dira Berastegin burdin harria ateratzen.

Burdin harriz ez dugu hemen burua hausten. Hemen Jaunaren mendean bizi gara, Beraren nahia egin nahi genukeela. Berarengana deituta ez digu beste zehaztasunik eskatuko, ez digu aurpegi hartuko euskaraz ari izan garelako nahiz ez garelako.

Horregatik ere *quinque talenta* eman diete lekaimeei eta bost dohain horien artean euskara ederra ere hartu duzue eta nire ustez...

—Bost baino ez balira! esan zion Adrianek matxinbentarrari, keinu bat eginez. Hain zuzen ere bere lehengusina sor Santa Kata-

sartu zanean (badira gutsienez ogeita amar urte; apaiz gaztetsoa nintzan ni, Leaburun sartu berria); emengo kapelau zarrak jardun zuen, ni ausartzen ezta; ain zuzen ere Ebanjelioaren ataltso ori aipatu zuen. ¿Ezalzera oroitzen, Eusebi?

—Sarraldi (entrática) guztietan, gutsi gorabera, berdin esaten omenzuen.

¡¡Ayen parrea, batez ere bi lekaime isilkor ayena, Sor Santa Catalinaren itz auek entzutean!!

Zuk neronek baino ere sakonagotik dazaguzu Leaburuko arimazaina, erkideak ere bazerate-ta. Emale danean, pozik izan oi da. Ezta bein ere itzontzi izan; baina, lagunartean itz gutsi eginarren, asko eragiten du.

Beti agertu oi da, arpegia argi duela, besteak nola poztuko. Laurdenegungo bazkalartean inoiz baino gutsiago mintzatu zitzaigun, zure minez noski. Matsinbentako apaiz gazte ayen zipladaz lekaimeak mindu etzitezen erabez* (bildurrez), atera edozituen gure adiskideak itzik erdiak.

Aketa (kafea) artzen ari ginanartean, Tolosako norbaitek bidalita, tsantel urdin bat eskuan zuela, gizon bat izerdi-patsetan agertu zitzaigun. Lur jota gelditu zan gure Adrian Iriondo, berri hura irakurri zuenean. Banan

lina hemen sartu zenean (badira gutxienez hogeita hamar urte; apaiz gaztetxoa nintzen ni, Leaburun sartu berria); hemengo kapilau zaharrak jardun zuen, ni ausartzen ez eta; hain zuzen ere Ebanjelioaren ataltxo hori aipatu zuen. Ez al zara oroitzen, Eusebi?

—Sarraldi (entrática) guztietan, gutxi gorabehera, berdin esaten omen zuen.

Haien barrea, batez ere bi lekaime isilkor haiena, sor Santa Katalinaren hitz hauek entzutean!!

Zuk neronek baino ere sakonagotik dazaguzu Leaburuko arimazaina, erkideak ere bazarete eta. Emaile denean, pozik izan ohi da. Ez da behin ere hitzontzi izan; baina, lagunartean hitz gutxi egin arren, asko eragiten du.

Beti agertu ohi da, aurpegia argi duela, besteak nola poztuko. Laurdenegungo bazkalartean inoiz baino gutxiago mintzatu zitzaigun, zure minez noski. Matxinbentako apaiz gazte haien zipladaz lekaimeak mindu ez zitezen herabez (beldurrez), atera edo zituen gure adiskideak hitzik erdiak.

Akeita (kafea) hartzen ari ginen artean, Tolosako norbaitek bidalita, txartel urdin bat eskuan zuela, gizon bat izerdi-patsetan agertu zitzaigun. Lur jota gelditu zen gure Adrian Iriondo, berri

banan maikide guztiok tsantel ari so bat (begirakune bat) egin ginion. Ona irakurri nizkion itzak: ALICE AURGINTZAN IL ZAIT. ERRUKI NIZAZ. MEDEL.

Oro murtik egin gabe ginala, Isabelek, Isabel tsaplatak—Jaungoikoaren zigorra dabil emen—esanez, autsi zuen isilaldia. Ezalzan inor izan biotz-barruan garrazkeriaren bat erne ta otu etzitzayonik. Adriani soilik irten zitzayon itza, bakarra bera ta astuna: «Isabel».

Osaba-ilobak etzuten geroztik ez burua jaso ez agoa zabaltzen. Besteok binaka tsutsuputsu giarduelarik*, Isabelen agotik, lengusu baserritarrarekin ari zala, itz-mordo eten auek belarriratu zitzaizkidan: «Mari Zirtzil... uztaren amalaugarren eguna zan... Dilin-dalan zeinutegian... ur bedeinkatua ere artu... protestantea». Itza ta pitsa zeriozkion Isabeli ezpainetatik.

Leaburuko bereterrak, mai-eskerrak oi bezela eman ta gero, il otoitz bat egin zuen. Isabelek, ezpainak alkarri itsatsiak bidezituen, aušе esanarte:—¿ari ere *errespontsua?*

—Isabel, esan zion lengusu apaizak: Jesukristo gure Jaunak esan zigun, azken-*juizio*-egunean gizaldi onen aurka (kontra) Ninive-

hura irakurri zuenean. Banan-banan mahaikide guztiok txartel hari so bat (begirakune bat) egin genion. Hona irakurri nizkion hitzak: ALICE HAURGINTZAN HIL ZAIT. ERRUKI NIZAZ. MEDEL.

Oro murtik[147] egin gabe ginela, Isabelek, Isabel txaplatak —Jaungoikoaren zigorra dabil hemen— esanez hautsi zuen isilaldia. Ez al zen inor izan bihotz barruan garrazkeriaren bat erne eta otu ez zitzaionik. Adriani soilik irten zitzaion hitza, bakarra bera eta astuna: «Isabel».

Osaba-ilobek ez zuten geroztik ez burua jaso ez ahoa zabaltzen. Besteok binaka txutxu-putxu geniharduelarik, Isabelen ahotik, lehengusu baserritarrarekin ari zela, hitz mordo eten hauek belarriratu zitzaizkidan: «Mari Zirtzil... uztaren hamalaugarren eguna zen... Dilin-dalan zeinutegian... ur bedeinkatua ere hartu... protestantea». Hitza eta pitza zerizkion Isabeli ezpainetatik.

Leaburuko bereterrak, mahai-eskerrak ohi bezala eman eta gero, hil otoitz bat egin zuen. Isabelek, ezpainak elkarri itsatsiak bide zituen, hauxe esan arte: —hari ere *errespontsua*?

—Isabel, esan zion lehengusu apaizak: Jesukristo gure Jaunak esan zigun, azken *juizio* egunean gizaldi honen aurka (kontra)

(147) Tut.

tarrak jaiki ta gaitzetsi (kondenatu) egingo zituztela. California ezta Ninive zan baino galduago.

Bi ordu geroago Lasarten etzan arrotzik gelditu.

ninivetarrak jaiki eta gaitzetsi (kondenatu) egingo zituztela. Kalifornia ez da Ninive zen baino galduago.

Bi ordu geroago Lasarten ez zen arrotzik gelditu.

BEDERATZIGARREN EZKUTITZA

Azpeititik, 1900-garren urteko Errosario-egunean.

Emeterio Olazarretari
Juan Jose Arizpe bereterrak.

Zure lengusu Adrianen adiskide mamia naizen aldetik ezkutitz au zuri egitea artu det gogotan. Inork inor maite izan badu, maite det nik Iriondo apaiza. Badakit zuk ere zinez ta anai bat bezela oneresten* dezula.

Bat onen ta beste orren biotza minduta ere, argiro esan bear dizut beste aldetatik jakingo etzendukean berri au. Aspaldion ezagunean mekotu ta maskaldu zaigu Adrian. Etsekoak, egunero ikusten dutelako edo, eztakite beintzat zein indarga, zein aul dagoen. Bizirik ikusi nai badezu, igi zaitez, Medel, ar zazu ononzko bidea ta alik zuzenen* zatoz Leaburura.

Soina (gorputza), beti bezela, orain ere gaizkabea du; gogoa (arima) aspaldion oso

BEDERATZIGARREN ESKUTITZA

Azpeititik, 1900. urteko Errosario egunean

Emeterio Olazarretari
Juan Jose Arizpe bereterrak

Zure lehengusu Adrianen adiskide mamia naizen aldetik eskutitz hau zuri egitea hartu dut gogotan. Inork inor maite izan badu, maite dut nik Iriondo apaiza. Badakit zuk ere zinez eta anaia bat bezala oneresten duzula.

Bat honen eta beste horren bihotza minduta ere, argiro esan behar dizut beste aldetatik jakingo ez zenukeen berri hau. Aspaldion ezagunean mehekotu eta maskaldu zaigu Adrian. Etxekoek, egunero ikusten dutelako edo, ez dakite behintzat zein indarge, zein ahul dagoen. Bizirik ikusi nahi baduzu, higi zaitez, Medel, har ezazu honanzko bidea eta ahalik zuzenen zatoz Leaburura.

Soina (gorputza), beti bezala, orain ere gaizgabea du; gogoa (arima) aspaldion oso eri; eta gogo beheratuak emeki-emeki eta

eri; ta gogo bêratuak emeki-emeki ta igartzaka soinik errutsuenari oben eragiten dio.

Zure emaztearen ilberria Lasarten, Leonen meza berri-egunean, artu zuen. Zauzkada andia eragin zioten aren eriotzeak eta zure atsekabeak.

Urrengo lau bat ilebetez biozketa saminak gozatzeko egun asko izan ditu. Leon izan du orretarako gozagarririk onena. Baserritarren aotik «¿gure apaiz gaztea bezelako oyulari ta organularirik nun?» entzun izan duenean, berak «ikasberria degu oraindik, ikasberria» erantzunarren, eztitan eukiten izan du beraren biotz andia. Nerau eraman ninduten Leaburura San Pedroz ta neronen belarriak entzuna da autu ori. Egun ayetantsē erabaki genduen Bartolome gurenegunean (San Bartolomez) Amezketara joatea: Adrian meza nagusia oyukatzeko; oyutegiko maisu izateko, ni; Leon, zure seme jator Leon, eguneko jarduna egiteko.

Ederki ari izan zan bereter gaztea. Asieran berak ere Amezketarren odola zuela agertzean, ango artzain ta gurtzainen biotzak osaro berarendu zituen iztun berriak. Mezaondoan ilobaren gora andiak nornairen ezpainetatik entzunik, luzarotsō isilik egonarren, alako batean ausē azaldu zigun: «egia

igartzeke soinik errutsuenari hoben eragiten dio.

Zure emaztearen hilberria Lasarten, Leonen meza berri egunean, hartu zuen. Zauzkada handia eragin zioten haren heriotzeak eta zure atsekabeak.

Hurrengo lau bat hilabetez bihozketa saminak gozatzeko egun asko izan ditu. Leon izan du horretarako gozagarririk onena. Baserritarren ahotik «gure apaiz gaztea bezalako oihulari eta organolaririk non?» entzun izan duenean, berak «ikasberria dugu oraindik, ikasberria» erantzun arren, eztitan edukitzen izan du beraren bihotz handia. Nerau eraman ninduten Leaburura San Pedroz eta neronen belarriak entzuna da autu hori. Egun haietantxe erabaki genuen Bartolome guren egunean (San Bartolomez) Amezketara joatea: Adrian meza nagusia oihukatzeko; oihutegiko maisu izateko, ni; Leon, zure seme jator Leon, eguneko jarduna egiteko.

Ederki ari izan zen bereter gaztea. Hasieran berak ere amezketarren odola zuela agertzean, hango artzain eta gurdizainen bihotzak osoro berarendu zituen hiztun berriak. Meza ondoan ilobaren gora handiak nornahiren ezpainetatik entzunik, luzarotxo isilik egon arren, halako batean hauxe azaldu zigun: «egia esan, ni,

esan, ni, orren urteak nituenean, enintzan gai an goitik, dardaratu gabe, asteko elizkizunak erakusteko ere».

Alako egun asko izan balitu, leneratuko edozan zure lengusua; baina, gutsien uste zuela, lau ilebeteko poz-atsegin guztiak batbatera atsekabetu zitzaizkion.

Leon Arabako urisko tutu* tsatsar esereś baterako Parroku izendatu zuen Apezpiku jaunak; eta Leonek... joan egin bear. Osabak Tolosaragino lagun egiteko ere etzuen kemenik izan.

Elizako armonium zuk emandako jokailu eder hura mututu zan. Eskubirengo leyoa beti ertsia zegoen elizetsean. Alperrik aratu ta ikertzen zituen zakurrak etseko zokobazterrak, nagusi berria ediro nayean. Adrian etzuten poztutzen ez eliztarren autuk, ez alberrietako bereterren ikustaldik. Isabelek aldiz beraren zinkurin* ta ayuma ta antziz larriago egiten zion nagusi zarrari biozmina.

Aldarte onetantse zegoela ots egin zuen Adrianek iluntze batez nere ta zure etse onen atean. Besoak zabalik artu nuen nere adiskidea; al nuen alegi tseratsuena egin nion. Nere lankide apaiz batzuk ere, bera poztutzeko, mairatu nituen. Atseter bat

horren urteak nituenean, ez nintzen gai han goitik, dardaratu gabe, asteko elizkizunak erakusteko ere».

Halako egun asko izan balitu, leheneratuko edo zen zure lehengusua; baina, gutxien uste zuela, lau hilabeteko poz-atsegin guztiak bat-batera atsekabetu zitzaizkion.

Leon Arabako hirixko tutu txatxar ezerez baterako parroko izendatu zuen apezpiku jaunak; eta Leonek... joan egin behar. Osabak Tolosaraino lagun egiteko ere ez zuen kemenik izan.

Elizako harmonium zuk emandako jogailu eder hura mututu zen. Eskuineko leihoa beti hertsia zegoen elizetxean. Alferrik aratu[148] eta ikertzen zituen zakurrak etxeko zoko-bazterrak, nagusi berria ediro nahian. Adrian ez zuten pozten ez eliztarren autuk, ez alberrietako bereterren ikustaldik. Isabelek aldiz beraren zinkurin eta aiuma[149] eta antsiaz larriago egiten zion nagusi zaharrari bihozmina.

Aldarte honetantxe zegoela hots egin zuen Adrianek iluntze batez nire eta zure etxe honen atean. Besoak zabalik hartu nuen nire adiskidea; ahal nuen abegi txeratsuena egin nion. Nire lankide apaiz batzuk ere, bera pozteko, mahairatu nituen. Atxeter bat

[148] Arakatu.
[149] Intziria.

degu emen, mediku bat, oyukirik parragarrienak erdi frantzes erdi euskeraz ematen dituen gazte buru-arin bat. *Betijai* du gure arteko izena.

Hura ere bazkaldar izan nuen; eta beste maikide guztiok parrez lertzen ari ginanartean, parrirri doi-doi egin zuen Leaburuko arimazainak.

Bakartu ginanean, aurreguneko burubidea eman nion: bera soil-soilik apezpikuarengana agertzeko, urtetsu-samarra zala esateko; Leon bear-bearrekoa zuela; ta, alarik ere, nagusia ezetzerako bazegoen, zuen sendiak (familiak) Leaburuko elizari egin dizkion on andiak agertzeko.

—Lagun zarra, erantzun zidan; nik, sasiapaiz onek, erdiak esateko ere eztiat adorerik (kemenik) izango.

Iru egunen buruan emen zan berriz, joan zan baino ere ilago, mailadian gora igoteko eskuzalari eldu-bearrez.

—Ezin ditekeala, erantzun dit. Apaiz berriak, diranak dirala, Arabara bear dutela. Nereak egin du, lagun zarra.

—¿Nolako egin ta egin-ondo? Iluntzen eztan egunik ezta, goibeltzen eztan zoririk ere ez. Badakizu arako Virgiliorena: *Post nubila Phebus* — laino-ondoan eguzkia.

dugu hemen, mediku bat, oihukirik[150] barregarrienak erdi frantses erdi euskaraz ematen dituen gazte buruarin bat. *Betijai* du gure arteko izena.

Hura ere bazkaldar izan nuen; eta beste mahaikide guztiok barrez lehertzen ari ginen artean, irribarre doi-doi egin zuen Leaburuko arimazainak.

Bakartu ginenean, aurreguneko burubidea eman nion: bera soil-soilik apezpikuarengana agertzeko, urtetsu samarra zela esateko; Leon behar-beharrekoa zuela; eta, halarik ere, nagusia ezetzerako bazegoen, zuen sendiak (familiak) Leaburuko elizari egin dizkion on handiak agertzeko.

—Lagun zaharra, erantzun zidan; nik, sasi-apaiz honek, erdiak esateko ere ez diat adorerik (kemenik) izango.

Hiru egunen buruan hemen zen berriz, joan zen baino ere hilago, mailadian gora igoteko eskuzalari[151] heldu beharrez.

—Ezin daitekeela, erantzun dit. Apaiz berriek, direnak direla, Arabara behar dutela. Nireak egin du, lagun zaharra.

—Nolako egin eta egin ondo? Iluntzen ez den egunik ez da, goibeltzen ez den zoririk ere ez. Badakizu harako Virgiliorena: *Post nubila Phebus* —laino ondoan eguzkia—.

(150) Kanta.
(151) Eskudela, baranda.

Kementsuago izan zaitez, Adrian. Buruari ez utzi erortzen. Oker asi dan arlo au zuzenduko degu, Jainkoak nai badu; baina osasuna galduezkero...

—Len-bai-len etsera joan bear det. Eztakit zer dedan. Indarga ta aul asmatzen det nere gorputz guztia. Inun eztet minik; indarrik ere ez, ordea.

—Ezagun da Leaburuko bakartasun artan gorabera gabe bizi izana zerala. Bidez asiorduko on izango da sendalariari ots egitea. Josepa, Josepa. Zoaz Aginaga Jaunarengana. Berealase datorrela, norbait ikusi bear duela-ta. Onek esango digu, Adrian, aultasun ori baŕurago sar eztedin, zer dan egin bear dezuna. Guk ere, zu baino gazteseago izanarren, izan ditugu buruausterik asko ta naigaberik ez gutsi. Ontziak itsasoan eztute aizea beti poparean izaten. *Post nubila Phebus.*

—Nere egun labur auetan ezpada ere, nere ondoren beintzat Leon Leaburuko arimazain izatea nai nuke. Au baneki, ni iltzeko ere pozik.

—¿Ze il ta mil? Ikusiko dezu gure Betijaik, eztirudien sendalari trebe onek, sendapidean jarrita, zerorrek uste dezun baino ere azkarrago ta zoliago nola izango zeran. Orra

Kementsuago izan zaitez, Adrian. Buruari ez utzi erortzen. Oker hasi den arlo hau zuzenduko dugu, Jainkoak nahi badu; baina osasuna galduz gero...

—Lehenbailehen etxera joan behar dut. Ez dakit zer dudan. Indarge eta ahul asmatzen dut nire gorputz guztia. Inon ez dut minik; indarrik ere ez, ordea.

—Ezagun da Leaburuko bakartasun hartan gorabehera gabe bizi izana zarela. Bidez hasi orduko on izango da sendalariari hots egitea. Joxepa, Joxepa. Zoaz Aginaga jaunarengana. Berehalaxe datorrela, norbait ikusi behar duela eta. Honek esango digu, Adrian, ahultasun hori barrurago sar ez dadin, zer den egin behar duzuna. Guk ere, zu baino gaztexeago izan arren, izan ditugu buruhausterik asko eta nahigaberik ez gutxi. Ontziek itsasoan ez dute haizea beti poparean izaten. *Post nubila Phebus*.

—Nire egun labur hauetan ez bada ere, nire ondoren behintzat Leon Leaburuko arimazain izatea nahi nuke. Hau baneki, ni hiltzeko ere pozik.

—Ze hil eta mil? Ikusiko duzu gure Betijaik, ez dirudien sendalari trebe honek, sendabidean jarrita, zerorrek uste duzun baino ere azkarrago eta zoliago nola izango zaren. Horra hor berori,

or berori, uste dedanez, *Pēlo Jōsepe* oyukatzen.

—¿Sartuko naiz ala ez?

—Sar, sar ta ordu onean ala ere.

—Don Adrian de Leaburu ¿onontzaldi? ¿Gazteiz-aldetik nolako berriak dakarzkizu?

—Tsarrak, Aginaga: kili-kolo joan ta ezerori bai-erori etorri.

Adrianek gero, neronek lagun egiten niola, zearo edatsi zizkion bere goraberak.

—Iriondo jauna: zuk, gaizo orrek, bi gizon bear dituzu, osaro sendatzeko: sendalaria ta bitartekoa; bigarren au lenengoa baino bearrago. Nere itz auek aditzean arroa naizela esan badezazu, neri ajolarik ez. Neronengan, bat baizik enaizelarik, neronengan izango dituzu bi gizon oriek. Sendalari, nolako edo alako, Madrilen egin ninduten. Bitarteko, altsu naiz erkin, atzeak esango du zer naizen. Zure eritasunik andiena, zure minik sakonena ilobamina da. Iloba biaretzietan Leaburura, an izateko, baletor, zu berealaše leneratu, berealaše sendatuko zinake. Au nere anai, Donostiako sendalari ospetsu, zuk ere ezagutzen dezun hura, arteratuezkero, gure don Juan Josek emango didan Jereza barruratuko dedan bezelaše...

—*Intelligenti pauca*. Jošepa, Jošepa: ekar-

uste dudanez, *Pello Joxepe* oihukatzen.

—Sartuko naiz ala ez?

—Sar, sar eta ordu onean hala ere.

—Don Adrian de Leaburu, honantzaldi? Gasteiz aldetik nolako berriak dakartzazu?

—Txarrak, Aginaga: kili-kolo joan eta ez-erori bai-erori etorri.

Adrianek gero, neronek lagun egiten niola, zeharo erasi zizkion bere gorabeherak.

—Iriondo jauna: zuk, gaixo horrek, bi gizon behar dituzu, osoro sendatzeko: sendalaria eta bitartekoa; bigarren hau lehenengoa baino beharrago. Nire hitz hauek aditzean harroa naizela esan badezazu, niri axolarik ez. Neronengan, bat baizik ez naizelarik, neronengan izango dituzu bi gizon horiek. Sendalari, nolako edo halako, Madrilen egin ninduten. Bitarteko, ahaltsu nahiz erkin, atzeak esango du zer naizen. Zure eritasunik handiena, zure minik sakonena ilobamina da. Iloba bihar-etzietan Leaburura, han izateko, baletor, zu berehalaxe leheneratu, berehalaxe sendatuko zinateke. Hau nire anaia, Donostiako sendalari ospetsu, zuk ere ezagutzen duzun hura, arteratuz[152] gero, gure don Juan Josek emango didan jereza barruratuko dudan bezalaxe...

—*Intelligenti pauca*. Joxepa, Joxepa: ekar ezazu hona lehengo

[152] Esku hartu.

zazu onera lengo egunean asi genduen bonbil ori.

—Nere anayak, ez anaya detalako bainan, andimandi orien artean, nik baserritar auen artean bezela, zer nai ta aše eskuratzen du. Esan dezatela, nori zor dioten gaur duten maila, Astigarragako kapelau, Ernaniko erretore...

—Eskerrik asko, Aginaga. Nere ta apezpiku jaunaren bitartekotzat eztu Jaunak agintzen elizgizona eztanik. Eskerrik asko berriz ere ta barka.

—Ederki erabakia, lagun zarra. Bi gizon bear baditu, izan zaitez zu bat, Aginaga: sendalari. Bitarteko izatea neri dagokit. Onek, sasi-apaiztzat burua duen onek, eztu kemenik izan Apezpiku jaunari gauzak argi ta garbi erakusteko; gizon andiai nunbait ere gutšitan itz egiten ta gero oilotu egin zaigu. Zuk egin zazu, Betijai, zure *recipe* ori. Nik, neronen aldetik, alegin guztia egingo det, apezpiku jauna zurituz, *accipe* esateko: tori Faidoko apezarentzat Leabururako izapidea (nonbramentua).

San Miguel-aurreguna zan, Leonentzako Parrokutasun berria eskuan ta gure sendalari oyuzalea lagun nuela, Leaburura jo nuen eguna. Beste bat zirudien Adrianek.

egunean hasi genuen bonbila hori.

—Nire anaiak, ez anaia dudalako baina, handi-mandi horien artean, nik baserritar hauen artean bezala, zer nahi eta huraxe eskuratzen du. Esan dezatela, nori zor dioten gaur duten maila, Astigarragako kapilau, Hernaniko erretore...

—Eskerrik asko, Aginaga. Nire eta apezpiku jaunaren bitartekotzat ez du Jaunak agintzen elizgizona ez denik. Eskerrik asko berriz ere eta barka.

—Ederki erabakia, lagun zaharra. Bi gizon behar baditu, izan zaitez zu bat, Aginaga: sendalari. Bitarteko izatea niri dagokit. Honek, sasi-apaiztzat burua duen honek, ez du kemenik izan apezpiku jaunari gauzak argi eta garbi erakusteko; gizon handiei nonbait ere gutxitan hitz egiten eta gero oilotu egin zaigu. Zuk egin ezazu, Betijai, zure *recipe* hori. Nik, neronen aldetik, ahalegin guztia egingo dut, apezpiku jauna zurituz, *accipe* esateko: tori Faidoko apaizarentzat Leabururako izapidea (nonbramentua).

San Migel aurreguna zen, Leonentzako parrokotasun berria eskuan eta gure sendalari oihuzalea lagun nuela, Leaburura jo nuen eguna. Beste bat zirudien Adrianek. Betazpiak irten-irten

Betazpiak irten-irten puzgotuak, masailak sartuak eta zimurtsu; larrua gorri-ubel; mintzura (boza) zintzarri pitzatu baten otsa bezelako motela. Jateko beti nakar, gogorik gabe; egarria il ezina. Neri, berri-papertsoa irakurri zuenean, «Juan Jose, esan zidan: eskerrak bear bezela erakusteko ere eztet astirik izango. Goitik, gorakoa baldin banaiz, goitik erakutsiko dizkizut.

—¡Gora diozu ta irurogei urte aurten izan!

—Ez, Juan Jose. Igaz berrogei ta emeretzi, aurten irurogei ta amalau gutsienez. Izateko nituen-urteak mordo batean erori zaizkit; eta nik orien astuntasuna jasotzeko indarrik ez... indarrik ez nik. Nereak egin duela. Zuk ere badakutsu, begi busti oriek ezagun dute.

—Eguraldi bero sapatan, aldapa gora, azkazalak ere izerdi patsetan izan oi dituguta...

Zerbait esan bear, nere zauzkada zurikatzeko, ta orise esan nion.

Aginagak, ota erreari kea bezela, gezurra parra-parra zeriola, «Leon agertzeaz batean asiko dira zure masailak, Don Adrian, arrautza-perretsikoak bezelase gorritzen, esan zion. Amabost egun barru aldako* usoak iltzera, doi-doi bada ere, joan al izango zera. ¿Ezetz? Buru ori etzatzu, gizon, ezker-eskubi erabili. Udaberriz, gaur lasai

puzgotuak[153], masailak sartuak eta zimurtsu; larrua gorri-ubel; mintzura (boza) zintzarri pitzatu baten hotsa bezalako motela. Jateko beti nakar, gogorik gabe; egarria hil ezina. Niri, berri-papertxoa irakurri zuenean, «Juan Jose, esan zidan: eskerrak behar bezala erakusteko ere ez dut astirik izango. Goitik, gorakoa baldin banaiz, goitik erakutsiko dizkizut».

—Gora diozu eta hirurogei urte aurten izan!

—Ez, Juan Jose. Iaz berrogeita hemeretzi, aurten hirurogeita hamalau gutxienez. Izateko nituen urteak mordo batean erori zaizkit; eta nik horien astuntasuna jasotzeko indarrik ez… indarrik ez nik. Nireak egin duela. Zuk ere badakuzasu, begi busti horiek ezagun dute.


—Eguraldi bero sapatan, aldapa gora, azkazalak ere izerdi patsetan izan ohi ditugu eta...

Zerbait esan behar, nire zauzkada zurikatzeko, eta horixe esan nion.

Aginagak, ote erreari kea bezala, gezurra barra-barra zeriola, «Leon agertzeaz batean hasiko dira zure masailak, don Adrian, arrautza-perretxikoak bezalaxe gorritzen, esan zion. Hamabost egun barru aldako usoak hiltzera, doi-doi bada ere, joan ahal izango zara. Ezetz? Buru hori ez ezazu, gizon, ezker-eskuin erabi-

(153) Puztuta; handituta.

dezun sotana ori, andikien altzotsakurrak larrua bezelase, bete-bete-betea, lertzeko zorian izango dezu. ¿Ezetz berriz ere? Bein ere eztizut elizjardunik (sermoirik) entzun; baina, orretarako erarik banu, zuk goitik



li. Udaberriz, gaur lasai duzun sotana hori, handikien altzo-txakurrak larrua bezalaxe, bete-bete-betea, lehertzeko zorian izango duzu. Ezetz berriz ere? Behin ere ez dizut elizjardunik (sermoirik) entzun; baina, horretarako erarik banu, zuk goitik azalduriko



azalduriko sineskayak belarriratuta, enuke burua kordokan* erabiliko.

—Aginaga, erantzun zion eri gaizoak, zure gogokizun* (intentzio) ori eskergarria da; baina sendapiderik ikasi ezarren, nerau ere maiz ibili izan naiz eri isuri maskal-artean eta bestera uste izanarren, askotan agertu izan ditut olako aurresan pozezkoak. ¿Eta zer? Eriotzea, guri parre eginez, bere orduan jetsi oi izan da.

Orduan Betijai, ate-aldera joanta, sukaldekoari deyez asi zan:

—Isabel, Iiiiisabel.

—Jauna.

—Zatoz onera. Barute-aurrean (garizuma-aurrean) Don Juan Jose ta biok emen izango gera, zauta batzuk egin ta Leaburuko apaiz sendatuaren balbe (eriotze) zarrari parre gozoak egiteko asmoz. ¿Artuko gaituzu?

—Bai ta pozik ala ere.

Bazkaritan Adrianek salda-pitin bat besterik etzuen urdaileratu. Nere bide-laguna, amabost egun aurrerago nere etsean bezela, asi zan oyuki (kanta) parregarriak ematen. Ona bat:

Atso zarraren atorra zarra
berea balu ezer ez;

sinesgaiak belarriratuta, ez nuke burua kordokan erabiliko.

—Aginaga, erantzun zion eri gaixoak, zure gogokizun (intentzio) hori eskergarria da; baina sendabiderik ikasi ez arren, nerau ere maiz ibili izan naiz eri isuri maskal artean eta bestera uste izan arren, askotan agertu izan ditut holako aurresan(154) pozezkoak. Eta zer? Heriotza, guri barre eginez, bere orduan jaitsi ohi izan da.

Orduan Betijai, ate aldera joanda, sukaldekoari deiez hasi zen:

—Isabel, Iiiiisabel.

—Jauna.

—Zatoz hona. Barute aurrean (garizuma aurrean) don Juan Jose eta biok hemen izango gara, zauta batzuk egin eta Leaburuko apaiz sendatuaren balbe (heriotza) zaharrari barre gozoak egiteko asmoz. Hartuko gaituzu?

—Bai eta pozik hala ere.

Bazkaritan Adrianek salda pitin bat besterik ez zuen urdaileratu. Nire bidelaguna, hamabost egun aurrerago nire etxean bezala, hasi zen oihuki (kanta) barregarriak ematen. Hona bat:

Atso zaharraren atorra zaharra
berea balu ezer ez;

(154) Iragarpena.

kedarra baino beltzagoa du,
garbiketako alperrez.
Tsīrurin brinkulin brinkulin brinkulin
tsīrurin brinkulin atsoa:
su-bazterrean dagoenean
eztauka mozkorra gaiztoa.
Gure atsoak gau ta egun
eztu besterik zer egin,
arkakusoak arrapatuta
ipur... ari atz egin.
Tsīrurin brinkulin brinkulin brinkulin
tsīrurin brinkulin atsoa:
su-bazterrean dagoenean
eztauka mozkorra gaiztoa.

Oyulariak etzuen oso amaitu al izan. Urmindunari edozein janari ur sortzen zayonez, Adrian gaisoari esaki naiz oyuki parregarrienak negargarri biurtzen zitzaizkion; eta neronek, zinu bat eginez, Aginagari atso zarraren oyukitso au eten-arazi nion.

Isabelek, noizean beinka sukaldetik azaldatuz, esku zabalez gonak gogor jota, ziraustan* :

—Don Juan Jose ¿zer uste du? Onetarako izan bear al zuten gure Leonen organu ta ingeles-ikasteak? ¿Arabako arkaitzai belarriak gozatzeko? Izan naiz ni an, gure apaizak kemenik izan ezpadu ere; izan naiz an ¡¡bai amaika negar bizi egin ere!! Eznerik ere etzuen gizagaisoak gosaritako. Aragi ta arrai-

kedarra baino beltzagoa du,
garbiketako alperrez.
Txirurin brinkulin brinkulin brinkulin
txirurin brinkulin atsoa:
su-bazterrean dagoenean
ez dauka mozkorra gaiztoa.
Gure atsoak gau eta egun
ez du besterik zer egin,
arkakusoak harrapatuta
ipur... ari hatz egin.
Txirurin brinkulin brinkulin brinkulin
txirurin brinkulin atsoa:
su-bazterrean dagoenean
ez dauka mozkorra gaiztoa.

Oihulariak ez zuen oso amaitu ahal izan. Urmindunari[155] edozein janari ur sortzen zaionez, Adrian gaixoari esanki nahiz oihuki barregarrienak negargarri bihurtzen zitzaizkion; eta neronek, zeinu bat eginez, Aginagari atso zaharraren oihukitxo hau etenarazi nion.

Isabelek, noizean behinka sukaldetik azaldatuz[156], esku zabalez gonak gogor jota, ziraustan:

—Don Juan Jose zer uste du? Honetarako izan behar al zuten gure Leonen organo eta ingeles-ikasteek? Arabako harkaitzei belarriak gozatzeko? Izan naiz ni han, bai hamaika negar bizi egin ere!! Esnerik ere ez zuen gizagaixoak gosaritako. Haragi eta arrai-

(155) Hidropesiaduna.
(156) Agertu.

na guk emendik bidali bear. ¡Faido, Faido! Auše du baserri purtzilak izena. ¡Leon, Leon zorigabea!

—Zaude isilik, Isabel, iganderako etšea joko du-ta.

Nere ustez iloba-minak baino lengusinaren antzi ta zinkurinak* geyago makaldu izango dute gure gizona. Berau errebelarketara (tabako-bila) govean zan artean, atšeterrak medikuak *diabetes florida* zuela esan zidan ta laguntzat *defuncionamiento cardíaco;* itz garratz oroikarri auek gaineratuz:

—Eri au, eri bikoitz edo irukoitz au sendaezina ezpada, sendagaitza bada beintzat. Bizia luzatzeko, alaitasun andia ta jolasaldi etentzakea ta atseden osoa *(mucha alegría, distracción ininterrumpida y completo reposo)* bear izango ditu, Tolosako sendalariak ederki erabaki duen bezela.

Auetšek dira Medel, nik, estalki gabe, eman al dizkitzudan berriak. Zatoz, bada, len-bai-len, lengusu maitagarri, errukarri, isuri onen bizia, alaituz, luzatzera. Leonek eta zuk ezin dezakezutena eztio lurrekok egin al izango.

na guk hemendik bidali behar. Faido, Faido! Hauxe du baserri purtzilak izena. Leon, Leon zorigabea!

—Zaude isilik, Isabel, iganderako etxea joko du eta.

Nire ustez ilobaminak baino lehengusinaren antsia eta zinkurinek gehiago makaldu izango dute gure gizona. Berau errebelarketara (tabako bila) goian zen artean, atxeterrak medikuak *diabetes florida* zuela esan zidan eta laguntzat *defuncionamiento cardíaco*; hitz garratz oroigarri hauek gaineratuz:

—Eri hau, eri bikoitz edo hirukoitz hau sendaezina ez bada, sendagaitza bada behintzat. Bizia luzatzeko, alaitasun handia eta jolasaldi etentzakea eta atseden osoa (*mucha alegría, distracción ininterrumpida y completo reposo*) behar izango ditu, Tolosako sendalariak ederki erabaki duen bezala.

Hauexek dira Medel, nik, estalki gabe, eman ahal dizkizudan berriak. Zatoz, bada, lehenbailehen, lehengusu maitagarri, errukarri, isuri honen bizia, alaituz, luzatzera. Leonek eta zuk ezin dezakezuena ez dio lurrekok egin ahal izango.

AMARGARREN ESKUTITZA

1901.ko Mayatzaren 9.an

Belauntzatik Azpeitiko bereterburu jaunari beraren adiskide begirunetsu
Agustin Basaldek

Ezkutitz au nerea da ta ezta nerea: nerea, gaiz; inorena, apainkiz, itzez. Onelako eskulanik bein ere eztet nik euskeraz burutu. Ibili nintzan-ikasguetan* etzidaten euskeraz deusik irakatsi ta eztet inoiz ardurarik artu, neronez, nere kabuz ikasteko. Zilegi etzala, etzala eder egiten zu bezelako euskalzale andiari erdal-ezkutitzik bidaltzea, ta norbaiti idasterazi* diot. Norbait onek eztu nai, ordea, beronen izena eman. Lendik emengo berririk ezpadakizu, arrituko zera, jaun Arizpe, au irakurrita.

Gure adiskide gazte, Leaburuko arimazain, Leon Olazarreta, oso abaildua dago,

HAMARGARREN ESKUTITZA

1901.eko maiatzaren 9.ean

Belauntzatik Azpeitiko bereterburu jaunari beraren adiskide begirunetsu Agustin Basaldek

Eskutitz hau nirea da eta ez da nirea: nirea, gaiz; inorena, apainkiz, hitzez. Honelako eskulanik behin ere ez dut nik euskaraz burutu. Ibili nintzen ikasguetan ez zidaten euskaraz deusik irakatsi eta ez dut inoiz ardurarik hartu, neronez, nire kabuz ikasteko. Zilegi ez zela, ez zela eder egiten zu bezalako euskaltzale handiari erdal eskutitzik bidaltzea, eta norbaiti idatzarazi diot. Norbait honek ez du nahi, ordea, beronen izena eman. Lehendik hemengo berririk ez badakizu, harrituko zara, jaun Arizpe, hau irakurrita.

Gure adiskide gazte, Leaburuko arimazain, Leon Olazarreta, oso abaildua dago, latzak eta beltzak ikusten bizi da errukarri

latzak eta beltzak ikusten bizi da errukarriau. Emen zinan zu, beste ogei ta amar bereterrenartean, gure adiskide on, biotz andiko elizgizon Iriondo il zanean, zerorrek oyukatu ere egin zenduen elizkarietako Meza-ta. ¿Oroitzen alzera, Leon, osabaren eriotzea biotz-barruragino sartua zuelarik, zein beluri ta zurbil, zein biozmindun ta atsekabetsu egun oso artan gekusen? Orduko atsekabea egun auetakoen ondoan naigabetšo arin zilaka* utsa baizik etzan. ¿Medel, beronen aita Medel, il otezayo? Il balitzakio, eluke semea izango, duen baino errukarriago, atsekabetuago, abailduago ta gogoz ilago.

Belauntza ta Leaburu, beti alkarri begira bizi izateko, Jaunak sortu zituen, mugakide dira; ta bi uriško auetako, bi erritšo auen apaizok, nere ezaupidean beintzat, etentzaka alkar ongi artzekoak izan gera, adiskide onak. Elurra lodi, euria adarrez, ostotsak (trumoyak) belarriak gortzeko zorian, naiz beste onelako ekaitz izugarriren bat ezpada, ni Leaburuko bereterrarengana, naiz bera Belauntzako apaiztegira, astean bi aldiz agertu izan gera. Ala ere maizago egin izan det nik joan-etorritšo au, Adrian il-aurretšotik, Medel Ameriketatik erriratu zanetik onera. ¡Atsegina zan Leaburuko elizaldera

hau. Hemen zinen zu, beste hogeita hamar bereterren artean, gure adiskide on, bihotz handiko elizgizon Iriondo hil zenean, zerorrek oihukatu ere egin zenuen elizkarietako meza eta. Oroitzen al zara, Leon, osabaren heriotza bihotz-barruraino sartua zuelarik, zein beluri(157) eta zurbil, zein bihozmindun eta atsekabetsu egun oso hartan genekusan? Orduko atsekabea egun hauetakoen ondoan nahigabetxo arin zilaka hutsa baizik ez zen. Medel, beronen aita Medel, hil ote zaio? Hil balitzaio, ez luke semea izango, duen baino errukarriago, atsekabetuago, abailduago eta gogoz hilago.

Belauntza eta Leaburu, beti elkarri begira bizi izateko, Jaunak sortu zituen, mugakide dira; eta bi hirixko hauetako, bi herritxo hauen apaizek, nire ezaupidean behintzat, etentzaka elkar ongi hartzekoak izan gara, adiskide onak. Elurra lodi, euria adarrez, ostotsak (trumoiak) belarriak gortzeko zorian, nahiz beste honelako ekaitz izugarriren bat ez bada, ni Leaburuko bereterrarengana, nahiz bera Belauntzako apaiztegira, astean bi aldiz agertu izan gara. Hala ere maizago egin izan dut nik joan-etorritxo hau, Adrian hil aurretxotik, Medel Ameriketatik herriratu zenetik hona. Atsegina zen Leaburuko elizaldera joatea! Leon, neskatxak

(157) Zurbila.

joatea! Leon, neskatsak andre irakasleari utzita, mutikoai goiz ta arratsalde euskera ta erderazko ikaspidea ematen, musika ere bai gainera. Medel, semeari eskuarte ugariz ta lanez lagunduta, ingeles ere zertsobait aurrai irakasten zietela; igande askotan meza alai eztitsuak oyukatzen zituela. ¡Atsegina zan, zinez, Leaburuko elizatso tsukunean sartzea! Baina norbait (diotenez, Isabel, Leonen izeba Isabel) asi omenzan Medelengan belztasunen bat nabaritzen; ta, isil-misilka lenengo, tsutsumutsu gero, zurru-murru geroago ta esan-mesanez azkenean, nunnai, Leabururen lau egaletako sukalde guztietan zabaldu zan: Apaizaren aita etzala kristau ona, Pazkoazkoa etzuela egin; Elizan, oyutegira bai; opalmaira, ordea, etzala beintso ere urbildu.

Udaberrian eztira udare ta sagarrondoak lorez zuritzen Leon igande-arratsalde batez agertu zitzaidan baino zuriago. Obiren batetik arima-bila jeikitako ilotza zirudien.

—¿Zer dezu, Leon?

—Ause ta ause. (Gaisoak barrua zabal-zabal egin zidan.) ¿Zer da, don Agustin, nik egin bear dedana?

Etsarian (salan) zoko batetik bestera, burua makur ta gogoketan nuela, arontz-onontz batzuk eginta, ause erantzun nion:

andre irakasleari utzita, mutikoei goiz eta arratsalde euskara eta erdarazko ikasbidea ematen, musika ere bai gainera. Medel, semeari eskuarte ugariz eta lanez lagunduta, ingeles ere zertxobait haurrei irakasten zietela; igande askotan meza alai eztitsuak oihukatzen zituela. Atsegina zen, zinez, Leaburuko elizatxo txukunean sartzea! Baina norbait (diotenez, Isabel, Leonen izeba Isabel) hasi omen zen Medelengan belztasunen bat nabaritzen; eta, isil-misilka lehenengo, txutxumutxu gero, zurrumurru geroago eta esamesanez azkenean, non-nahi, Leabururen lau hegaletako sukalde guztietan zabaldu zen: Apaizaren aita ez zela kristau ona, Pazkoazkoa ez zuela egin; elizan, oihutegira[158] bai; opalmahaira, ordea, ez zela behintxo ere hurbildu.

Udaberrian ez dira udare eta sagarrondoak lorez zuritzen Leon igande arratsalde batez agertu zitzaidan baino zuriago. Hobiren batetik arima bila jaikitako hilotza zirudien.

—Zer duzu, Leon?

—Hauxe eta hauxe. (Gaixoak barrua zabal-zabal egin zidan). Zer da, don Agustin, nik egin behar dudana?

Etxarian (salan) zoko batetik bestera, burua makur eta gogoetan nuela, harantz-honantz batzuk eginda, hauxe erantzun nion:

[158] Korua.

—Leon: Job gurena Jainkoak eskupean artu zuen, gero len baino ere gorago jartzeko. Zu ere Jainko maiteak eskupean artu zaitu. Jobek bezela esan bear dezu: onak, atseginak, Jaunaren eskutik artu baditugu ¿zergatik eztitugu gaitzak eta naigabeak artu bear? Zuk orain burubide bat nai dezu. Ona nik eman dezakedana. Gure berrinarki (periodiku) maite *Siglo Futuro*-ren orrietan maiz irakurtzen degun esakera urrezko *Bonum ex integra causa*-z ¿oroitzen alzera? Beraz oso-osoak izan bear degu gizon orok: kristauak, kristautasunean; bereter geranok, beretergoan. Zure aita, esku-zabala ta masala (prestua) izanez gainera, ekandu* onduna dala diote; baina elizaz erdikina da, akatzak ditu, ezta osoa. Akatz oriek dituenartean, osotu eztitenartean, beste eliztarrentzat alkeisun edo gaizpide (escándalo) dalako, ezta zilegi *(non licet)* zurekin emen bizi izatea. Aita, orrelakoa dezunartean, beste nunbait, atzerririk urrutirenean bizi bada ere, eztezu zilegi *(non licet tibi)* Leaburuko parroku izatea. Protestante baten semea, aingerukia izanarren, aita nor dan dakitenen ustez, ezin izan diteke *integer,* osoa. Kalte andia, kalte izugarria egingo luke eliztarren artean. Nere otoitzak lagun egingo

—Leon: Job gurena Jainkoak eskupean hartu zuen, gero lehen baino ere gorago jartzeko. Zu ere Jainko maiteak eskupean hartu zaitu. Jobek bezala esan behar duzu: onak, atseginak, Jaunaren eskutik hartu baditugu zergatik ez ditugu gaitzak eta nahigabeak hartu behar? Zuk orain burubide bat nahi duzu. Hona nik eman dezakedana. Gure berrinarki (periodiko) maite *Siglo Futuro*ren orrietan maiz irakurtzen dugun esaera urrezko *Bonum ex integra causa*z oroitzen al zara?

Beraz oso-osoak izan behar dugu gizon orok: kristauak, kristautasunean; bereter garenok, beretergoan. Zure aita, eskuzabala eta mazala (prestua) izanez gainera, ekandu onduna dela diote; baina elizaz erdikina da, akatsak ditu, ez da osoa. Akats horiek dituen artean, osotu ez dadin artean, beste eliztarrentzat ahalkeizun edo gaizpide (escándalo) delako, ez da zilegi (*non licet*) zurekin hemen bizi izatea. Aita, horrelakoa duzun artean, beste nonbait, atzerririk urrutirenean bizi bada ere, ez duzu zilegi (*non licet tibi*) Leaburuko parroko izatea. Protestante baten semea, aingerukia izan arren, aita nor den dakitenen ustez, ezin izan daiteke *integer*, osoa. Kalte handia, kalte izugarria egingo luke eliztarren artean. Nire otoitzek lagun egingo dizute. Hauxe da nire burubidea.

dizute. Auše da nere burubidea. Badituzu, alabaina, Euskalerrian ni baino bereter jakintsuagoak, ugari. Zoaz oriengana ere, baldin *Unión Católica* orrezaz nasiak, *mestizos* ezpadira; ta uste det oriek ere nere au bezelako burubidea emango dizutela.

Geroztik or ibili da Leon errukarria jo orrera ta jo onera. Neri etzait luzaro agertu. Esan didatenez, euskera ta latinezko esakune zar batena gertatu zayo: *tot capita quot sententiæ* «buru bezanbat aburu» ediro ditu. Batak, alde egiteko; besteak, gelditzeko; onelakok, au; alakok, bestea; Urliak*, Aitarekin Californiaratzeko; Berendiak, komenturen batean sartzea litzakeala egokiena; Zandiak (beltzen batek au, nere ustez), orainarte bezela, lengo biziari darraikiola.

Atzo zortzi jo zuen berriz neregana. Bere ezpainetatik entzun nituen, bestelan nik jakindako joan-etorri ta eritzi-uste auen berriak. Tolosako bereterburuak artarako bultz eginta, aurreko gabean agertu omenzan gure adiskide gazte au aitarengana.

—Aita, esan omenzion apal-apalik: erriak berori sinestegabetzat du. Ni seme nau, parroku ere bai. Aita dedanez, barka berorrengana agertzea; elizburua naizen aldetik...»

Badituzu, alabaina, Euskal Herrian ni baino bereter jakintsuagoak, ugari. Zoaz horiengana ere, baldin *Unión Católica* horrezaz nahasiak, *mestizos* ez badira; eta uste dut horiek ere nire hau bezalako burubidea emango dizutela.

Geroztik hor ibili da Leon errukarria jo horra eta jo hona. Niri ez zait luzaro agertu. Esan didatenez, euskara eta latinezko esakune zahar batena gertatu zaio: *tot capita quot sententiae* «buru bezainbat aburu» ediro ditu. Batak, alde egiteko; besteak, gelditzeko; honelakok, hau; halakok, bestea; Urliak, aitarekin Kaliforniaratzeko; Berendiak, komenturen batean sartzea litzatekeela egokiena; Sandiak (beltzen batek hau, nire ustez), orain arte bezala, lehengo biziari darraikiola.

Atzo zortzi jo zuen berriz niregana. Bere ezpainetatik entzun nituen, bestelan nik jakindako joan-etorri eta iritzi-uste hauen berriak. Tolosako bereterburuak hartarako bultza eginda, aurreko gauean agertu omen zen gure adiskide gazte hau aitarengana.

—Aita, esan omen zion apal-apalik: «herriak berori sinestegabetzat du. Ni seme nau, parroko ere bai. Aita dudanez, barka berorrengana agertzea; elizburua naizen aldetik...» negarrez ez

negarrez etzuen, ezomenzuen ¡gaizoak! jarraiki al izan.

—Seme, seme maite, ezagunago ta maiteago autan seme Leon, erantzun omenzion Medelek: ni emezortzi urte aunditan, elizarabidea galduta ibili nauk; gainera badakik nolako erlijioa zuen nere bigarren emazteak. Seme, etsetik eraman nuen erlijioa, arroinak (zimenduak) utsak zituelako edo, galdu nian beintzat; eztiat orain inolako sinesterik. Alabaina, ez bakarrik semez, baita elizburu autalako ere, egingo nikek nai dekana, urbilduko nindukek opalmai (aldare) ortara; enauk, ordea, inoiz *komediante* izan; osoosoa nauk (1); sineste gabe eztiat orrelakorik egin nai. Ostia orretan Jaungoikoa baldin bada ¿irri egitera bidali nai alnauk?

Semeak, len baino ere negar saminagoak isurita, etzion ezer erantzun al izan.

Urrengo goizean emen zan ta arren-baiarren berak (kemenik eztuelako ta lotsa gorritan bizi dalako) ezin duela ta neronek zuri ezkutitz bat egiteko otoitz egin zidan; eta beraren izenean ta bere osaba Adrian onari zinion maitasunez, zuri eskatzeko: Leaburura len-bai-len etorri zaitezela.

(1) An egon banintz, *distingo* esango nion Medel-i; baina... aurrera.

zuen, ez omen zuen gaixoak! jarraiki ahal izan.

—Seme, seme maite, ezagunago eta maiteago haudan seme Leon, erantzun omen zion Medelek: ni hamazortzi urte handitan, elizara bidea galduta ibili nauk; gainera badakik nolako erlijioa zuen nire bigarren emazteak. Seme, etxetik eraman nuen erlijioa, harroinak (zimenduak) hutsak zituelako edo, galdu nian behintzat; ez diat orain inolako sinesterik. Alabaina, ez bakarrik seme, baita elizburu haudalako ere, egingo nikek nahi duana, hurbilduko nindukek opalmahai (aldare) hortara; ez nauk, ordea, inoiz *komediante* izan; oso-osoa nauk(159); sineste gabe ez diat horrelakorik egin nahi. Ostia horretan Jaungoikoa baldin bada, irri egitera bidali nahi al nauk?

Semeak, lehen baino ere negar saminagoak isurita, ez zion ezer erantzun ahal izan.

Hurrengo goizean hemen zen eta arren bai arren berak (kemenik ez duelako eta lotsa gorritan bizi delako) ezin duela eta neronek zuri eskutitz bat egiteko otoitz egin zidan; eta beraren izenean eta bere osaba Adrian onari zenion maitasunez, zuri eskatzeko: Leaburura lehenbailehen etor zaitezela.

(159) Han egon banintz, *distingo* esango nion Medeli; baina... aurrera..

Beste iztsō bat edo bi, auek neronengandikoak. Medelen osotasuna ta gurea, Jaunari eskerrak, eztira berdinak. Gurea bezelakoa izango zan orrena ere, irakurri izango zituen inarki (paper) itsusi galgarrien ordez, emen ditugun Jainkozkoak irakurri balitu. Onera agertu zaizenean zurekin mintzatu nai nuke neronek ere.

Beste hiztxo bat edo bi, hauek neronengandikoak. Medelen osotasuna eta gurea, Jaunari eskerrak, ez dira berdinak. Gurea bezalakoa izango zen horrena ere, irakurri izango zituen inarki (paper) itsusi galgarrien ordez, hemen ditugun Jainkozkoak irakurri balitu. Hona agertu zaitezenean zurekin mintzatu nahi nuke neronek ere.

AMAIKAGARREN EZKUTITZA

Aita Mendiri-ren eraskinak.

Nere Aita probintzialaren aginduz idatsi ditut oar auek. Oarlaria: a. Justo Mendiri. O. F. M.

I

Berak ni, autsa naizen frailetšo au, A. Batiz-en misiolaguntzat Leaburura bidali ninduen. 1901-garren urteko garagarrilaren 13^{an}, San Antonio arratsaldean, eldu ginan.

Tolosara bideko Egi deritzayon mendiskatšoan erri guztia gure zain zegoen: zortzi apaiz pelizez jantziak (beren artean Azpeitiko bereterburua ta Belauntzako arimazaina) Leaburuko parroku gaztea, kapadun, erdian zutela, agertu ziran; bi ez besteak gazte ilebeltzak. Alkatea ta bost zinegotziak (kontzejalak) elizgizonen ondoan ziran. Medel zala ta berrogei ta amar-amabi urtedun gizon

HAMAIKAGARREN ESKUTITZA

Aita Mendiriren eranskinak

Nire aita probintzialaren aginduz idatzi ditut ohar hauek. Oharlaria: a. Justo Mendiri. O. F. M.

I

Berak ni, hautsa naizen fraidetxo hau, A. Batizen misio laguntzat Leaburura bidali ninduen. 1901. urteko garagarrilaren 13an, San Antonio arratsaldean, heldu ginen.

Tolosara bideko Egi deritzaion mendixkatxoan herri guztia gure zain zegoen: zortzi apaiz pelizez[160] jantziak (beren artean Azpeitiko bereterburua eta Belauntzako arimazaina) Leaburuko parroko gaztea, kapadun, erdian zutela, agertu ziren; bi ez besteak gazte ile beltzak. Alkatea eta bost zinegotziak (kontzejalak) elizgizonen ondoan ziren. Medel zela eta berrogeita hamabi urtedun

[160] Zamar ileduna.

azkar, masal, beltzez jantzi bat an zan, erritar guztiak tinko-tinko begiratzen ziotela. Izerdia kentzeko ere asti gabe, parrokuaren ezker-eskubi bi misiolariok jarri ginuzten. Geroŝeago bi apaiz oyulari aurretik zirala, erri guztia, Elizarontz igituta, oyuka asi zan:

Atoz pekataria,
atoz Eleizara,
Jaungoikoaren itza
gogoz aditzera.

Bi apaiz aurreratuak, bikondean *(a duo)* itz auek oyukatu zituzten:

Pekatuen neurria
bete eztezazun
aditu Jaungoikoak
zer esaten dizun:
Ez egon pekatuan,
ez egon luzaro,
damu izan eztezazun
alperrikan gero.

ERRIAK: *Atoz pekataria...*

BIK: *Pekatuan oera*
etzitzen bazera,
benturaz infernuan
esnatuko zera.
Urterik asko Jaunak
zuri eman dizkitzu

gizon azkar, masal, beltzez jantzi bat han zen, herritar guztiak tinko-tinko begiratzen ziotela. Izerdia kentzeko ere asti gabe, parrokoaren ezker-eskuin bi misiolariok jarri gintuzten. Geroxeago bi apaiz oihulari aurretik zirela, herri guztia, elizarantz higituta, oihuka hasi zen:

Atoz pekataria,
atoz elizara,
Jaungoikoaren hitza
gogoz aditzera.

Bi apaiz aurreratuek, bikondean (*a duo*) hitz hauek oihukatu zituzten:

Bekatuen neurria
bete ez dezazun
aditu Jaungoikoak
zer esaten dizun:
Ez egon bekatuan,
ez egon luzaro,
damu izan ez dezazun
alferrikan gero.

HERRIAK: *Atoz pekataria…*

BIK: *Bekatuan ohera*
etziten bazara,
benturaz infernuan
esnatuko zara.
Urterik asko jaunak
zuri eman dizkizu

eta danak (sic) pekatuz*
zuk bete dituzu.

ERRIAK BERRIZ: *Atoz pekataria...*

Elikonde (koro) au irugarrenez eman zutenean, len entzun gabeko mintzura lodi eder bat nasi zan lengoen artean. Belauntzako arimazainak Aita Batizi agopean «Medel oyuka» esan zion.

Elizaratu ginaneko, nere lankideak irakastegitik itzaldi laburtšo bat egin zuen, misioaldia zer ta zertarako dan agertzeko.

Apalaurrean Arizpe bereterrak eta aita San Franciskoaren bi semeok autu bat izan genduen.

—Arizpe, esan zion, nere lagunak: Jainkoaren doya oparo izan bekigu sail gaitz onetan. ¿Zer egin dezakegu Medelen biotz gogortu ori bigundu ta gureganatzeko, gure bitartez Jaunak berarendu dezan?

—Aita Batiz: biotza Medelek biguña du, baina otza; burua du eri, burua; ta iluntasuna dala uste det eri orren azia ta sustraya: iluntasun lodia, urte askotakoa, errekondoetan sortzen dan lañoa bezelako narratsa. Sor bekio buruan zeruko argitasuna, Jaunaren ostargi ederra; ta eguzkiak bere erroz, bere ostrontzez egiten duena egingo dio Medeli

eta danak (sic) bekatuz
zuk bete dituzu.

HERRIAK BERRIZ: *Atoz pekataria...*

Elikonde (koro) hau hirugarrenez eman zutenean, lehen entzun gabeko mintzura lodi eder bat nahasi zen lehengoen artean. Belauntzako arimazainak aita Batizi ahopean «Medel oihuka» esan zion.

Elizaratu gineneko, nire lankideak irakastegitik hitzaldi laburtxo bat egin zuen, misioaldia zer eta zertarako den agertzeko.

Afalaurrean Arizpe bereterrak eta aita San Frantziskoren bi semeok autu bat izan genuen.

—Arizpe, esan zion, nire lagunak: Jainkoaren dohaina oparo izan bekigu sail gaitz honetan. Zer egin dezakegu Medelen bihotz gogortu hori bigundu eta gureganatzeko, gure bitartez Jaunak berarendu dezan?

—Aita Batiz: bihotza Medelek biguna du, baina hotza; burua du eri, burua; eta iluntasuna dela uste dut eri horren hazia eta sustraia: iluntasun lodia, urte askotakoa, errekondoetan sortzen den lainoa bezalako narrasa. Sor bekio buruan zeruko argitasuna, Jaunaren ostargi ederra; eta eguzkiak bere erroz ostrontzez[161] egiten

[161] Argi-izpia.

goitiko beste erro, guar, ostrontz orrek: argitu ta berotu; argitu, burua; berotu, biotza.

—¿Eztezu uste, bereterburu, orretarako egoki izan daitekeala guk geron autuetan gizon orren biotza ortzargitasunez *(por simpatía)* irabaztea?

—Ederki esana.

—Nik, badakizu, Arizpe, nor naizen-ta, edatsiko nizkioke ipuin ta izkirimiritan ¡¡Jainkoa lagun!!, oraintše asi ta etzi gaberarte, isildu gabe, ari izango nintzake tšir-tšor, tšir-tšor: edatsi ta edatsi.

—Obe izango dala uste det, lagun zar, berari itz eragin ta gu gogoz adi egotea. Californian izan duen bizikera pozik, lerdea dariola, jakineraziko digu. Gainera musikazalea da ta baritono-mintzura du, *sochantre* zar batek bezelatsukoa. Ziriketatšo ba egin ezkero, bereala asiko zaigu esaten Prado ta Marianico Garcia ta Cosme de Benitorenak dirala mezarik eztitsuenak. Ezetzik etzayo esan bear. ¡Alegia, ântzi etzaidanean! Zu, A. Batiz, *karlista* itsua sera; Belauntzako parrokua, *integrista* amurratua. Jainkoarren eskatzen dizut, egun auetan beintzat, utzi ditzatzutela alde batean, batark eta besteorrek, utzi politikazko purtzilkeria oriek.

duena egingo dio Medeli goitiko beste erro, guar[162], ostrontz horrek: argitu eta berotu; argitu, burua; berotu, bihotza.

—Ez duzu uste, bereterburu, horretarako egoki izan daitekeela guk geron autuetan gizon horren bihotza ortzargitasunez (*por simpatía*) irabaztea?

—Ederki esana.

Nik, badakizu, Arizpe, nor naizen eta, erasiko[163] nizkioke ipuin eta izkirimiritan, Jainkoa lagun!!, oraintxe hasi eta etzi gauera arte, isildu gabe, ari izango nintzateke txir-txor, txir-txor: erasi eta erasi.

—Hobe izango dela uste dut, lagun zahar, berari hitz eragin eta gu gogoz adi egotea. Kalifornian izan duen bizikera pozik, lerdea dariola, jakinaraziko digu. Gainera musikazalea da eta baritono-mintzura du, *sochantre* zahar batek bezalatsukoa. Ziriketatxo bat eginez gero, berehala hasiko zaigu esaten Prado eta Marianico Garcia eta Cosme de Benitorenak direla mezarik eztitsuenak. Ezetzik ez zaio esan behar. Alegia, ahantzi ez zaidanean! Zu, A. Batiz, *karlista* itsua zara; Belauntzako parrokoa, *integrista* amorratua. Jainkoarren eskatzen dizut, egun hauetan behintzat, utzi ditzazuela alde batean, batak eta beste horrek, utzi politikazko purtzilkeria horiek.

---

[162] Eguzki-izpia.
[163] OEHk "edatsi"-tik "erasi"-ra igortzen du. Kontatu.


—Arizpe: zerorrek neurtitz berriren batzuk egin omendituzu, misioetarakoak.

—Misioetarakoak ez, misio onetarakoak.

—Ikus ditzagun.

—Entzun izango dituzu arako:

Vous qui pleurez, venez a ce Dieu, car il pleure.
Vous qui souffrez, venez a Lui, car il guérit.
Vous qui tremblez, venez a Lui, car il sourit.
Vous qui passez, venez a Lui, car il demeure. (1)



Vous qui pleu-rez, ve - nez a ce Dieu car il pleure.
Ar-tzain-ak dei ta ar-dia a-ren-gan - dik i - ge-si...

—Itz orrezaz ez, *O salutaris* bezela neronek ere ¡amaika aldiz oyukatu izan det ori!

—Biar goiz ta arratsalde ikasiko aldu Medelek beraren itzulpenerako egindako eresitsō au.

—Ea nola dan.

—Frantzesez, Victor Hugo-ren itz eder oriek musikatuz, Faure-k *Crucifix* eman zion eresiari izena; nik, aipagarri ezpada ere, *Artzain ona*. Jatorrizko itzak, gutsi dira-ta, berriz ta berriz osteratu zituen musikalariak. Nik neretsoak eztitut berrizkatu.

(1) Oyuka eman zituen Arizpe jaunak itz auek.


—Arizpe: zerorrek neurtitz berriren batzuk egin omen dituzu, misioetarakoak.

—Misioetarakoak ez, misio honetarakoak.

—Ikus ditzagun.

Entzun izango dituzu harako:

Vous qui pleurez, venez a ce Dieu, car il pleure.
Vous qui souffrez, venez a Lui, car il guérit.
Vous qui tremblez, venez a Lui, car il sourit.
Vous qui passez, venez a Lui, car il demeure[164].



Vous qui pleu-rez, ve - nez a ce Dieu car il pleure.
Ar-tzain-ak dei ta ar-dia ha-ren-gan - dik i - hesi...

—Hitz horrezaz ez, *O salutaris* bezala neronek ere hamaika aldiz oihukatu izan dut hori!

—Bihar goiz eta arratsalde ikasiko al du Medelek beraren itzulpenerako egindako eresitxo hau.

—Ea nola den.

—Frantsesez, Victor Hugoren hitz eder horiek musikatuz, Faurek *Crucifix* eman zion eresiari izena; nik, aipagarri ez bada ere, *Artzain ona*. Jatorrizko hitzak, gutxi dira eta, berriz eta berriz osteratu zituen musikalariak. Nik niretxoak ez ditut berrizkatu[165].

---

(164) Oihuka eman zituen Arizpe jaunak hitz hauek.
(165) Errepikatu.

Artzainak dei t(a) ardi(a) arengandik igesi,
¿zerk arabil, gaiz(o) ori, galdu ta deslai?
Larrez larre, biotza minez t(a) esiz esi
dabil Jesus ¿t(a) ik ezaldiok entzun nai?

¿Obeki nun Jesusen besoetan baino?
¿Nun or bezain zoritsu, pakez et(a) alai?
Jeiki, jeiki t(a) ator pozik artegiraino,
Artzain-deyari gaur erantzun: «Jauna, bai».

Artzainak dei t(a) ardi gaizo(a) arenganaino
bêka doa lotsa dala, damu, garbai.

Gero atzenean biak, neurtitz gabe, esango dute: *¡O Jesus, argi neri!*

—Medelek ori esatea egoki, ezin egokiago dala uste det. Zuk esaizu, Arizpe: *¡O Jesus, argi oni, oyulari oni, aldameneko tsōri polit oni!*

—Nik ere argia bear dizut, ordea.

Onetan ginala, Isabelek atea jo zigun. Aparia gertu zeukala esatea zan au; ta irurok bazkaltegira jetsi ginan. Lenengo gabean Medelek Galveston-dik Californiarako orgadiaren (trenaren) ustua nolakoa zan ta Acapulco-n (Mexico-k Pacifico-n duen uri bero-bero-bero batean) gaberdiko mezatan eguberri-kantatsō bat, Amezketan tsikitan ikasia, euskeraz oyukatu zuela esan zigun. Itsasgizon urte batez ibili zaneko berri au,

Artzainak dei t(a) ardi(a) harengandik ihesi,
zerk harabil, gaix(o) hori, galdu ta deslai?
Larrez larre, bihotza minez t(a) hesiz hesi
dabil Jesus, t(a) hik ez al diok entzun nahi?

Hobeki non Jesusen besoetan baino?
Non hor bezain zoritsu, bakez et(a) alai?
Jeiki, jeiki t(a) hator pozik artegiraino,
Artzain-deiari! gaur erantzun: «Jauna, bai».

Artzainak dei t(a) ardi gaixo(a) harenganaino
beeka doa lotsa dala, damu, garbai.

Gero atzenean biek, neurtitz gabe, esango dute: *O Jesus, argi niri!*

—Medelek hori esatea egoki, ezin egokiago dela uste dut. Zuk esaizu, Arizpe: *O Jesus, argi honi, oihulari honi, aldameneko txori polit honi!*

—Nik ere argia behar dizut, ordea.

Honetan ginela, Isabelek atea jo zigun. Afaria gertu zeukala esatea zen hau; eta hirurok bazkaltegira jaitsi ginen. Lehenengo gauean Medelek Galvestondik Kaliforniarako orgadiaren (trenaren) histua nolakoa zen eta Acapulcon (Mexikok Pazifikon duen hiri bero-bero-bero batean) gauerdiko mezatan eguberri-kantatxo bat, Amezketan txikitan ikasia, euskaraz oihukatu zuela esan zigun. Itsasgizon urte batez ibili zeneko berri hau, etxekoek ere

etsekoak ere gau artararte ezomenzekiten. Aita Batizen eskabidez oyukitso ori adi-adi ta arretatsu entzun ginion Medeli. Apalondoan Leonek pianoan Santesteban-en Pudente jota, beste gertaera aipagarri gabe, bakoitza bere kabira joan ginan.

II

Egunak joan, egunak etorri, Eliza goizaldero ta iluntzetan bete-bete egin oi ziguten eliztar jainkozale ayek. Egia sakonak beti bezelase gure A. Batizek erakusten zituen. Nik, autsa ta autsa ere bidekoa, nornaik zapaltzekoa, naizen onek, nere austasunean al nuentsoa egiten nuen: utsa zan nerea. Arratsaldeko bost eta erdien otsaz batera, udako misioetan oi danez, bereter jaunak alde banatan zituela, Aita Batiz, apaizetsetik kurutze andi bat eskuetan zuela, irtetzen zan. Ni orduantse estuen, nere dotrinatsoa buruan sartzen. Erriak *Atoz pekataria* oyukatuta, oro Elizara sartzen ziran, Elizaurreko zugazti itzaltsuan itzuli bat eginez. Agurtzaostean (errosario-ondorean), ni, obiko ar ta zomorroen janari au, kristau-ikaskizunak (dotrina) azaltzera igoten nintzan.

gau hartara arte ez omen zekiten. Aita Batizen eskabidez oihukitxo hori adi-adi eta arretatsu entzun genion Medeli. Afalondoan Leonek pianoan Santestebanen Pudente jota, beste gertaera aipagarri gabe, bakoitza bere habiara joan ginen.

II

Egunak joan, egunak etorri, eliza goizaldero eta iluntzeetan bete-bete egin ohi ziguten eliztar jainkozale haiek. Egia sakonak beti bezalaxe gure A. Batizek erakusten zituen. Nik, hautsa eta hautsa ere bidekoa, nornahik zapaltzekoa, naizen honek, nire haustasunean ahal nuentxoa egiten nuen: hutsa zen nirea. Arratsaldeko bost eta erdien hotsaz batera, udako misioetan ohi denez, bereter jaunak alde banatan zituela, aita Batiz, apaizetxetik gurutze handi bat eskuetan zuela, irteten zen.

Ni orduantxe estuen, nire dotrinatxoa buruan sartzen. Herriak *Atoz pekataria* oihukatuta, oro elizara sartzen ziren, elizaurreko zuhaizti itzaltsuan itzuli bat eginez. Agurtza ostean (errosario ondorean), ni, hobiko har eta zomorroen janari hau, kristau-ikaskizunak (dotrina) azaltzera igotzen nintzen.

Urrengo, Arizpe jaunak eta Medelek, Leon bereter gazte gartsua laguntzaile zutela, Artzain onaren eresia ederki entzunerazten ziguten; gero Aita Batizen itzaldi sakon sutsu ederra; ta azkenez berriro zugaztira, onedaspena (bendizioa) artzera. Nere jarduntsoak laburrak izanarren, luzetetsia nabaritzen nuen erria; Aita Batizenak, ordea, bear ere ala zan-ta, luzeak ziralarik, laburtzat agoa zabalik entzunak izaten ziran.

Oyulariak beren bikondearen amaitzat (azkentzat) arako *¡O Jesus, argi neri!* biguñ-biguñik oyukatzean, Leon, aitak bezelako biotz samurra du-ta, arratsaldero negarrez ikusi zuten norbaitzuk*. Azken egunean Aitak ere, semearen negarrak nabarituz, begiak legortzeko zapia sakeletik atera omenzuen.

Bazkal-apalorduetan ezkinuen aipatzen ez protestanterik ez gure politika-gorabêrarik. Leaburu-Hotel, edergarria (grabadoa) erakutsiz (1) teilatutik atarira zêkatu* zigun Medelek. Zerbait irakurria da, batez ere ingelesez. Nik inoiz entzungabeko berri asko eman zizkigun. Ona bat.

Goi-Amerika artan gizeli *(multitudo gen-*

(1) Erdizka bada ere, 5-garren orrialdeko edergarriak darakus arroztegi onen izantza*.

Hurrengo, Arizpe jaunak eta Medelek, Leon bereter gazte gartsua laguntzaile zutela, Artzain onaren eresia ederki entzunarazten ziguten; gero aita Batizen hitzaldi sakon sutsu ederra; eta azkenez berriro zuhaiztira, onedaspena (bendizioa) hartzera. Nire jarduntxoak laburrak izan arren, luzetsia nabaritzen nuen herria; aita Batizenak, ordea, behar ere hala zen eta, luzeak zirelarik, laburtzat ahoa zabalik entzunak izaten ziren.

Oihulariak beren bikondearen amaitzat (azkentzat) harako *O Jesus, argi neri!* bigun-bigunik oihukatzean, Leon, aitak bezalako bihotz samurra du eta, arratsaldero negarrez ikusi zuten norbaitzuek. Azken egunean aitak ere, semearen negarrak nabarituz, begiak lehortzeko zapia sakeletik atera omen zuen.

Bazkal-afal orduetan ez genuen aipatzen ez protestanterik, ez gure politika-gorabeherarik. Leaburu Hotel, edergarria (grabadoa) erakutsiz[166] teilatutik atarira xehakatu zigun Medelek. Zerbait irakurria da, batez ere ingelesez. Nik inoiz entzun gabeko berri asko eman zizkigun. Hona bat.

Goi-Amerika hartan gizeli (*multitudo gentium*) handi bat omen

[166] Erdizka bada ere, 5. orrialdeko edergarriak darakus arroztegi honen izantza. Hemengo 68. orrialdean.

tium) andi bat omenda, erlijioko izakietan ezer sinesten eztuena. Itzur bezela (maximatzat) *know nothing (nau nacin* esaten zuen berak) omendute: euskeraz «ezer eztazagut» esatea bezela. Pozik nabaritzen nuen, neri, gizagaizo oni, jaramon gutsi eginarren, gure Aita Batiz biotzez maitatzen asi zala Medel.

Eztakit zein egunetan zan: ala bost ala seigarrenean, nere anai maite ta eredu Aita Batizek bereterburuari, onen eresi tasak dituen «deslai» ta «garbai» zer ziran galde egin zion.

—*Deslai,* erderazko «descarriado», *garbai* «arrepentimiento». ¡Asko da, Aita Batiz, Bizkaiko semea zerori ta gainera nunnai ibilia zerala, ez entzun izatea arako *urdaya jan ta garbaya!*

—¡Urdaya! esan zuen Medelek. Neronek gertatuko dizutet, biar bazkaritako, Californiarren eraz. ¿Beatzak ere, gozoaren gozoz, miazkatu bayetz?

—Orduan *urdaya jan ta alaya* esan bearko degu, gaineratu zuen Belauntzako don Agustinek.

Biaramongo bazkalorduan biaoa egitera igotzean, A Batizek «mutil, esan zidan, nere alaitasuna ¡egi-egia! Californierazko urdai

da, erlijioko izakietan ezer sinesten ez duena. Hitzur bezala (maximatzat) *know nothing* (*nau nacin* esaten zuen berak) omen dute: euskaraz «ezer ez dazagut» esatea bezala. Pozik nabaritzen nuen, niri, gizagaixo honi, jaramon gutxi egin arren, gure aita Batiz bihotzez maitatzen hasi zela Medel.

Ez dakit zein egunetan zen: ala bost ala seigarrenean, nire anaia maite eta eredu aita Batizek bereterburuari, honen eresi taxak[167] dituen «deslai» eta «garbai» zer ziren galde egin zion.

—*Deslai*, erdarazko «descarriado», *garbai* «arrepentimiento». Asko da, aita Batiz, Bizkaiko semea zerori eta gainera nonahi ibilia zarela, ez entzun izatea harako *urdaia jan eta garbaia*!

—Urdaia! esan zuen Medelek. Neronek gertatuko dizuet, bihar bazkaritako, kaliforniarren eraz. Behatzak ere, gozoaren gozoz, miazkatu baietz?

—Orduan *urdaia jan eta alaia*? esan beharko dugu, gaineratu zuen Belauntzako don Agustinek.

Biharamoneko bazkalorduan biaoa[168] egitera igotzean, A. Batizek «mutil, esan zidan, nire alaitasuna egi-egia! Kalifornieraz-

(167) Ederra, ona, polita.
(168) Siesta, lo kuluxka.

hura jan dedanean, ezta izan besterik ez bezelakoa; ala ere gogo-irudiz irentsi det eman didatena».

Mauka-mauka ari ginala, Isabelek agopean «ori? esan zidan neri ¿ori garbatu, ori itzuli? Eztakitela berok ori nor dan». Egi bat esan, Medelez, nizaz bezela noski, *eguna bijoa, gaua betor,* bizi zala esan daiteke: buruauste gabe, ezertsok ere ajolarik ematen etziola. Ezkenion ez damutasun ez itzulpide-zantzurik, igargarririk, ikusten; eta gu, beraren bizilagun guztiok, arduratan geunden, ardura gorritan, zer ikusiko; katu bat elorriadar-artean bezen* larri. Egun ilun auetan ¡amaika ta amaika aldiz esaten nion nere buruari, Aita probintzialari, onetarako autatu nenduenean, esan niona! «¿ni onelako misio bat emateko? ¿Onako ni, autsa, oinpeko autsa naizen au? ¿Ezotedauka nere itzen moteltasunak Medelen biotza, lenengo egunean bezen otz ta itzul-gogor?»

III

Azken-eguna iritsi zan, guretzat egun goibela. Nere laguna, beretertegitik Gaztelualdera joanta, urruti eztan Arkaitz-gaineko

ko urdai hura jan dudanean, ez da izan besterik ez bezalakoa; hala ere gogo-irudiz irentsi dut eman didatena».

Mauka-mauka ari ginela, Isabelek ahopean «hori?, esan zidan niri, hori garbaitu, hori itzuli? Ez dakitela beroiek hori nor den». Egia bat esan, Medelez, nizaz bezala noski, *eguna bihoa, gaua betor*, bizi zela esan daiteke: buruhauste gabe, ezertxok ere axolarik ematen ez ziola. Ez genion ez damutasun, ez itzulbide-zantzurik, igargarririk, ikusten; eta gu, beraren bizilagun guztiok, arduratan geunden, ardura gorritan, zer ikusiko; katu bat elorri adar artean bezain larri. Egun ilun hauetan hamaika eta hamaika aldiz esaten nion nire buruari, aita probintzialari, honetarako hautatu ninduenean, esan niona! «ni honelako misio bat emateko? Honako ni, hautsa, oinpeko hautsa naizen hau? Ez ote dauka nire hitzen moteltasunak Medelen bihotza, lehenengo egunean bezain hotz eta itzul-gogor?».

III

Azken eguna iritsi zen, guretzat egun goibela. Nire laguna, beretertegitik Gaztelu aldera joanda, urruti ez den harkaitz-gaine-

tsoritokian sartu zan, goizerditik arratsalderarte antse egoteko. Toki artarako igituaurretsoan nere gelako atea jota, Jesusek ikasleai, tserren erauzteko indarga ziralarik, esan ziena oroitarazi zidan: *Hoc genus (demoniorum) in nullo potest exire nisi in oratione et jejunio* (1) «Onelako tserren-mota otoitzez eta baruz baizik ezin erauzi diteke». —Justo: bazkal-orduan, besteak nere galdez asitakoan, ain ongi ere enabilela ta goi-aldera joan naizela.

Gogoketan asi nintzan, bakartu nintzanean. ¿Alperrekoak izango otedira gure lanak, batez ere lagunarenak? ¿Utsak, alberrietako apaiz ta monjen eskariak? ¿Antzuak semearen negar-malkoak? Enaiz, neronez, inoren aultasunak agertzen zalea; nerau inor baino aulagoa ta ezerezagoa bainaiz. Nere Aita probintzialaren agindua zintzo, alik zintzoen, betetzeko, esango det, ordea, zerk eman zidan egun ayetan iguinik andiena: gu zeinbat estuago ta larriago, Isabel ainbat lasayago ta pozago ikusteak. Gutsienez sei aldiz entzun nion, aurreko gabean ere, neronen belarri ondoan esaten: —Aita: alperrik ari dira. Gizon au zuritu baino errazago litz-

(1) Marc. IX-28.

ko txoritokian sartu zen, goizerditik arratsaldera arte hantxe egoteko. Toki hartarako higitu aurretxoan nire gelako atea jota, Jesusek ikasleei, txerren erauzteko indarge zirelarik, esan ziena oroitarazi zidan: *Hoc genus (demoniorum) in nullo potest exire nisi in oratione et jejunio*(169) «Honelako txerren-mota otoitzez eta barauz baizik ezin erauz daiteke».

—Justo: bazkalorduan, besteak nire galdez hasitakoan, hain ongi ere ez nabilela eta goialdera joan naizela.

Gogoetan hasi nintzen, bakartu nintzenean. Alferrekoak izango ote dira gure lanak, batez ere lagunarenak? Hutsak, alberrietako apaiz eta mojen eskariak? Antzuak, semearen negar-malkoak? Ez naiz, neronez, inoren ahultasunak agertzen zalea; nerau inor baino ahulagoa eta ezerezagoa bainaiz. Nire aita probintzialaren agindua zintzo, ahalik zintzoen betetzeko, esango dut, ordea, zerk eman zidan egun haietan higuinik handiena: gu zenbat estuago eta larriago, Isabel hainbat lasaiago eta pozago ikusteak. Gutxienez sei aldiz entzun nion, aurreko gauean ere, neronen belarri ondoan esaten: –aita: alferrik ari dira. Gizon hau zuritu baino errazago li-

(169) Marc. IX-28.

ake trikuari bizkarreko arantzak amoztu naiz katu bati sagu-uzia kentzea. ¡Au itzuli! ¡Au kristautu!

Iluntzeko itzaldi-aurretsoan, Belauntzakoak itz auek erderaz zuzendu zizkion nere lagunari:

—Azken kartutsoa oraintse dijoa.

—Gurea bai, erantzun zion A. Batizek. Goiko eizariak eztakigu, alabaina, noiz jaurtikiko dion bere lenengoa. Ark eziko du eizakia, ark.

Beste izmitzik inori esan gabe, igo zan iztuna irakastaulkira (pulpitora). Elizan orratz batentzako ere utsunerik ezegoen: tsiltsil betea zan. Opalmai (aldare)-ondoan baziran gutsienez amabi bereter. Amezketako parrokua ere an zan, bere uritsotik mendirik mendi etorria.

Iztunak bere arazoa asi-aurrean, erriak, gero egiteko eztulak, orduantse atera zituen. Etzuen gure Aita Batizek, oi degunez, asikintzat.* Ebanjelioko itzik aipatu. *Artzain ona* eresiaren lenengo âpaldia *(estrofa)* astiro ta ozenki entzun arazi zigun.

¡Artzaina dei ta ardia arengandik igesi!
¿Zerk arabil, gaizo ori, galdu ta deslai? (bakarbakarra ta bidegabetua).
Larrez larre, biotza minez ta esiz esi.
Dabil Jesus, ¿ta ik ezaldiok entzun nai?

tzateke trikuari bizkarreko arantzak amostu[170] nahiz katu bati sagu-uzia[171] kentzea. Hau itzuli! Hau kristautu!

Iluntzeko hitzaldi-aurretxoan, Belauntzakoak hitz hauek erdaraz zuzendu zizkion nire lagunari:

—Azken kartutxoa oraintxe doa.

—Gurea bai, erantzun zion A. Batizek. Goiko ehiztariak ez dakigu, alabaina, noiz jaurtikiko dion bere lehenengoa. Hark heziko du ehizakia, hark.

Beste hitz-mitzik inori esan gabe, igo zen hiztuna irakastaulkira (pulpitura). Elizan orratz batentzako ere hutsunerik ez zegoen: txiltxil betea zen. Opalmahai (aldare) ondoan baziren gutxienez hamabi bereter. Amezketako parrokoa ere han zen, bere hiritxotik mendirik mendi etorria.

Hiztunak bere arazoa hasi aurrean, herriak, gero egiteko eztulak, orduantxe atera zituen. Ez zuen gure aita Batizek, ohi dugunez, hasikintzat Ebanjelioko hitzik aipatu. *Artzain ona* eresiaren lehenengo ahapaldia (*estrofa*) astiro eta ozenki entzunarazi zigun.

Artzaina dei ta ardia harengandik ihesi!
Zerk harabil, gaixo hori, galdu ta deslai (bakar-
bakarra ta bidegabetua).
Larrez larre, bihotza minez ta hesiz hesi.
Dabil Jesus, ta hik ez al diok entzun nahi?

(170) Kamustu.
(171) Nahia, irrika.

«Egun auetan emen oyukatu diran itz ederrak dira auek», isiltsō gaineratu zuen iztunak.

Tamala da, damugarria da, Aita Batizek arkaitz-gaineko tsōritoki artan, oso-osorik, lan eder au ez idatsi izatea. Argitaratuko balitz, eredutzat (modelutzat) ar lezakete gure anai gazteak, eredutzat iztunik trebênak ere. ¡Hura zan etorria! ¡hura erraztasuna! Itz guztiak Jainkozko maitasun-garretan irtetzen zitzaizkion; eta gu, zerutiko gar onen artean, geron buruaz ântziak (aztuak) bezela geunden adi. Lurra baino gorago, odei-gaineratuak, ginala esan zitekean. Artzain onak nola la zeinbat eraz dei egiten digun, azaldu zuen lenengo; ardia nola ta zergatik galtzen dan, gero. Arako *know nothing*, Medelek jakinarazi zigun zer hura ere aipatu zuen ¡bai zearo porrokatu ta austu ere!

Bigarren ataltzat, eresiaren bigarren âpaldia esan zigun, paperetik irakurriz:

¿Obeki nun Jesusen besoetan baino?
¿Nun, or bezain zoritsu, pakez eta alai?
Jeiki, jeiki ta ator pozik artegiraino,
Artzain-deyari gaur erantzun: Jauna, bai.

Jesusen besoetan izatea zer dan, eztet uste Krisostomo andiak ere egokiago ta gartsuago azaldu zezakeala. Jesusekiko zo-

«Egun hauetan hemen oihukatu diren hitz ederrak dira hauek», isiltxo gaineratu zuen hiztunak.

Tamala da, damugarria da, aita Batizek harkaitz-gaineko txoritoki hartan, oso-osorik, lan eder hau ez idatzi izatea. Argitaratuko balitz, eredutzat (modelotzat) har lezakete gure anaia gazteek, eredutzat hiztunik trebeenek ere. Hura zen etorria! Hura erraztasuna! Hitz guztiak Jainkozko maitasun-garretan irteten zitzaizkion; eta gu, zerutiko gar honen artean, geron buruaz ahantziak (ahaztuak) bezala geunden adi. Lurra baino gorago, hodei gaineratuak, ginela esan zitekeen. Artzain onak nola eta zenbat eraz dei egiten digun, azaldu zuen lehenengo; ardia nola eta zergatik galtzen den, gero. Harako *know nothing*, Medelek jakinarazi zigun zer hura ere aipatu zuen bai zeharo porrokatu eta haustu ere!

Bigarren ataltzat, eresiaren bigarren ahapaldia esan zigun, paperetik irakurriz:

Hobeki non Jesusen besoetan baino?
Non, hor bezain zoritsu, bakez eta alai?
Jeiki, jeiki ta hator pozik artegiraino,
Artzain-deiari gaur erantzun: Jauna, bai.

Jesusen besoetan izatea zer den, ez dut uste Krisostomo handiak ere egokiago eta gartsuago azaldu zezakeela. Jesusekiko zoria,

ria, pakea ta alaitasuna banan banan ta argiro erakutsi zizkigunean, ezin kendu nuen nik nere buru ta biotzetik gogamen au:

—Eta i, Justo; Justo ere ezaizen ori; i, Jūsto, ¡¡misiolari onen lagun!!

Urrengo itz auek, apaiz batzuk lagun nituela, berak esan zituen erara artu al izan nituen. «Ardi galdua: artegia utzita ¿nora oa? Jesus ire artzain ori baino onagorik, biotz andi ta samurragodunik ¿nun arkitzeko? ¿Nun egiazko Elizan bezelako bazka gozo, janari osasungarririk? Artzain oṇak bere gorputza janaritzat eman digu, edaritzat bere odola. Zeruko intza ta euria ta eguzkiaren garra lurrean gari biurtzen dituenak, gari ori gure barruan geron gorputz aldatzen duen berberak, Jesusek, aldareko ostia mê zuri garbi ori beraren gorputz itzultzea nai izan du, gure arima erorkor onen janari indargarri izan dakigun. ¿Eta au noiz? Kurutze santuan josita ardi galduen onerako bere bizia eman ta gero. ¡O ardi gaiso, o ardi errukarri bezain maitagarri, deslai, sasirik sasi, galduta abilen ardi argigabe ori! Adi ta entzun zak gaur ire jabearen deya. ¡Nork daki azken-deya, o, bai, azken-deya ezotedan!»

Itz au «azken-deya» bigarrenez esatean,

bakea eta alaitasuna banan-banan eta argiro erakutsi zizkigunean, ezin kendu nuen nik nire buru eta bihotzetik gogamen hau:

—Eta hi, Justo; Justo ere ez haizen hori; hi, Justo, misiolari honen lagun!!

Hurrengo hitz hauek, apaiz batzuk lagun nituela, berak esan zituen erara hartu ahal izan nituen. «Ardi galdua: artegia utzita nora hoa? Jesus hire artzain hori baino onagorik, bihotz handi eta samurragodunik non aurkitzeko? Non egiazko elizan bezalako bazka gozo, janari osasungarririk? Artzain onak bere gorputza janaritzat eman digu, edaritzat bere odola. Zeruko ihintza eta euria eta eguzkiaren garra lurrean gari bihurtzen dituenak, gari hori gure barruan geron gorputz aldatzen duen berberak, Jesusek, aldareko ostia mehe zuri garbi hori beraren gorputz itzultzea nahi izan du, gure arima erorkor honen janari indargarri izan dakigun. Eta hau noiz? Gurutze santuan josita ardi galduen onerako bere bizia eman eta gero. O ardi gaixo, o ardi errukarri bezain maitagarri, deslai, sasirik sasi, galduta habilen ardi argi gabe hori! Adi eta entzun ezak gaur hire jabearen deia. Nork daki azken deia, o, bai, azken deia ez ote den!».

Hitz hau «azken deia» bigarrenez esatean, zotina bezalako zer

zotina bezelako zer bat erakori zitzayon barru-barrutik iztunari, entzule guztioi zauzkada andia eragin zigula. Inor, battsō ere, ezalzan bêaldean, gora, oyutegira, begiratu etzuenik. Medelek an goyan, oyutegian, arrizkoa zirudien. Gero, kurutzea eskuetan zuela, iztunak artzain onari egin zion-eskari samurra entzutean, guztiok geunden negarra tantoka-tantoka zerigula. Enuen buruz ezer artu al izan.

Aita Batiz izerdi-patsetan, elizgelan (sakristeyan) barruna, etsera sartu zan inori itzik egin gabe. Neri, barrura dei eginez, Leonek eman zezala, esan zidan, Leonek eman zezala gau artan kurutzeaz onedaspena (bendizioa). Elizatik «Jesus gure Jaun maite atsekabetua» ezpainetan genduela, zugaztira joan ginanean, Medel etzan sartu, bestetan bezela, oyulari-artean.

Bazkaltegian, apalorduan, betiko bi apaizez gainera, beste bi: Amezketakoa ta Belauntzakoa, bildu ziran. Medel etzan ageri. Luzarotsō bera igurikitzen (berari begira) egonta, Isabel agertu zitzaigun, Medel etzala etorriko esatera. ¡Gure estuasuna ta jakinnaya!

—¿Zer agitu otezayo? zinoan* batak.

—¿Ongiezik oteda? besteak.

bat irakori zitzaion barru-barrutik hiztunari, entzule guztioi zauzkada handia eragin zigula. Inor, batxo ere, ez al zen behealdean, gora, oihutegira, begiratu ez zuenik. Medelek han goian, oihutegian, harrizkoa zirudien. Gero, gurutzea eskuetan zuela, hiztunak artzain onari egin zion eskari samurra entzutean, guztiok geunden negarra tantoka-tantoka zerigula. Ez nuen buruz ezer hartu ahal izan.

Aita Batiz izerdi-patsetan, elizgelan (sakristian) barruna, etxera sartu zen inori hitzik egin gabe. Niri barrura dei eginez, Leonek eman zezala, esan zidan, Leonek eman zezala gau hartan gurutzeaz onedaspena (bendizioa). Elizatik «Jesus gure Jaun maite atsekabetua» ezpainetan genuela, zuhaiztira joan ginenean, Medel ez zen sartu, bestetan bezala, oihulari artean.

Bazkaltegian, afalorduan, betiko bi apaizez gainera, beste bi: Amezketakoa eta Belauntzakoa, bildu ziren. Medel ez zen ageri. Luzarotxo bera igurikitzen (berari begira) egonda, Isabel agertu zitzaigun, Medel ez zela etorriko esatera. Gure estuasuna eta jakin-nahia!

—Zer agitu ote zaio? zioen batak.

—Ongi ezik ote da? besteak.

—¿Ala sapustua, gaineratu zuen A. Batizek, nere itzai zorrotzegi eritzita, asarratua?

—Ori ez, erantzun zion Amezketakoak. Eizakia, mindu gabe, ezta atsitzen. Mindua dala ageri du. Zein min duen, Jainkoak, mindu duenak, daki.

Isabel berriz agertu zitzaigunean,—¿zer du Medelek?—galde egin zion Arizpe jaunak. Parrirria ezpainetan ta begietan poza ageri zituela, ause esan zigun:

—Apaiz ta fraile-artean gogaituta edo, sukaldera etorri zaigu; ta buruko zorabioa duela ta etzin-bearreko asmatzen dala ta lotara doala esan digu. Jatez eztu ezer jan. Ur-ardotan pitserdi-inguru edan aldu.

Emakume aren oztasunak burutik bêrako otzikaraz ebaki ninduen ni. Beste bost apaldarrak etzioten begiratu ere egin. Isil ta motel ezkenduen ganoraz apaldu. Leon bi aldiz joan zan Aitaren gela-ondora, ezer nabaritzen otezuen. Alako batean A. Batizek—Leon atoz onera, gaizo ori—esanez, besartean maiterik artu zuen apaiz gazte negartsua. —Gaur *gloria* gabe geranok, biar *alleluya* oyu egingo degu.

Beraren ondoan eseri-eraginez, Habanatiko masoitzar amurratu baten itzulpena edatsi zion.

—Ala zapuztua, gaineratu zuen A. Batizek, nire hitzei zorrotzegi iritzita, haserretua?

—Hori ez, erantzun zion Amezketakoak. Ehizakia, mindu gabe, ez da atzitzen[172]. Mindua dela ageri du. Zein min duen, Jainkoak, mindu duenak, daki.

Isabel berriz agertu zitzaigunean, —zer du Medelek?— galde egin zion Arizpe jaunak. Barre-irria ezpainetan eta begietan poza ageri zituela, hauxe esan zigun:

—Apaiz eta fraide artean gogaituta edo, sukaldera etorri zaigu; eta buruko zorabioa duela eta etzin beharreko asmatzen dela eta lotara doala esan digu. Jatez ez du ezer jan. Ur-ardotan pitxerdi inguru edan ahal du.

Emakume haren hoztasunak burutik beherako hotzikaraz ebaki ninduen ni. Beste bost afaldarrek ez zioten begiratu ere egin. Isil eta motel ez genuen ganoraz afaldu. Leon bi aldiz joan zen aitaren gela ondora, ezer nabaritzen ote zuen. Halako batean A. Batizek –Leon zatoz hona, gaixo hori— esanez, besartean maiterik hartu zuen apaiz gazte negartsua.

—Gaur *gloria* gabe garenok, bihar *alleluia* oihu egingo dugu.

Beraren ondoan eseri eraginez, Habanatiko masoitzar amorratu baten itzulpena erasi zion.

[172] Atzeman, harrapatu.

—Baita ezagutu det, Lekeitio-ondoko baserritsō batean, Californiatiko baten biotzgogortasuna ere, gaineratu zuen. Aita Emerando nuen nik misiolagun. Gogoz ekin genion gure arloari. Hura, gizon hura, etzitzaigun beintsō ere urbildu. Beretertegitik Elizara-bidean «erdu pekataria» oyukatzen ginjoazenetan, tsāpela buruan zuela, aldiro egoten zan ¡zakarra alakoa! ardantegiko atarian. *El Pais* ta *El Motín* iru edo lau aldiz atepetik barruratu zizkigun lotsagabe aundiak. Etzan hura egun ayetan elizpean ere sartu. Californiar hura ta zure aita iparraldea ta egoaldea dira. Egin lo lasai ta zabal. Gaur *gloriarik* ez, biar *alleluya*. Gure Jauna irugarren egunean piztu zan, zure aita amargarrenean piztuko da. *¡Alleluya, alleluya!*

IV

Gau artan lo egitea etzan egikizun erraza. Misiolari gartsuaren *alleluyak* baino sakonago ta itsatsiago nituen, burmuñ-artean sartuta, etseko andrearen berri sukaldekoak. Medel, batean agertzen zitzaidan (gure Aita San Franzisko bost zauriak artzen bezela) belauniko opalmai (aldare)-aurrean, jauna

—Baita ezagutu dut, Lekeitio ondoko baserritxo batean, Kaliforniatiko baten bihotz gogortasuna ere, gaineratu zuen. Aita Emerando nuen nik misiolagun. Gogoz ekin genion gure arloari. Hura, gizon hura, ez zitzaigun behintxo ere hurbildu. Beretertegitik elizara bidean «erdu pekataria» oihukatzen gindoazenetan, txapela buruan zuela, aldiro egoten zen zakarra halakoa! ardandegiko atarian. *El País* eta *El Motín* hiru edo lau aldiz atepetik barruratu zizkigun lotsagabe handiak. Ez zen hura egun haietan elizpean ere sartu. Kaliforniar hura eta zure aita iparraldea eta hegoaldea dira. Egin lo lasai eta zabal. Gaur *gloriarik* ez, bihar *alleluia*. Gure Jauna hirugarren egunean piztu zen, zure aita hamargarrenean piztuko da. *Alleluia, alleluia*.

IV

Gau hartan lo egitea ez zen eginkizun erraza. Misiolari gartsuaren *alleluiak* baino sakonago eta itsatsiago nituen burmuin artean sartuta, etxeko andrearen berri sukaldekoak. Medel, batean agertzen zitzaidan (gure aita San Frantzisko bost zauriak hartzen bezala) belauniko opalmahai (aldare)-aurrean, jauna hartzen;

artzen; mingain zuri-zuria agerian; aurpegia, goizeko eguzkiak jota bezelaŝe, ikusgarrizko argitan zuela. Bestean, semearen etŝetik igesi nekusen Californiar errukarria, idunean (lepoan) ĩatãr (korbata) gorri andi bat ipinita, zekor batek bezelako ijutiak eginez, Tolosako errepublikanoen batzokian sartzen. Negar ere egin nuen, nere burutasun hura egiazkotuko otezan erabez (bildurrez). Medel betiko galtzen bazan ¿nork errua (culpa)? Beste errudunik etzitzaidan agertzen. ¿Nerau otenintzan beraz? Enintzala uste izateko, bederatzi egun ayetan azaldu nituen-ikaspide (dotrina) guztiak gogoratzen asi nintzan. Euskeraz garbiegi mintzatu nintzaneko-ingira (eskrupuloa) biotzaren ondarretaragino sartu zitzaidan. ¿«Sinespen, itŝaropen, onerespen...» baotezekien Medelek zer ziran? Gainera, asiberria ta kemen gutŝikoa izanik, nere jardunak, nere lantŝoak itzez itz ikasi bear, ta gero nere esakerak su gutŝi, nere eskuketak ganorarik ez ta entzuleak otz ta Medel, lendik ozpera zan-Medel, geroago otzago. ¿Zein ilkorrek du Medelen itzulgogortasunaren errua? Neronek, autsa ta oinpeko autsa baino besterik enaizen onek. Etzan, ez, egikizun bererakoa ta samurra goizalde artan lo egitea.

mingain zuri-zuria agerian; aurpegia, goizeko eguzkiak jota bezalaxe, ikusgarrizko argitan zuela. Bestean, semearen etxetik ihesi nekusan kaliforniar errukarria, idunean (lepoan) ttattar (korbata) gorri handi bat ipinita, zekor batek bezalako ikotiak[173] eginez, Tolosako errepublikanoen batzokian sartzen. Negar ere egin nuen, nire burutasun hura egiazkotuko ote zen herabez (beldurrez). Medel betiko galtzen bazen, nork errua (culpa)? Beste errudunik ez zitzaidan agertzen. Nerau ote nintzen beraz? Ez nintzela uste izateko, bederatzi egun haietan azaldu nituen ikasbide (dotrina) guztiak gogoratzen hasi nintzen. Euskaraz garbiegi mintzatu nintzeneko ingira (eskrupulua) bihotzaren hondarretaraino sartu zitzaidan. «Sinespen, itxaropen, onerespen[174]...» ba ote zekien Medelek zer ziren? Gainera, hasiberria eta kemen gutxikoa izanik, nire jardunak, nire lantxoak hitzez hitz ikasi behar, eta gero nire esakerak su gutxi, nire eskuketak[175] ganorarik ez eta entzuleak hotz eta Medel, lehendik hozbera zen Medel, geroago hotzago. Zein hilkorrek du Medelen itzulgogortasunaren[176] errua? Neronek, hautsa eta oinpeko hautsa baino besterik ez naizen honek. Ez zen, ez, eginkizun bererakoa[177] eta samurra goizalde hartan lo egitea.

(173) Jauzia.
(174) Karitatea.
(175) Imintzioa.
(176) Konbertitzeko zailtasuna.
(177) Erosoa, erraza.

Laurak ziran, Alkateak (1), bi misiolarion ateak jota,—ordua da—ots egin zigunean. *Deo gratias* erantzunez jeikita, berealaše atondu (gertatu) nintzan lanerako. Otoitz, nere otoiško ezerezen urren, aitortegian nintzan. Oso nekatua nuen burua. Eliza Juan Jošek berak zabaldutakoan, gizakume ta emakume arrapaztaka sartu ziran, bai lašter aitortegi-inguruak belztu ere. Ordu ta erdi, or-or, igarota, gizeli osoa bateratsu sakristeyara begira jarri zan ta asnasa utsezko itz bat, ots gabea, bular askotatik irten zan: «Ardi galdua... ardi galdua... ardi galdua».

Nere lana etenik, alde artara begiratu nuen nik ere. ¡Jaungoiko maitea!, oraintše bai esan genezakeala: *Alleluya*, *alleluya*. Ardi galdua, Medel, artegira zetorren. Buruan nuen-astuntasun andia, oso-osorik, poz itzulita, biotzean sartu zitzaidan. Atsegin andiagorik, *botoak* egin nituenean ere eztakit izan otenuen. Nere aitortegira urbildu zan. Gizon guztiak, jeikita, aurrenengo tokia berari utzi zioten. Aurregunetako nere itzaldi-mitzalditšoak, emendik atal bat, ortik puska bat, andik pitin bat aterata, izketa mor-


(1) Patšiko zeritzayon bat Californiara Medelengana joan zanezkero, Juan Jošе Alkatea izaten omenda egun andietan elizgelari (sakristau).

Laurak ziren, alkateak[178], bi misiolarion ateak jota, —ordua da— hots egin zigunean. *Deo gratias* erantzunez jaikita, berehalaxe atondu (gertatu) nintzen lanerako. Otoitz, nire otoixko ezerezen hurren, aitortegian nintzen. Oso nekatua nuen burua. Eliza Juan Joxek berak zabaldutakoan, gizakume eta emakume arrapastaka sartu ziren, bai laster aitortegi-inguruak belztu ere. Ordu eta erdi, hor-hor, igarota, gizeli osoa bateratsu sakristiara begira jarri zen eta arnasa hutsezko hitz bat, hots gabea, bular askotatik irten zen: «Ardi galdua... ardi galdua... ardi galdua».

Nire lana etenik, alde hartara begiratu nuen nik ere. Jaungoiko maitea!, oraintxe bai esan genezakeela: *Alleluia, alleluia*. Ardi galdua, Medel, artegira zetorren. Buruan nuen astuntasun handia, oso-osorik, poz itzulita, bihotzean sartu zitzaidan. Atsegin handiagorik, *botoak* egin nituenean ere ez dakit izan ote nuen. Nire aitortegira hurbildu zen. Gizon guztiak, jaikita, aurrenengo tokia berari utzi zioten. Aurregunetako nire hitzaldi-mintzalditxoak, hemendik atal bat, hortik puska bat, handik pitin bat aterata, hizketa

[178] Patxiko zeritzaion bat Kaliforniara Medelengana joan zenez gero, Juan Joxe alkatea izaten omen da egun handietan elizgelari (sakristau).

doĪotuz, Medeli berriz biotzeratu nizkion. Orduan «sinespen, itsaropen, onerespen» *fedea, esperantza ta karidadea* izan ziran. Pekatari bat itzultzen danean, aingeruen poza andia izan bear, gure poza onenbesteragino-



mordoilotuz, Medeli berriz bihotzeratu nizkion. Orduan «sinespen, itxaropen, onerespen» *fedea, esperantza eta karitatea* izan ziren. Bekatari bat itzultzen denean, aingeruen poza handia izan behar, gure poza honenbesterainokoa denean. Alkatea bera joan omen



koa danean. Alkatea bera joan omenzan Leonen gelara berri zoragarri au ematera. Zoragarria, bai, egiaz zoragarria izendatu daiteke, Leon gainerako ordu guztietan erotua bezelaše ikusita. Berak, apaiz gazte, gartsu, pozez zoratuak, ezarri zuen Ostia gurena (santua) bere Aitaren, ardi len galduaren, mingainean *¡¡Alleluya, alleluya, alleluya!!*

V

¡Izan zan egun artan iskanbila ta abarrotsa Leaburuko elizetšean! Apaiz ta fraile ta edozein nekazari sartzen zan ara, jayotetšera bezelaše. Sukaldean tokiak artuala emakume zebilzen gosari sendoa ta geroko bazkari ugaria, gertatzen.

Azpeitiko bereterburu jaunaren burutasuna izan zan, egun artan, asteguna izanarren, meza nagusia, *Te Deum* ta guztikoa ospatzea (zelebratzea): meza-emale Jaun Andres Lezartzaburu Amezketakoa zala; beraren lagun, Belauntzako arimazaina ta Tolosako apaiz gazte bat; iztun, Aita Batiz; meza-musika, Medelek lurbira guztiko onentzat zeukalako, Prado-rena.

Neke gutši artu zuten egun artan Leabu-

zen Leonen gelara berri zoragarri hau ematera. Zoragarria, bai, egiaz zoragarria izenda daiteke, Leon gainerako ordu guztietan erotua bezalaxe ikusita. Berak, apaiz gazte, gartsu, pozez zoratuak, ezarri zuen Ostia gurena (santua) bere aitaren, ardi lehen galduaren, mingainean *Alleluia, alleluia, alleluia*!!


V

Izan zen egun hartan iskanbila eta abarrotsa Leaburuko elizetxean! Apaiz eta fraide eta edozein nekazari sartzen zen hara, jaiotetxera bezalaxe. Sukaldean tokiak hartu ahala emakumeak zebiltzan gosari sendoa eta geroko bazkari ugaria gertatzen.

Azpeitiko bereterburu jaunaren burutasuna izan zen, egun hartan, asteguna izan arren, meza nagusia, *Te Deum* eta guztikoa ospatzea (zelebratzea): meza-emaile jaun Andres Lezartzaburu Amezketakoa zela; beraren lagun, Belauntzako arimazaina eta Tolosako apaiz gazte bat; hiztun, aita Batiz; meza-musika, Medelek lurbira guztiko onentzat zeukalako, Pradorena.

Neke gutxi hartu zuten egun hartan Leaburuko nekazariek


ruko nekazariak soroetan, geyen-geyenak gurekin ziran-ta. Medeli *Laudamus, laudamus te*



entzutea pozgarria zan. ¡Aren gogoberotasuna! Eztet, ordea, elizkizun ospatsu alai hura zê-zê erakusteko asmorik. Armiarmak atzik bezenbat* luma banitu-sei-ta seirak batera erabili al izanarren, Leaburuko elizan ta elizaldean goiz-arratsalde ayetan (egikerak utzita ere) ezpainez belarri ibili ziran esakera ta parregayak enituke zêkatu* (adierazi) al izango. Bazkaltegiko mayean amalau lagun ginan: bi ez, besteak elizgizonak. Medel ta Juan Joše Alkatea ziran tsapeldun bakarrak. Itzik geyen egin zutenak Aita Batiz, Arizpe ta Lezartzaburu izan ziran; gutsien, Aita-semeak. Auek alkarri begiratu ta parre egiteaz lanik aski zuten. Aita Batizen ipuin ta izkirimiriak entzunez ler egin genduen guztiok. Bakar bat edatsiko det.

Azpeitiko bereterburuak ea Amezketako zerbait ezotezekien galde egin zionean,— Amezketako kale bakarraren jatorria dakit —erantzun zuen. Zein zan jakingabe asi zan alaitasuna gure ezpainetan irakiten. — Iso

soroetan, gehien-gehienak gurekin ziren eta. Medeli *Laudamus, laudamus te*



entzutea pozgarria zen. Haren gogoberotasuna! Ez dut, ordea, elizkizun ospetsu alai hura xehe-xehe erakusteko asmorik. Armiarmak hatzik bezainbat luma banitu sei eta seirak batera erabili ahal izan arren, Leaburuko elizan eta elizaldean goiz-arratsalde haietan (egikerak utzita ere) ezpainez belarri ibili ziren esakera eta barregaiak ez nituzke xehakatu (adierazi) ahal izango. Bazkaltegiko mahaian hamalau lagun ginen: bi ez, besteak elizgizonak. Medel eta Juan Joxe alkatea ziren txapeldun bakarrak. Hitzik gehien egin zutenak aita Batiz, Arizpe eta Lezartzaburu izan ziren; gutxien, aita-semeak. Hauek elkarri begiratu eta barre egiteaz lanik aski zuten. Aita Batizen ipuin eta izkirimiriak entzunez leher egin genuen guztiok. Bakar bat erasiko dut.

Azpeitiko bereterburuak ea Amezketako zerbait ez ote zekien galde egin zionean, —Amezketako kale bakarraren jatorria dakit— erantzun zuen. Zein zen jakin gabe hasi zen alaitasuna gure ezpainetan irakiten. –Ixo esanez, eten zigun Arizpek. Ea, lagun zahar;

esanez, eten zigun Arizpek. Ea, lagun zar; edatsi ipuin ori. Gero, Lezartzaburu, guztia amaituarte, isilik egotea ¿e?

—Gizonak: Amezketara lenengoz iritsi nintzanean, irakurgaitšo labur-labur batek arri ta zur itzuli ninduen. Elizaren aurrez aur etše tšiki bat dakusku. Etše orrek eztu lagunik, battšo ere, lerro-lerro beintzat; bakarra da; ta ala ere *Calle de San Bartolomé* du agerian ezarrita. ¿Zein da kale ori? ¿Nun da? ¿ageri dea*? Urte asko igarota jakin det kale orren berri. Zuek, jakin dezazutenean, nik bezela aitortuko dezute: Amezketan kale bakar bat baizik izan ezarren, bera Londresko kalerik luzêna baino luzeago dala.

Oraintše asten da ipuina. Beinola, orain emeretzireun urte, ez oso, San Bartolome, kristau-legea irakatsi bear zuela-ta, Aralarpera etorri omenzan, Amezketara. Asi zuen bere arloa. Amezketarrak abegi ona egin zioten; gaintšo batean tsabola egin ere bai. Ikasi... burugogorrak izanta edo, ikasi zerbait bai; baina... ¡tira!; ta bitartean, alkarren leyan, batak baino besteak nayago ta geyago (nori saldu ere etzeukaten-ta) arkume ta ezne, gazta ta gaztanbera, talo ta arto, sagar ta urr, egur ta ikatz, lorretan, aurrez, oparo zeramazkioten. Tšabola beti zeukan San

erasi ipuin hori. Gero, Lezartzaburu, guztia amaitu arte, isilik egotea e?

—Gizonak: Amezketara lehenengoz iritsi nintzenean, irakurgaitxo labur-labur batek harri eta zur itzuli ninduen. Elizaren aurrez aurre etxe txiki bat dakusgu. Etxe horrek ez du lagunik, batxo ere, lerro-lerro behintzat; bakarra da; eta hala ere *Calle de San Bartolomé* du agerian ezarrita. Zein da kale hori? Non da? ageri dea? Urte asko igarota jakin dut kale horren berri. Zuek, jakin dezazuenean, nik bezala aitortuko duzue: Amezketan kale bakar bat baizik izan ez arren, bera Londresko kalerik luzeena baino luzeago dela.

Oraintxe hasten da ipuina. Behinola, orain hemeretzi ehun urte, ez oso, San Bartolome, kristau-legea irakatsi behar zuela eta, Aralarpera etorri omen zen, Amezketara. Hasi zuen bere arloa. Amezketarrek abegi ona egin zioten; gaintxo batean txabola egin ere bai. Ikasi... burugogorrak izanda edo, ikasi zerbait bai; baina... tira!; eta bitartean, elkarren lehian, batak baino besteak nahiago eta gehiago (nori saldu ere ez zeukaten eta) arkume eta esne, gazta eta gaztanbera, talo eta arto, sagar eta hur, egur eta ikatz, lorretan[179], ahurrez, oparo zeramazkioten. Txabola beti zeukan San

[179] Arrastaka, garraioan.

Bartolomek ongi ornitua. Bein, eztakigu ala Amezketarrak ematen aspertu ziralako, ala gogo onez, kristautasuna zabaltzeko gogoz, beintzat artzain zartsō batek (bertsolaria ere bâlzan nere ustez), «San Bartolome, esan zion tsābolako erlijio-irakasleari, San Bartolome: zure asmo orretarako, obe zenduke ara, Aralar-gain artara, joan ta goi ayetan bizi diran napar ilargi-jauresleai (adoratzaileai) egiazko erlijioa jakineraztera joan. Bidea, nai dezunean erakutsiko dizugu; ta, nekatzen baldin bazera, anka jasotzen lagundu ere bai.

Badoaz ta badoaz ta badoaz ta alako batean eldu ziran Aralar-burura. Amezketarrok San Bartolome bakarrik utzi zuten ta antsumeak bezen bizkor etsaldera jetsi ziran. Egunak eta gauak, orduan ere, aldizka ibiltzen ziran ta mordo bat egun ta beste ainbeste gau igarotakoan, ¿nola bizi oteda gure San Bartolome?, galdetzen zuten bêtarrak. ¿Arkumerik jaten otedu, emen bezela? Etzekiten ja ere aren berririk. Bein, ilargia oso-osorik Aralar-gainean agertu zan-gau batean, mendi-tsuntsurrean irrintzi banakaren baten oyartzuna ta lagun askoren arantz-onantz * bizkor ibiltzea nabaritu zuten. ¿Zer otedarabilte naparrak? Bekoak gora begira zirala, lau gizonen artean mukurru (bulto) andi bat

Bartolomek ongi hornitua. Behin, ez dakigu ala amezketarrak ematen aspertu zirelako, ala gogo onez, kristautasuna zabaltzeko gogoz, behintzat artzain zahartxo batek (bertsolaria ere ba ahal zen nire ustez), «San Bartolome», esan zion txabolako erlijio-irakasleari, «San Bartolome: zure asmo horretarako, hobe zenuke hara, Aralar gain hartara, joan eta goi haietan bizi diren nafar ilargi-jauresleei (adoratzaileei) egiazko erlijioa jakinaraztera joan. Bidea, nahi duzunean erakutsiko dizugu; eta, nekatzen baldin bazara, hanka jasotzen lagundu ere bai».

Badoaz eta badoaz eta badoaz eta halako batean heldu ziren Aralar burura. Amezketarrok San Bartolome bakarrik utzi zuten eta antxumeak bezain bizkor etxaldera jaitsi ziren. Egunak eta gauak, orduan ere, aldizka ibiltzen ziren eta mordo bat egun eta beste hainbeste gau igarotakoan, nola bizi ote da gure San Bartolome?, galdetzen zuten behetarrek. Arkumerik jaten ote du, hemen bezala? Ez zekiten ja ere haren berririk. Behin, ilargia oso-osorik Aralar gainean agertu zen gau batean, mendi-txuntxurrean irrintzi banakaren baten oihartzuna eta lagun askoren harantz-honantz bizkor ibiltzea nabaritu zuten. Zer ote darabilte nafarrek? Behekoak gora begira zirela, lau gizonen artean mukurru (bulto) handi bat mendian behera amildu zuten. Ikusnahiez, mai-

mendian bêra amildu zuten. Ikusnayez, mailazotzik mailazotz * ta mailorik mailo * igon ziran amezketar gizaseme garako geyenak.

Gizon bat arkaitzik arkaitz, bilinbalaunka, amiltzen ikusi zuten. Badoaz ta larru-eratsia, larrutua zetzan gizon ori. Mintzuran ezagutu zuten nor zan, bestela ezin: San Bartolome. Lauk bizkarrean artuta bere tsabolara ekarri zuten. Zerbait, erdizka bazan ere, esan zioten San Bartolomek:

—Jaunik bat baizik ezta, goikoa bera. Jauna maite izan, maite izan alkar.., ¡Jesus!...—ta gogoa (arima), lurrin argi-argi bat bezelase, gora ta gora, Aralar baino gorago, ilargia baino ere gorago, izarrak baino ere askozaz gorago igon zan: zorilekura, zerura, Jauregira.

Maite dute Amezketarrak beren San Bartolome. Maitasun onen ezaugarritzat norbaiti iru asmo otu zitzaizkion: tsabola aren aldamenean baselizatso bat eregitea (gaur Eliza ederra da), tsabola zegoen tokian etse bat jasotzea ta etse artan itz auek erderaz ezartzea: Calle de San Bartolomé.

Gizonak: inoiz Amezketara bazoazte, itz auek irakurtzean, kale au ikusteko, ez begiratu atzetik aurrera, bêtik gora begira ezazute. Amezketako kalea ezta, lurbirako beste

lazotzik[179] mailazotz eta mailorik[180] mailo igo ziren amezketar gizaseme garako[181] gehienak.

Gizon bat harkaitzik harkaitz, bilinbolaka amiltzen ikusi zuten. Badoaz eta larru-eratzia[182], larrutua zetzan gizon hori. Mintzuran ezagutu zuten nor zen, bestela ezin: San Bartolome. Lauk bizkarrean hartuta bere txabolara ekarri zuten. Zerbait, erdizka bazen ere, esan zien San Bartolomek:

—Jaunik bat baizik ez da, goikoa bera. Jauna maite izan, maite izan elkar…, Jesus!... —eta gogoa (arima), lurrin argi-argi bat bezalaxe, gora eta gora, Aralar baino gorago, ilargia baino ere gorago, izarrak baino ere askozaz gorago igo zen: zorilekura, zerura, Jauregira.

Maite dute amezketarrek beren San Bartolome. Maitasun honen ezaugarritzat norbaiti hiru asmo otu zitzaizkion: txabola haren aldamenean baselizatxo bat eregitea (gaur eliza ederra da), txabola zegoen tokian etxe bat jasotzea eta etxe hartan hitz hauek erdaraz ezartzea: CALLE DE SAN BARTOLOMÉ.

Gizonak: inoiz Amezketara bazoazte, hitz hauek irakurtzean, kale hau ikusteko, ez begiratu atzetik aurrera, behetik gora begira ezazue. Amezketako kalea ez da, lurbirako beste guztien antzera, zeharra, atzetik aurrerakoa; zuta, behetik gorakoa da Amezketako

(180) Sarobea.
(181) Larrea.
(182) Heldua, nagusia.
(183) Urratu, harrotu.

guztien antzera, zearra, atzetik aurrerakoa; zuta, bêtik gorakoa da Amezketako kalea. Orain nik bezela dakizute kale au zergatik dan Londresko kalerik luzêna baino luzeago.

—Arizpe, esan zuen orduan Lezartzaburuk ¿zilegi otezait orain zerbait esatea?

—Bai, gizon, orain bai.

—Aita Batiz: zerorrek asmatu dezu ipuin ori, zerorrek.

Gizaki potzoloak parre-samurrak izan oi dira ta Arizpe gozaro parrez asi zan; eta parrea itsaskorra baita, gainerako guztiak karkarkar ari ginan, zein pozkorrago. Eta onelaše zorion-pitsetan igaro genituen egun alai aren ordu arinak.

Itzal bat izan zuen egun argitsu ark, goiz-goizetik orori alaitasuna nolabait goibeldu zigun itzala: Isabel. Emakume au, ardi galdua artegiratua zala jakin zuenean, artegitik irten zan. ¿Nora? ¿Gaztelura? ¿Lasartera? ¿Amezketara? Inork etzekien zein bide artu zuen.

kalea. Orain nik bezala dakizue kale hau zergatik den Londresko kalerik luzeena baino luzeago.

—Arizpe, esan zuen orduan Lezartzaburuk, zilegi ote zait orain zerbait esatea?

—Bai, gizon, orain bai.

—Aita Batiz: zerorrek asmatu duzu ipuin hori, zerorrek.

Gizaki potzoloak barre-samurrak izan ohi dira eta Arizpe gozaro barrez hasi zen; eta barrea itsaskorra baita, gainerako guztiak karkarkar ari ginen, zein pozkorrago. Eta honelaxe zorionbitsetan igaro genituen egun alai haren ordu arinak.

Itzal bat izan zuen egun argitsu hark, goiz-goizetik orori alaitasuna nolabait goibeldu zigun itzala: Isabel. Emakume hau, ardi galdua artegiratua zela jakin zuenean, artegitik irten zen. Nora? Gaztelura? Lasartera? Amezketara? Inork ez zekien zein bide hartu zuen.

AMABIGARREN EZKUTITZA

Arantzazutik 1901-VI-28

Leaburuko Olazarreta aita-semeai
Fr. Gabriel Batizek, O. F. M.

¿Zerk beartu zaituzte, nere adiskide maiteok, guri, bezuzatzat (erregalutzat), onenbeste janari, edari ta errebelar (tabako) eder bidaltzera? Gure lanaren saria or berton gainezka artu genduen. Etše onetako nagusi ta mendekoen gogoz eskerrak upelka ar itzatzute. Esker-erakutsitzat mando batek ekarri-ala izaki zuek guri ¿ta guk papertšo au baizik ezotedegu, zuei eskerrak erakusteko? Gure tširotasunean zerbait egin nai gendukeala, nagusiaren izenean dei au bijoa: garoileko Andre Mariz onera igo zaiteztela.

Leon: zuk emango dezu, gure jairik andien orretan, meza nagusia. Opalorduan (ofertorion) zuk, Medel, eta Azpeitiko gure adiskide Arizpek *Artzainak dei* oyukatu zenezakete. Arizpek beraren kabia utzi ezin badu, Aita Lezaurre gure nagusiak lagun egingo

HAMABIGARREN ESKUTITZA

Arantzazutik 1901-VI-28

Leaburuko Olazarreta aita-semeei
Fr. Gabriel Batizek, O. F. M.

Zerk behartu zaituzte, nire adiskide maiteok, guri, bezuzatzat (erregalutzat), honenbeste janari, edari eta errebelar (tabako) eder bidaltzera? Gure lanaren saria hor berton gainezka hartu genuen. Etxe honetako nagusi eta mendekoen gogoz eskerrak upelka har itzazue. Esker-erakutsitzat mando batek ekarri ahala izaki zuek guri eta guk papertxo hau baizik ez ote dugu, zuei eskerrak erakusteko? Gure txirotasunean zerbait egin nahi genukeela, nagusiaren izenean dei hau bihoa: garoileko Andre Mariz hona igo zaiteztela.

Leon: zuk emango duzu, gure jairik handien horretan, meza nagusia. Opalorduan (ofertorion) zuk, Medel, eta Azpeitiko gure adiskide Arizpek *Artzainak dei* oihuka zenezakete. Arizpek beraren habia utzi ezin badu, aita Lezaurre gure nagusiak lagun egingo

dizu. Ez uste izan, ordea, egun guziotan arresi-artean bizi izango zeratela. Urbia-ra egunen batean tsangotan joan gindezke. Eztezute damu izango gain artara igo izatea. Antse, berriz, jan genezake Californie-razko urdaya.

¿Ezagutzen aldezu, Medel, Hermann-en meza? Bakonde (solo) ederrak ditu. Lenago ere gure Andre Mariz oyukatu izan degu emen. Or ezpadezute, neronek bidaliko dizut Tolosako Santa Klara-ra.

Ez gero, gizonak, gure dei oni ez erantzun egin. Zure ordez, Leon, jai artarako nor jarri ezpadezu, norbait emendisek bidaliko dizugu.

Gaur arratsalde apalean Leaburuko zeinutegi (torre) tsanbelin ori burdinbidetik ikusiko det; eta zuetzaz oroituko naiz. Donostiara noa, andik gaberako Zumaya-ra jotzeko. Pedro gurenaren (santuaren) gorespena egitera naramate. Ernio bitartean ezpalitz, biar, amarrak aldean, Zumayako parrokuaren betaurrekoren batez Leaburuko Alkatea ta bere bost zinegotziak, tsistularia aurretik dutela, Elizara joaten ikusiko nituke.

¿Aita Justo zertan ari dan? Lanean, or egin dituen ikaspideak (dotrinak) apaintzen, amar bat egun barru Ernanira joan-bearrak gera-ta. *Pater Pulvis* da gure Mendiri. An

dizu. Ez uste izan, ordea, egun guziotan harresi artean bizi izango zaretela. Urbiara egunen batean txangotan joan gaitezke. Ez duzue damu izango gain hartara igo izatea. Hantxe, berriz, jan genezake kalifornierazko urdaia.

Ezagutzen al duzu, Medel, Hermannen meza? Bakonde (solo) ederrak ditu. Lehenago ere gure Andre Mariz oihukatu izan dugu hemen. Hor ez baduzue, neronek bidaliko dizut Tolosako Santa Klarara.

Ez gero, gizonak, gure dei honi ez erantzun egin. Zure ordez, Leon, jai hartarako nor jarri ez baduzu, norbait hemendixek bidaliko dizugu.

Gaur arratsalde apalean Leaburuko zeinutegi (dorre) txanbelin hori burdinbidetik ikusiko dut; eta zuetaz oroituko naiz. Donostiara noa, handik gauerako Zumaiara jotzeko. Pedro gurenaren (santuaren) gorespena egitera naramate. Hernio bitartean ez balitz, bihar, hamarrak aldean, Zumaiako parrokoaren betaurrekoren batez Leaburuko alkatea eta bere bost zinegotziak, txistularia aurretik dutela, elizara joaten ikusiko nituzke.

Aita Justo zertan ari den? Lanean, hor egin dituen ikasbideak (dotrinak) apaintzen, hamar bat egun barru Hernanira joan beharrak gara eta. *Pater Pulvis* da gure Mendiri. Han ere esango du

ere esango du «autsa, oinpeko autsa, nornaik zapaltzekoa naizen au». Misiolaguntzat eztet besterik nai. Orrerako neronek eskatu nion A. Probintzialari. Dagokion izena du: Justo. Egokiagarik inork ez. Il dadinean, lurreko arrak ezedodiote soinekorik ere zulatuko. Oski ta guzti (sandalia ta guzti) joango zaigu zerura. Goraintzi andiak eman dizkit beronek. Etŝeko guztiak dute zuek ezagutzeko gogo mina, bizia.

¿Eta Isabel? ¿Artegiratu aldezute?

«hautsa, oinpeko hautsa, nornahik zapaltzekoa naizen hau». Misiolaguntzat ez dut besterik nahi. Horrako neronek eskatu nion A. probintzialari. Dagokion izena du: Justo. Egokiagorik inork ez. Hil dadinean, lurreko harrek ez edo diote soinekorik ere zulatuko. Oski eta guzti (sandalia eta guzti) joango zaigu zerura. Goraintzi handiak eman dizkit beronek. Etxeko guztiek dute zuek ezagutzeko gogo mina, bizia.

Eta Isabel? Artegiratu al duzue?

AMAIRUGARREN EZKUTITZA

Leaburutik 1901-VIII-26

Aita agurgarri Gabriel Batizi
Leon Olazarreta bereterrak.

Berorren adiskide Izagirre apaiz, euskalzale ospetsu ta iztun tsukun gosoak, Andre Mari-aurregunean agertu zanean, berorrek emandako goraintziz ta eskumuñez Aita ta seme oso poztu ginduzen. ¡Berorri guzaz orrenbeste oroitzen dala! Egunik ezalzaigu igarotzen guri, nundik edo andik Aita Batiz ta Justo aipatu gabe. Arantzazun garoileko Andre Mariz oyukatzeko meza, Hermannena, Andre Mari agorrekoz entzunarazi genduen emen. Poz-pozik oyukatuko du or ere Aitak. Gogokoa du Hermann-en musika. «*Benedictus* luzeseago balu, Merkadanterena ere ez ederrago» esan zigun. Ezin paketsuago, ezin zoritsuago da emen daraman bizikera. Goiz batzuetan Ibar-ondoko Zumardira jesten da, Indianoakin tokan jokatzera; beste batzuetan arotz-lanetan ari iza-

HAMAHIRUGARREN ESKUTITZA

Leaburutik 1901-VIII-26

Aita agurgarri Gabriel Batizi
Leon Olazarreta bereterrak

Berorren adiskide Izagirre apaiz, euskaltzale ospetsu eta hiztun txukun goxoak, Andre Mari aurregunean agertu zenean, berorrek emandako goraintziz eta eskumuinez aita eta seme oso poztu gintuen. Berorri guzaz horrenbeste oroitzen dela! Egunik ez ahal zaigu igarotzen guri, nondik edo handik aita Batiz eta Justo aipatu gabe. Arantzazun garoileko Andre Mariz oihukatzeko meza, Hermannena, Andre Mari agorrekoz[184] entzunarazi genuen hemen. Poz-pozik oihukatuko du hor ere aitak. Gogokoa du Hermannen musika. «*Benedictus* luzexeago balu, Merkadanterena ere ez ederrago» esan zigun. Ezin baketsuago, ezin zoritsuago da hemen daraman biziera. Goiz batzuetan ibar ondoko zumardira jaisten da, indianoekin tokan jokatzera; beste batzuetan arotz-lanetan ari

[184] Abuztua.

ten zaigu. Lurrean ere zerbait egiten asi bear omendu. Arratsaldean, neri opor eraginez, ikasgura (eskolara) joan oi da, mutil koskor auei ingeles-apur bat eta kontuak buruan sartzeko asmoz.

—¿Zer da zuria?

—*White.*

—¿Zer da beltza?

—*Black.*

—¿Nola esaten da: arratsalde on?

—*Good evening.*

—¿Nola, egun on?

—*Good morning.*

—Eta ¿gau on?

—*Good night.*

—¿Zeinbat dira *twenty ta twenty?*

—*Forty.*

—¿Euskeraz?

—Berrogei.

—¿Zeinbat dira zortzi ta zazpi?

—Amabost.

—¿Ingelesez?

—*Fifteen.*

—Esan ezazute orain ingelesez auše: «ona da Sacramentora joatea».

—*It is good to go to Sacramento.*

Ortše, Sacramento-aurrean, erortzen dira geyenak. Ta onelaše arratsaldero: mutikoak

izaten zaigu. Lurrean ere zerbait egiten hasi behar omen du. Arratsaldean, niri opor eraginez, ikasgura (eskolara) joan ohi da, mutil koskor hauei ingeles apur bat eta kontuak buruan sartzeko asmoz.

—Zer da zuria?'

—*White*.

—Zer da beltza?

—*Black*.

—Nola esaten da: arratsalde on?

—*Good evening*.

—Nola, egun on?

—*Good morning*.

—Eta gau on?

—*Good night*.

—Zenbat dira *twenty* eta *twenty*?

—*Forty*.

—Euskaraz?

—Berrogei.

—Zenbat dira zortzi eta zazpi?

—Hamabost.

—Ingelesez?

—*Fifteen*.

—Esan ezazue orain ingelesez hauxe: «ona da Sacramentora joatea».

—*It is good to go to Sacramento*.

Hortxe, Sacramento aurrean erortzen dira gehienak. Eta hone-

pozik, bera pozago. Uts gutsien egiten duenari tsanpona ematen dio. Astegunetan onentsoak pelotaka jartzen ditu, bik biri, bera epailari (juez) dala, irabazlêntzat erreal bana aginduz ta emanez.

Bost aldiz ikusi ditut nekazariak, lanari utzita, gure pelotatokitsora urbiltzen, beren semetsoak nola ari diran ikustera etorriak. Ingelesez aldarri egiten ditu aitak *tantoak:*

—*Ten the firts and eleven the others, sirs* (amar eskuak (sakeak), atzeak amaika, jaunak). *Fifteen and twenty, sirs* (amabost eta ogei, jaunak)... eta abar. Parregarria izaten da entzutea: Markos: *Come here* (1). Arberola tsiki: *Play stark, little boy, play stark* (2).

¿Ezotediegu egunen batean nekazariai «aida beyak» ingelesez entzungo?

Andre Mariz meza nagusi-ondoan Izagirre jaunaren itzaldi tsukuna (edo berak, Elizan ari danean, esango lukenez «eztía bezáin gozóa») entzunta gero, lau gizonen artean pelotaldi bat jokatu zuten: Tolosar urezandiko (indianu) batek eta Belauntzako apaizgayak emengo nekazari baten eta nere Aitaren aurka (kontra). Martin Lôntso zuten kontulari ta epailari. Egia esan, pelotariak

(1) Ator onera.
(2) Jokazak gogor, mutiko; jokazak gogor.

laxe arratsaldero: mutikoak pozik, bera pozago. Huts gutxien egiten duenari txanpona ematen dio. Astegunetan onentxoak pilotaka jartzen ditu, bik biri, bera epailari (juez) dela, irabazleenzat erreal bana aginduz eta emanez.

Bost aldiz ikusi ditut nekazariak, lanari utzita, gure pilotatokitxora hurbiltzcn, beren semetxoak nola ari diren ikustera etorriak. Ingelesez aldarri egiten ditu aitak *tantoak*:

—*Ten the firts and eleven the others, sirs* (hamar eskuak (sakeak), atzeak hamaika, jaunak). *Fifteen and twenty, sirs* (hamabost eta hogei, jaunak)... eta abar. Barregarria izaten da entzutea: Markox: *Come here*[185]. Arberola txiki: *Play stark, little boy, play stark*[186].


Ez ote diegu egunen batean nekazariei «aida behiak» ingelesez entzungo?

Andre Mariz meza nagusi ondoan Izagirre jaunaren hitzaldi txukuna (edo berak, elizan ari denean, esango lukeenez «eztía bezáin gozóa») entzun eta gero, lau gizonen artean pilotaldi bat jokatu zuten: tolosar urezandiko (indiano) batek eta Belauntzako apaizgaiak hemengo nekazari baten eta nire aitaren aurka (kontra). Martin Lontxo zuten kontalari eta epailari. Egia esan, pilo-

(185) Hator hona.
(186) Joka ezak gogor, mutiko; joka ezak gogor.

etziran bana-banakoak eta etzan beren leya ikuskizun andia izan.


Baina orduko arteki (episodio) tsiki au uste det gogoz berorrek irakurriko duela.



Elizpean Tolosatiko eskolapio bat eta eguneko iztuna, Calahorran oyulari dan Belauntzako seme bat eta nerau ginan: batean autuan, bestean pelotariak ikusten. Izagirre,

tariak ez ziren bana-banakoak eta ez zen beren lehia ikuskizun handia izan.

Baina orduko arteki (episodio) txiki hau uste dut gogoz berorrek irakurriko duela.



Elizpean Tolosatiko eskolapio bat eta eguneko hiztuna, Calahorran oihulari den Belauntzako seme bat eta nerau ginen: batean autuan, bestean pilotariak ikusten. Izagirre, nonbait ere basetxe

nunbait ere basetsē asmo berrikoren bat edo goratzen ari da-ta, Cataluñiatik oilo beltz batzuk — *Gallinas Prat* — ekartzeko ustean omendabil. Oilo auen arrautzâk nolakoak diran adierazteko, ukabila gora jasoa zedukan, Aitak Martin Lôntsori—i ¿nola gaudek? —galde egin zionean.

Martin Lôntsok, *partidu* andietan bezela, tsapela erantzita, nere aitaren mintzura lodia idurikatuz, ingeles-mordoloz «*tubantipiiiif al pirtiiiii*» (1) aldarri egin zuen.

Parre gozoagorik eztute Leaburuarrak nere egunetan egin.

Arratsaldean aitari Tolosara lagun eginbearra naiz ta berealaṣe atzena emango diot ezkutitz oni.

¿Isabel artegiratu otedegun? Ona eun orren irazkia. Amabostean bein nerau bere igeslekura, Amezketara, joaten izan natzayo. Iru aldiz etseratzeko eginalak egin; ta bera gor. Azkenaldian musututs ta bakar etsea jo nuenean, Leaburuko Aita Medelek,

—Seme, esan zidan: zuek Elizan itz egiteko ¡ori bai! inor ez zuek berdintzekorik. Elizaz atetik (kanpotik) jardunak egiteko, ordea, gu zuen aldean misiolari trebeak gera. Erorrek

(1) *Twenty five and fifteen* esateko edo.

asmo berrikoren bat edo goratzen ari da eta, Kataluniatik oilo beltz batzuk —*Gallinas Prat*— ekartzeko ustean omen dabil. Oilo hauen arrautzak nolakoak diren adierazteko, ukabila gora jasoa zeukan, aitak Martin Lontxori –Hi, nola gaudek?— galde egin zionean.

Martin Lontxok, *partidu* handietan bezala, txapela erantzita, nire aitaren mintzura lodia idurikatuz, ingeles-mordoiloz «*tubantipiiiif al pirtiiiii*»[187] aldarri egin zuen.

Barre gozoagorik ez dute leaburuarrek nire egunetan egin.

Arratsaldean aitari Tolosara lagun egin beharra naiz eta berehalaxe atzena emango diot eskutitz honi.

Isabel artegiratu ote dugun? Hona ehun horren irazkia. Hamabostean behin nerau bere ihes-lekura, Amezketara, joaten izan natzaio. Hiru aldiz etxeratzeko eginahalak egin; eta bera gor. Azkenaldian musu-huts[188] eta bakar etxea jo nuenean, Leaburuko aita Medelek,

—Seme, esan zidan: zuek elizan hitz egiteko hori bai! inor ez zuek berdintzekorik. Elizaz atetik (kanpotik) jardunak egiteko, ordea, gu zuen aldean misiolari trebeak gara. Herorrek ikusiko

(187) *Twenty five and fifteen* esateko edo.
(188) Espero zuena lortu gabe, esku-hutsik.

ikusiko dek zein berera ta poliki Isabel ezkaitz ori neronek ezi ta zurituko dedan. Goakiozen datorren astelenean.

Alperreko arazoa izango zala uste nuen. ¿Zeinek, alabaina, aita bati, batez ere nerealakoari, ezer ukatu? Joan, iritsi, sartu ta berarekin bazkaldu-ondoan, esku bete giltz mai-gainera aterata,—Isabel, esan zion Aitak, gizonok ezkera giltzain izateko jayoak: Etsekoa degula, eztu Jainkoak agintzen beste emakumek giltz auek erabiltzea. Bil ditzagun emen dituzun puskak eta gaberako goazen Leaburura.

Nik eztakit biotz artan, Bilboko Labandietan * sua bezela, gorroto mina aspaldi luzêtan izekia izan duen biotz artan, nola itz oriek sustraitu zitezkean. Gau artatik izeba emen degu beintzat, eta, agi danez, izango ere.

Aita-semeok Arantzazuratea noiz etorriko gogo minez, gutar andiz bizi gera. Gaur zortzi, goizean goiz, emendik orrerako bidea artuko degu. Eresi bat, Arantzazuko Andre Mariarekikoa, apaiz batek oyuki zar tsukun bati ezarria, arestian ikasi det.

Emen entzunez biotza onenbat gozatu didanean ¿zeinbat ezotedit gozatuko, or badantzut? Aldean eramango det.

duk zein berera eta poliki Isabel hezigaitz hori neronek hezi eta zurituko dudan. Goakiozen datorren astelehenean.

Alferreko arazoa izango zela uste nuen. Zeinek, alabaina, aita bati, batez ere nirealakoari, ezer ukatu? Joan, iritsi, sartu eta berarekin bazkaldu ondoan, esku bete giltza mahai gainera aterata, —Isabel, esan zion aitak, gizonok ez gara giltzain izateko jaioak. Etxekoa dugula, ez du Jainkoak agintzen beste emakumek giltza hauek erabiltzea. Bil ditzagun hemen dituzun puskak eta gauerako goazen Leaburura.

Nik ez dakit bihotz hartan, Bilboko Labandietan sua bezala, gorroto mina aspaldi luzeetan izekia[189] izan duen bihotz hartan, nola hitz horiek sustraitu zitezkeen. Gau hartatik izeba hemen dugu behintzat, eta, agi danez, izango ere.


Aita-semeok Arantzazuratzea noiz etorriko gogo minez, gutar[190] handiz bizi gara. Gaur zortzi, goizean goiz, hemendik horrako bidea hartuko dugu. Eresi bat, Arantzazuko Andre Mariarekikoa, apaiz batek oihuki zahar txukun bati ezarria, arestian ikasi dut.

Hemen entzunez bihotza honenbat gozatu didanean zenbat ez ote dit gozatuko, hor badantzut? Aldean eramango dut.

(189) Piztu.
(190) Irrika.


I

Arantzazu-aldean izar bat da ageri,
izar orrek izentzat darakusku Mari;
¿izen gozagorik, ezti ta samurragorik,
entzun otedakioke aingeru-eliari?



I

Arantzazu-aldean izar bat da ageri,
izar horrek izentzat darakusku Mari;
izen gozoagorik, ezti ta samurragorik,
entzun ote dakioke aingeru-eliari[191]?



[191] Taldea.

II

Best(e) izen batek zoli an dagi durundi,
Jesus da izen ori, adituz du zori.
Jesusek eman dio gozo alaitsu au Amari:
goazen Arantzazura eta gauden adi.

¡Arantzazu, Arantzazu! Gain orietatik Andre Mariak, beraren bi seme gartsuren bitartez, maiterik eta oparo bidali zizkigun Leaburuko elizalde onetan bear genituen-argia ta sua.

¿Nola nik ori atzendu? Hebreotarrak Jerusalenez ziotena esan dezaket nik geron Arantzazuz: «Zuzaz ni ântzi banendi, neronen izena ântzia (aztua) izan ditela. Nere mingaina autzetan itsatsi bekit, zuzaz oroit ezpanendi; ta nere gozotasun onetan zure izen ori aurren-aurrena jar ezpadezat» (1).

(1) Si oblitus fuero tui, Jerusalem, oblivioni detur dextera mea. Adhereat lingua mea faucibus meis, si non meminero tui, Jerusalem: si non proposuero Jerusalem in principio loetitiae meae. (Ps. 136).

II

Best(e) izen batek zoli han dagi durundi,
Jesus da izen hori, adituz du zori.
Jesusek eman dio gozo alaitsu hau Amari:
goazen Arantzazura eta gauden adi.

Arantzazu, Arantzazu! Gain horietatik Andre Mariak, beraren bi seme gartsuren bitartez, maiterik eta oparo bidali zizkigun Leaburuko elizalde honetan behar genituen argia eta sua.

Nola nik hori atzendu? Hebrearrek Jerusalemez ziotena esan dezaket nik geron Arantzazuz: «Zuzaz ni ahantzi banendi, neronen izena ahantzia (ahaztua) izan dadila. Nire mingaina ahutzetan[192] itsatsi bekit, zuzaz oroit ez banendi; eta nire gozotasun honetan zure izen hori aurren-aurrena jar ez badezat»[193].

[192] Ahoko barrunbea.
[193] Si oblitus fuero tui, Jerusalem, oblivioni detur dextera mea. Adhereat lingua mea faucibus meis, si non meminero tui, Jerusalem: si non proposuero Jerusalem in principio loetitiae meae. (Ps. 136).

GEIGARRIA (1)

ADATS, cabellera.

AIPU. *Ospe, aipu* ta *omen* «fama»-tzat esaten dira, *entzute* bezela; eztira, ordea, bat. *Ospe* «renombre», *aipu* «mención», *omen* «gloria»: erri-itzak dira.

ALABER, asimismo. Beste izkelgi batzuetako itza da.

ALDAKO USOAK, palomas de paso, Lekeitioko arrantzalên *aldako tsalopak* (lanchas que van de una a otra cala) bezelaše.

APALDU. Aditz au ta beronen antzeko *gosaldu* ta *bazkaldu*, gure aldean egoki erabiltzen dituzte eguzki-aldeko euskaldunak. *Apaldu gaitezen (dezagun*-en ordez), cenemos. *Gosaldu nintzan (nuen* baino egokiago), almorcé. *Bazkal adi (bazkal zak* esan-bearrean), come.

ARANTZ-ONANTZ, ida y vuelta; liter. hacia allá (y) hacia acá. Bizkaiko esakera da.

ARRAINA. Beste izkelgi guztietako *-in*dun itz asko *(artzain, usain, izokin, ipuin, arrain...) n* gabe esan oi dira giputzeraz: *artzai, usai...* Otsiztiz (fonéticamente) legezkoa balitz, *n*-gabetze au beste izkelgietara zabaltzea litzake onena. Lege-

(1) Izardun itzak gutun onen egilearenak dira.

GEHIGARRIA[194]

ADATS[195], cabellera.

AIPU. *Ospe, aipu* eta *omen* «fama»-tzat esaten dira, *entzute* bezala; ez dira, ordea, bat. *Ospe* «renombre», *aipu* «mención», *omen* «gloria»: herri-hitzak dira.

AFALDU. Aditz hau eta beronen antzeko *gosaldu* eta *bazkaldu*, gure aldean egoki erabiltzen dituzte eguzki aldeko euskaldunek. *Afaldu gaitezen* (*dezagun*en ordez), cenemos. *Gosaldu nintzen* (*nuen* baino egokiago), almorcé. *Bazkal hadi* (*bazkal ezak* esan beharrean), come.

ALDAKO USOAK, palomas de paso, Lekeitioko arrantzaleen *aldako txalupak* (lanchas que van de una a otra cala) bezalaxe.

ARRAINA. Beste hizkelgi guztietako -*in*dun hitz asko (*artzain, usain, izokin, ipuin, arrain...*) *n* gabe esan ohi dira gipuzkeraz: *artzai, usai*... Hotsiztiz (fonéticamente) legezkoa balitz, *n*gabetze hau beste hizkelgietara zabaltzea litzateke onena. Legetzat hartu ezin

(194) Izardun hitzak gutun honen egilearenak dira.

(195) Arestiko oin-oharrean Azkuek aipatzen dituen "izardun" hitzak urdinez markatu ditugu. Errepara, bestalde, *gutun* hitza darabilela 'liburua' adierazteko. Ik. GUTUN sarrera hemen bertan.

tzat artu ezin danezkero, sar bitez erdiuneko izkelgian, euskaldun guztien mintzo etorkizunekoan, beste izkelgien otsizti-legeak.

ARRANPALO, erderazko «saliente», frantzesen «en vedette». Pendiz (balcón) naiz ikusgu (mirador) batez esan oi da Arrasaten, Mondragonen.

ARRAT, empeño. *¡Aren arrata!*, ¡qué empeño el suyo! Bizkayerazko itza da.

ARREBATZAKO. Itzez itz *arrebatzakoa* «la tenida por hermana de varón» da; *aizpatzakoa* «la tenida por hermana de hembra»; *anaitzakoa* «el tenido por hermano de varón»; *nebatzakoa* «el tenido por hermano de hembra». Bi lenengoak «cuñada», beste biok «cuñado» esan litezke, orainarte asmaturiko itzak baino egokiago.

ARROZTEGI*. Itzez itz «lugar de huéspedes, forasteros». *Arrozku* ezta onen egokia. *-Egi* ta *-gu* «lugar» dira biak; *-egi* «lugar de seres» izen bati ezartzen zayo; *-gu* «lugar de obrar, de hacer», aditz (verbo) bati. *Jauregi* «palacio, lugar del señor», *arranegi* «pescadería, lugar de peces», *lantegi* «taller, lugar de trabajo» ta *josgu* «sastrería, lugar de coser», *ikasgu* «colegio, lugar de aprender» *(ikastegi* gaizki sortua da); *idasku* «escritorio, lugar de escribir». Norbaitek *ikastola*, *idazkola*... egin ditu. *-Ola* ori «fábrica» da ta ez onetarako egokia. Izenakin egoki biltzen da, aditzakin ez.

HARI, sala. *H* au eztu bear itz bikoitzetan: *etsari* (B-bar), sala (de casa); *atari*, zaguán (sala de la puerta); *elizari* (AN-ae), pórtico (sala del templo).

ARTETSU. Napar batzuen eta bizkaitar askoren *arte* (sosiego)-tik datoz *artega* «intranquilo» ta *artetsu* «tranquilo, sosegado».

denez gero, sar bitez erdiuneko hizkelgian, euskaldun guztien mintzo etorkizunekoan, beste hizkelgien hotsizti-legeak.

ARRANPALO, erdarazko «saliente», frantsesen «en vedette». Pendiz (balcón) nahiz ikusgu (mirador) batez esan ohi da Arrasaten, Mondragonen.

ARRAT, empeño. *Haren arrata!*, ¡qué empeño el suyo! Bizkaierazko hitza da.

ARREBATZAKO. Hitzez hitz *arrebatzakoa* «la tenida por hermana de varón» da; *ahizpatzakoa* «la tenida por hermana de hembra»; *anaitzakoa* «el tenido por hermano de varón»; *nebatzakoa* «el tenido por hermano de hembra». Bi lehenengoak «cuñada», beste biok «cuñado» esan litezke, orain arte asmaturiko hitzak baino egokiago.

ARROZTEGI. Hitzez hitz «lugar de huéspedes, forasteros». *Arrozku* ez da honen egokia. *-Egi* eta *-gu* «lugar» dira biak; *-egi* «lugar de seres» izen bati ezartzen zaio; *-gu* «lugar de obrar, de hacer», aditz (verbo) bati. *Jauregi* «palacio, lugar del señor», *arranegi* «pescadería, lugar de peces», *lantegi* «taller, lugar de trabajo» eta *josgu* «sastrería, lugar de coser», *ikasgu*, «colegio, lugar de aprender» (*ikastegi* gaizki sortua da); *idazku* «escritorio, lugar de escribir». Norbaitek *ikastola*, *idazkola*... egin ditu. *-Ola* hori «fábrica» da eta ez honetarako egokia. Izenekin egoki biltzen da, aditzekin ez.

ARTETSU. Nafar batzuen eta bizkaitar askoren *arte* (sosiego)-tik datoz *artega* «intranquilo» eta *artetsu* «tranquilo, sosegado».

ATONDU, disponer, arreglar. *Bazkalgua atondua zeukaten*, tenían preparado el comedor.

BADAKUSTE, ya lo ven. *Ikusi* aditza bizkaieraz baizik ez dugu orain irabiatzen (konjugatzen). *Dakust, dakusk, dakusn, dakus... nekusen* (nekus*an* bizkaieraz), *gekusen*... veo, ves (h.), ves (muj.), ve... veía, veíamos.

BAINITUEN. Bizkaierazko «modal de conjugación» da esa-

ASIKIN, primicia. Gernika-inguruko itza da.

ATONDU, disponer, arreglar. *Bazkalgua atondua zeukaten*, tenían preparado el comedor.

AZTATU, palpar. Antzina, orain ogei bat gizaldi, ¿gure *pisatu* (erderazko «pesar») otezan?

BADAKUSTE, ya lo ven. *Ikusi* aditza bizkayeraz baizik eztegu orain irabiatzen (konjugatzen). *Dakust, dakusk, dakusn, dakus... nekusen* (nekus*an* bizkayeraz), *gekusen...* veo, ves (h.), ves (muj.), ve... veía, veíamos,

BAINITUEN. Bizkayerazko «modal de conjugación» da esakera tsukun au. Como si yo viniera, *banetor bezela;* como si estuviéramos, *bageunde bezela* erderazko kutsudunak dira; *bainentorren, baigeunden*, euskera utsezkoak. *Ostu izan bainituen* (ez *ostu izan banitu bezela)*, como si yo los hubiera hurtado.

BALDERNA. Lapurtarrak esan oi dute itz au, «barrio» adierazteko. Giputzerazko *balera* erderatikoa bideda.

BALTZUKIDE*, socio. *Baltzu* «sociedad comercial» ta *ide* «compañero» dira itz berri onen iturriak. Lan onen urren argitaratuko dedan Otsiztian (Tratado de fonética-n) ikusi dezake irakurleak zeintzuk eta nolako aldiz erabili oi degun *-k* artizki (epentética) ori.

BARRANDARI, vigía, centinela.

BAT. Itz onek bizkayeraz esakera polit auek eratzen dizkigu. *Bat ez bat*, ninguno; *bat edo bat*, alguno; *bat zein bat*, cualquiera. Erdiko izkelgiari itsatsi bitzaizkio egaletakoen pitsiak.

BAZKALDU. *Etzerate bazkalduko*, «no comeréis». Bidasoatik arako euskaldunen esakera au

kera txukun hau. Como si yo viniera, *banentor bezala*; como si estuviéramos, *bageunde bezala* erdarazko kutsudunak dira; *bainentorren, baikeunden,* euskara hutsezkoak. *Ostu izan bainituen* (ez *ostu izan banitu bezala*), como si yo los hubiera hurtado.

BALDERNA. Lapurtarrek esan ohi dute hitz hau, «barrio» adierazteko. Gipuzkerazko *bailara* erdaratikoa bide da.

BALTZUKIDE, socio. *Baltzu* «sociedad comercial» eta *ide* «compañero» dira hitz berri honen iturriak. Lan honen hurren argitaratuko dudan Hotsiztian (Tratado de fonética-n) ikus dezake irakurleak zeintzuk eta nolako aldiz erabili ohi dugun *-k* artizki (epentética) hori.

BARRANDARI, vigía, centinela.

BARRE-IRRIKOR [PARRIRRIKOR], risueño.

BAT. Hitz honek bizkaieraz esakera polit hauek eratzen dizkigu. *Bat ez bat,* ninguno; *bat edo bat,* alguno; *bat zein bat,* cualquiera. Erdiko hizkelgiari itsatsi bitzaizkio hegaletakoen bitxiak.

BAZKALDU. *Ez zarete bazkalduko,* «no comeréis». Bidasotik harako euskaldunen esakera hau egokiago da gure *ez duzue bazkalduko* baino. (Ikusi AFALDU).

egokiago da gure *eztezute bazkalduko* baino. (Ikusi APALDU.)

BEKOKI, frente. KOPETA erderatiko itza da.

BELUN (B-antzuola), oscuro.

BEREDIN. *Asko* esatea bezelatsu da: *asko* atzetik oitzen degula, aurretik *beredin*. Beste alderik, banatasunik, eztute. *Beredin gizaseme ta emakume* naiz *gizaseme ta emakume asko* bat dira. Bizkaiko egoaldean *berein* esan oi dute. *Beredin* len esaten omenzan Gipuzkoan.

BERERA, cómodo, cómodamente, a sus anchas. Bizkaiko itza. *Nerera*, cómodamente, a mis auchas; *erera*, cómodamente, a tus anchas; *gerera*, cómodamente, a nuestras anchas... ¿noizbait ezotedira esan? *Neure eran, geure eran* erabiltzen ditugu Bizkayeraz.

BERETER. Frantzesak beren *prestre* = *prêtre* esan baino gizaldi osoak aurrerago esaten zuten gure aurretikoak *bereter*, erderazko «sacerdote» adierazteko. Egun ere izkelgi batean agitz esan oi da. (Ikusi bite ele au nere iztegitsoan ta Iztegian.)

BERETERGO, sacerdocio. BERETERTU, ordenar, ordenarse de sacerdote. BERETERTEGI, casa cural, *jauregi* (palacio, casa del señor) bezela. *Bereterburu*, arcipreste. Berezkoak dirudite itz berri auek.

BEZEN, tan como. *Katua elorriadar-artean bezen larri*, «tan apurados como gato entre ramas de espino». (Ikusi geroago ORREN.)

BIDEKATU*, descarrilar.

BITZUK. -tzu «grupo» adierazteko nunnai, edozein izkelgitan, erabili oi degu itz au: *batzuk*, unos, un grupo. Bizkayerazkoak ta erdiko izkelgira sartu

BEKOKI, frente. KOPETA erdaratiko hitza da.

BELUN (B-Antzuola), oscuro.

BEREIN [BEREDIN]. *Asko* esatea bezalatsu da: *asko* atzetik ohitzen dugula, aurretik *beredin*. Beste alderik, banatasunik, ez dute. *Beredin gizaseme eta emakume* nahiz *gizaseme eta emakume asko* bat dira. Bizkaiko hegoaldean *berein* esan ohi dute. *Beredin* lehen esaten omen zen Gipuzkoan.

BERERA, cómodo, cómodamente, a sus anchas. Bizkaiko hitza. *Nirera*, cómodamente, a mis anchas; *herera*, cómodamente, a tus anchas; *gerera*, cómodamente, a nuestras anchas... noizbait ez ote dira esan? *Neure eran*, *geure eran* erabiltzen ditugu bizkaieraz.

BERETER. Frantsesek beren *prestre=prêtre* esan baino gizaldi osoak aurrerago esaten zuten gure aurretikoek *bereter*, erdarazko «sacerdote» adierazteko. Egun ere hizkelgi batean hagitz esan ohi da. (Ikus bedi ele hau nire hiztegitxoan eta Hiztegian).

BERETERGO, sacerdocio. BERETERTU, ordenar, ordenarse de sacerdote. BERETERTEGI, casa cural, *jauregi* (palacio, casa del señor) bezala. *Bereterburu*, arcipreste. Berezkoak dirudite hitz berri hauek.

BEZAIN [BEZEN], tan como. *Katua elorri adar artean bezain larri*, «tan apurados como gato entre ramas de espino». (Ikusi geroago HORREN).

BIDEKATU, descarrilar.

BlTZUK. -tzu «grupo» adierazteko non-nahi, edozein hizkelgitan, erabili ohi dugu hitz hau: *batzuk*, unos, un grupo. Bizkaierazkoak eta erdiko hizkelgira sartu beharrak dira beste hauek:

bearrak dira beste auek: *nortzuk*, *zertzuk*, *zeintzuk*, *zeinbatzuk; bitzuk*, *irutzuk*, *lautzuk*... quiénes, qué cosas, cuáles, cuántos grupos; dos grupos, tres grupos, cuatro grupos..., etc.

DANAK... *bete dituzu*. Gaizki esana. *Guztiak* nai *oro bete dituzu* esan bear da. (Ikusi nere DICCIONARIO DE BOLSILLO-ko 338-garren orrialdean «TODO».)

DANTZUGU. *Entzun* aditza bizkayeraz baizik eztegu gure egun auetan irabiatzen (konjugatzen). *Dantzut*, oigo; *dantzuk*, oyes... Benaparroan *bantzut* esan oi dute, zer dan oso eztakitela: *badantzut*-en laburpena da. (Ikusi nere Iztegi V-E-F.)

DATZA. Erderaz «yace». Euskaldun zarrak guk baino maizago erabili oi zuten itz au. Nere ustez DAGO izaki bizidunez esan bear da; ta DATZA: 1.° bizigabeak adierazteko, 2.° bizidunak, bizigabetuak bezelá diranean. El trigo está ahí, *or da garia*, *or datza garia*. El hombre está en casa, *gizona etzean dago*. ¿Ese hombre está muerto o dormido? *¿Gizon ori ilik ala lo datza?*

¿DEA? *¿Ageri dea? ageri alda* esatea da. (Ikusi nere Iztegian -A sufijo, 2.°). Bizkai ta Gipuzkoan eztegu aspaldion atzizki tasa au erabiltzen. Birrerabiltzea ongi litzake.

DEMONIES PESTÊNA. Leaburuko alkatearen esakera au eztiogu beste inori entzun. Naiz berak asmatua dala, naiz ez, *demonio*-ren bigungarri bat dirudi, beste auek bezelakoa; *demonimesa*, *denganiñaua*.

DIOKETSUT, le diré a usted.

EDIRENGU, índice (p. ej. de obras literarias). *Edirengia* irakurtzen degu Zuberotarren almanake-

nortzuk, zertzuk, zeintzuk, zeinbatzuk; *bitzuk, hirutzuk, lautzuk*... quiénes, qué cosas, cuáles, cuántos grupos; dos grupos, tres grupos, cuatro grupos..., etc.

DENAK [DANAK]... *bete dituzu*. Gaizki esana. *Guztiak* nahi *oro bete dituzu* esan behar da. (Ikusi nire DICCIONARIO DE BOLSILLOko 338. orrialdean «TODO»).

DANTZUGU. *Entzun* aditza bizkaieraz baizik ez dugu gure egun hauetan irabiatzen (konjugatzen). *Dantzut*, oigo; *dantzuk*, oyes... Nafarroa Beherean *bantxut* esan ohi dute, zer den oso ez dakitela: *badantzut*en laburpena da. (Ikusi nire Hiztegi V-E-F).

DATZA. Erdaraz «yace». Euskaldun zaharrek guk baino maizago erabili ohi zuten hitz hau. Nire ustez DAGO izaki bizidunez esan behar da; eta DA'Ł'ZA: 1. bizigabeak adierazteko, 2. bizidunak, bizigabetuak bezala direnean. El trigo está ahí, *hor da garia, hor datza garia*. El hombre está en casa, *gizona etxean dago*. ¿Ese hombre está muerto o dormido? *Gizon hori hilik ala lo datza*?

DEA? *Ageri dea*? *ageri al da* esatea da. (Ikusi nire Hiztegian -A sufijo, 2°). Bizkaia eta Gipuzkoan ez dugu aspaldion atzizki taxa hau erabiltzen. Birrerabiltzea ongi litzateke.

DEMONIMES PESTEENA [DEMONIES PESTEENA]. Leaburuko alkatearen esakera hau ez diogu beste inori entzun. Nahiz berak asmatua dela, nahiz ez, *demonio*ren bigungarri bat dirudi, beste hauek bezalakoa; *demonimesa, denganiñaua*.

DIOKETSUT, le diré a usted.

EDIREN [EDIRO], hallar. *Ediren*, hizkelgi gehiagotakoa baita, aintzat hartu behar genuke.

EDIRENGU, índice (p. ej. de obras literarias). *Edirengia* irakurtzen dugu zuberotarren almanaketan. Honen jatorria, Hiztegia egitorduan, *edirengi* zela uste nuen; *edirengu* da; hitzez hitz «lugar en que se halla»; *esku* «mano»-tik *eskia* «la mano», Zuberoan entzun ohi denez. Hiztegi berean *barazkalgi* (S) comedor ageri da. *Barazkalgia* «el comedor» irakurrita, ez zitzaidan bururatu

tan. Onen jatorria, Iztegia egitorduan, *edirengi* zala uste nuen; *edirengu* da; itzez itz «lugar en que se halla»; *esku* «mano» -tik *eskia* «la mano», Zuberon entzun oi danez. Iztegi berean *barazkalgi* (S) comedor ageri da. *Barazkalgia* «el comedor» irakurrita, etzitzaidan bururatu egiazko itza *barazkalgu* izan zitekeala. *Aurkitu* edo *arkitu* oin dala ezin erderazko «índice» atera diteke. *Arkitu* erderazko «encontrar» da ta «índice» oriek eztira zerbait arkitzekoak «para encontrar», ediretekoak «para hallar» baizik. Bilatu gabe, zerbaitez naiz norbaitez arkitzen gera, topo egiten degu. «Indice» orien bidez eztegu topo egiten, bilatu ta ediren bai. (Ikusi geigarri onetako -GU).

EDIRO, hallar. *Ediren*, izkelgi geyagotakoa baita, aintzat artu bear genduke.

EGINA. *Egiña* esan oi da Gipuzkoa guztian. Beste izkelgietan batzuk *egina*, besteak *eiña;* baztandarrak *ina*... ta abar. *I-n* eztute, ordea, giputzak ere *iñ* itz orotan ebakitzen: *bina*, *seina*, *zazpina*, *bederatzina*... eztira giputzeraz *biña*, *seiña*, *zazpiña*, *bederatziña*. (Irakurri berriz ta berriz gertirudi onen asierako zuzenpenean (dedikatorian) onetaz irakatsi nuena.)

EGUERDIRIAN «cerca del mediodía», *eguerdialdean* bezelakoa da; *arrastirian* ta *arratsaldean* ere bai.

EGUN. Eguzkialdeko euskaldunak besteok baino erazago erabiltzen dute, «hoy» adierazteko, itz au: *egun*, hoy *(egunez); gaur*, hoy *(gabez)*. Guk, naiz eguna dala, naiz gaua dala, *gaur* erabili oi degu. *Egun* egunez ta *gaur* gabez erabiltzea, obe.

EKANDU, costumbre. Latinoen *mos*, frantzesen

egiazko hitza *barazkalgu* izan zitekeela. *Aurkitu* edo *arkitu* oin dela ezin erdarazko «índice» atera daiteke. *Aurkitu* erdarazko «encontrar» da eta «índice» horiek ez dira zerbait aurkitzekoak «para encontrar», ediretekoak «para hallar» baizik. Bilatu gabe, zerbaitez nahiz norbaitez aurkitzen gara, topo egiten dugu. «Índice» horien bidez ez dugu topo egiten, bilatu eta ediren bai. (Ikusi gehigarri honetako -GU).

EGINA. *Egiña* esan ohi da Gipuzkoa guztian. Beste hizkelgietan batzuek *egina*, besteek *eiña*; baztandarrek *ina*... eta abar. *I-n* ez dute, ordea, giputzek ere *iñ* hitz orotan ebakitzen: *bina, seina, zazpina, bederatzina*... ez dira gipuzkeraz *biña, seiña, zazpiña, bederatziña*. (Irakurri berriz eta berriz gertirudi honen hasierako zuzenpenean (dedikatorian) honetaz irakatsi nuena).

EGUERDI-IRIAN [EGUERDIRIAN] «cerca del mediodía», *eguerdi aldean* bezalakoa da; *arrasti-irian* eta *arratsaldean* ere bai.

EGUN. Eguzkialdeko euskaldunek besteok baino errazago erabiltzen dute, «hoy» adierazteko, hitz hau: *egun*, hoy (*egunez*); *gaur*, hoy (*gauez*). Guk, nahiz eguna dela, nahiz gaua dela, *gaur* erabili ohi dugu. *Egun* egunez eta *gaur* gauez erabiltzea, hobe.

EKANDU, costumbre. Latinoen *mos*, frantsesen *moeur* adierazten digu. *Ekandurik* ez dute abereek, *ohikuntzak* (ohiturak) bai. Zabal eta heda bedi bizkaierazko *ekandu* hizkelgi guztietara.

ELEALDI *eta* ELEKETA «conversación». Ez dira, ordea, berdinak. *Autu* baino egokiago eta jatorragotzat dauzkat nahiz bata nahiz bestea.

ELEXUR, lacónico; hitzez hitz, «económico en palabras». *Ele* ez da «lengua» inoiz izan.

ELIZA, iglesia. Ez da ELIZ. ELIZPE «pórtico» *elizape*ren ordez eta ELIZKARIAK «funerales» *elizakariak*en aldiz ohitu arren, jatorrizko hitza ez da *eliz, eliza* da. ITSASO dute jatorritzat *itsaski, itsastxori, itsasbazter* eta beste hitz batzuek; ez *itsas*. Tolosaldean *elizik ederrena, gauzik txikiena, arrebik ez du, gonik ez dut erosi, erreginik*

moeur adierazten digu. *Ekandurik* eztute abereak, *oikuntzak* (oiturak) bai. Zabal ta eda bite Bizkayerazko *ekandu* izkelgi guztietara.

ELEALDI *ta* ELEKETA «conversación». Eztira, ordea, berdinak. *Autu* baino egokiago ta jatorragotzat dauzkat naiz bata naiz bestea.

ELESUR*, lacónico; itzez itz, «económico en palabras». *Ele* ezta «lengua» inoiz izan.

ELIZA, iglesia. Ezta ELIZ. ELIZPE «pórtico» *elizape* ren ordez ta ELIZKARIAK «funerales» *elizakariak*-en aldiz oituarren, jatorrizko itza ezta *eliz; eliza* da. ITSASO dute jatorritzat *itsaski, itsastsori, itsasbazter* ta beste itz batzuk; ez *itsas*. Tolosaldean *elizik ederrena, gauzik tsikiena, arrebik eztu, gonik eztet erosi, erregiñik ikusi banu...* esanarren, «iglesia, cosa, hermana, saya, reina...» eztira *eliz, gauz, arreb, gon, erregin*.

EPAILARI* (epayak ematen dituena), juez.

ERABE TA BILDUR, temor y miedo. Eztira bat. Onela ere, Bizkai ta Gipuzkoan *bildur naiz* «temo ta tengo miedo» adierazteko erabiltzen ditugu; ez erabiltzea, obe.

ERALKI. Dirua *gastatu*-ren ordez iru itz gutsienez ditu gure mintzoak: *eralgi* ta *irazi* bizkayeraz; *tsautu* Naparroan, nonbait. *Eralgi*-k dituen beste zentzunetan *eralki* esan oi da giputzeraz.

ERARRI, grabar. *Urrez erartzeko eguna*, día de grabar con oro. (Zazpigarren ezkutitzean *urez* ezarri dute, *urrez* ezarri-bearrean). Itz berria da *erarri, jarri*-tik artua; *erakutsi, ikusi*-tik eta *eratsi, jatsi*-tik bezela.

ERAUNTSI, tormenta. *Ostots-erauntsi*, tormenta de truenos.

ikusi banu... esan arren, «iglesia, cosa, hermana, saya, reina...» ez dira *eliz, gauz, arreb, gon, erregin*...

EPAILARI (epaiak ematen dituena), juez.

ERALKI. Dirua *gastatu*ren ordez hiru hitz gutxienez ditu gure mintzoak: *eralgi* eta *irazi* bizkaieraz; *xahutu* Nafarroan, nonbait. *Eralgi*k dituen beste zentzunetan *eralki* esan ohi da gipuzkeraz.

ERAUNTSI, tormenta. *Ostots-erauntsi*, tormenta de truenos.

ESPEN. Erdarazko «nota, censura» adierazteko sortu dut. ETSI «tener por, censurar, reputar» du jatorritzat. Hitz bikoitzetan (esaterako, *onespen, gaitzespen*) lehendik ere bazuen euskarak *espen*.

EZAGUN. Gure egunetan *ezagutu* erabiltzen dugu «conocer» adierazteko; *itzartu, itzarriren* ordez; *bialdu, bidali*ren ordez... eta beste berein «pseudo-derivados» bezala.

GAINEAN. *Gaiñean* (batzuek *gañean*) erabiltzen dute. Ikusi gehigarri honetako *egina* eta zuzenpeneko (dedikatoriako) irakaspena.

GALIPORNIA. Gizon ikastegabeen esakera da. Horrelakoen autuan erabil daiteke. Bestela *Kalifornia* esan bedi. *Wassington*, guk ez *W*rik, ez *ss*rik ezta *gt*rik ere izan ez arren, ez dugu *Basinton* idatzi behar. Honetan ere badu indarra harako *Melior est conditio possidentis* itzur (máxima) hark.

GARERDIKOAK, (hombres) en la flor de la edad. GARAKOAK, provectos, machuchos. (Ikusi GARA nire Hiztegian).

GELUNE, estación (de vía férrea). EUSKALZALE zaharrean atera genuen hitz berri hau. Gehiagok erabili darabilten *geldoki* ez da egokia. *Toki* hori legez, Fonetikako legez, ezin *dokitu* liteke.

GENIHARDUELARIK [GIARDUELARIK], estando nosotros (ocupados). Bizkaiko jardun (*dihardut, diharduk*...) zabal eta heda bedi.

GEROENEAN, al fin, al cabo.

ERENEGUNDAMU erenegun-atzetik esatea bezela da. ¿Zer otedegu *-damu* au? Iru-lau itzek daukate (Ikusi nere Iztegi V-E-F).

ESPEN*. Erderazko «nota, censura» adierazteko sortu det. ETSI «tener por, censurar, reputar» du jatorritzat. Itz bikoitzetan (esaterako, *onespen*, *gaitzespen)* lendik ere bazuen euskerak *espen*.

EZAGUN. Gure egunetan *ezagutu* erabiltzen degu «conocer» adierazteko; *itzartu*, *itzarriren* ordez; *bialdu*, *bidali*-ren ordez... ta beste beredin «pseudo-derivados» bezela.

GAINEAN. *Gaiñean* (batzuk *gañean)* erabiltzen dute. Ikusi geigarri onetako *egina* ta zuzenpeneko (dedikatoriako) irakaspena.

GALIPORNIA. Gizon ikastegabên esakera da. Orrelakoen autuan erabili diteke. Bestela *California* esan bite. *Wassington*, guk ez *W*-rik, ez *ss*-rik ezta *gt*-rik ere izan ezarren, eztegu *Basinton* idatsi bear. Onetan ere badu indarra arako *Melior est conditio possidentis* itzur (máxima) ark.

GARERDIKOAK, (hombres) en la flor de la edad. GARAKOAK, provectos, machuchos. (Ikusi GARA nere Iztegian).

GELUNE*, estación (de vía férrea). EUSKALZALE zarrean atera genduen itz berri au. Geyagok erabili darabilten *geldoki* ezta egokia. *Toki* ori legez, Foneticako legez, ezin *dokitu* liteke.

GEROENEAN, al fin, al cabo.

GERTIRUDI*, novela; liter. «imagen de lo sucedido, suceso simulado». Orain ogei bat urtetik idasle batzuk erabili degun itz berri *irakurgai* ezta egokia, «leyenda, objeto de lectura» baita. Bi adiskide ta lankidek onetarako beste bi eman dizkidate:

GERTIRUDI, novela; liter. «imagen de lo sucedido, suceso simulado». Orain hogei bat urtetik idazle batzuek erabili dugun hitz berri *irakurgai* ez da egokia, «leyenda, objeto de lectura» baita. Bi adiskide eta lankidek honetarako beste bi eman dizkidate*: ipuin* eta *poiel*. *Ipuin* «cuento» da; *poiel* nire aspaldiko eta bihotz-bihotzeko Broussain Hazparneko euskalari[196] sakonak aukeratu dit. *Ipoi* (cuento) eta *-ail* (*zurhail, zurpail, orhail*...: Ikusi nire Dicc. V-B-F); *-ail* hori *el* itzuliz eratu du *poiel* gure hitz-sortzailerik zorrotzenak. Nafar askok *iturri turri* bezala, *ipoiel poiel* laburtu du. Nire *gertirudi* baino pozagorik hartuko nituzke bai *ipuin*, bai *poiel* nahiz beste edozein; baina ez naute betetzen. Hizkeltzaingoak erabaki dezala. Behin-behinean bihoa *gertirudi*. Gure egunetan maiz irakurtzen dugun hitz berri *edesti*, «historia» adierazteko egokia balitz, EDESTITZAKO(a) erabiliko nuke erdarazko «novela»-tzat.

GIZAKI. «Ser humano, persona» bezala hizkelgi batzuetan esaten da. *Izaki eta gizaki*, cosas y personas.

GIZUREN, héroe; lit. «hombre principal».

GOGOKIZUN (B-nab), intención.

GOIAK GORA, sube que sube, remontando alturas.

GORAINTZI. Gipuzkeraz *eskumiñak, eskumuñak* esan ohi da. Ez dira bat. *Goraintzi* «recuerdos, encomiendas, memorias» da; *eskumuñ* «besamanos». (*Eskumiñ* ez genuke erabili behar). Beste hizkelgiak duena sar bekio ororentzat hartu dugun hizkelgiari.

-GU. Hiztegiko hirugarren -GU aditzei (a los verbos) dagokie, -EGI (maizenik *-tegi*) izenei bezala. *Ikastegi, apaltegi, idaztegi*...

---

[196] Nafarroako hirixka batean ikusi nuen *euskalari, euskaldun* edo euskara dakien bat adierazteko. Hitz taxa txanbelin hori "vascólogo, euskerálogo"-ren zentzunera berez hedatzen dela uste dut. *Euskaltzale* "vascófilo, euskeráfilo" baizik ez da. *Euskaldun* «vascofante, que habla vascuence».

ipuin ta *poiel*. *Ipuin* «cuento» da; *poiel* nere aspaldiko ta biotz-biotzeko Broussain Hasparren-go euskalari (1) sakonak aukeratu dit. *Ipoi* (cuento) ta *-ail (zurhail, zurpail, orhail...:* Ikusi nere Dicc. V-E-F); *-ail* ori *el* itzuliz eratu du *poiel* gure itz-sortzailerik zorrotzenak. Napar askok *iturri turri* bezela, *ipoiel poiel* laburtu du. Nere *gertirudi* baino pozagorik artuko nituke bai *ipuin*, bai *poiel*, naiz beste edozein; baina enaute betetzen. Izkelzaingoak erabaki dezala. Bein-beinean bijoa *gertirudi*. Gure egunetan maiz irakurtzen degun itz berri *edesti*, «historia» adierazteko egokia balitz, EDESTITZAKO(a) erabiliko nuke erderazko «novela» tzat.

GIARDUELARIK, estando nosotros (ocupados). Bizkaiko *jardun (diardut, diarduk...)* zabal ta eda bite.

GIZAKI. «Ser humano, persona» bezela izkelgi batzuetan esaten da. *Izaki ta gizaki*, cosas y personas.

GIZUREN*, héroe; lit. «hombre principal».

GOGOKIZUN (B-nab), intención.

GOYAK GORA, sube que sube, remontando alturas.

GORAINTZI. Gipuzkoeraz *eskumiñak*, *eskumuñak* esan oi da. Eztira bat. *Goraintzi* «recuerdos, encomiendas, memorias» da; *eskumuñ* «besamanos». *(Eskumiñ* ezkenduke erabili bear). Beste izkelgiak duena sar bekio ororentzat artu degun izkelgiari.

---

(1) Naparroako uriska batean ikasi nuen *euskalari, euskaldun* edo euskera dakien bat adierazteko. Itz taŝa tŝanbelin ori «vascólogo, euskerálogo» -ren zentzunera berez edatzen dala uste det. *Euskalzale* «vascófilo, euskeráfilo» baizik ezta. *Euskaldun* «vascofante, que habla vascuence».

gaizki eratuak dira. Hiztegian aipaturiko hitzez gainera hona hemen -GUdun hitz berri batzuk: *bazkalgu*, comedor (zuberotarrek aspaldion sortu zuten *barazkalgu*); EDIRENGU (zuberotarrena), índice (de obras de lectura); *idazku*, escritorio (*idatzi*ren *t* kentzeak *-gu*ren ordez *-ku* eskatzen du); *ikasgu*, colegio; *ikusgu*, mirador; *mintzagu*, locutorio; *sorosku* (*sorots* + *gu*, observatorio). ARROZTEGI azaltzean gehitxoago irakatsi nuen.

GURARI, deseo.

GUREN, santo. Bizkaierazko hitz zaharra. (Ikusi nire Hiztegi V-B-F).

GURKALARI, GURKARI, ceremonioso. *Patxikoren gurkalaria!*, ¡qué ceremonioso estuvo Francisco!

GUTUN. Erdarazko «libro» bezala esan ohi zuten euskaltzale zahar askok. (Ikus bedi *Dicc. V-E-F.*, 372. orrialdean).

GUZTIAZ. *Biriken indar guztiaz*, con toda la fuerza de los pulmones. Askok *indar guztiarekin* esan ohi dute: gaizki esana. Gizaki eta izaki bizidunei dagokie -KIN hau: *Aitarekin*, «en compañía del padre, con el padre».

GUZTIONTZAT. *Zure lankide guztiontzat*, para todos (nosotros) sus colegas. *Guztientza*t esatea gutxi esatea da. *Danontzat* esatea, gaizki esatea. (Ikusi nire Hiztegi txikian «TODO»).

HALABER, asimismo. Beste hizkelgi batzuetako hitza da.

HARANTZ-HONANTZ, ida y vuelta; liter. hacia allá (y) hacia acá. Bizkaiko esakera da.

HARI[197], sala. *H* hau ez du behar hitz bikoitzetan: *etsari* (B-bar), sala (de casa); *atari*, zaguán (sala de la puerta); *elizari* (AN-ae), pórtico (sala del templo).

HASIKIN, primicia. Gernika inguruko hitza da.

[197] H letra duela jatorrizkoan.

-GU. Iztegiko irugarren -GU aditzai (a los verbos) dagokie, -EGI (maizenik *-tegi)* izenai bezela. *Ikastegi*, *apaltegi*, *idastegi*... gaizki eratuak dira. Iztegian aipaturiko itzez gainera ona emen -GUdun itz berri batzuk: *bazkalgu*, comedor (Zuberotarrak aspaldion sortu zuten *barazkalgu);* EDIRENGU (Zuberotarrena), índice (de obras de lectura); *idasku*, escritorio *(idatsi*-ren *t* kentzeak *-gu*-ren ordez *-ku* eskatzen du); *ikasgu*, colegio; *ikusgu*, mirador; *mintzagu*, locutorio; *sorosku (sorots* + *gu*, observatorio. ARROZTEGI azaltzean geitsoago irakatsi nuen.

GURARI, deseo.

GUREN, santo. Bizkayerazko itz zarra. (Ikusi nere Iztegi V-E-F.)

GURKALARI, GURKARI*, ceremonioso. *¡Patsikoren gurkalaria!*, ¡qué ceremonioso estuvo Francisco!

GUTUN. Erderazko «libro» bezala esan oi zuten euskalzale zar askok. (Ikusi bite *Dicc. V-E-F.*, 372-garren orrialdean).

GUZTIAZ. *Biriken indar guztiaz*, con toda la fuerza de los pulmones. Askok *indar guztiarekin* esan oi dute: gaizki esana. Gizaki ta izaki bizidunai dagokie -KIN au: *Aitarekin*, «en compañía del padre, con el padre».

GUZTIONTZAT. *Zure lankide guztiontzat*, para todos (nosotros) sus colegas. *Guztientzat* esatea gutsi esatea da. *Danontzat* esatea, gaizki esatea. (Ikusi nere Iztegi tsikian «TODO»).

HURA. H ori berezkarritzat darabilgu: *ura* «el agua», *hura* «aquel».

JATURA, comilona. Ernani-aldeko itza da. *-ura*,

HAZTATU, palpar. Antzina, orain hogei bat gizaldi, gure *pisatu* (erdarazko «pesar») ote zen?

HERABE ETA BELDUR, temor y miedo. Ez dira bat. Honela ere, Bizkaia eta Gipuzkoan *beldur naiz*: «temo eta tengo miedo» adierazteko erabiltzen ditugu; ez erabiltzea, hobe.

HERENEGUNDAMU herenegun atzetik esatea bezala da. Zer ote dugu -*damu* hau? Hiru-lau hitzek daukate (Ikusi nire Hiztegi V-E-F).

HISTU [UXTU], velocidad.

HIZKI, letra. Arana-Goirik egindako hitz berria.

HIZKIN, desinencia.

HORREN. -*En* atzizkiak (el sufijo) gutxienez sei zentzu ditu. Seirak nire Hiztegi handienean ikus daitezke. Hango laugarrena du hitz honetan eta beronen aurreko batzuetan. *Lan horr̲en luze neketsuak* «trabajos tan largos, fatigosos (como esos)». *Hon̲en gazte tolesgabea* «joven tan sencillo (como este)». *Zein ona!* (jatorriz *zeen ona*) «cuán bueno»; hitzez hitz «qué tan bueno». *Hain handia* (jatorriz *aen handia*) "tan grande (como aquel)". *Hura zaldiz bezain erraz* «tan fácilmente como aquel a caballo». *Bezen* jatorrizkoaren ordez *bezain, baizen, bezin, bekin, bikain* hizkelgi batzuetan esan ohi dira. Zergatik ezarri diogu marratxo bat *hon̲en* eta *horr̲eni* azpiko aldean? Bereizteko, ezagutarazteko. *Honen seme ona* «el buen hijo de este»; *hon̲en seme ona* «hijo tan bueno». *Horren etxe handia* "la casa grande de ese". *Horr̲en etxe handia* «casa tan grande». Euskarazko hitz batzuen atzena beherago esaten dugu. *Goikoa etorri da*; *goiko̲ak etorri dira*. *Goikoa*ren hiru hizkiak (silabas) *donu* berdinean esan ohi ditugu euskaldun gehienok, zuberotarrek eta nafar batzuek ez. *Goikoak*: hiru hizki hauetatik lehenengo biak doinu berdinean, hirugarrena (azkena) beherago. Nire Hiztegi handienean beheratasun hau, azken hizkia beherago jarriz adierazi nuen: *goiko*$_{ak}$, *goi*$_{tik}$... Egokiago dirudi, behar denean, *goiko̲ak*, *goit̲ik*... agertzea.

HOTSEZTI, melodía. Hitz berria. Norena?

-tura ori latinetik artu omendu euskerak. Dana dala, azkenki orrezazko itzak ugari ta zarrak ditugu.

JAUZI TA ZAPART, salto y brinco. Bizkayerazko *jausi* «caerse» noizbait «saltar» edozan, orain ere nunbait *jauzi* oriše baita.

IKASGU*, colegio; itzez itz «lugar en que se aprende». (Ikusi -GU).

IKASLEZARO, época de estudiante.

IPURÑAUSKA, dando corcovos.

IRRIMIRRIKA*, chanceándose, en lenguaje jocoso.

IZANTZ*, retrato.

IZKI, letra. Arana-Goirik egindako itz berria.

IZKIN*, desinencia.

KONERKA, diagonalmente.

KORDOKA, oscilación. *Burua kordokan erabili*, mover la cabeza de un lado a otro.

LABANDIETA*, (lugar de) Altos Hornos.

LANDA. *Batzuez landan*, fuera de algunos, excepto algunos.

LAURDENEGUN, trasanteayer; itzez itz «cuarto día».

LEKURATU, ausentarse. Berez «colocarse» dala dirudi.

LENGUSINA. Gipuzkoeraz *lengusu* «primo» naiz «prima» da; bizkayeraz *lengusu* «primo»; *lengusina* «prima». Edatu (zabaldu) bite itz au beste izkelgietara. Edapen au *kusina* erdalitza dalako, beintzat dirudielako, bidezkoa eztala norbaitek esan baleza, *lengusu* ere ezkenduke erabili bear izango, *kusu* ta *kusina* ore batezkoak baitira.

MAILAZOTZ, porciones de prado comunal. Usa

HURA[198]. H hori bereizgarritzat darabilgu: *ura* «el agua», hura «aquel».

IKASGU, colegio; hitzez hitz «lugar en que se aprende». (Ikusi -GU).

IKASLEZARO, época de estudiante.

IPURÑAUSKA, dando corcovos.

IRARRI [ERARRI], grabar. *Urrez irartzeko eguna*, día de grabar con oro. (Zazpigarren eskutitzean *urez* ezarri dute, *urrez* ezarri beharrean). Hitz berria da *erarri, jarri*tik hartua; *erakutsi, ikusi*tik eta *eratsi, jaitsi*tik bezala.

IRRIMIRRIKA, chanceándose, en lenguaje jocoso.

IZANTZ, retrato.

JATURA, comilona. Hernani aldeko hitza da. *-ura, -tura* hori latinetik hartu omen du euskarak. Dena dela, azkenki horrezazko hitzak ugari eta zaharrak ditugu.

JAUZI ETA ZAPART, salto y brinco. Bizkaierazko *jausi* «caerse» noizbait «saltar» edo zen, orain ere nonbait *jauzi* horixe baita.

KONERKA, diagonalmente.

KORDOKA, oscilación. *Burua kordokan erabili*, mover la cabeza de un lado a otro.

LABANDIETA, (lugar de) Altos Hornos.

LANDA. *Batzuez landan*, fuera de algunos, excepto algunos.

[198] H letra duela jatorrizkoan.

batek kortak (erderaz «seles») bezela, mailoak mailazotzak ditu. Amezketan entzun nuen itz au ere.

MAILO. Iztegian «prado»-tzat erakutsi nuen. Amezketan «prado comunal» da, Bizkayan «monte comunal, egido» *usa* danez.

MAIZKATU* repetir.

MAMINA. Erderazko «cuajada» adierazteko *mamia* esan liteke; «baina meollo, parte carnosa»-ren zentzunean obe da, beste izkelgietan bezela, *mamina* erabiltzea. (Ikusi bite Geigarri onetan, ARRAINA).

MEDEL. San Medel-en izeneko baseliza bat Azkoitiko lurrean ezagutzen degu. Erderazko Emeterio-ren ordez esan oi zuten Medel euskaldun zarrak. ¿Itz jatorra ala erderatikoa oteda?

MEZULARI, mensajero. Erderatikoa dirudi. *Mandatari* erderatikoa da.

MÎNDUN, provisto de lengua. *Mindun*, dolorido.

MUGAKIDE, fronterizos.

MUTUR-OKER, TOTA ta JUJU, «aguardiente» adierazteko itzak. Baditu gure erriak besteren bat edo batzuk ere: *kaŧalin gorri*, *amantalpeko*... *Petrolio* ere erabili zuten noizbait Lekeitioko atso beterre batzuk, Azparren-aldean iru edo lau atso edarizalek, beste inork ez ulertzeko, kafeari *akeŧa* izentzat ezarri zioten bezela. Zinez edo benetan baino irrimirrika (erderazko «en lenguaje jocoso») erabiltzeko egokiago dirudite itz auek.

NEBA (Bizkaierazko itza), hermano de mujer. Izkera osoan zabal bite.

NIRAUTSAN, yo se lo decía. Bizkayerazko itz ederra. IRAUTSI aditzaren irabiamena (conjugación) noranai zabaldu bear genduke. *Dirautsat*, se lo digo; *dirautsagu*, se lo decimos.

LAURDENEGUN, trasanteayer; hitzez hitz «cuarto día».

LEHENGUSINA. Gipuzkeraz *lehengusu*; «primo» nahiz «prima» da; bizkaieraz *lehengusu* «primo»; *lehengusina* «prima». Hedatu (zabaldu) bedi hitz hau beste hizkelgietara. Hedapen hau *kusina* erdal hitza delako, behintzat dirudielako, bidezkoa ez dela norbaitek esan baleza, *lehengusu* ere ez genuke erabili behar izango, *kusu* eta *kusina* ore batezkoak baitira.

LEKURATU, ausentarse. Berez «colocarse» dela dirudi.

MAILAZOTZ, porciones de prado comunal. Usa batek kortak (erdaraz «seles») bezala, mailoak mailazotzak ditu. Amezketan entzun nuen hitz hau ere.

MAILO. Hiztegian «prado»-tzat erakutsi nuen. Amezketan «prado comunal» da, Bizkaian «monte comunal, egido» *usa* denez.

MAIZKATU repetir.

MAMIA [MAMINA]. Erdarazko «cuajada» adierazteko *mamia* esan liteke; «baina meollo, parte carnosa»-ren zentzuan hobe da, beste hizkelgietan bezala, *mamina* erabiltzea. (Ikus bedi Gehigarri honetan, ARRAINA).

MEDEL. San Medelen izeneko baseliza bat Azkoitiko lurrean ezagutzen dugu. Erdarazko Emeterioren ordez esan ohi zuten Medel euskaldun zaharrek. Hitz jatorra ala erdaratikoa ote da?

MEZULARI, mensajero. Erdaratikoa dirudi. *Mandatari* erda-

NORBAITZUK, algunos; plural de *norbait*, alguien. (Ikusi BITZUK).

ÑIR-ÑIR. *Begiak pozez ñir-ñir zituela*, con los ojos relucientes de regocijo.

OBOKI, circular (de forma). *Obo*, círculo.

OYUKATU*, OYU EGIN*, cantar. (Ikusi bigarren itz au nere Iztegi tsikian). OYULARI*, cantor. OYUTEGI*, coro, tribuna de cantores.

ONEDATSI, bendecir. ¿Duvoisin-ek sorturiko itza oteda?

ONERETSI, amar. ONERESPEN*, amor, caridad. ONERETSI gure egun auetan gutsitan entzun oi degulako, erderazko «caridad» adierazteko *maitasun* baino egokiago dirudi *onerespen*-ek.

ORATU, agarrar. *Eldu* ere esaten da; baina itz au, beste zentzun batzuk ere baditu-ta, ezta *oratu* bezen egokia.

ORO, OROK, todos.

ORREN. *-En* atzizkinak (el sufijo) gutsienez sei zentzun ditu. Seirak nere Iztegi andienean ikusi ditezke. Ango laugarrena du itz onetan eta beronen aurreko batzuetan. *Lan orren luze neketsuak* «trabajos tan largos, fatigosos (como esos)». *Onen gazte tolesgabea* «joven tan sencillo (como este)». *¡Zein ona!* (jatorriz *zeen ona)* «cuán bueno»; itzez itz «qué tan bueno». *Ain andia* (jatorriz *aen andia)* «tan grande (como aquel)». *Hura zaldiz bezen erraz* «tan fácilmente como aquel a caballo». *Bezen* jatorrizkoaren ordez *bezain*, *baizen*, *bezin*, *bekin*, *bikain* izkelgi batzuetan esan oi dira. ¿Zergatik ezarri diogu marratso bat *onen* ta *orren*-i azpiko aldean? Berezteko, ezaguterazteko. *Onen seme ona* «el buen hijo de este»; *onen seme ona* «hijo tan

ratikoa da.

MIHIDUN [MIINDUN], provisto de lengua. *Mindun,* dolorido.

MUGAKIDE, fronterizos.

MUTTUR-OKER, TTOTTA eta JUJU, «aguardiente» adierazteko hitzak. Baditu gure herriak besteren bat edo batzuk ere: *kattalin gorri, amantalpeko... Petrolio* ere erabili zuten noizbait Lekeitioko atso beterre batzuek, Hazparne aldean hiru edo lau atso edarizalek, beste inork ez ulertzeko, kafeari *akeita* izentzat ezarri zioten bezala. Zinez edo benetan baino irrimirrika (erdarazko «en lenguaje jocoso») erabiltzeko egokiago dirudite hitz hauek.

NEBA (Bizkaierazko hitza), hermano de mujer. Hizkera osoan zabal bedi.

NIRAUTSAN, yo se lo decía. Bizkaierazko hitz ederra; IRAUTSI aditzaren irabiamena (conjugación) noranahi zabaldu behar genuke. *Dirautsat,* se lo digo; *dirautsagu,* se lo decimos.

NORBAITZUK, algunos; plural de *norbait,* alguien. (Ikusi BITZUK).

ÑIR-ÑIR. *Begiak pozez ñir-ñir zituela,* con los ojos relucientes de regocijo.

OBOKI, circular (de forma). *Obo,* círculo.

OIHUKAT'U, OIHU EGIN, cantar. (Ikusi bigarren hitz hau nire Hiztegi txikian). OIHULARI, cantor. OIHUTEGI, coro, tribuna de cantores.

ONEDATSI, bendecir. Duvoisinek sorturiko hitza ote da?

bueno». *Orren etše andia* «la casa grande de ese». *Orren etše andia* «casa tan grande». Euskerazko itz batzuen atzena bêrago esaten degu. *Goikoa etorri da; goikoak etorri dira.* *Goikoa*-ren iru izkiak (sílabas) *donu* berdinean esan oi ditugu euskaldun geyenok, zuberotarrak eta napar batzuk ez. *Goikoak:* iru izki auetatik lenengo biak donu berdinean, irugarrena (azkena) bêrago. Nere Iztegi andienean bêratasun au, azkenizkia bêrago jarriz, adierazi nuen: $goiko_{ak}$, goi_{tik} .... Egokiago dirudi, bear danean, *goikoak*, *goitik*... agertzea.

ORRIPEKO, fandango.

OSTE. *Ostean* ta *atzean* eztira bat. *Orma-atzean* dana agerian izan liteke; *orma-ostean* dagoena, ezkutuan dago.

OTSEZTI, melodía. Itz berria. ¿Norena?

PARRIRRIKOR, risueño.

SORKIDE*, compatriota.

TŠINGARRA TA BAT, lo mismo que la brasa. Esakeratšo onen laburpen bat dirudi: *tšingarra ta* (aren musua) *bat* ziran. *Andres ta biok* jarriko gera = *Andres ta* (ni :) *biok*...

TUTU, diminuto. *Etše tutu*, casuca.

UDALETŠE, ayuntamiento.

ULERTU, entender, comprender. *Aditu* «atender» ezta besterik.

UREN, principal. *Mai urenaz konerka*, diagonalmente (respecto) de la mesa principal.

UREZANDIK, en Ultramar; liter. «en la otra parte del agua». Bizkayeraz *Urezandi* ere esan oi da; ta bada edo badira izen au duten etšeak ere.

UREZANDIKO, indiano, ultramarino.

ONERETSI[199], amar. ONERESPEN, amor, caridad. ONERETSI gure egun hauetan gutxitan entzun ohi dugulako, erdarazko «caridad» adierazteko *maitasun* baino egokiago dirudi *onerespen*ek.

ORATU, agarrar. *Heldu* ere esaten da; baina hitz hau, beste zentzun batzuk ere baditu eta, ez da *oratu* bezain egokia.

ORO, OROK, todos.

ORRIPEKO, fandango.

OSTE. *Ostean* eta *atzean* ez dira bat. *Horma-atzean* dena agerian izan liteke; *horma-ostean* dagoena, ezkutuan dago.

SORKIDE, compatriota.

TXINGARRA ETA BAT, lo mismo que la brasa. Esakeratxo honen laburpen bat dirudi: *txingarra eta* (haren musua) *bat* ziren. *Andres eta biok* jarriko gara = *Andres eta* (ni:) *biok*...

TUTU, diminuto. *Etxe tutu*, casuca.

UDALETXE, ayuntamiento.

ULERTU, entender, comprender. *Aditu* «atender» ezta besterik.

UREN, principal. *Mahai urenaz konerka*, diagonalmente (respecto) de la mesa principal.

UREZANDIK, en Ultramar; liter. «en la otra parte del agua». Bizkaieraz *Urezandi* ere esan ohi da; eta bada edo badira izen hau duten etxeak ere.

UREZANDIKO, indiano, ultramarino.

[199] OEHk "oneretsi"-tik "oniritzi"-ra igortzen du. Azkuek ez du aditza erabili, *onerespen* izena baizik.

URLIA, BERENDIA TA ZANDIA (Bizkaiko itzak), fulano, zutano y mengano.

UŠTU, velocidad.

ZALANTZA-MALANTZAN, en duda.

ZAUTA, (B-m: etš) banquete. ZAUTAKIDE*, asistente... ZAUTALARI*, aficionado a banquetes.

ZEINTZUK, cuáles. (Ikusi BITZUK).

ZEINUKETA, campaneo.

ZÊKATU*, describir.


ZETZAN (B), yacía.

ZINKURIN, (AN, BN, L), queja.

ZIRAUSTAN (B), me lo decía.

ZUBITUA. *Sudur zubitua*, nariz aguileña, en forma de puente.

ZUKU, sopa. *Zuku-lorrean*, acarreando sopa. Urkietako zauta bezelako batez mintzatuzkero, itz au esan diteke; bestela *zuku-banatzen* «repartiendo sopa» esatea egokiago dirudi.



URLIA, BERENDIA ETA ZANDIA (Bizkaiko hitzak), fulano, zutano y mengano.

XEHAKATU [ZEHEKATU], describir.

ZALANTZA-MALANTZAN, en duda.

ZAUTA, (B-m: etx) banquete. ZAUTAKIDE, asistente... ZAUTALARI, aficionado a banquetes.

ZEINTZUK, cuáles. (Ikusi BITZUK).

ZEINUKETA, campaneo.


ZETZAN (B), yacía.

ZINKURIN, (AN, BN, L), queja.

ZIRAUSTAN (B), me lo decía.

ZUBITUA. *Sudur zubitua,* nariz aguileña, en forma de puente.

ZUKU, sopa. *Zuku-lorrean,* acarreando sopa. Urkietako zauta bezalako batez mintzatuz gero, hitz hau esan daiteke; bestela *zuku-banatzen* «repartiendo sopa» esatea egokiago dirudi.



EDIRENGUA*

Orrialdeak

Ene adiskide maite ta bereterkide gartsu: J. J. Arin ta J. M. Zuazti-ri . v
Irakurleari IX
LENENGO EZKUTITZA. Adrian beretarrari Medelek 1
Ezkutitz galduak. Diru-opaka. ¡California! Leaburu-Hotel. ¡Ebangelioa! Izerdi emea ta antzua. Gizon erdiak.

BIGARREN EZKUTITZA. Medel-i Adrian bereterrak. 9
Leon latin-ikasle. Isabel Lasarten. Adrian bereterraren asmoak. Leaburuko oikuntza zar bat. Medelen berri-eraskinak. Martin Lôntsō ta eguzkitan erreriko ogiak. Katu-arrainak.

IRUGARREN EZKUTITZA. Leon-i Aitak (Medelek). 17
Leonen izantza. Ingeles-izkera. Medelen burubideak eta esku-zabaltasuna. Mister Stephenson. Zergatik joan zan Medel Ca-

EDIRENGUA

Orrialdeak

Ene adiskide maite eta bereterkide gartsu: J. J. Arin eta J. M. Zuaztiri 53
Irakurleari 59

LEHENENGO ESKUTITZA. Adrian bereterrari Medelek 61
Eskutitz galduak. Diru-opaka. Kalifornia! Leaburu Hotel Ebanjelioa! Izerdi emea eta antzua. Gizon erdiak.

BIGARREN ESKUTITZA. Medeli Adrian bereterrak 75
Leon latin-ikasle. Isabel Lasarten. Adrian bereterraren asmoak. Leaburuko ohikuntza zahar bat. Medelen berrieranskinak. Martin Lontxo eta eguzkitan erreriko ogiak. Katu-arrainak.

HIRUGARREN ESKUTITZA. Leoni Aitak (Medelek) 89
Leonen izantza. Ingeles-hizkera. Medelen burubideak eta

Orrialdeak

liforniara. *Benturako* umea. *Beatak* zer diran. Leonen bigarren aita.

LAUGARREN EZKUTITZA. Sor Santa Katalinari Isabelek. 23

Zuketan itz zergatik. Medel gora, Medel bêra. Aberatsa otedan. Medelen emayak. Leon oporregunetan. Medelen ezkutitza Isabelen begietan. Eraskin garratzak. San Mister. Ken, Ken.

BOSKARREN EZKUTITZA. Medel-i Adrian bereterrak. 29

I

«Dirua emen da». Leonen bizikera. Adrianek soineko berriz musua gorri. Leaburuarren irudimena. Bereterra ta Izurraingo mutsurdina. Gezurrolak Leaburun. Leaburuko Alkate ta zinegotziak.

II

Udaletsean jarrialdia. Elgoyen ta Elbarrentarrak. Tsalburu zurruteroak. Venecia ta Leaburuko *Erreplubika*. Iturri berria, *kamioa* ta kaleak. Sorginbidea: zzzzzist. Amerikako aberastasunak. Erabakia.

SEIGARREN EZKUTITZA. Sor Santa Katalinari Isabelek. 43

esku-zabaltasuna. Mister Stephenson. Zergatik joan zen Medel Kaliforniara. *Benturako* umea. *Beatak* zer diren. Leonen bigarren aita.

LAUGARREN ESKUTITZA. Sor Santa Katalinari Isabelek 99

Zuketan hitz zergatik. Medel gora, Medel behera. Aberatsa ote den. Medelen emaiak. Leon opor egunetan. Medelen eskutitza Isabelen begietan. Eranskin garratzak. San Mister. Ken, Ken.

BOSGARREN ESKUTITZA. Medeli Adrian bereterrak 111

I

«Dirua hemen da». Leonen bizikera. Adrianek soineko berriz musua gorri. Leaburuarren irudimena. Bereterra eta Izurraingo mutxurdina. Gezurrolak Leaburura. Leaburuko alkate eta zinegotziak.

II

Udaletxean jarrialdia. Elgoien eta elbarrentarrak. Txalburu zurruteroak. Venezia eta Leaburuko *Erreplubika*. Iturri berria, *kamioa* eta kaleak. Sorginbidea: zzzzzist. Amerikako aberastasunak. Erabakia.

SEIGARREN ESKUTITZA. Sor Santa Katalinari Isabelek 137

Larunbat gurenez. Erregosiak. Zeinutegi berria. Lenengo zeinuketa. Mayean. Adrian esku-zabala. Mauka-mauka. Apaizak gogamentsu ta iīunsko. Bazkaldarren jakin-naya. Ote, ote, ote. Leonen ezkutitza. Adrianen biagoa. «¿Orain ere logale?» Isabel kirikatzen. Adrianen langelan. Medel ezkongai. Mari Zirzil besterikoa. Langelatik zugaztira.

ZAZPIGARREN EZKUTITZA. *Ecos del Urumea*-ren zuzentzaileari *Vasco de Gaintza-k*. 55

I

Hotel de Embajadores-en Vasco de Gaintza ta baserritar *gentleman*. Medelen eztayondoa. Tolosarabidean. Bidezti ta ingurukoak. *Time is money*. Tsalburuak parrez. Urkietako bazkaltegia. Patsiko ta neskame-morroyak. Leaburuar epegabeak zuzmurtsu. «Or dira». Zeinu ta suziriak. Bideztiak beretertegian.

II

Mai urena. Tsistu-tuntunketa. Bazkaria. Baserritarren errikoitasuna. Sokadantza. Zaragi zarra. Bi *Amerikanoak*. ¡¡Gora Leaburu!! *As the others, Alice*. Tsiro gabeko erria. Agurraldia. Ulises, Solon, Diogenes ta Medel. *Long life*.

Orrialdeak

Larunbat gurenez. Erregosiak. Zeinutegi berria. Lehenengo zeinuketa. Mahaian. Adrian eskuzabala. Mauka-mauka. Apaizak gogamentsu eta ilunxko. Bazkaldarren jakinnahia. Ote, ote, ote. Leonen eskutitza. Adrianen biaoa. «Orain ere logale?» Isabel kirikatzen. Adrianen langelan. Medel ezkongai. Mari Zirzil besterikoa. Langelatik zuhaiztira.

ZAZPIGARREN ESKUTITZA. *Ecos del Urumea*ren zuzentzaileari *Vasco de Gaintza*k 161

I

*Hotel de Embajadores*en Vasco de Gaintza eta baserritar *gentleman*. Medelen ezteiondoa. Tolosara bidean. Bidezti eta ingurukoak. *Time is money*. Txalburuak barrez. Urkietako bazkaltegia. Patxiko eta neskame-morroiak. Leaburuar epegabeak susmurtsu. «Hor dira». Zeinu eta suziriak. Bideztiak beretertegian.

II

Mahai urena. Txistu-ttunttunketa. Bazkaria. Baserritarren herrikoitasuna. Sokadantza. Zahagi zaharra. Bi *Amerikanoak*. Gora Leaburu! *As the others, Alice*. Txiro gabeko herria. Agurraldia. Ulises, Solon, Diogenes eta Medel. *Long life*.

Orrialdeak

ZORTZIGARREN EZKUTITZA. Azpeitiko bereterburuari Lasarteko kapelauak. 75

Leonen meza berria. Tarrat. Don Leon Olazarreta. Itzaldia erderaz. Okendo ta pozgarrizko Andre Maria. *Inveni portum. Madre:* Euskalerrian euskeraz. *Kalamatrika* logarriak. «Alice il zait: erruki nizaz». ¡Ari ere errespontsua!

BEDERATZIGARREN EZKUTITZA. Medeli Azpeitiko bereterburuak 87

Adrian Iriondo isuria. Amezketarren odola. Leon Arabara. Betijai oyuka. Sasi-apaiza. *Condesa de Burunda.* Leon Leaburura. Igaz 59, aurten 74 urte. Betijairen bi *pronostiku.* «Atso zarraren atorra zarra».

AMARGARREN EZKUTITZA. Arizpe jaunari Belauntzako parrokuak 99

Leon, osaba il zanean baino ere, atsekabetuago. Atsegina zan Leaburura joatea. Zurrumurruak. Apaizaren aita ¿kristau ona oteda? Burubidea: *Bonum ex integra causa.* Leon aitaren elizburu. Seme «enauk inoiz *komediante* izan».

AMAIKAGARREN EZKUTITZA. Aita Mendiri misiolariaren eraskinak (comentarios). Misioak Leaburun 107

Orrialdeak

ZORTZIGARREN ESKUTITZA. Azpeitiko bereter-buruari Lasarteko kapilauak. 201
Leonen meza berria. Tarrat. Don Leon Olazarreta. Hitzaldia erdaraz. Okendo eta pozgarrizko Andre Maria. *Inveni portum. Madre:* Euskal Herrian euskaraz. *Kalamatrika* logarriak. «Alice hil zait: erruki nizaz». Hari ere errespontsua!

BEDERATZIGARREN ESKUTITZA. Medeli Azpeitiko bereterburuak 223
Adrian Iriondo isuria. Amezketarren odola. Leon Arabara. Betijai oihuka. Sasi-apaiza. *Condesa de Burunda*. Leon Leaburura. Iaz 59, aurten 74 urte. Betijairen bi *pronostiko*. «Atso zaharraren atorra zaharra».

HAMARGARREN ESKUTITZA. Arizpe jaunari Belauntzako parrokoak 247
Leon, osaba hil zenean baino ere, atsekabetuago. Atsegina zen Leaburura joatea. Zurrumurruak. Apaizaren aita kristau ona ote da? Burubidea: *Bonum ex integra causa*. Leon aitaren elizburu. Seme «ez nauk inoiz komediante izan».

HAMAIKAGARREN ESKUTITZA. Aita Mendiri misiolariaren eranskinak (comentarios). Misioak Leaburun 261

Orrialdeak

I

«Atoz pekataria». Medel oyuka. Apalaurreko autua. *Artzainak dei ta ardia arengandik igesi.* Lenengo aparia. Acapulco-n euskerazko eguberri-kantatsoa.

II

Egunak joan, egunak etorri. *¡O Jesus argi neri!* Aita-semeak negarrez. *Know nothing.* «Deslai» ta «garbai». Californieraz urdaya. Itzulpide-zantzu gabe. «¡Ni *misio* bat emateko, autsa naizen au!»

III

Otoitzez eta baruz. «Aita, alperrik ari dira. ¡Au itzuli!» Azken-kartutsoa. Itzaldi eredua. Justo ere ez: Justo. Azken-deya. Arrizko irudia. Maikideak estu ta larri. Medel apaltzaka. Gaur *gloriarik* ez. ¿Biar *alleluya?*

IV

Lorik ez. Nerau errudun. Ordua da. Aitortegi-inguruan. «¡Ardi galdua!» *Alleluya, Alleluya, Alleluya.*

V

Ustegabeko elizkizuna. Maiko itzontziak. *Calle de San Bartolomé.* Londresko kaleak eta Amezketako bakarra. Itzal bat.

Orrialdeak

I

«Atoz pekataria». Medel oihuka. Afalaurreko autua. *Artzainak dei eta ardia harengandik ihesi*. Lehenengo afaria. Acapulcon euskarazko eguberri-kantatxoa.

II

Egunak joan, egunak etorri. *O Jesus argi niri!* Aita-semeak negarrez. *Know nothing*. «Deslai» eta «garbai». Kalifornieraz urdaia. Itzulbide-zantzu gabe. «Ni *misio* bat emateko hautsa naizen hau!».

III

Otoitzez eta barauz. «Aita, alferrik ari dira. Hau itzuli!» Azken kartutxoa. Hitzaldi eredua. Justo ere ez: Juxto. Azken deia. Harrizko irudia. Mahaikideak estu eta larri. Medel afaltzeke. Gaur *gloriarik* ez. Bihar *alleluia*?

IV

Lorik ez. Nerau errudun. Ordua da. Aitortegi inguruan. «Ardi galdua!» *Alleluia, Alleluia, Alleluia*.

V

Ustegabeko elizkizuna. Mahaiko hitzontziak. *Calle de San Bartolomé*. Londresko kaleak eta Amezketako bakarra. Itzal bat.

Orrialdeak

AMABIGARREN EZKUTITZA. Olazarreta aitasemeai Aita Batizek 133
Esker-erakutsiak. Arantzazurako deya. Zumayako betaurrekoak. *Pater Pulvis*. ¿Eta Isabel?

AMAIRUGARREN EZKUTITZA. Aita Batizi Leonek. 137
Goraintzi pozgarriak. Medelen bizikera. ¿Zer da zuria? *White*. Markos: *Come here*. «Eztía bezáin, gozóa». Bik biri pelotaka. *Tubantipiiiif al pirtiiii*. Isabel artegian. Arantzazu ta Jerusalen.

GEIGARRIA 145

LAUS DEO

Orrialdeak

HAMABIGARREN ESKUT'ITZA. Olazarreta aita-semeei Aita Batizek 313
Esker-erakutsiak. Arantzazurako deia. Zumaiako betaurrekoak. *Pater Pulvis*. Eta Isabel?

HAMAHIRUGARREN ESKUTITZA. Aita Batizi Leonek 319
Goraintzi pozgarriak. Medelen bizikera. Zer da *zuria*? *White*. Markox: *Come here*. «Eztía bezáin, gozóa». Bik biri pilotaka. *Tubantipiiiif al pirtiiii*. Isabel artegian. Arantzazu eta Jerusalem.

GEHIGARRIA 335

LAUS DEO